Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Bermeo

Aurkibidea

Udalerria: Bermeo

Sarrera

Bizkaiko kostaldeko udalerria da, Busturialdeko herri nagusietakoa. Herriguneaz gain auzo hauek daude Bermeon: Arane, Agirre, San Miguel, San Andres, Almika, Artika, Demiku, Arranotegi, Mañu eta Gibelortzaga (San Pelaio). Matxitxako lurmuturra, Hego Euskal Herrian iparralderen dagoen puntua, Bermeon dago. Bermeoren ekonomia arrantzaren inguruko sektorean oinarritzen da, arrain-kontserbagintzan gehienbat. Nekazaritza sektoreari dagokionez, lurralde menditsuaren eraginez, landutako lurrak, nekazaritzarako lurren % 4,9a beteten dute; berau da baserri gehien dituen Bizkaiko herria. Mendebaleko euskararen aldaera bat da herriko euskalkia. *Argazkia: Wikipedia (Andy Roberts)*

- **Biztanleak**: 17.104
- **Euskaldunak**: %71,7

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **83**
- Zintak: **125**
- Pasarteak: **1.415**
- Transkribatutakoak: **141**
- Audioak: **152**
- Bideoak: **1.187**

Proiektuak

- Bermeoko ahotsak
- Bermeoko kanta zaharrak
- Dialektologia-EHU
- Diasporako Ahotsak
- Fondo partikularrak
- IRALEren Bizkaiera Bilduma
- Itsasoa ulertzen. Itsasotik ikasten
- Lan eta jai
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen

- Tximintx euskara elkartea
- UEU Udako Euskal Unibertsitatea

Hizlariak

Juan Abaroa Maiz (1938)

1938. urtean jaio zen Mañu auzoko Joseandiane baserrian ("Joseandidxene", "Irezabaleta" eta "Sakristauena" izenez ezaguna). Bere familiakoak izan dira urtez luzez Mañuko sakristauak, eta Juan bera ere lan horretan ibilitakoa da, 63 urtez izan zen meza-laguntzaile eta sakristau. Beti aritu izan da baserriko lanetan eta oso ondo ezagutzen du bizimodu hori. Emaztea San Pelaiokoa du. Baserriko kontuei buruzko elkarrizketa Bitorio Sasiain auzotarrarekin batera egin zitzaion.

Pauli Aginaga Santa Marina (1932)

Enseñanza kalean jaio zen 1932. urtean. Gurasoak ere bermeotarrak izan zituen. Umetan karmeldarren ikastetxera joan zen eta 13 urtegaz Bilbora joan zen neskame lanetan hasteko, baina arin bueltatu zen etxera. Gerora arrain-fabrikan aritu zen. Bere lagun Mari Erezumarekin batera egin genion grabazio hau.

Teodora Alboniga-Menor Barrena (1931)

1931. urtean jaio zen bere abizen bereko baserrian, Almika auzoko Almikatxun. Gurasoak ere Almikakoak zituen: aita bertakoa eta ama Motzenekoa. Lau neba-arreba izan ziren: bi neba, bere ahizpa bikia eta bera. Umetan Almikako eta Bermeoko Portaleko eskola publikoan ibili zen. Fonsea botikakoen etxean neskame lanetan ibili zen gaztetan. Artikako Fandangoneko baserri-errotako Txomin Hormaetxearekin ezkondu zen. Ezkontzerakoan, senarraren jaiotetxera joan ziren, baina handik urte gutxira bueltatu ziren Almikara. Lau seme-alaba izan zituzten. Almikatxun taberna eta jatetxea zabaldu zuten duela 40 urte inguru.

Julian Alegria Uriarte *Landabaso* (1924-2015)

Almikako Agirretxun jaio zen. Ama San Pelaiokoa zuen eta aita Arane auzoko Landabasokoa. 5-6 urte zituela Nardiz kalera etorri ziren. Anjelitaren eskolan, fraideetan eta Ojedaren gau-eskoletan ibili zen. Umetan drogeria batean aritu zen laguntzen. Aita errepublikazlea zuen eta gerran ebakuatuta alde egin behar izan zuen. Oso ondo gogoratzen ditu gerrako kontuak. 14 urte zituela itsasoan hasi zen soldadutzara arte. Marinako Almirante Cerveran ibili ostean, herrira bueltatu eta harakin lanetan hasi zen. Beti ibili izan da tratulari eta harakin beharretan eta lanbide horri buruzko kontu guztiak kontatu zizkigun.

Luzia Altonaga Zallo (1925-2020)

Gaztelu inguruko Santa Eufemia kalean jaio eta hazi zen arrantzari zuzen-zuzenean lotutako familia batean. Gurasoak ere Gaztelukoak zituen, aita arrantzalea eta ama neskatila, eta sei neba-arrebatatik gazteena izan zen. Bere gurasoek baporea izateaz gain, Lamerako Gazte-leku taberna-sagardotegia ere izan zuten. Gerran 3 neba frontean izan zituen eta bera Elantxobera joan zen gainerakoekin. Gazterik utzi zuen karmeldarrek ikastetxea saregin lanetan hasteko portuan. Familiako Zallo lantegian ere aritu zen lanean.

Loren Anasagasti Larrabaster (1932-2019)

Demiku auzoko Fradu "Padru" baserrian jaio, hazi eta bizitakoa. Aita bertakoa zuen eta ama Ezkiaga baserrikoa. Bizi ziren 5 neba-arrebatatik zaharrena eta mutil bakarra zen. 22-23 urte zituela, Fradu zaharreko ortuan eraiki zuten etxe berria eta ordudanik bertan bizi izan da familia. Frantziskotarren eskolan ibili zen umetan, baina baserriko lanak zirela-eta gutxi joan ei zen. 28 urtetatik 31ra arte Washingtonen (AEB) egon zen artzain. Umetan lagunekin hatxetan eta hamarratzetan (olagarrotan) pasatakoak gogoratu ditu. Etxean txakolina eta sagardoa egiten zuten eta gerrako bizipenak ere gogo-gogoan ditu. Horretaz gain, beti aritu izan da baserriko beharretan.

Begoña Arana Bengoetxea *Argiñeneku* (1922-2017)

1922. urtean jaio zen Auste Kantalen, Aroztegi kalean. 10 neba-arrebatatik gazteena izan zen. Aita bertakoa zuen, arrantzalea, eta ama umetan Ibarrangelutik etorritakoa. Umetan mojen ikastetxean ibili zen. Amak zapata-denda izan zuen, "Argiñeneku". 23 hilabetez aita preso izan zuten. Bere ahizpa Pilarregaz batera egin genion elkarrizketa. Argazkian ezkerrekoa da Begoña.

Pilar Arana Bengoetxea *Argiñeneku* (1911)

1911. urtean jaio zen Auste Kantalen, Aroztegi kalean, 10 neba-arrebako familia batean. Aita bertakoa zuen, arrantzalea, eta ama umetan Ibarrangelutik etorritakoa. Umetan mojen ikastetxean ibili zen. Amak zapata-denda izan zuen, "Argiñeneku", eta umetatik ibili zen bertan lanean. 23 hilebetez aita preso izan zuten. Bere ahizpa gazteenagaz batera, Begoñagaz, egin genion elkarrizketa 100 urte betetzeko zegoela. Argazkian, eskumakoa da Pilar.

Pilar Araukua Andikoetxea (1933)

Talakoetxean jaio zen. Gurasoak ere bermeotarrak zituen, itsasoagaz lotura zuzena zutenak. "Kansion" ezizena familiako baporetik jaso zuen. 7 neba-arrebatatik alaba bakarra izan zen eta umetatik lagundu behar izan zuen etxean. Denboraldi luze batez, Deustun (Bilbo) egon zen izeko baten etxean bizitzen. Aita itsasgizona zuen eta Gerra Zibilean Bilboko Larrinagako kaltzelan egon zen bertako preso militarrak zaintzen. Elantxobeko gizon bategaz ezkondu zen eta 22 urte zituela bertara joan zen; hala ere, gero berriro ere jaioterrira bueltatu zen. Bere lehengusina Mari "Kansion"ekin batera egin genion elkarrizketa.

Jesus Arkotxa Mendiluze (1922-2016)

1922. urtean jaio zen Andra Maria kalean. Aita Donostian jaiotako arotza zen, eta bere ama bere aitaren familiak uritik ekarritako umea; hori dela-eta bere gurasoak Bermeon neba-arreba bezala hazitakoak izan ziren. Hiru neba-arrebatatik zaharrena izan zen Jesus. Bermeoko etxe eta familia desberdinetan hazi zen, aita Ameriketan eta ama Bilbon izan zituelako. Umetan "Hermano"en eskolan eta eskola publikoan ibili zen. Hamahiru urterekin aitaren enpresan, hasi zen beharrean, 'Astilleros de Arrien y compañia'n, gerora 'Astilleros de Arkotxa' eta 'Astilleros Jesus Arkotxa' izango zena, eta bertan erretiratu zen ontziolako arotz hau. 16 urte bete orduko San Andres batailoira joan zen boteak eta trintxerak egiten eta sukaldari bezala: Miravallesen, Otxandion, Markinan... 16 urte bete zituen egunean preso hartu zuten eta 3 hilabetez egon zen kartzelan. Bermeoko Juanita Zulueta rekin ezkondu zen. Elkarrizketa bere emaztearekin eta honen ahizparekin batera egin zitzaion.

Maria Artetxe Valle (1924)

1924an jaio zen Goiko plazan eta gerora Baztarre ibiltokian bizi izan zen. Gurasoak ere bermeotarrak zituen, ama Almikabidekoa. 6 neba-arrebatatik bigarrena izan zen. Aita arotza zuen eta ama Mungiara joaten zen arraina saltzera. Umetan, Josefinetara joan zen eskolara; hala ere, erdara gutxi egiten zutela dio. Doktrina euskaraz ikasi zuen Santa Eufemian. Ama gazterik hil zitzaion eta 16 urtegaz neskame joan behar izan zuen Gasteizera, eta hamar urtez egon zen bertan: 7 urtez San Antonio kaleko militar baten etxean eta 3 urtez Dato Kalean. Bermeora itzuli zenean, beste bermeotar bategaz ezkondu zen. Portuko beharretan ere ibilitakoa da, lantegietatik otzarak eta kaxak batzen eta baporeetatik salmenta-lekuetara arraina eramaten, besteak beste.

Jesus Astiazaran Bilbao (1924)

Agirre auzoko Errotatxu baserrian jaio, hazi eta bizi izandakoa da Jesus. Ama bertakoa zuen eta aita Zuluetatxu baserrian jaioa. Aitaren aldeko aitona, Alkizatik etorritakoa zen. Hermanoen ikastetxera joan zen 7 urtetatik 11 urtera arte; hala ere, eskolan hasi orduko ikasi zuen irakurtzen egunero irakurtzen baitzuen egunkaria. Gerra Zibilean, frontea hurre-hurre izan zuten eta orduan gertatutakoak ondo gogoratzen ditu: auzoan lurperatu zituzten hainbat soldadu italiar, 19 egunez etxetik kanpo egon ziren, auzoko 37 gazte boluntario joan ziren... Bere aitaginarreba Axpen (Busturia) fusilatu zituzten 5 gizonetako bat izan zen. Erlezaintza, sagardogintza, aitonagandik ikasitako erremedioak, inguruetako pizti eta animaliak... izan ditu berbagai, besteak beste. Urte askoan animali zein pertsonei txertoak jartzen ibilitakoa da, sasoi hartan praktikantea ez baitzen baserrietara joaten. Bermeoko baserritarren kooperatibako presidente eta 17 urtez Agirreko auzo-alkatea izan da.

Inozenzio Astorkiza Zigarreta (1920-2012)

Mañu auzoko Oiangorta "Oidxorta" baserrian jaio, hazi eta bizi izandakoa. Ama meñakarra zuen eta aita bertakoa, bere jaiotetxe berekoa. Zortzo neba-arrebatatik seik egin zuten aurrera eta bera laugarrena izan zen. Gerrako kontuak oso ondo gogoratzen ditu hurbiletik bizi izan baitzuen eta baita parte hartu ere: Asturiasera ebakuatuta joan ostean, aitagaz batera langile-batailoi batera eraman zuten zortzi hilabetetarako lubakiak (trintxerak) egitera; etxera bueltatu eta "La quinta del biberón" deiturikoakaz batera Teruel aldera joan behar izan zen nazionalekin, instrukzioa Iruñean ikasi ostean. Guztira sei urte egin zituen soldadu. Basoko lanak izan zituen ogibide erretiratu zen arte eta Mañuko lehen autoetako bat berea izan zen, lanerako behar zuen-eta.

Justo Astui Imatz (1922)

1922an jaio zen Talakoetxe kalean. Gurasoak baserritarrak zituen: ama San Pelaiokoa eta aita Almikakoa. Amak portuko neskatila legez egiten zuen lan eta aita baxurako makinista zen. 5 senidetatik laugarrena da. Jaio eta segidan Santanderrera joan ziren bizitzera aitak eta osabak baporea zutelako han. Errepublikak irten zuenean, berak 10 urte zituela, herrira bueltatu ziren, Talakoetxera. 13 urterekin portuko tailer batean hasi zen lanean astean 2 pezeta irabaziz; bertan zebilela, ELA sindikatuan zegoen eta gerra sasoian karneta erre zioten. Hiru urte eta gero, gerra amaituta, "Edurne" ontzian hasi zen sugin (fogonero) eta ostean, "Jauna emon egizu"n. Emaztearen familiaren "San Juan de la Cruz" motordun baporean hasi zen makinista bezala patroi postura helduz. Itsasoarekin lotuta egon da betidanik, 6 titulu ezberdin ditu. Dakarrera 3 bider joandakoa da, lehenengo aldiz 1957-58ko kanpainan joan zen eta 6 hilabete igaro zituzten bertan. Zerbitzu militarrean ere marinan egon zen, Espainiako armadako itsasontzi handienean "Crucero Canarias"en. Hiru seme-alabaren aita da. BRM-009/010 grabazioetan bere koinatu Rikardo Garcia Benguriarekin batera agertzen da gerrari buruz berbetan. BRM-011/012 grabazioetan, ostera, arrantzako bizimoduari buruz dihardu. Arrantzale familiakoa, bermeotarra eta traina-konpontzailea zen Juanita Etxebarriarekin ezkondu zen.

Aingeru Astui Zarraga (1958)

Merkataritza-ontzietan (pasaiariontziak, zamaontziak, petroliontziak, bulckcarrierak) zubiko-ofiziala, lanbidez. Museologia ikasketak ere egin zituen eta 1983tik Bermeoko Arrantzaleen Museoaren zuzendaria da.

Mari Azkarate Araukua *Kansion* (1924)

Frantzunatxetan jaio arren, bi urte zituela Aurrekoetxeara joan ziren eta bertan bizi izan da beti. "Kansion" ezizena familiako baporetik jaso zuen. Umetatik ikasi behar izan zuen gogor behar egiten: 11 neba-arrebatatik 5en egin zuten aurrera; ama aña (inudea) eta neskatila zuen eta Marik 10 urte zituela ito zen Mundaka parean; aita, arrantzalea, handik 7 urtetara hil zen. Gerra Zibilean, familia banatuta egon zen eta bera osaba-izekoekin egon zen etxean zituzten gudariekin batera; ahizpa Frantzian izan zuen eta neba itsas armadan. 19 urte zituela, "Casa del niño"n hasi zen beharrean eta hantxe aritu zen ezkondu arte. Bere lehengusina Pilar Araukua "Kansion"egaz batera egin genion elkarrizketa.

Katalin Bengoa Madariaga (1917-2023)

1917. urteko Santa Katalina egunean jaio zen Ibarrangeluko Arriederran. Ama bertakoa zuen eta aita Legutiokoa. 13 neba-arrebatatik laugarrena izan zenez, gaztetatik hasi behar izan zen beharrean. Eskola utzi ostean, Ibarrangeluko taberna batean ibili zen lanean Eibarreko familia batengana joan aurretik. 16 urtegaz Bermeoko Mokoneko aldatzera joan zen neskame eta ez zen gehiago bere herrira bueltatu. Soledad 'Tutu'k lagunduta kontatu zizkigun antzinako bizipenak.

Kontxa Bengoetxea Santiago (1923-2014)

Portu aldeko Frantzuene etxean jaio zen 1923. urtean. Gerora Ertzilla kalean eta Baztarren ere bizi izan zen. Gurasoak ere bermeotarrak zituen eta 11 neba-arrebatatik neska bakarra izan zen. Aita eta neba denak arrantzaleak zituen, familiako enbarkazioan aritutakoak batik bat. 1912. urteko abuztuko enbata ezagunean, bere familiako 17 kide desagertu ziren, bere aitita eta osaba tartean. Eskolara oso gutxi joan zen, gaixotasun bat tarteko. Oso ondo gogoratzen ditu gerra garaiko kontuak eta bizipenak.

Bermeoko kanta zaharrak

17 abestik osatzen duten grabazioa.

Bermeoko kanta zaharrak 01

"Bermeoko kanta zaharrak" bildumako 1. grabazioa. Kantaria: "Alai"

Bermeoko kanta zaharrak 02

"Bermeoko kanta zaharrak" bildumako 2. grabazioa. Kantaria: Begoña Pagai

Bermeoko kanta zaharrak 03

"Bermeoko kanta zaharrak" bildumako 3. grabazioa. Kantaria: "Errekarte". Gitarraren soinuak laguntzen ditu kantok.

Bermeoko kanta zaharrak 04

"Bermeoko kanta zaharrak" bildumako 4. grabazioa.
"Etxeko komunen"

Bermeoko kanta zaharrak 05

"Bermeoko kanta zaharrak" bildumako 5. grabazioa.
Kantaria: G.A.R.A.I.N. taldea

Bermeoko kanta zaharrak 06

"Bermeoko kanta zaharrak" bildumako 6. grabazioa.
Kantaria: "KA-PA"

Bermeoko kanta zaharrak 07

"Bermeoko kanta zaharrak" bildumako 7. grabazioa.
Kantaria: "Kiku"

Bermeoko kanta zaharrak 08

"Bermeoko kanta zaharrak" bildumako 8. grabazioa.
Kantaria: Maria Zulueta

Bermeoko kanta zaharrak 09

"Bermeoko kanta zaharrak" bildumako 9. grabazioa.
Kantaria(k): "Moño andijenekuek"

Bermeoko kanta zaharrak 10

"Bermeoko kanta zaharrak" bildumako 10. grabazioa.
Kantaria: "Mosa"

Bermeoko kanta zaharrak 11

"Bermeoko kanta zaharrak" bildumako 11. grabazioa.
Kantaria: "Nikez"

Bermeoko kanta zaharrak 12

"Bermeoko kanta zaharrak" bildumako 12. grabazioa.
Kantaria(k): "Torronteruko txarrapatariak"

Begoña Bilbao Aberasturi (1931)

San Migel auzoan jaio eta hazitakoa da Begoña. Aita ere bertakoa zuen eta ama Almikatxukoa. Bi ahizpen artean zaharrena izan zen; hori dela-eta denetariko lanetan aritu zen ume-umetatik, betiere baserriko beharretan. Bere aita 40 urtez San Migeleko auzo-alkatea izan zen, historiako azkena. Auzo bereko Torre baserrira ezkondu zen eta bi alaba izan zituen.

Pedro Bilbao Sakona (1923)

Gidor Bilbao Telletxea (1965)

UEUko UZTARO aldizkariko zuzendaria da, UPV/EHUko Ikasketa Klasikoetako irakaslea eta Euskaltzain urgazlea da.

Jose Luis Corrales Begoña (1934)

Aita Bilbokoa zuen, iturgina, eta ama Bermeokoa, etxekoandrea. Lanbidez latorrigilea (ojalateroa). Maria Lourdes emaztearekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Maria Luisa De Dios Telleria

Bermeon jaio eta bizitakoa da. Gazterik hasi zen jostun lanetan, aitaren heriotzak hartara behartuta. 1940an sastre ofizioa zuen bilbotarrarekin ezkondu zen.

Mari Erezuma Elorriaga (1921-2012)

Meñakako Goitxi baserrian jaio zen, baina hiru urte eta erdi zituela Bermeoko San Migel auzoko Torre baserrira etorri ziren. Ama Meñakako Amentzakoa zuen eta aita Arrietakoa. Bederatzi neba-arrebatatik zortzigarrena izan zen. Ume-umetatik hasi zen beharrean, 7 urtegaz neskame lanetan hasi baitzen. 11 urterekin karmeldarren ikastetxera joan zen, baina 12 urterekin berriro joan zenez neskame lanetan, utzi egin behar izan zuen eskola. Baserriko lanetan aritzeaz gain hainbat lanetan ere ibili izan da: Gaubeka inprimategian, itsasontzi norvegiar batean garbiketa kontuez arduratzen, Gibele baserriko tabernan eta jatetxean... 50 urte zituela joan zen bere senarraren etxera, Arane auzoko Gibelera, bertan jarri baitzuetan taberna eta jatetxea. Bere lagun Pauli Aginagarekin batera egin genion elkarrizketa.

Mari Esteban Erkoreka (1928-2019)

Artika auzokoa, amaren auzo berekoa; aita, ostera, gernikarra zuen. Gernikako Ocho de Enero kalean hazi zen, baina bonbardaketan ezer barik gelditu eta Bermeora joan ziren, Intxausti kalera. Bonbardaketako kontuak oso ondo gogoratzen ditu, ereinotz baten azpian babestu zireneko. Eskolan Gernikan ibili ostean, Bermeoko Portaleko herri-eskolan ibili zen. Bere aita nabigatzailea izan zen, eta etxean jornal finkoa izateak asko lagundu zien. Sekula ez zuen etxetik kanpo lanik egiteko beharrik izan.

Jesus Gangoiti Asla *Batelerue* (1935)

1935. urtean jaio zen Gaztelun, baina Artalden hazi zen. Gurasoak ere bermeotarrak zituen: ama Artikako baserritarra eta aitaren familia portu aldekoak. Gazte-gaztetatik hasi zen itsasoko beharretan lebatzale hau. Soldadutza garaian, marinan, Madrilen egon zen eta Espainiako erregearekin batera egon zen harentzako sukaldari-lanak eginez. BER-033/034 grabazioetan Jose Anton Renteriarekin batera azaltzen da.

Rikardo Garcia Benguria (1919-2012)

1919. urtean jaio zen Intxausti kaleko 25. zenbakian. Gurasoak ere bermeotarrak zituen: ama baserritarra eta aita kaletarra. Umetan eskola nazionaletara joan zen. Gazterik hasi zen itsasoko lanetan, eta urte luzez patroi izandakoa da. Gerra hasi zenean, Bermeo ebakuatzerakoan Bilboko portura joan ziren bi hilabeterako, bertan ere arrantzan aritzeko. Bilbo hartu ostean, berriro ere etxera bueltatu ziren eta gero, 18 urterekin faxistekin frontera joatea egokitu zitzaion. "Cuarta división de Navarra"ko Flandes batailoian ibili zen borrokan. Aragoiko frontean zegoela zauritua izan zen eta 2 hilabetez etxean egon ostean, Madrileko frontera joan zen, metrailadoreen batailoira. Madrilen zegoela bukatu zen gerra. Avilara joan ziren atseden hartzera eta Alemania beste gerra bat prestatzen zebilela-eta, Frantziak Espainia erasotuko zuelakoan, Pirinio aldera joan ziren hurrengo gerra noiz hasi zain. Tarte horretan, Ebroko batailan 7 kidetik bizirik irtendako bakarra da Rikardo. Herrira bueltatzerakoan, arrantzalea zenez, itsas armadako "Alcala Galiano" errepublikazaleen itsasontzian ibili zen urte eta erdiz. Faxistekin borrokan ibili zela aipatzerakoan, biziraupenean baino ez zutela pentsatzen dio. Oso ondo gogoratzen zituen garai haiek.

Jesus Garmendia Aurrekoetxea (1930)

Nardiztar Jon kalean jaio zen 1930. urtean. Gurasoak bermeotarrak zituen, aita uritik ekarritakoa; seme bakarra izan zuten. Aita bizargina zen eta bizartegia zuen etxean bertan eta ama kontserba-fabriketako behargina. Espainiako Gerra Zibilean bere aita EAE-ANVko "zapadore"en batailoira joan zen. Umea izan arren, etxean bertan bizi izan zuenez, oso ondo gogoratzen ditu garai haiek. Umetan beraien kalean zegoen lonja batean ibili zen ikasten. Aita kartzelan izan zuen eta handik bueltan, 1938. urtean, errenta ordaintzen ez zutela-eta, Doniene kaleko beste etxe batera joan ziren; bertan beste bizartegi bat zabaldu zuten. Herri eskolan eta "Hermano"etan ibili zen, baina laster utzi zuen eskola. Lan desberdinetan aritzen zen bitartean aitari laguntzen bizargin lanbidea ikasi zuen. Soldadutzan bizargin eta postari lanetan ibili zen Ferrolen eta Donostian. Baxuran zein arrastreroetan ibili zen lanean, "Naviera Vizcaína"n hasi aurretik. "Naviera Vizcaína"ko "Guernica" petrolio-ontzian koipeztatzaile eta galdaragile ibili zen Persiako Golkoan, eta "Ondarroa" ontzian makinista India eta Pakistanen. Itsasoa utzi eta 1971. urtetik 1990. urtera arte, erretiratu arte, Muruetako ontziolan ibili zen itsasadarra dragatzen eta "tubero". 3 seme-alaba izan zituen.

Miren Bego Goienetxea

1996an Bermeoko Udalak egindako "Lan eta Jai" ikus-entzunezkoan parte hartu zuen. Sare-konpontzaileen lanaren inguruko azalpenak eman zituen.

Espe Gonzalo Hernando (1927)

1927an jaio zen Gasteizen, baina haurra zela beste 5-6 umerekin batera Bermeora etorri zen bertako familia batek adoptatuta, Estebez-Lauzirikatarrengana, hain zuzen ere. Guraso hauek bermeotarrak ziren. Aitak itsasoan egiten zuen lan, sugina zen (fogoneroa), eta bertako istripu batean hil zen gazterik. Nardiztar Jon kalean bizi eta hazi zen. Gerra sasoian, bere aita Suancesen egon zen ebakuatuta 5 hilabetez; ama eta bera Mundakako osaba batengana joan ziren, eta bertan egon ziren 6 hilabetez. Itzuli zirenean, etxea obusekin josita aurkitu zuten, eta aitak konpondu zuen berriro bertan bizi ahal izateko. Umetan, karmeldarren ikastetxean ibili zen 13 urtera arte. Kofradia zaharrean sareak egiten ikasteko eskola zegoen, eta han ikasi zuen Espek; baina sekula ez zitzaion lan hori gustatu. Garciareneko lantegian aritu zen lanean. Senarraren familiak kontserba-lantegi bat zuen, Ormaza kontserbak, eta bertan, laguntzen baino ez zen aritzen. Bere senarra, Seber Ormaza (1925-2010), politikaria izan zen: Eusko Abertzale Ekintza (EAE-ANV) alderdiko kide historikoa, ohorezko lehendakari izandakoa; Herri Batasunaren mahaikidea eta Bizkaiko Batzar Nagusietan batzarkidea izan zen ezker abertzaleko zerrenda ezberdinetan; eta 12 urtez Bermeoko zinegotzi. Bi seme izan zituzten.

Txomin Hormaetxea Uriagereka (1930-2013)

1930. urtean sortu zen Artika auzoko Fandangone errota-baserrian, Estrada izenez ere deitua. Aita bertakoa zuen eta ama Larrauriko Markaida auzokoa; 3 anai izan ziren. Errotako semea izaki, oso ondo ezagutzen du bertako bizimodua elkarrizketan entzun eta ikus dezakegunez. Bermeoko orfeoiko kidea, pandero-jotzailea eta dantzari trebea izandakoa dugu. Almikako Almikatxu baserriko Teodora Alboniga Menor Barrenarekin ezkondu eta bertara joan zen bizitzera ezkondu eta urte batzuetara. 4 seme-alaba izan zituzten. Almikatxun taberna eta jatetxea zabaldu zuten duela 40 urte inguru.

Emilio Ibinagagoitia Zabala (1928-2014)

Arane auzoko Kasakane baserriko semea. Aita San Migel auzokoa zuen eta ama bakiotarra. 5 neba-arrebatatik laugarrena izan zen. Umetan Matxitxakoko eskolan ikasi zuen. Gerra garaian, etxea utzi behar izan zuten eta Bermeoko ospitale psikiatrikoan egon ziren 8 egunez, bere anaia bertan jaio zen: bitartean, beraien etxea soldaduz beteta egon ziren. Etxe hutsik topatu zuten, ganadu barik; hala ere, auzokoen laguntzaz aurrera egin zuten. Baserriko eta basoko lanetan aritu izan da beti. Mañu auzoko Jazinta Sasiainegaz ezkondu eta Mañugoikora joan zen bizitzera. Bere emazteagaz batera egin genion elkarrizketa.

Itsasoa ulertzen. Itsasotik ikasten 1

Itsasoa ulertzen. Itsasotik ikasten 1 grabazio honetan bermeotar hauek dira protagonistak: Jesus Gangoiti (1935), Jon Andoni Alboniga Iturbe, Jose Anton Renteria (1939), Jose Manuel Gabantxo, Jon Egaña, Juan Jose Portillo eta Andres Canisa Bilbao (1941).

Itsasoa ulertzen. Itsasotik ikasten 2

Itsasoa ulertzen. Itsasotik ikasten 2 grabazio honetan bermeotar hauek dira protagonistak: Jesus Gangoiti (1935), Jon Andoni Alboniga Iturbe, Jose Anton Renteria (1939), Jose Manuel Gabantxo, Jon Egaña, Juan Jose Portillo eta Andres Canisa Bilbao (1941).

Itsasoa ulertzen. Itsasotik ikasten 3

Itsasoa ulertzen. Itsasotik ikasten 3 grabazio honetan bermeotar hauek dira protagonistak: Agustina Hoyuelos, Pastora Fernandez, Mercedes Uriarte Unda, Luisa Canga, Edurne Meñaka, Maria Urresti, Marilu Ormaza eta Carmen Hernani.

Itsasoa ulertzen. Itsasotik ikasten 4

Itsasoa ulertzen. Itsasotik ikasten 4 grabazio honetan bermeotar hauek dira protagonistak: Jesus Gangoiti (1935), Jon Andoni Alboniga Iturbe, Jose Anton Renteria (1939), Jose Manuel Gabantxo, Jon Egaña, Juan Jose Portillo eta Andres Canisa Bilbao (1941).

Itsasoa ulertzen. Itsasotik ikasten 5

Itsasoa ulertzen. Itsasotik ikasten 5 grabazio honetan bermeotar hauek dira protagonistak: Jesus Gangoiti (1935), Jon Andoni Alboniga Iturbe, Jose Anton Renteria (1939), Jose Manuel Gabantxo, Jon Egaña, Juan Jose Portillo eta Andres Canisa Bilbao (1941).

Itsasoa ulertzen. Itsasotik ikasten 6

Itsasoa ulertzen. Itsasotik ikasten 6 grabazio honetan bermeotar hauek dira protagonistak: Agustina Hoyuelos, Pastora Fernandez, Mercedes Uriarte Unda, Luisa Canga, Edurne Meñaka, Maria Urresti, Marilu Ormaza, Carmen Hernani, Antoni Zallo, Maria Luisa, Mari Carmen, Edurne eta Mari Carmen.

Luis Iturregi Uribarri (1934)

Mañu auzoko Etxebarri baserrian jaio zen 1934. urtean. Ama bertakoa zuen eta aita Belakokoa, Mungiakoa. Auzoko eskolan aritu zen 13 urtera arte. ikastea ez zitzaion batere gustatzen eta 16 urtegaz basoko beharretan hasi zen. Nabigatzen eta itsasoan, Dakarran besteak beste, aritu zen, baina gero igeltsero eta hargin bezala atera zuen bizimodua. Sagardogintzan eta erlezaintzan aritu izan da beti baserriko gainerako zereginekin batera.

Nekane Iturrizaga

1996an Bermeoko Udalak egindako "Lan eta Jai" ikus-entzunezkoan parte hartu zuen. Kontserba-fabrikaren inguruko azalpenak eman zituen.

Maria Lourdes Izarzugaza Uriarte (1943)

Aita Orobiokoa (Iurreta) eta ama Bermeokoa zituen. Harakinak ziren gurasoak eta bere lanbidea ere huraxe izan zen. Jose Luis senarrarekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Garbiñe Jauregizar Ugalde (1913-2016)

1913. urtean sortu zen Nardiztar Jon kalean, baina Aroztegin hazi zen. Gurasoak ere bermeotarrak izan zituen eta 9 neba-arrebako familia osatu zuten. Bere aitak 'Euzkadi'n idazten zuen lantzean behin eta mitinlari trebea zen. Umetan, karmeldarren ikastetxean ibili zen, eta, gero, Bilbora joan zen josten ikastera. Bilbon bertan ezagutu zuen gerora bere senarra izango zena. Gerra garaian, ahizparekin batera Bilbora, Santanderrera eta Frantziara joan zen ebakuatuta. 1941. urtean, Larrondora (Loiu) ezkondu zen; gerora, Sondikara joan zen bizitzera. 1948. urte hasieran, Venezuelara joan zen eta 9 urtez egon zen bertan. Hala ere, ez du bere jaioterriko berbaera galdu, oso ondo gorde baitu Bermeoko euskara.

Patxi Kalzada Allika *Pitxarra* (1930)

Bermeoko Erremedio kalean jaio zen 1930. urtean eta hainbat etxetan bizi izan da: Torrontero ko etxean, Portuzarrean, Erriberan... Gurasoak ere bermeotarrak zituen, eta bere familia bezala, beti bizi izan zen itsasoari lotuta. Bere aita armadorea zen, guztira 11 itsasontzi izan zituen. Hamabi urterekin hasi zen itsasora eta 15ekin Ondarroako arrastrero batean hasi zen. Denetariko lanak eta orotariko arrantza-motetan ibilitakoa, arrantzale, koipeztatzailea eta makinista izan da. 1954-1991 artean makinista ibili zen erretiratu arte.

Anita Larrauri Anasagasti *Ollaki, Amado* (1931-2022)

Baztarre aldeko Talakoetxea (Talagutxi) kalean sortu zen itsasoari loturako familia batean. Gurasoak ere bertakoak zituen: ama portuan eta lantegian aritutakoa eta aita makinista. Josefinen ikastetxean, Portalekoan eta karmeldarretan ibili zen, baina gazterik hasi zen lantegian beharrean. Ormaza lantegia bere osaba-izekoena zenez, bertan aritu zen beti. Ezkondu ostean ere neskatila lanetan ibili zen portuan. Senarra ere bermeotarra izan zuen. Grabaketa batzuk Bitore Urkijo 'Palanka'gaz batera egin zitzaizkion.

Poli Larrinaga

Txistulari familiakoa eta txistulari ezaguna. Garai bateko Bermeoko jai-giroaz berba egin zuen 1996an Udalak bultzatuta ekoitzi zen "Lan eta Jai" ikus-entzunezkoan.

Alazne Larrinaga Oleaga *Adonenekue* (1932)

1932. urtean jaio zen Larrinaga musikari eta ile-apaintzaile familiako alaba. Aita bermeotarra zuen eta ama Mundakako baserritarra. Bost neba-arrebatatik bera zen zaharrena. Bere familia oso ezaguna da herrian bere aitita, aita, osabak eta nebak musikariak zirelako: txistulariak, jairik jai erromerietako soinulariak... Bere aitak Juan Borboikoarekin egin zuen zerbitzu militarra, eta Espainiako erregearen aitak txistua eta danbolina oparitu zizkion. Aroztegi kalean bizi ziren eta denda eta ebanisteria zuten bertan. Gernikako bonbardaketak bertan harrapatu zuen eta amarekin batera Andra Maria elizan babestu zen. Aita frontean izan zuen eta preso hartu ostean Larrinagako kartzelan eta langile-batailoietan. Bermeoko "Acción católica"ko kidea izan zen. 16 urtegaz, Nardiztar Jon kalera joan ziren eta 'Alazne' izeneko ile-apaindegia zabaldu zuen. Gerora bere neba batek ere ofizio bera jarraitu zuen eta Bilboko "Hermanos Larrinaga" akademia ezaguna zabaldu zuten. 26 urterekin Durangoko Koldobika Bergantzarekin ezkondu eta bertara joan zen; Andra Mari kaleko etxean beste ile-apaindegi bat zabaldu zuen. Durangoko Kurutziaga ikastolako sortzaileetako bat da Alazne. 4 seme-alaba izan zituen.

Luzia Larrozea Estibaliz *Oka* (1920-2014)

Baztarren jaio eta hazi zen. Aita bermeotarra zuen eta ama Arabako Kanpezukoa. Sei neba-arrebatatik gazteena izan zen. Gazterik gelditu zen guraso barik, ama gerrako ebakuazio egunean bertan hil zitzaion; hori dela-eta, ahizpa batekin hazi zen. Gerratean, italiarrek hartuta zuten batzokia garbitzera derrigortu zuten abertzalea izateagatik. Bermeoko "Casa del niño"n eta Gasteizko familia batean neskame lanetan aritu zen. Neskatila lanetan hasi zen gazte-gaztetatik. Bere umetako lagun eta koinata Julita 'Ispo'gaz batera egin genion elkarrizketa.

Enrike Lopez Bilbao *Txapasta, Takon* (1930-2013)

Baztarreko Talakoetxea (Talagutxi) kalean jaio zen. Gurasoak ere bermeotarrak zituen: ama, 'Takon' neskatila, eta aita, 'Txapasta' arrantzalea. Gerra garaian, aita kartzelan izan zuten itsasoan atxilotu baitzuten. Hamaika urtera arte, eskolan ibili zen, aitaren bide bera hartu arte. Itsasoan mutiko lanak egitetik patroi izatera heldu zen, eta horrexetan ibili zen 60 urtegaz erretiratu zen arte. Bermeoko kaleko zein portuko giroa zuzen-zuzenean ezagutu izan du; eta horrelaxe kontatu dizkigu kontuak, herriko hainbat abestirekin batera.

Soledad Luno Arenaza *Tutu* (1922)

Aurrekoetxean jaio eta hazi zen lau neba-arrebatako familia batean. Gurasoak era bermeotarrak zituen. Herriko eskolan ibili ostean, bederatzi urtegaz lanean hastea egokitu zitzaion. Katalin Bengoarekin batera kontatu zizkigun bere gazte garaiko bizipenak.

Florentina Madariaga *Pellu*

Pellune baserrian jaioa. Zortzi neba-arreba izan ziren. 20 urte ingururekin jaitsi zen kalera bizitzera, ezkondu zenean. Ahizpa eta biak gazterik alargundu ziren, euren senarrak istripuz hil zirelako "Izaro" eta "Osasuna" baporeek elkar jo zutenean. Arrain-fabrikan eta tabernan lan egin izan zuen, besteak beste. Elkarrizketa egin zitzaionean 84 urte zituen.

Begoña Monasterio Zubillaga (1916)

1916an jaio zen Bermeoko Nardiztar Jon kalean. Bere aita Errigoititik Demikura etorritakoa zen eta ama bakiotarra. Aita arotza zen eta urte askoan Kuban aritu zen beharrean; herrira itzuli zenean, Erremedio kalean jarri zuen tailerra. Umetan Nardiztar Jon kalean zegoen lokal batean jaso zituen eskolak karmeldarren ikastetxera joan aurretik. Gerra sasoian, militarrak izan zituzten etxean; eta, gero, Lutxanara (Barakaldo) joan ziren ebakuatuta itsasontziz bertan zuten osaba batengana, eta bertan egon ziren bi hilabetez. Bere neba Donostiako kartzelan izan zuten preso. Bitartean, aitak militarrentzako hil-kutxak egiten zituen, beste arotzik ez baitzegoen herrian. Matxitxakoko bataila ezagunean beraien lehengusu bat desagertu zen. Ez zuten goserik pasatu, hilerri aurreko lurretan soroa eta animaliak (oiloak, untxiak...) zituzten-eta.

Inas Munitiz Lartitegi (1925-2024)

Baztarreko Talakoetxea kalean jaio zen. Gurasoak era bermeotarrak zituen eta bost neba-arreba izan ziren. Gerran anaia bat frontean izan zuen eta aita ebakuatuta alde eginda. Aita bueltatzerakoan, 12 urte zituela hasi zen beragaz batera arrantzan lebalzale txiki batean. Hasieran mutil beharretan aritu zen, Txo bezala, baina gerora patroi moduan ere aritu zen. Dakarrera joan ziren lehen arrantzaleetako bat izan zen. Itsasoko, herriko zein karabineroen kontu ugari kontatu dizkigu.

Julita Munitiz Zallo *Ispo* (1921)

Gaztelu inguruan sortu zen 1921. urtean. Gurasoak ere bermeotarrak zituen, aita armagina zuen. Gazterik hasi zen lanean saregin eta neskatila bezala eta horretan ibili zen erretiratu arte. Bermeoko "Casa del niño"n ere neskame beharrak egin zituen. Bere ahizparekin batera irlandera aritu zen dantza-taldean. Bere umetako lagun eta koinata Luzia 'Oka'rekin batera egin genion elkarrizketa.

Anastasia Ormaetxea Ormaetxea *Burutse, Txoko* (1927)

Aurrekoetxean jaio zen, baina gerra aurretik joan ziren Ertzilla kalera, dorretxe albora, eta bertan bizi izan da beti. Gurasoak bertakoak zituen, Gaztelukoak, armaginak eta errepublikazaleak. Lau neba-arrebatatik gazteena izan zen. Karmeldarren ikastetxean eta herri eskolan ibili ostean, 16 urtegaz kontserba-lantegietan hasi zen lanean eta horretan aritu zen erretiratu arte.

Aurea Orozko

1996an Bermeoko Udalak egindako "Lan eta Jai" ikus-entzunezkoan parte hartu zuen. Kontserba-fabrikaren inguruko azalpenak eman zituen.

Begoña Ponziano Angel *Belarrikonekue* (1920)

1920ko Pazko egunean jaio zen Aurrekoetxea kaleko 22. zenbakian eta bertan bizi izan zen. Gurasoak bermeotarrak ziren, baina aita izatez Lekeitiotik etorritakoa zen. Bere aita itsasoan aritzen zen lanean, baina sasoi hartan hurre baino ez ziren ibiltzen. 13 neba-arrebatatik hamabigarrena da bera. Eskolara gutxi joaten zen, "kalba" asko egiten zituela dio. Gerra aurretik, auzoko ume bat jagoten zuen hilean 10 pezetaren truke. Gerra hasi zenean, ama hil zitzaion asmak jota. Etxekoek "Errite deuna" izeneko gasolinazko motorra (ontzia) zuten, eta gerran ostu egin zieten, antza, baten batek ebakuatzeko-edo erabili zuen. Urte askoan aritu zen beharrean: beraien auzokoa zen Gregorio Garaioaren lantegian; 13 urtez Ormazarenean; eta, Kantabrikon 13 urtez, besteak beste. Begoña ez da inoiz ezkondu. 80 urterekin Sancti Spiritus zaharren udal egoitzara joan zen bizitzera.

Jose Anton Renteria Anduiza *Euskal Herria* (1939)

1939. urtean sortu zen Aroztegi kalean, baina Aurrekoetxe kalean hazitakoa da. Gurasoak eta aitona-amonak ere bermeotarrak zituen. 13 urte egin aurretik hasi zen bisigutan eta arrantzan ibili izan zen ordudanik, patroi eta armadore ere izan zen, 44 urtez guztira. Bermeoko ikastolako sortzaile eta Bizkaiko batzarkide izandakoa lau urtez. 1966an hasi zen *Itzartu* aldizkarian 'Enbor' ezizenez idazten, gerora "Anaitasuna" aldizkaria izango zenean. Herrian guztiz errotuta, oso ondo ezagutzen ditu Bermeoko kontuak. Herriko saltsa guztietako partaide: sukalki antolaketan, bertso-saioetan, Olentzero prestatzen, Matxitxakoko monolitoa zaintzen... BER-033-037 grabazioetan Jesus Gangoitirekin batera azaltzen da.

Mario Alejandro Ruiz Estebanez *Ale* (1920-2012)

1920an jaio zen Bilbon, baina handik lasterrera Bermeoko Gangoiti-Kaltzada familiak adoptatu zuen. Ama Busturiko baserritarra zuen eta aita arrantzale bermeotarra; sei neba-arrebatatik zaharrena da. Mario zein Alejandro izenez deitzen dute, eta beste askok 'Ale' esaten diote. Umetan, "hermano"en ikastetxera joan zen eta 14 urtegaz itsasoan hasi zen lanean aitarekin batera "Txokotarra" ikatz-baporean. Gerra sasoian, Bilbon eta Castron egon zen pare bat hilabetez. Gerra bukatu bezain laster, soldadu joan behar izan zen lau urterako, justu-justu libratu zen frontetik. Herrira itzuli zenean, itsasoko lanetara bueltatu zen eta bertan aritu zen hainbat baporetan erretiratu artean; hori dela eta, itsas munduko kontuak oso ondo ezagutzen ditu. Bermeoko Florenzia Iturberekin ezkondu eta seme bat izan zuten.

Bitorio Sasiain Aiestaran (1929-2018)

1929. urtean jaio zen Mañu auzoko Bidetxe baserrian, "Enpolitone" izenez ezaguna. Gurasoak ere Mañukoak zituen, gipuzkoar jatorriko baserritarrak. 9 neba-arreba izan ziren, horietako 3 hirukoitzak. Umetatik hasi zen aititarekin batera artzain lanetan, eta hori izan du afizio eta ofizio. Ia 4 urtez Boiseko mendietan ibili zen 4.000 bururekin eta Mañun eta inguruetan ere ezaguna da artzain eta ardi-tratulari legez. Gaztagintzan ere ibili izan da. Gaztetan Deustuko (Bilbo) baserri batean egon zen morroi, eta bertako gau-eskoletan ikasi omen zuen gaztelaniaz. Errigoitiko Jesusa Arrienekin ezkondu zen. Baserriko kontuei buruzko elkarrizketa Juan Abaroa auzotarrarekin batera egin zitzaion.

Jazinta Sasiain Aiestaran (1934)

Mañu auzoko Bidetxe baserrian, "Enpolitone" izenez ezaguna denean, jaio zen. Gurasoak ere Mañukoak zituen, gipuzkoar jatorriko baserritarrak. 9 neba-arreba izan ziren, horietako 3 hirukoitzak, eta Jazinta bera gazteena. Umetan Mañu bertako eskolan ibili zen. Beti aritu izan da baserriko beharretan. Arane auzoko Emilio Ibinagagoitiagaz ezkondu ostean, Mañugoikora joan ziren bizitzera. Bere senarragaz batera egin genion elkarrizketa.

Emilia Sistiaga Allika (1932)

Nardiztar Jon kalean sortu zen bederatzi neba-arrebadun familia batean, bera izan zen alaba bakarra beste ahizpa umea zela hil baitzen. Gurasoak ere bermeotarrak zituen, baina aitaren familia Plentzian bizi zen. Eskolara gutxi joan zen etxean lagundu behar izaten zuelako. 13 urtegaz portuan hasi zen beharrean neskatila legez; beranduago, kontserba-fabrikan ere hasi zen. Horrela ibili zen lan biak tartekatzen erretiratu arte.

Aintzane Telleria Madariaga (1931)

Intxausti kalean jaio eta hazi zen. Aita berak bi urte eta erdi zituela hil zen, Izaro eta Osasuna baporeek elkar jo eta 11 gizon hil ostean. Bere osaba ere ezbehar horretan zendu zen; hori dela-eta, bere ahizpa eta bere lehengusu-lehengusinekin hazi zen neba-arreba moduan. Ama Agirre auzoko Pellune baserrikoa zuen, eta kalearen eta baserriaren artean igaro zuten bizimodua, gerrak ere baserrian harrapatu baitzuen. 14 urtera arte karmeldarren ikastetxean ibili zen. Kontserba-lantegiko beharra ez zitzaionez gustatu, ahizpagaz batera zabaldu zuen Teodoro Anasagasti kalean janari-denda. Bermeoko lehen ikastolako fundatzaileetako da bat Aintzane. Senarra arrantzalea izan zuen eta seme bat izan zuten. Elkarrizketa egin baino urte batzuk lehenago, Agirreko Auzoko baserrira joan ziren bizitzera.

Koldo Torre Iturbe *Gardie* (1933)

Bermeoko Katokalen jaio eta Gaztelun hazi zen hiru neba-arrebako familia batean. Gurasoak ere bermeotarrak zituen. Bere aita Matxitxakoko bataila ezagunean Bou Navarra itsas armadako itsasontzitik bizirik irtendako bat izan zen, urte luzez heriotz-zigorrera kondenatua. Umeetan fraideetan ibili zen, baina bderatzi urterekin eskola utzi zuen. 7-8 urterekin lanean hasi zen, eta hamar urte egin orduko itsasoan hasi zen lanean "Mendiluz" ontziko mutil bezala. Arrastrerotan ibili zen urte askoan, eta patroi titulua atera ostean, 21 urtetatik baxurako patroi. Tartean zazpi urtez merkantean ibili zen.

Maite Uriagereka Ozamiz (1958)

Maria Teresa zuen jaiotza-izena eta ezkondu ostekoa, berriz, Maite Teresa Moiola. Ama Bermeokoa zuen (jostuna) eta aita Mungiako Markaide auzokoa (11 urterekin Bermeora joan zen arotz lanak ikastera; 1964an, berriz, artzain joan zen Ameriketara). Maitek 11 urte zituela ama hil zitzaien eta interna egon zen Josefinas monjekin; neba bat ere bazuen, zaharragoa. 16 urterekin Mungiara joan zen bizitzera, izeba-osakin, eta Arteche Hermanos lantegian egon zen lanean, lehenengo jangelan eta gero idazkari. 1978an Ameriketara joan zen aita bisitatzera, eta Elkon (Nevada) geratu zen bizitzen. Star Hotelean egin zuen lana, zerbitzen. Euskal irratsaioa ere izan zuen, Elkoko irratian. Esteban Moiolarekin (amaerikanoa baina euskal jatorrikoa) ezkondu zen eta bi seme-alaba izan zituzten. Musikaria da eta Elkoko euskal etxean oso aktibo ibili da beti: dantza, gitarra eta abestiak erakusten. Euskal Etxean elkarrizketatu genuen.

Juli Uriarte Erezuma (1927)

Demiku auzoko Zarran "Sarren" baserrian jaio eta hazi zen Juli. Aita Bakiotik etorri zen bertara eta ama San Migelekoa zuen. Ama berak 4 urte zituela hil zen, eta neba gaztearen ardura hartu zuen gazterik. Aita amaren ahizpa bategaz ezkondu zen gero, beraien izekoagaz, eta beste bi neba jaio ziren. Eskolara gutxi joan ei zen etxean lagundu behar izaten baitzuen. 12 urtegaz hasi zen plazara joaten etxeko jeneroa saltzera. 18 urte zituela, neskame joan zen Bilbora senitarteko batzuen etxera. Beraz, berak dioen legez, bizi guztian aritu izan da beharrean, baserriko bizimodua horrelako da-eta.

Mari Uriondo Uriarte (1934)

Talakoetxen jaioa beti egon da itsasoari lotuta. Bere aita, *Batxiller*, arrantzalea zen eta ama San Migel auzokoa, baserritarra. Bost neba-arrebatatik laugarrena izan zen. Hamahiru urtegaz hasi zen saregile beharretan eta 49 urtez aritu zen horrexetan, 1947tik 1996ra arte, horietatik 41 maistra legez, "uzandra".

Bitore Urkijo Egarista *Palanka* (1925-2019)

Torronteron jaio eta hazitakoa da Bitore. Gurasoak Urikoak zituen, Begoñakoak, baina Bermeon hazitakoak. Bost neba-arrebatatik laugarrena izan zen. Eskolara gutxi joan zen eta gerra sasoian bizipen gogorrak bizitzea egokitu zitzaion. Bere ama Emakumeen batzako kidea zen, eta Agirre Lehendakariaren espia izate egotzi ziotenez, denbora luzez izan zuten kartzelan. Bitartean, zazpi urteko ahizpa txikiaren kargu egin behar izan zen Bitore, aita gainerakoekin ebakuatuta joan baitzen. Areetan (Getxo) inude bezala egon zen urte betez seme-alabak etxean utziz. Herririk herri aritzen zen arraina saltzen. 10 urtegaz hasi zen saregin lanetan eta jardunbide horretan aritu zen gero ere maistra bezala. Senarrak beste bazkide batzuekin baporea izan zuen. Bere lagun Anita Larrauririkin batera egin zitzaion grabaketa.

Antoni Zallo Bengoetxea (1930-2022)

Aurrekotxea kalean jaio zen eta bertan bizi izan da beti itsas munduari lotutako familia batean. Gurasoak bermeotarrak zituen: ama portu aldeko jostuna eta aita Baztarreko armagina eta makinista. Umetan, Josefinen ikastetxean ibili zen, baina 14 urterekin portuko lanetan hasi zen eta urte askoan ibili zen neskatila beharretan etxeko baporeetan. "Ondo Etorri" taberna izan zuten urte askoan Lameran eta bertan aritu zen lanean 72 urtera arte. Juan Apraiz "Koiote"rekin ezkondu eta 5 seme-alaba izan zituzten. Antonik 2008. urtean ulertzen. Antonik 2008. urtean beste hainbat herritarrekin batera egindako Itsasoa ulertzen. Itsasotik ikasten grabazioan ere parte hartu zuen.

Antoni Zulueta Urdengarai (1927)

1927. urtean jaio zen General Artieda kalean, Adoberian. Aita ere bertakoa zuen, arotza; ama, ostera, 6-4 urterekin uritik ekarritakoa. Bost neba-arreba izan ziren eta umetatik aitaren tailerrean laguntzen egoten ziren. Karmeldarren ikastetxean ikasi zuen. Beti izan dute soloa eta behar asko egindakoak dira. Bere ahizpa gazteenarekin, Juanitarekin, eta honen senarrarekin, Jesus Arkotxarekin, egin genion elkarrizketa.

Juanita Zulueta Urdengarai (1929-2012)

1929. urtean jaio zen General Artieda kalean, Adoberian. Aita ere bertakoa zuen, arotza; ama, ostera, 6-4 urterekin uritik ekarritakoa. Bost neba-arrebatan gazteena izan zen eta umetatik aitaren tailerrean laguntzen zuen. Karmeldarren ikastetxean ikasi zuen. Beti izan dute soloa eta behar asko egindakoak dira. Ezkondu aurretik, zazpi urte egin zituen Logroñon ahizpa zaharrenaren etxean. Bere senarrarekin, Jesus Arkotxarekin, eta bere ahizpa Antonirekin batera egin genion elkarrizketa.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. Josefinatarren ikastetxea

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Valle, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-001/003
- **Iraupena**: 0:02:53. **Hasi**: 00:03:00. **Bukatu**: 00:05:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Fontecilla, Gontzal
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Ume sasoiko Bermeo polita zela dio. Sei neba izan arren ondo ikasitakoak direla dio. Josefinatarren ikastetxean ibili zen umetan, baina ez zitzaion gustatzen ikastea; ume okerra zela dio. Emakumezkoak baino ez ziren ibili Josefinetako mojetan.

Transkripzioa
- Ta zuk ze akordu dekozu, zure umetako Bermio, zelakoa zan zure umetako Bermio?
- Niretako elegantie, Aroztegi kantalean jaio nai, ta hazi nai ondo, nire ama izan da arraiñe saltzien ibiltzen dana Mungidxera, ta nire aitta arotza. Ta ni ondo haziku nai. Sei neba-arrebak ondo hazi garie. Hamen danak ezatuten gaittuz gu, ni nai Artetxe Valle, ta danak ezatuten gaittuzie, Vallenekuek. Ta

ondo hasiku nai ta ondo eskolara, ta ama hil jaztenien kridxada.
- Ta eskola sasoiekoa ta, ze akordu dekozu?
- Zelan?
- Eskolakoa, nora joan ziñen?
- Alperra izan nai. Josefinasetara. Leko onien baiñe alperra izan nai.
- Bai, Alperra?
- Alperra.
- Ez jatzun gustetan?
- Eitzen izan dot eskapa, zeratik egoten izen garizen jardiñen ta eitzen izen dot eskapa, ta itsosora. Batelatan ibilikue nai.
- Orduen okerra?
- Okerra izen nai, okerra apurtxu bet. Ostantzien ba normal.
- Josefiñetan nungo neska-mutilek joaten zinien, edo neskak bakarrik?
- Zelan?
- Josefiñetan, neska-mutilek edo neskak bakarrik?
- Ni mutilekaz ta henbrakaz ibiltzen izan nai. Ta gure etxien zenbat henbra? lau neska ta mutil bi.
- Bai, bai, bañe Josefinatan, eskolan, mutilek eta neskak alkarregaz?
- Ez, ez, Josefinasetan ez. Henbrak.
- Bakarrik?
- Bai.
- Eta… ze maestra edo?
- E, mojak, mojak, danak mojak. Haur, baie mojak izan die.
- Ta onak ziren monjak?
- Niretzako mojak onak izan di.
- Ta euskeldunek?
- E, bertokuk be bai ze, hameko mandakuek mojak, bai, euskaldunek.
- Baia eskolan euskeraz eitten zenduen?
- Eskolan?
- Euskeraz?
- Total izan nai alperra ta. Eskoli niretzako ez da izan. Ez dot ikasi ezebe.
- Ta eskolan euskeraz edo erderaz?
- Euskeraz, euskeraz.
- A, bai?
- Euskeraz, ta erderaz be bai, segun, bidxetara itzen izan du. Ostantzien ba normalak.

1.2. Arropak eta orrazkerak

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Valle, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-001/015
- **Iraupena**: 0:04:18. **Hasi**: 00:27:55. **Bukatu**: 00:32:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Fontecilla, Gontzal
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Orrazkerak
- **Laburpena**: Zelako arropak erabiltzen zituzten azaltzen du. Emakumezko guztiek ez zituzten kuleroak "pantalonak" eta azpikogonak janzten, baina berak bai. Prakak, ostera, ez ditu sekula jantzi. Sekula ez da makilatu, baina ileak beti izaten zituzten dotore. Jostuna etxera etortzen zitzaien eta hark josten zizkieten arropak. Etxeko harrian garbitzen zituzten arropak, beti izan dute ura etxean.

Transkripzioa
- Zelako erropak ibiltzen zenduezan?
- Bata, bata, batatxuek. Batatie zelan zan, “en vez de…” terlidxezkuek. Osea ke garbittuten soiñera. Eta beti guapa guapa.
- Beti guapa guapa, eta beti goniegaz ezta? Prakarik ez?
- Gonie azpiku ointxe be bai. Ointxe be bai nik.
- Baie prakarik ez, ezta?
- Pantalonak? Hori “que no faltaría” e, neuk e. Eso… ez nai izan pantalo bakue.
- A ez?
- Asko bai, asko pantalonik bez.
- Zuk bai?
- Nik bai, horretan garbidxe izan nai, garbidxe.
- Bai, bai, baina pantaloiak bai, baie prakak?
- Prakak ez, guk ez e.
- Prakak ez?
- Pantalonak eta batatxuek.
- Pantalonak bai, baina prakak ez.
- Ez, ez. Prakarik ez.
- Frakarik ez. Sekule?
- Orduen e, eta ez nauen jantzi be egingo.
- Ez?
- Ez nik.
- Orduen bernak eta beti ule barik ibilten ziñien edo zer?
- Honek? Galtzerdi barik asko.
- Eta ule barik?
- Galtzerdirik bez, kaltzetiñikaz.
- Ta uliek ze itxen zenduzan, kendu ala?
- Nik ezebez, hala hametik bez, arpeittik bez, eskutan bez, nik ez. Asko egon diz bizardunek.
- A bai? Ta koketatxuek eta ziñien?
- Zertzuk?
- Koketak, zaintzekoak-eta, orraztu ta makillau-eta?
- Ez, arpeidxen ezebez. Eguno bez. Gaztetan eguno bez. Orain, uliek ondo orraztute bai.
- Bai?
- Bai. Hori bai, baie arpeidxen ezebez.
- Ta pelukeria.
- Pelukeidxara bai.
- Non euen, Bermion, pelukerixie?

- Bermion pelukerak bertan bermiotarrak okin dxuz.
- A bai?
- Bai, okin dxuz.
- Ta non-edo? Nun? Pelukerixek nun euezan?
- Pelukeridxe? Ba eukitxen ixan du “Modestanekue” hartik behetik. Gero beste bat eukiten izan duu, non izan da? Eon diz hiru-lau, pelukeridxek egon diz e, egon diez.
- Gaztetan ze itzen zenduen, permanentetxue, edo zer?
- Nik ze eitten izan doten?
- Bai, permanentetxue edo zer eitxen zenduen?
- Eskolara karmelitasetara, hona ba hona karmelitasetara.
- Baina diñot, pelukerixen, permanentetxue edo zer itzen zenduen?
- A ezebez orduen nik, ule politxe okin dxot.
- A bapez?

- Ule ondulaudxu okin dxot. Ez, ondo.
- Lehen esan dozu erropak e, beti gonie eta holan eta, baiña erosi itzen zenduezan erropak ala egin, josi?
- Egin, josi.
- Josi?
- Josi.
- Zuk josten zendun?
- Holan batatxuek-eta, etxera etorten zan jostune, etxien josi.
- A, jostune etxera?
- Bai, jostune gure etxera beti.
- Zein zan hori jostune?
- Zelan?
- Jostune nor zan?
- Ahaztute dakot, harek hil zien. Harek jun zien, Jaungoikuaz.
- Eta gero erropak-eta garbitzeko?
- Etxien, harridxen.
- A baie ure eduki zenduen etxien?
- Gure ama eguno ez da juen errekara, etxien.
- A, moderna orduen. Ur ta guzti.
- Nire ama totala izan da garbidxe, ta imiek ondo jaztekue ta totala. Arraiñe saltzen ibiltzen izan da Mungidxera. Ordun gu ondo egoten izan gariz, ondo.

1.3. Txakurrak, arrantzaleen lagunak

- **Hizlaria(k)**: Renteria Anduiza, Jose Anton
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-026/040
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 01:12:31. **Bukatu**: 01:15:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
  Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- **Laburpena**: Txakurrak beti egon izan dira barkuetan. Oso argiak ezagutu ditu. Bat alarauka hasten zen barkuan bakarrik uzten zutenean. Marinel baten etxera joan ohi zen. Itsasora joateko orduan asmatzen zuten barkura heltzeko modua. 'Urtxakurrak' izaten ziren gehienak.

Transkripzioa
- Da animalirik?
- Txakurrek.
- Zetako txakurrek?
- Ba beti usadixu egon da txakurrena. Da txakurrek [...] halakuk ganera.
- Baia zetan lagunduten dabe?
- Ba ze esango dotsut /esangotsut/ ba nik! Ba txakurrek motorratarik... guk uki giñun txakurrek ugerrin fenomenuk ezaten zin harek txakurrek. Beitu, txakurrek dxakitxen ezan dauen, esateko baten, barikuen etorri ardorin ibilitxe etzera ta eguerdiko ordu tardi edo arratsaldien gixonak ba batelan pasaten zan garizen herrire ta txakurre gelditxuten ezan da barruen. Txakurre hasten zan alaurike. Alaurike txakurre! Guau, guau! Como disiendo 'Ni bakarrik itxi hamen?'. Azkanengoku gixona dxuten ezan

daneko herrire, berak beti etxen ezan dauen salto uretara ta muellera pasa. Ta dxuten ezan dan, dxuten ezan dan sosigo bateneko etzera. Dxakitxen ezan dauen non bixi den ta dxuten ezan da atabozara ta etxen ezan dau bañeran ta garbitxu, emoten ezan dotso /ezantso/ dxaten ta kalera ostabe pasitan. Txakurre ikusi dunik Aste Santuen, patroi bet eukin dxune Elantxobetarra bera, Indo, haren amaiñarreba ta beste lagun baten ama Ama Doluritakun atzin prosoziñuen ta txakurre euren atzien. Txakurrek ezetu ta euren atzien. Elementuk txakurrek, gero! Ta bueno, zuk ein dozu /einzu/ domeki etxien da astelehen goixeko bederatzixetako ordu itxosorako... Txakurre barruen topa! Egixek diz honek. Txakurre barruen topa. Ta Bermion aixenak, aixenak, aixena bakizu zertzuk... Baporak amarreta dauzen lekuek. Lau fille, lau filletan baporak, hamen tartien, hamen tartien ta txakurre barruen topa. Txakurre dxun muellera ta txakurrek dxakin ha batela duna hauna fillera, berak be, TA!, batelera barrora salta. Ta hango mutillek salta daunak ezetu ezan daunez txakurre nungu dan, agarra ta ba barrure ta bera dxun ezan da beran baporera. Txakurrek listuk, gero, e!
- Eta ze arraza? Edo bardin da arrazie?
- Honek e... urtxakurrek esaten ezan zin gehixenak, urtxakurrek. Baia, ño! Uger dxakitxen ezan dauie!

1.4. Hermanoen eskola debalde ilea ebakitzearen truke

- **Hizlaria(k)**: Garmendia Aurrekoetxea, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-056/012
- **Iraupena**: 0:01:52. **Hasi**: 00:17:22. **Bukatu**: 00:19:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elizondo, Iratze
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- **Laburpena**: Eskola publikoetan ibili zen don Angel García maisuarekin. Hermanoen ikastetxea ere bazegoen Bermeon eta beraien bizartegiko bezeroak ziren hangoak. Hermanoetako don Juan Pesetas zuzendariak aitari esan zion sei "hermanoei" ilea debalde ebakitzearen truke eskola ere debalde izango zutela.

Transkripzioa
- Bueno, ta ni eskolara ia hasitxe eskolara, publikutara, bera, aitxe biharrien, ama fabriken, ama lantegidxen, konserban fabriken ta ni eskolara, publikutara. Maisuk izena Juan Angel Garcia. Oten ezan diez, ta auntxera arte ez da urte askora arte hemen kolegidxo bat hermanuna, Hermanos de la meneiso, meneiso, frantsesan izena dako. Hermanos kurtze bat eruten ezan dauen sotanie, ta haur Portugaleten dakoie horrek basie. Ta horrek hermanuek etorten ezan diz sei ezaten zandizen barberidxera ulie ebaitzen, seiñe, ta ni baten eurekaz nauela bertan aitxegaz-edo, ba direktorie, don Juan, Bermion izena be ensegida zelan da ezizena berez imin dotsoien don Juan pesetaz, hamen okin zauelako peseti lako kalbulako zelan da don Juan pesetas. "Hombre Felix que!, este es el hijo y tal" ta "si" "¿Y donde handa en la escuela pues? "En el, aquí en los públicos" "De donde anda el chaval" Ta esan dotsaten "Juan Ángel Garcia y tal y cual" esantson "Felix, y por que no le quieres mandar al colegio con nosotros?" "E don Juan" esan dotson don Juanek "son doce pesetas Felix,

mira seis, somos seis, seis hermanos somos”, “cortar el pelo era dos pesetas”, “seis por dos doce, nos cortas el pelo a nosotros de balde y el chaval ya tiene la escola pagau”, “Palabras testualez”, "Jesus!" "Zer?" "guzu dxun hermanutara?" ta "bai" urten dot don Angel Garcianetik urten doten ta dxun nintzen hermanutara.

1.5. "Han dator bapora" kanta

- **Hizlaria(k)**: Bermeoko kanta zaharrak 01
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: BRM-058/010
- **Iraupena**: 0:00:27. **Hasi**: 00:13:12. **Bukatu**: 00:13:39
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: "Han dator bapora" kanta.

Transkripzioa
Han dator bapora
hiru palokua
haren bizitzia
karabiñeruna. (bis)

1.6. "Bermioko portuan"

- **Hizlaria(k)**: Bermeoko kanta zaharrak 01
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: BRM-058/011
- **Iraupena**: 0:04:26. **Hasi**: 00:13:39. **Bukatu**: 00:18:05
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: "Bermioko portuan" kanta.

Transkripzioa
BERMIOKO PORTUAN

Bermioko portuan, goizeko ordu bidxetan (x2)
ez da entzuten besterik (x3)
Txo! atrakaizu batela

Egidxe da, egidxe da, neuk ikusikoa da ta
Egidxe da, egidxe da, “porque lo he visto yo”

Lau aeroplano pasa ta, bat itxosora jeusi (x2)
ekarri, Sebastianak ekarri, Sebastianak ekarri
Sebastianak, ..., Artzan enkaileta itzi.

Egidxe da, egidxe da, neuk ikusikoa da ta
Egidxe da, egidxe da, “porque lo he visto yo”

Agostuen hamabidxen, Patxi Bermiora etorri (x2)
Ekarri, katxalotia ekarri, katxalotia ekarri,
Katxalotia, …, Artzan enkaileta itzi. (x2)

Egidxe da, egidxe da, neuk ikusikoa da ta
Egidxe da, egidxe da, “porque lo he visto yo”

“El aviador de Kakapur, también quería volar” (x2)
Etzo itzi, diktadoriak etzo itzi, diktadoriak etzo itzi,
diktadoriak,… barrabaskeidxe ein barik.

Egidxe da, egidxe da, neuk ikusikoa da ta
Egidxe da, egidxe da, “porque lo he visto yo”

Lau terrestre marinero, Jose Loidi patroie,
ekarri, aeroplanuak ekarri, aeroplanuak ekarri
aeroplanua, …, Artzan enkaileta itzi

Egidxe da, egidxe da, neuk ikusikoa da ta
Egidxe da, egidxe da, “porque lo he visto yo”.

1.7. "Por el camino de Alfa" kanta

- **Hizlaria(k)**: Bermeoko kanta zaharrak 01
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: BRM-058/015
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:22:04. **Bukatu**: 00:23:14
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: "Por el camino de Alfa" kanta.

Transkripzioa
POR EL CAMINO DEL ALFA

Por el camino de Alfa la encontré
a una chica muy guapa y la besé
me dijo "sinvergüenza", me callé
y un poquito más arriba "más sinvergüenza es usted”

Ai Alfara! ai Alfara!
gora ta behera, behera ta gora,
txoferra txixe daidxola
Errosatxu, Errosatxu
hagiñik ez ta txurroa nondik jan dozu

Por el camino de Alfa la encontré
a una chica muy guapa y la besé
me dijo "sinvergüenza", me callé
y un poquito más arriba "más sinvergüenza es usted”

Ai Alfara! ai Alfara!
gora ta behera, behera ta gora,
txoferra txixe daidxola (x2)

1.8. "Gure Tala" kanta

- **Hizlaria(k)**: Bermeoko kanta zaharrak 01
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: BRM-058/016
- **Iraupena**: 0:02:54. **Hasi**: 00:23:14. **Bukatu**: 00:26:08
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: "Gure Tala" kanta.

Transkripzioa
Gure Tala, agur

Baionatik hasita, beste Baionara
toki ederrak dira, baiña ai gure Tala.
Harrotasunik barik, baiña bai zintzorik
bermeotarra beti guztiz alaiturik.

Burgotikan begira gure Talaiari,
bihotz- bihotz guztia nere maitiari,
arraintxuan urruti bihotza penarik
gure oraziyoa Talan San Rokeri.

Baionatik hasita, beste Baionara
toki ederrak dira, baiña ai gure Tala.
Harrotasunik barik, baiña bai zintzorik
Bermeotarra beti guztiz alaiturik.

Neska ta mutillak, goratu bihotza

guazen bai Talara, hau da gure poza.
Hemen dut ikusiko barku eder aunitz,
Bermioko neskato, anai pena barik.
Zapia zuriagaz, agurra santari
noa erregututen Almikeko amari.

Gure Tala, agur.

1.9. "Señero zantar" kanta

- **Hizlaria(k)**: Bermeoko kanta zaharrak 10
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: BRM-067/011
- **Iraupena**: 0:00:21. **Hasi**: 00:12:55. **Bukatu**: 00:13:16
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: "Señero zantar" kanta.

Transkripzioa
Señero zantar, lotsabakue
beti itsosorako orduan,
bai orduan!
andra ederrak ohien itzitte,
lebazalien kontura.

Itsosotik gatozenien
afai barik etxera,
andra zantarrak bialtzen gaittuz,
afaldu barik ogera.

Ogera joan ta popia emon
hauxe da betiko kontua,
holako andrakaz ezkontzen dana
ez da makala tontua!

Andra zantarrak entzuten dozu
itsosorako kanpaia
lau sagar muskil, ogi pixka bat
egun guztiko jatea.

1.10. "Bermeok daukaz kale barridxek" kanta

- **Hizlaria(k)**: Bermeoko kanta zaharrak 11
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: BRM-068/001
- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:02:32
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

- **Laburpena**: "Bermeok daukaz kale barridxek" kanta.

Transkripzioa
Bermiok daukaz kale barridxek
Gaztelu ta Austekantale,
Torronteru ta Pixu-kale
Talabide ta Ertzille,
Santa Barbara, Erremedidxo
Santa Mañe ta Txibitxe,
Santa klara ta Matxikorta
Bilbo bide ta Portale,
Horrek baño hobago dire
Talagoitxi ta Baztarre.

Baita dauka kakallobide
Morondo ta eskolakale,
Erribera ta Erreñezubi
Telleridxek ta Adubidxe,
Errosape, Demiku, Arene,
San Pelaio ta Almike,
Aritzatxu ta Tonpoigane
Zarragoitxi ta Atalde
Horrek baino hobago dire
Talagoitxi ta Baztarre.

Talagoitxiko atsuek dire
dana zaharrak ta gaiztuak,
Baztarreko neskatilliek
kaisko beru ta zoruak,
Torronterun batuten dire
Talagoitxiko atsuak
galtzerdidxen aitzakidxian
guzur guztidxek batzian,
horrek danak guzurrek dire
portu mandan asmatuak.

Erremedidxo kalian dago
atso pillua dxokuan,
bata bestia engaiñatuten
lauko guztidxak galtzian
Gaztelutik ikusten dire
portu guztiko txalupak,
otzaretako arraiñak eta
neskatillen arazuak,
horrek gauzek egidxek dire
mundu guztidxen aurrian,
horrek gauzek egidxek dire
mundu guztidxen aurrian.

1.11. Bermeoko kanta zaharrekin egindako "Popurri" kanta

- **Hizlaria(k)**: Bermeoko kanta zaharrak 11
- **Elkarrizketatzailea(k)**:

- **Erref**: BRM-068/002
- **Iraupena**: 0:00:35. **Hasi**: 00:02:32. **Bukatu**: 00:03:07
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: Bermeoko kanta zaharrekin egindako "Popurri" kanta.

Transkripzioa
Oillo baltzak eitten dau
arrotza zuridxe
haren barruan dago
Gregori txikidxe.

Txukurrukutxu ez niri ikutu,
aita kamaran dago sentiduko gaittu.

Aita kamaran eta ama sukaldean
neska-mutil gaztiak eskillarapian.

Ai, ai, ai, txukurrukutxu ez niri ikutu,
aitak kamaran dago sentiduko gaittu.

1.12. "Lau aeroplano" kanta

- **Hizlaria(k)**: Bermeoko kanta zaharrak 11
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: BRM-068/003
- **Iraupena**: 0:03:29. **Hasi**: 00:03:07. **Bukatu**: 00:06:36
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: "Lau aeroplano" kanta.

Transkripzioa
Lau aeroplano pasata
bat itsosora dxeusi,
lau aeroplano pasata
bat itsosora dxeusi,
ekarri sebastianak ekarri,
sebastianak ekarri sebastianak,
Artzan enkalleta itzi

Egidxe da, egidxe da,
neuk ikusiku dalako
egidxe da, egidxe da,
porque lo he visto yo.

Bermioko portuan
goizeko ordu bidxetan,
Bermioko portuan
goizeko ordu bidxetan,

ez da entzuten besterik,
ez da entzuten besterik,
ez da entzuten besterik,
Txo, atrakaizu batela!

Egidxe da, egidxe da,
neuk ikusiku dalako
egidxe da, egidxe da,
porque lo he visto yo.

Agostuen hamabidxen
Patxi Bermiora etorri,
agostuen hamabidxen
Patxi Bermiora etorri,
ekarri katxalotia, ekarri
katxalotia ekarri, katxalotia puf!
Artzan enkaieta itzi.

Egidxe da, egidxe da,
neuk ikusiku dalako
egidxe da, egidxe da,
porque lo he visto yo.

El aviador de Kakapur
también quería volar,
el aviador de Kakapur
también quería volar,
ez tso itzi trinkadoriak ez tso itzi
trinkadoriak ez tso itzi, trinkadoriak,
barrabaskeidxe ein barik.

Egidxe da, egidxe da,
neuk ikusiku dalako
egidxe da, egidxe da,
porque lo he visto yo.

1.13. "Bat, bi, hiru, lau" kanta

- **Hizlaria(k)**: Bermeoko kanta zaharrak 11
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: BRM-068/004
- **Iraupena**: 0:00:44. **Hasi**: 00:06:36. **Bukatu**: 00:07:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: "Bat, bi, hiru, lau" kanta.

Transkripzioa
Bat, bi, hiru, lau,
bat, bi, hiru, lau,
bost, sei, zazpi,
bost, sei, zazpi,

bermiotarrak irebazi
bat eta bi, aurrera!

Bermeo es tan pequeño
que no se ve en el mapa,
pero jugando al fútbol
a todo el mundo gana.

Bat, bi, hiru, lau,
bat, bi, hiru, lau,
bost, sei, zazpi,
bost, sei, zazpi,
bermiotarrak irebazi
bat eta bi, aurrera!

1.14. "Anakleto" kanta

- **Hizlaria(k)**: Bermeoko kanta zaharrak 11
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: BRM-068/006
- **Iraupena**: 0:00:21. **Hasi**: 00:07:53. **Bukatu**: 00:08:14
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: "Anakleto" kanta.

Transkripzioa
Anakleto, entzun eizu,
traiñerua abilla dakozu,
ama datorrenian nian,
aitta datorrenian nian,
etxetik kanpora botako zaittuz,
ama datorrenian nian,
aitta datorrenian nian,
etxetik kanpora botako zaittuz,

1.15. "Koldobike" kanta

- **Hizlaria(k)**: Bermeoko kanta zaharrak 11
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: BRM-068/008
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:08:30. **Bukatu**: 00:09:46
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: "Koldobike" kanta.

Transkripzioa
<p>Kai aldeko hegal baten
abesti hau entzun neban,
gazte

bat zan, bermiotarra,
maitea eban bere gogoan.
Koldobike, neure maite,
zu zaitut zorion emaille,
atsegiñez nauzu bete
gau honetan niganatu zaite.
Ezer barik, iñor barik,
hemen nauzu, neu bakarrik,
neure bihotza ez dau pozik,
ez dago iñor zu bezelakorik.
Koldobike, neure maite,
zu zaitut zorion emaille,
atsegiñez nauzu bete
gau honetan niganatu zaite.

1.16. "Andra zantarrak" kanta

- **Hizlaria(k)**: Bermeoko kanta zaharrak 11
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: BRM-068/009
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 00:09:46. **Bukatu**: 00:10:34
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: "Andra zantarrak" kanta.

Transkripzioa
Andra zantarra entzuten dozu,
itsasorako kanpaia,
lau sagar-muskil, ogi puska bat,
itsasorako dxakia.

Itsosotik datozenian
apai barik etxera,
andra zantarrak bialtzen gaittuz,
apai barik ohera.

Ohera dxoan eta popia emon
hauxe da betiko kontua,
holako andrakaz ezkontzen dana,
ez da makala tontua.

1.17. Bermeoko kanta zaharrekin egindako "Popurri" kanta

- **Hizlaria(k)**: Bermeoko kanta zaharrak 11
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: BRM-068/011
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 00:11:10. **Bukatu**: 00:12:29
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: Bermeoko kanta zaharrekin egindako "Popurri" kanta.

Transkripzioa
Urra Jose babil, Jose babil, Jose babil,

Urra Jose babil, Jose babil, Jose babil.
Urra Jose babil, Jose babil, Jose babil,
Urra Jose babil, Jose babil, Jose babil.

Erropak dxeudi diez,
don dan,
balkoitzik behera,
behera, behera, behera,
balkoitzik behera, din don,
Baztarreko din don.

Ai Susana, herriko Fermin,
dxuen Mundekara zentimo barik,
Ai Susana, herriko Fermin,
dxuen Mundekara zentimo barik.

Ai ene! Oi ene!
hagiñeko miñe medikuañe!
Ai ene! Oi ene!
hagiñeko miñe medikuañe!

Baltzak garizela diñoie,
bai halan diñoie, bai halan garie,
baltzak garizela diñoie,
bai halan diñoie, bai halan garie.

1.18. "Ai Alfara!" kanta

- **Hizlaria(k)**: Bermeoko kanta zaharrak 11
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: BRM-068/012
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 00:12:29. **Bukatu**: 00:13:17
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: "Ai Alfara!" kanta.

Transkripzioa
Ai Alfara, ai Alfara!
gora ta behera,
behera ta gora,
txoferra txize daidxola!

Ai Alfara, ai Alfara!
gora ta behera,
behera ta gora,
txoferra txize daidxola!

Por el camino de Alfa la encontré,
a una chica muy guapa y la besé,

me dijo: "sin vengüensa" y me calle,
un poco más arriba,
más "sin vengüensa" es usted.

Ai Alfara, ai Alfara!
gora ta behera,
behera ta gora,
txoferra txize daidxola!

1.19. "Neska zaharrak" kanta

- **Hizlaria(k)**: Bermeoko kanta zaharrak 11
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: BRM-068/013
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:13:17. **Bukatu**: 00:14:14
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: "Neska zaharrak" kanta.

Transkripzioa
Neska zaharrak dxoaten diez Madalenara,
Madalenara, Madalenara,
neska zaharrak dxoaten diez Madalenara,
Madalenara, Madalenara.

Santuari eskatzera nobidxo bana,
nobidxo bana, nobidxo bana,
santuari eskatzera nobidxo bana,
nobidxo bana, nobidxo bana.

Santuak esaten dio: "nobidxorik ez,
nobidxorik ez,nobidxorik ez",
santuak esaten dio: "nobidxorik ez,
nobidxorik ez, nobidxorik ez".

Horregaittik neska zahar geratu nintzen,
geratu nintzen, geratu nintzen,
horregaittik neska zahar geratu nintzen,
geratu nintzen, geratu nintzen.

Trai, laralai, laralai, laralai, lai,
trai, laralai, laralai, laralai.

1.20. "Errosatxu" kanta

- **Hizlaria(k)**: Bermeoko kanta zaharrak 11
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: BRM-068/016
- **Iraupena**: 0:00:43. **Hasi**: 00:17:18. **Bukatu**: 00:18:01

- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: "Errosatxu" kanta.

Transkripzioa
Errosatxu, Errosatxu,
hagiñik ez ta txurrotxu nondik dxangozuz!
Errosatxu, Errosatxu,
hagiñik ez ta txurrotxu nondik dxangozuz!

Amilibia, ay Amilibia,
ya te lo dezia yo,
que el asunto de Bermeo
iba a ser tu perdizion.
Justizia señor alcalde
que somos nacionalistas,
y si no se hace justicia
la tomaremos con el yo-yo.

1.21. "Sombrero en mano" kanta

- **Hizlaria(k)**: Bermeoko kanta zaharrak 11
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: BRM-068/023
- **Iraupena**: 0:00:40. **Hasi**: 00:22:26. **Bukatu**: 00:23:06
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: "Sombrero en mano" kanta.

Transkripzioa
Sombrero en mano entró en Bermeo
La sobrina de Bollar,
Su tío cojo le esperaba
con el coche consular
Lameriri bueltie emonda,
dxuen zien Talara,
izterrak errefreskatzen bajatu zien Talapera,
bazkaldu nitzan guapo-guapo
goazen bai plazara, handik egingo degu
gogotik aurrera.

1.22. "Señero zantar" kanta

- **Hizlaria(k)**: Bermeoko kanta zaharrak 11
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: BRM-068/024
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:23:06. **Bukatu**: 00:24:13

- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: "Señero zantar" kanta.

Transkripzioa
Señero zantar, lotsabakua
beti itsosorako ordua,
andra ederrak ohian itzitte,
lebazalien kontua.

Itsosotik datozenian
afai barik etxera,
andra zantarrak bialtzen gaittuz,
afai barik ogera.

Ogera dxoan eta popia emon
hauxe da betiko kontua,
holako andrakaz ezkontzen dana,
ez da makala tontua,
holako andrakaz ezkontzen dana,
ez da makala tontua.

Tragola, tragola, tragola soidxie,
itsosorako otzarie.

1.23. "Txakur gorri polit bat" kanta

- **Hizlaria(k)**: Bermeoko kanta zaharrak 11
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: BRM-068/025
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 00:24:13. **Bukatu**: 00:25:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: "Txakur gorri polit bat" kanta.

Transkripzioa
Txakur gorri polit bat
galdu jaku guri,
ezaugarria dauka,
agertu baleki.

Belarri baltzak eta
buztena belleki,
iruntsiko leukela
ogitaz libra bi.

Nik maite dot bidxotzez
Euzkadi ederra,
Euzkadi bai dalako

euzkotarren ama.

Ene ama kuttuna,
maite laztantxua:
eutsi neure bidxotza
ta neure gogua.

1.24. "Maria Madalena" kanta

- **Hizlaria(k)**: Bermeoko kanta zaharrak 12
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: BRM-069/001
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:27
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: "Maria Madalena" kanta.

Transkripzioa
Maria Madalena Izaroena
gure santarik maitiena,
Maria Madalena Izaroena
gure santarik maitiena.

Harantz begira dau lema maisua
hau da bai txalupi abillena,
Harantz begira dau lema maisua
hau da bai txalupi abillena.

1.25. "San Pedro" kanta

- **Hizlaria(k)**: Bermeoko kanta zaharrak 12
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: BRM-069/003
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:02:37. **Bukatu**: 00:03:52
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: "San Pedro" kanta.

Transkripzioa
San Pedro, zeruetako giltzaren jaubia;
zeuria txalupia neuria saria.
San Pedro, zeruetako giltzaren jaubia;
zeuria txalupia neuria saria.

Gora gora doa San Pedrokua,
gora doa eta halan be juan.

Gora gora doa San Pedrokua,
gora doa eta halan be juan.

1.26. 'Bermeoko pildainistak' abestia

- **Hizlaria(k)**: Larrozea Estibaliz, Luzia; Munitiz Zallo, Julita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-083/035
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 00:56:36. **Bukatu**: 00:59:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elizondo, Iratze
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
  Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- **Laburpena**: Abertzaleei "Pildaiñistak" deitzen zien. Luziak horri buruzko abesti bat abesten du. Lehengo abertzaleak gogorragoak zirela diote.

Transkripzioa
- Luzia: Atziñen nazionalisteri esaten ezan dotsoien, pildaiñistek.
- Julita: Pildaiñistek.
- Luzia: Pildaiñistek.
- “Bermioko pildaiñistek dxuen diez Estellara… (Julita: Neure aitxe-ta) Bitoridxeko entradan harrike atara.
Bermioko pildaiñistek dxuen diez Estellara,
Bitoridxeko entradan harrike atara.
Bat eta bi, hiru te lau,
banderie gorde ta ekar dau,
bost eta sei, zazpi zortzi,
bizirik itzi tsoienian bere pozik etorri,
bizirik itzi tsoienian bere pozik etorri.”
- Julita: Egidxe da hori!
- Luzia: Pozik etorri. Hori kanta dot imetan ta ez dast ahaztuten hori kantie. Etxien […] hori kantie, Bermioko pildaiñistek jun diz teillara.
- Julita: Bai, pildaiñistek ezan garizen, gu peldaiñistek ezan gara.
- Luzia: Gu pildaiñistek izan gara, baie orduen beste klase batera kantaten ezan duun.
- Julita: Ta kaleko andrak be pildaiñistek ezan dizenak.
- Luzia: Orduen pildañistek esaten ezan tsagun.
- Julita: "Entzun zu zer diñozu zuk, aizte bidxok ba?" Niri ta aiztiri, "errepublikanukaz zabiltzie ta". “Ta zer?”
- Luzia: “Aquellos tiempos”…
Julita:- Ta horrek dako zer ikusirik?
- Ta pildaiñistek zer dala ta?
- Julita: Pildañistek eurek ezizena imiñi.
- Luzia: Ezizena imiñi pildañistek. Ta horreitxik kantaten zan: “Bermioko pildaiñistek dxun die Estellara Bitoridxeko entradan harrike atara”.
- Julita: Neure aitxe koitxadue ta dxun zin.
- Luzia: “Bat eta bi, hiru eta lau, bost eta sei, zazpi ta zortzi, bizirik itzi tsoienien pozik etorri”. Gero banderie gordeta be ekar dauila.
- Julita: Neure aitxek be kantaten ezan dauen ta hil dxenien be nik ein tsaten aitxeri berak gure ezan /guzan/ dauelez atizak, etxien okitzen ezan duun orduen hille ta amari esan tsaten: "ama, hau ta hau eingo dot". Basta

ke geure aitxek gure ezan /guzan/ dauen ta ikurriñe, etxien okin duun ikurriñe, aitxeri bota ganien haulan ta atie zarratu, enterraten eruteko.
- Luzia: Atziñen politikien gaiñien buf!
- Julita: Bai.
- Luzia: Orain ez.
- Julita: Orain.
- Luzia: “Si te visto no me acuerdo”.
- Julita: Orain ez dau lehengo beste ha, baie lehen ezan da gogorrak. Lehengo pildaiñistek ezan die.
- Luzia: Lehengo partiduek-eta.
- Julita: Gogorrak ezan die.

1.27. Aintzane deitzeagatik, egurra

- **Hizlaria(k)**: Telleria Madariaga, Aintzane
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-096/007
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:08:41. **Bukatu**: 00:09:47
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
  Politika » Euskara eta politika
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
- **Laburpena**: Moja Karmelitetan ikasi zuen. Oso diktadoreak ei ziren. "Gloria" deitzen zioten eta ez zuen kasurik egiten, bera Aintzane delako; horregatik, mimenkada ederrak jaso zituen. Ordaintzen zuten ikasleak eta ez zutenak zeuden, eta azken horiek zabaldu behar izaten zuten bekorotza mojen baratzean.

Transkripzioa
-Gero ba eskolara, ni hamalau urterarte eskolan ibil nai e, Karmelitasetan, baie Karmelitasetako mojak, unas ditadoras, malas. Nik Aintzane dakotela izena, ta zemat sartada hartun doten! Klaro, “Gloria!” deitxutzen doztie, ta nik kontesta bez, “Gloria!” ta nik kontesta bez. Atxiñe mimena ba’kisu? Ezetu’zu mimena ezta? Horrek mimenak. Halako mimenagaz sartazue lepuen. Nik kontesta bez. “A mí Gloria no me ha puesto la madre el nombre más que Aintzane. Yo soy Aintzane”. Ta egun-egunien kastigada- horretan, or Karmelitasetan oten’zan da distintibodunek pasaten esan dauienak, hametik aulako zertxugaz, ta gu koitxadak, diro bakuek. Solo bat okitzen’zan dauien han, ba, bekorotza ekarten’zan dauienien e zerak, gu koitxadak, hara solora igaroten, paga bakuek. Entzuten’zu?

1.28. Izeko haserre mojarengana

- **Hizlaria(k)**: Telleria Madariaga, Aintzane
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-096/013
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:16:04. **Bukatu**: 00:18:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- **Laburpena**: Behin mojek eskolatik bota zituzten bi lehengusinak txinoentzako dirurik ez eramatearren. Ama joan eta esan zion mojari bost txino zeudela euren etxean, eta berriz dirua eskatzen bazien abarketarekin lepoa apurtuko ziola.

Transkripzioa
-Haur, amen txaltxu, txaletak non dauz amen indxe,
-Bai.
-Hor e? Hor okitzen'zan du solo eder bat. Solo eder bat, gure ama ta izeko, ba euren biharrak eindxe gero, patatie ataten, nego gustireko patatie okitzen'zan du te! Ta halako baten, ni eskolan ta nik ez doten dxakin, halako baten negarres bidxek solora. Ta diñotzo gure izekok: "Zer pasaten da ba?" gure izeko ezan dalakon garbosiaue gure ama baño, gure ama trankiltxuaue ezan da, ta izeko esan da mas e esatilez gizonak pe etzon ingo hareri burlerik. Ta "zer pasaten da? Begoñe, Polixene, zer pasaten da?" "Zer pasaten da? Mojiek etza gaitxus e eskolatik kanpora." "Zer dala ta? Zer eixue ba?" "Guk ezebez e ama, txiñuntzako dirorik ez dulakon erun." "Zer? Txiñuek? Zuek paño txiño handidxaurik, bost txíño ez kauz ba etzien ba?, zazpi dxateko, aitxe bako imiek ba." Garbosie, eurek pañelue imindxe ametik haulan, beran amental ta aberketak diferentiek bidxekaz, han dxatok mojatara. Dxoten dau trinbie ta: "Ia, honen mojie nor dan e, esan mesedez urteteko" Porteriek. Urteten´tzo mojiek, ta bermiotarra ezan da mojie e, kabokue. " Ia, honek imiek ze in dxauie eskolatik kanpora botateko?" diñotzo. "Ba txiñuntzako dirorik ez dau ekarri." "Eurok paño txíño handixaurik, bost txiño dakuz guk etzin e! aitxe bakuk" ta esantzon " Kuidadito beste baten nire umiek kanpora etzaten bazu, txiñuntzako ez dauelakon ekarri dirorik. Hau aberketie ikustenzu?" diñotzo "haunegaz lepue be apurtu ingotzut!" diñotzo mojiri, entzu'zu?

1.29. Bermeoko ikastolaren hasiera

- **Hizlaria(k)**: Telleria Madariaga, Aintzane
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-096/020
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:23:54. **Bukatu**: 00:25:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- **Laburpena**: Bermeoko ikastolako lehenengotariko haurrak eurenak izan ziren. Hamar bat ume izango ziren hasieran. Etxeetan atea jo eta "euskeriek ez dau balixo" erantzuten zuten askok.

Transkripzioa
-Fundekuek ikastolan geure imiek ezan die, nire semie sei urtegaz, Dxaione, harek e urte bete gitziau, ta ikastolie funde, ta Bihotza lobien, lengusiñien alabie, hirurek. Ta ikastola barridxe eitxeko, fralletan ibiltze'zan garie, fralletan bar bat on zan, ta han koltxoneta ganietan imiek, e? entzuten'zu? Ta gero andik atzeko mandan in sauien halako zertxu, lokal bat, gero hara bajatu zien. Hogei, e, zemat pagaten'zan du? Hoge ta bost euro edo holakoren bat e, andareño bakotxa.

-Hoge ta bost pezeta
-Baie Bermion, batun eziñik e lagunek e, ikastolarako. Zemat ezan gariz ba? Hamar ime ezan gariz batun garizenak herri guztidxen? Atitan dxo ta, ati dxo ta, eitxen zauie “euskerik ez dau balidxo” ta, atin dxo ta jentiek, gaur PNVkuek tizenak, dizenak tizenak, handidxek tizenak, haur be ikastolie in bidala ta, hamar urtegaz gure imiek kanpora, ez ta on gidxau lekorik eta, hori barridxe eitxeko, hori ikastola barridxe itxeko. Ta gure amak eta, esan’tzuten moduen, hor txaletatan onduen, baserridxe edo soluk okin dxauielez, gure amak eta dirijidu, etze bat on zan hor e, matrimoniño bat, ia zaharrak, ta hor eitxeko ikastolie. Bakixu non dauen Eleisalde ezta? Ba beitu zemat urte dan, nire semiek takoz berroge ta bederatzi urte, hamar urtegaz urten dau eskolatik, ez dalakon egon lekorik eskolarako, hiru mille bana ogorloko imin dxun e, lengusiñe bakotxak.

1.30. 'Tertza'

- **Hizlaria(k)**: Bermeoko kanta zaharrak
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: BRM-119/001
- **Iraupena**: 0:05:17. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:05:17
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: 'Tertza' abestia, musikaz lagundua.

Transkripzioa
Tertza otzarie ekarri mesedez, Merzedes
Tertza otzarie ekarri mesedez, Merzedes
Tertza otzarie ekarri mesedez, Merzedes, baiña zuk ardurarik ez.

Isidora, Isidora zueneko ama ta aitxe, ta aitxe ta ama
Isidora, Isidora zueneko ama ta aitxe, ta aitxe ta ama.

Tres cuartillos de caña y una libra de pan
hiru neskan artian goizian despeskan
hiru neskan artian goizian despeskan, baiña ezin leitxeke ezan.

Hilario, Hilario ondiño bere ekarritzeko diño
Hilario, Hilario ondiño bere ekarritzeko diño.

Ameriketan dago gerrie, gerrie
Kalifornian dago gerrie, gerrie
Ameriketan dago gerrie, gerrie, baiña Españian gosie.

Agustiñe, Agustiñe ekarrizu guretzako ogi zuridxe
Agustiñe, Agustiñe ekarrizu guretzako ogi zuridxe.

Gin gin gibolin sague palazan dabil
nik ez dakit zer dan baie
manta luzie darabil.

Argiñek kañie ekarri, kañie ekarri, kañie ekarri
kuartillokoa gitxi bada,

kuartillo t´erdi, kuartillo t´erdi.

Berrogei arrue ezkero
fota ta guzti, fota ta guzti
hirurogei arrue ezkero
kafe ta guzti, kafe ta guzti.

Pilarrek fotak ekarri, fotak ekarri, fotak ekarri
dozena bat gitxi bada,
dozena ta erdi, dozena ta erdi.

Ander duenien batelien kalara
Miren juengo da bera ikusten talara
Ander duenien batelien kalara
Ane juengo da bera ikusten talara.

Animo pues, Isidora, enamorata daukazula jende guztia
Animo pues, Isidora, enamorata daukazula jende guztia.

Ai Maritxu, esaistazu Lamerara pasietan urtengo badozun
Ai Maritxu, esaistazu gauien pasietan urtengo badozun.

Torrotxuk dako trinbie neska zaharran bibotie
haren umetxuek dako mokuen txirristadie
nobidxie topa eziñik pasaten dau denporie.

Barkitok ekarko dau eskotetik lebatza
beste beseu txiki bi txiruk ekarko dau. (bi aldiz)

Han dator bapora hiru palokua
haren bizitzia karabiñerua.

Ron ron, kabeza de melon
andria morondon
gizona Antontxu
haren nobidxotxua Emeteriotxu.

1.31. 'Markesaren semea'

- **Hizlaria(k)**: Bermeoko kanta zaharrak
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: BRM-119/002
- **Iraupena**: 0:02:27. **Hasi**: 00:05:17. **Bukatu**: 00:07:44
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: 'Markesaren semea' abestia, musikaz lagundua.

Transkripzioa
Zazpi laguntxu gara
kuadrilla batian
ondo ezetuten gaittu
Bermioko herrian

Neska gazteak diñosku
ez gaittuzela bihar
holako neska txarrik
guk eztula bihar

Neska gazteak diñosku
ez gaittuzela bihar
holako neska txarrik
guk eztula bihar

Neska batek esantso
neure lagunari
ez datzola gustaten
mariñero pobrerik

Horreri emongo jatzo
markesaren seme
holako neska txarrik
geuk be eztula gure

Horreri emongo jatzo
markesaren seme
holako neska txarrik
geuk be eztula gure

1.32. 'Koldobike'

- **Hizlaria(k)**: Bermeoko kanta zaharrak
- **Elkarrizketatzailea(k)**:
- **Erref**: BRM-119/012
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:40:45. **Bukatu**: 00:43:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Gaia(k)**:
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: 'Koldobike' abestia, musikaz lagundua.

Transkripzioa
Kai aldeko hegal baten
abesti hau entzun neban,
gazte bat zan, bermiotarra,
maitea eban bere gogoan.
Koldobike, neure maite,
zu zaitut zorionen ate,
atsegiñez nauzu bete
gau honetan niganatu zaite.
Abots eder ta itunaz
maiteari deika egoan,
barrua illun eta bakar,
izarrik ez zan haren zeruan.
Koldobike, neure maite,
zu zaitut zorionen ate
atsegiñez nauzu bete
gau honetan niganatu zaite.
Etxe barik, iñor barik,
hemen nauzu, gaur bakarrik,
nireok hor ez dot pozik,
ez dago iñon Bermio lakorik.

Koldobike, neure maite,
zu zaitut zorionen ate
atsegiñez nauzu bete
gau honetan niganatu zaite.

2. Lanbideak

2.1. Gasteizera neskame

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Valle, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-001/004
- **Iraupena**: 0:04:19. **Hasi**: 00:05:53. **Bukatu**: 00:10:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Fontecilla, Gontzal
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Neskameak
- **Laburpena**: Ez zitzaion gustatzen lantegian lan egitea; hori dela-eta Gasteizera joan zen neskame, bi etxetan egon zen. Hilabetean 10 ogerleko jasotzen zituen. Neskame zebilela, domeketan arratsaldeko lauretatik zazpietara izaten zuten jai. Dantzan egitera joaten ziren.

Transkripzioa
- Gero niri ez jat gusta fabrikie. Ama hil jastenien, ez jat gusta fabrikie ta egon nai kridxada Vitoridxen. Vitoridxen ein dotaz hamar urte.
- Ta zelan ba joan ziñela Vittorire?
- Zelan?
- Vittorire, zelan ba Vittorira arte? Hain urrun?
- Okin in dxot familidxe baie. Familidxe okin dxot. Ondo, ni ondo. Elegante Vitorixen.
- Vitorixen non egon zinen ba? Vitorixen nun, ze partetan?
- Kalle Datotik hurrien egon nai. Kalle Datotik hurrien.
- Orduen zentro-zentroan.
- Bertan herridxen, bertan. Zelan euki deu ba, ahaztute dakot e. Zelan esango dotsut ba? Jakin dot bai kalie baie, […] dendie? ta harek egon diezen lekotik. Leko onien, leko onien.
- Ta zer, kriada jatekoan truke edo dirue emoten dotsuen?
- Zelan?
- Kriada ze joan ziñen, jatekoan truke edo dirue be hartzen zendun, kobretan zendun?
- Jaten ondo emoten izen doskun, ni ez nai keja eguno. Koziñeri izan nai.
- Ah bai? Koziñera ibiltzen ziñen?
- Bai, ez, ez, ni ondo, niri. Etxe bitten egon nai: baten egon nai militar baten etxien, ta in dotez zazpi urte han; ta, gero, kalle Daton egon nai. Ta niri ondo kuadra dastez etxe bidxek ondo.
- Baiña, dirue kobretan zendun?
- Kobra dirue?
- Bai.
- Kobra dirue, hamar ogorloko.
- Hillien?
- “Cincuenta pesetas.”
- Hillien?
- Bai.
- Eta gero hori dirue aitteri emoten otsazun edo zeuretzat?
- Orduen ama okin jot, ez dot okin amarik. Neba-arrebak partidu garizen. Ta neuk gorde bankuen neuretzako, neu jazteko ta neuretzako.
- Ta ze biher eitten zendun han?
- Danerik. Dana jakin dot eitten.
- Etxeko biherra, koziña…?
- Koziñeri izen nai, beti, ta etxeko biherrak be bai, plantxie be bai. Dana jakin dot eitten.

- Ta umezain be egon ziñen; umezain be bai, umiek jagoten?
- Ez, ez, imik dxaboten ez, izan nai koziñerie, neure denporan. Ta gero ba arratsaldietan lagunekaz.
- Han, Vittorin bertan?
- Bai, bai. Kalle San Antonion egon nai, ta urte asko in dotez.
- Eta bermiotar gehidxau egon zien ala?
- Ez, nigaz ez. Neu bakarrik.
- Zeu bakarrik?
- E, ni ondo egon nai e. Ni ondo egon nai.
- Eta etorten ziñen Bermiora? Oporretan-edo?
- Ez, gitxitten etorten izan nai. Ez dot euki nora etorri, amarik be ez dot okin-ta, ta neba-arrebak be partidute.
- Ta aitte?
- Aitte be ensegida hil jasten. Ta gero ba jun naienien kridxada, ba bertatik ba feliz. Etorten izen nai jaidxetan ta gehiau bapez.
- Eta kriada egoten ziñenien jai eukiten zendun domekatan-edo?
- Domekatan, bertan egunetan, haretan zeretan, ba lauretan kalera ta zortzitan etxera. Izan nai jantzaridxe jantza gustaten izan jast ta. Ta diskoteka lagunekaz. Jantzan beti.
- Orduen parranda asko botanikue izengo zara?
- Bai.
- Bermiotar-bermiotarra?
- Bermiotar-bermiotarra.

2.2. Ama josten ikasten Donostian

- **Hizlaria(k)**: Zulueta Urdengarai, Juanita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-031/017
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:27:29. **Bukatu**: 00:28:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Sastreak, jostunak
- **Laburpena**: Ama gaztetan Donostian bizi izan zen eta han bere diruarekin josteko makina erosi zuen. Etxera itzuli zen, baina gero berriz joan zen Donostiara, josten ikastera. Gerora, etxez etxe ibiltzen zen josten. Ezkondu eta bost seme-alaba izan zituen.

Transkripzioa
- Juanita: Orduen jun zan... baia horrek ya lehelau. Harek ein zien ezkondu ta bera bakarrik amagaz. Ta ein zeuen ba biher asko gure amak. Baia gure amak, fabrikie ez jatzon lez gustaten ixen, esan eutson /esantzon/:”Ni jungo nai Donostire krixada”. Ze okin zeuen nobidxue ta gure ama: ”Neu ezkondu [holangoxetik?] ez. Ni jungo nai Donostire”. Ta erun zauen nobidxuen tiek Donostire ta ein zauen Donostin 18 hillebete, Antoni, edo urtebete?
- Antoni: 9 hillebete.
- J.: 9 hillebete.
- A.: Ta beran diruaz makiñie jostekue erosi, Singer. Ondiño han dau,.
- J.: Bai, kamaran daku.
-A.: Kamaran.
- J.: Ta esan eutson /esantzon/: ‘’Bueno, oin zer? baie zuk ezin dozu / ezinzu/... behidxe daku behien ta gauzek eta josten ikasten...", "Ez banuen

josten ikasten, atzera nun Donostire!”. In zauen josten ikasi ta gero hasi zan beragaz makiñetxuaz [zeueneko] ama lez, etxerik etxe. Ta gero ein zan ezkondu, ezta? Ama. Ze gero amaandik gatoz gu eta okin dittuz gure amak eta aittek 4 seme-alaba. Ez, lehelau alabie, gero bikotx bi, ta gero, ba, geu. Nebie ta... bost. Ezta? Bai. Honek ez dau entzuten.
- Jesus: Lau zauzie bizirik. Lau zarie, ba... bestie hildde, ba, bost.
- J.: Bai, bost.

2.3. Pilarika egunean kuartelera arraina eraman behar

- **Hizlaria(k)**: Ormaetxea Ormaetxea, Anastasia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-085/021
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:43:17. **Bukatu**: 00:45:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elizondo, Iratze
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Polizia
- **Laburpena**: Pilarreko Ama Birjinaren egunean, guardien egunean, lantegitik latak-eta eraman behar izaten zizkieten Erriberako kuartelera. Karabineroek ere bazuten beraien lekua.

Transkripzioa
- “Guardia de asalto”ak nortzuk zien?
- Bertokuek, hamekuk ezaten ezan diz “guarda de asaltuek.
- Baie zer alderditekuek?
- Hamekuek, kuartelekuek, nazionalistek ezaten ezan diz edo faxistek, honek faxistek ezaten ezan diz, faxistek! Francon demandokuek, bai. Gure koiñatuk bere ba kartzelatik libreta bertora zerera, kuartelera, dxuten ezan dan ta emoten ezan dotsoien /ezantsoie/n egunek edo hillie edo emoten ezan dotsoien /ezantsoien/ bertara presentateko, ta dxuten ezan da. Esango dotsut euren egunien, Pilarike egunien, gure fabrikera etxaten ezan dauie kartie euren egune zelebrateko, emoteko eureri gauzek eta geu dxuten ezan garizen atun latakaz ta antxoa latakaz, han dxuten ezan garizen kuartelera harek eruten. Geuri eruten ezan garizen eureri eruten, bai. Eskatu eitten ezan dotsu /ezantsu/ uzabari.
- Nun egon zan kuartela ba?
- Hamen Erriberan, Arantzaneko zera, Arantzak ezetu dau ordun ha zera, guardidxen zera, bai. Han Erriberan hon da. Ta haur bere, portun bere, karabiñeruen kasetie beti oten zan ta, hor, Artxanda behien, hor beko mandatxuen oten ezan da.
- Karabiñeruekin?
- Karabiñeruek oten ezan dizen hor.
-Karabiñeruekaz zelan?
- Karabiñeruek eta guardidxek ez diz ezan bardiñek. Karabiñeruek ezan diez ia portu mandakuek ezan diez. Ta hor guardidxek ezan diez ba bueno! Herridxe guztidxen dxaube ezaten ezan dizen horrek.
- Baie karabiñerukaz zuek ze tratu okitzen zenduen?
- Neu eguno bez karabiñeruekaz. Orain guardidxek, badiñotsut, geu dxuten ezan garizen fabriketik kartie etxaten ezan dotsoienien /zantsoienien/ uzabari edo enkargaueri geu dxuten ezan garizen entregaten eureri erregalue Pilarikan egune zelebraten ezan dotxu /zantxu/ horrek, ta fueta, ta fueta, ta fueta, ta geu dxuten ezan garizen.

2.4. Aguazilak eta falangistak agintari

- **Hizlaria(k)**: Munitiz Lartitegi, Inas
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-089/016
- **Iraupena**: 0:04:33. **Hasi**: 00:30:05. **Bukatu**: 00:34:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elizondo, Iratze
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Udal langileak
  Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- **Laburpena**: Aguazilek edozergatik jotzen zituzten porrarekin. Bere aitak-eta askotan itsasora joan beharrean batzokian gelditu behar izaten zuten guardiak egiten derrigortuta. Batzokia sasoi hartan falangistek izan zuten hartuta. Falangista gehienak bermeotarrak ziren, tartean bere lehengusina bat.

Transkripzioa
- Ta kantaten zauz ta halako baten aguazillek etorri, aguazille Bermion on dinak batzuk ez zauien dxakitzen zan firmeten bez, firmeten bez batzuk! Hori, hori edozeiñek daki Bermion. Ta okitzen ezan duielez euren porrie, pistolarik eta ez dot pentsaten okitzen ezan daunik orduen, porra, porra hutse! Baie ez otsuien pentsaten zan eurek, nik ez daitz ze pentsaten zandauien eurek total pertsona txarrak.Ta zeuk herridxen ezetuikuek. Gorridxekaz zeuk ezetuikuek herridxen ta gero nazionalakaz aguazil dxuen ta herriko dxaue, kanta bat be ezin ein kalien, edozeitxik, edozeitxik zaparradak, zartazue edozeitxik. Gauze on bat be ezin ein, ze gruputan be ezin on, beti gruputan itzi be oten, igual sei-zortzi lagun egon gruputan ta itzi bez oten igual ongo dala ez daitz zer eitxen ta bakitz zer esaten ta grupuek ta armaten gauzela ta ez daitz zelakue ta, ta guzurre ezaten ezan da, guk ez du okin txarrik ezenik bez. Baie total ordun gogor, guardidxek eta okin dxun. Mando larrei, mando larrei! Edozeitxik zartazue, edozeitxik dxo ta aidien! Edozeitxik. Penaz, penaz pasaten ezan dun, penaz.
- Ta dxo eta gizonezkueri edo andrazkueri be bai?
- Aurrien topaten zandaueri, sarri aurrien topaten ezan dauenari.
- Umiek be bardin bardin?
- Bardin. Aurrien topaten ezan dauenari dxo ta aidien! Penaz, penaz. Ta pasaten ezan dizenien zozer holan, bakizu, esku altxata on bi ezan dozun, ta txapela badakozun txapela kendute ta, ostantzien guardidxek etorri [...] eskue atzien atrapaten /zantsu/ ezan dotsu. Gizonak be, gure aitxek eta be, orduen Falangien, itxosora dabiltzela e! Itxosora gure aitxek eta neu mutil gaztie, […] neu mutil ta aitxe ba, klaro aitxe sozibue gizon, ta beste gizonak be, ta ein bi ezan dauie bertan batzokidxen, Bermioko batzokidxen, ein bi ezan dauien guardidxe, gauez eurek eitxen ezan dauien guardidxe. Falangetik esaten ezan dotsoie: "Zu gaur egun dakozu hau ta ez dakozu" en fin! Ta dxuten ezan da ta itxosora be igual baporetik lagun bet ta lagun bi gitxiau itxosorako Falangien on bi ezan delako guardidxen. Ta ha, ha! Falangien han bategaz ongo zien ta harek dxaboten-edo, ez dait ba! Ta sarri baporatan jentie falta, sarri! Batzokidxe haurek okin dxauie hartun de, falangistek, falangistek.
- Ta zer ziren Bermioko falangistek, bermiotarrak?
- Bai, bermiotarrak, gehidxenak bermiotarrak. Bai. Neure lehengusiñe bat be ezan da. Ta bestie, beste asko be ezaututen dotena Bermon,

bermiotarrak asko, gehidxenak! Neuk pentsaten dot. Gehidxenak bermiotarrak. Normalien ze mandun, hogei on badie manduen segurutik hamabost, hamabi edo hamabost, seguru bermiotarrak ezan dina. Ta horrek ez die ezan txarrak," al fin de acabo" ba! Baia edoxeitzik guardidxek sartzin ezan diez, guardidxek edo aguazillek ta jeneralmente, petrolidxotxue baie, jeneralmente petrolidxue dxanda, ta gero klaro! Aurrekue be ikusi bez ta edozeiñeri! Toma morena!
- Guardidxek esan dozu?
- Guardidxek eta aguazillek be bai. Aguazillek be bermiotarrak, guardidxek be ez diez ezan, bueno guardidxek be ezan die bermiotarrak, bi edo ezetu dotaz, baie aguazillek be nehiku bermiotarrak. Ta petrolidxue edaten ezan dauie gizonagaz ta bakizu! Petrolidxugaz duen edozein, gizonak bakarrik ez, petrolidxue edaten dauien personak, danak antzekuek. Ez dakidxinak burue non dakoien, batzuk burue galdute oten ezan diez.

2.5. Aguazilari buruz berba egitearren epaitegira

- **Hizlaria(k)**: Munitiz Lartitegi, Inas
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-089/017
- **Iraupena**: 0:04:51. **Hasi**: 00:34:38. **Bukatu**: 00:39:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elizondo, Iratze
- **Gaia(k)**:
  Lanbideak » Udal langileak
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura
- **Laburpena**: Aguazil batzuek ez zekiten ezta sinatzen ere. Aguazilak non egoten ziren azaltzen du, kartzela ere bertan izaten zuten. Behin epaitegitik pasatzeko agindua jaso zuen berak aguazil bati buruz esan zituenengatik.

Transkripzioa
- Eta aguazillek orduen falangistek zien?
- Ez. Aguazillek geutikuek, neu igual, kaso baten, hogei ta bost urtegaz ba aguazil, presenta ta aguazil ta firmeten be dxakin bez. Neuk dakitzen batzuk firmeten be, ez dot gure izena nonbra, ze edozeiñek ezetuten ezan dau ta. Ez dauen dxakin, firmeten bez ez tauen dxakin.
- Ta non egoten zien aguazillek?
- Ba auntxek ibiltzilez, baie orduen ez dauien kotxerik.
- Ez, baie nun egon.
- Ai, egotez?
- Orain Goiko Plazan dauz, lehen?
- Lehen Beko Plazan, beheko plazie, Beko Plazan dauen fraillek dakoien elizie, fraillen elizen, han dxakingo dozu, han egon da plaza bat lelau, plaza ederra e! Bermiontzako plaza ederra on zan han behien lelau, ta han goidxen oten zandie eskolak, ta aguazillek han okitzen ezan dauie hauren kartzelie be bai oten ezan da han. Ta auntxek esan dozunien, baten, auntxek handidxe naiela, ezkondute be on nai, ta ein dxostien aguazillen jefiek deitxu, kartie etxien: "No sé que no se cuantos el jefe de aguacile no sé que" pasateko handik ez daitz ze orduten, juzgauetik pasateko. Juzgauetik pasateko? Atsaldeko lauretan, pasateko juzgautik. Dxun naien, bera morroie bera, orduen, oten ezan zan Portugaletik edo etorriko ezan zan bera gizona, bera morroie. Portugaletik etorriko jefie, aguazillen jefie ta

esan dosten: "Haulan, ta haulan dakot zer bat, txibatazue emon dotsoiela nik esan dotela aguazil bateri horreri aguazilleri laster emongo dotsoie zaparradak", "horrek ez dau balidxo ezetako be" esan dotela nik. Esaten: "Nik esan hori?" "Bai hamen parte emon dauenak klaru ta argi esan dau zuk esan dozula hauri, horreri aguazilleri laster emongo dotsoiela zartazue, horrek ez dakidxela eskutan zer dabillen be-ta", ta: "Nik esan dot hori? Bueno, ni ez nai akordaten baie igual esango nauen". Ez nauen esango ba nonoiz, gero dxausi naien konture esan dotena ta esan dotsaten lagun bateri. Lagun, kuadrillen txikiteuen dxun ta esan doten lagun bateri, hori be esaten nau hori dakotela hogeta hamahiru o semi be badakotela, ta ni halako kuadrillen txikiteuen ta laguneri esan ta lagunek be "E! hori fijo, fijo. Holako gazteridxe zelan dxun lei ba, ez daitz zer bakit nor". Kuestiñue da, esan ein dotsaten berari: "Halan ta halan igual karderan esan egon nauen hori berbie, baie txar barik", "Bueno, ba gehidxau ez esan halakorik" ta berak aguazillek esaten ezan dosten, Bermion on dizen aguazillek ez dauela deretxorik harek aguazillek ezateko, ze ez tauila dxakin, "como quien dice", firmadie, firmadie zer dan be ez dauila dxakin ta horrek jentie ez dala egon ondo Bermion horrek otie autoridadie esaten autoridadie, ez dauela deretxorik. Kuestiñue da gero, nik akaba nauen ta gero dxuten zan neure atzekuek ikusi zauen ta nik ez dot dxakin, beste lagune. Neuk kuadrillen dxun gara, baie neuk bera dxun garizena berbetan gero nire atzetik ni baja eskillaratatik behera ta bera gora. "Nora zuez?" esan dotsaten holan ta "Zu nondik zatoz ba?" berak, "Ni aguazillen jefien deidxe okin dot nik, ta nik haulan ta haulan ta", "Ta ze esan dotsu ba?", "Hau te hau", "Ta niri ez dostazu esan aguazillen jefiri dakozune deidxe", "Nik zer dxakin dxot zu be dakozune ba, zeuk be niri ez zu deitxu ta zuk be aguazillen deidxe dakozule?" ta baietz berari be jefiek deitxu dotsola, hareri be ein dotson bardin preguntek ta harek be esan dotson nirelez, ba igual komentaidxue eingo nauela txikitotxu batzuk edanda, ta igual komentaidxue eingo nauela ta entera eingo zirela harregaitxik edo horregaitxik, baie guk txar barik esan dule, guk ez du okin txarrik hor kasuen, baie geuk pentsa hau zelan ezan lei, hau morroie, aguazille zelan ezan lei hau morroie ba, ze fustie ez dau okin fusterik-eta. Bitu zelako gauzek, itsosupeteko apurue! Eguno bez guardidxekaz okin haunen beste ta, aguazillen deidxe!

3. Aisia

3.1. Dantzaldiak

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Valle, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-001/005
- **Iraupena**: 0:02:23. **Hasi**: 00:10:12. **Bukatu**: 00:12:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Fontecilla, Gontzal
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
  Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- **Laburpena**: Goiko plazan eta Lameran egoten zen dantzaldia. Dantzan abila zela dio. Bermeon banda dotorea zegoen. Gizona ere dantzan ezagutu zuen. Baserritarrei kalabazak ematen zizkieten, baina pasteltxo bana erosiz gero, beraiekin egiten zuten dantza.

Transkripzioa
- Lehen hemen, zuek gaztetan, gazte zinienien-eta, ze jantza edo ze erromeri egoten zan?
- Pasodoblie edo zer egoten zan hamen be, trikitixa hori soltue, ba hauri be bai, dana jakin dxot. Jantzan abile izan nai.
- Bermion non egoten zan ba, Lameran?
- Lameran, Lameran. Goiko plazan be bai.
- A bai?
- Bai. “En aquellos tiempos” Goiko plazan be bai. Lameran be bai. Jantzan abile izan nai. [Ha emon] pasodoblie.
- A bai?
- Ez, ez, ondo ondo.
- Ta Bermion nor egoten zan ba, soiñue joten-edo, bandie euen edo zer?
- Bandie Bermiokue.
- A bai?
- Bai. Bermiko bandie eukin dxuu elegantie. Bermion elegantie egon da bandie.
- Eta, orduen mutilekaz eta jantzan be gaztetatik?
- Zelan?
- Baltseoan-eta mutilekaz ibiltzen ziñen?
- Bueno bai, urtetan izen duu, ta bakizu beti berbetan mutilekaz-ta, karo nobidxue zelan topa duu ba! Lagunekaz!
- Orduen nobixue zer, jantzan ezetu zendun gizona?
- Bai, bai.
- A bai?
-Mesedez etorten zanien eskatuten, itzi horreri, hareaz jungo gariz ta. Halan, ba ondo ondo.
- A bai?
- Gaztik izan gari ta. Orain ez daku ezetako kapazik, baie orduen abile izan nai jantzan.
- Ze ibiltzen ziñen kalabazak emoten-eta?
- Bai, emoten izan duz.
- A bai?
- Ademas Andra Maidxetan, Andra Maidxetan da etorten izan diela aldeanotxuek eta koittaduek, ordun guk kalabazak aldeanuei. Ostantzien: “pagaten bazu pasteltxu bana zeuekaz engu jantzan”. Pasteltxu bana. Gure gaztetasune ona izan da, elegantie. Orain ez dago holengorik.

3.2. Andra Mariko jaiak

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Valle, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-001/006
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:12:35. **Bukatu**: 00:14:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Fontecilla, Gontzal
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Kultura » Musika
  Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
  Aisia » Taberna giroa » Beste lokal batzuk
- **Laburpena**: Andra Mariko jaietan herriko zein kanpoko bandak egoten ziren. Kasinora joateko diruduna izan behar zen.

Transkripzioa
- Eta lehen Andra Marixek zelakoak ziren ba?
- Elegantiek.
- Ze egoten zan?
- Bandie, ta kanpotik Sestaoko bandie asko.
- A bai?
- Urtien-urtien. Bai.
- Eta kasinoan zozer egoten zan?
- Kasinora gu, guretzat ez da egon entradarik.
- Ez?
- Pobriek izan gariz kasinorako.
- A bai?
- Pobriek kasinorako.
- Ta kasinora zer joaten zan ba, dirudun jentie? A bai?
- Ordun bai. Gure denporan bai.
- Ba zer dala ta ba?
- Ez dait ba. Gure denporan dirudunek jun izan diz kasinora. Orain ez, orain...
- Oin edonor?
- Oin dana dau igual.
- Eta hor Lameran barkilleuek eta be egongo zien ezta?
- Lameran?
- Bai.
- Hor, zera... bandie?
- Baie gero barkilleruek-eta gozokidxek saltzen-eta?
- Horrek e, horrek ez nai entera.
- Ez?
- Ni neure lagunekaz, gero mutil laguntxukaz, ta ibiltzen izan gariz ba hara ta hona, jantzan-edo, hori bai, ostantzien entera be ez ezegaz be.
- Eta Xixili beti egon da Andra Marietan?
- Bai.
- Nundik dator ba hori Xixili?
- Ez dakit ba. Ez dakitz.

3.3. San Juanak

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Valle, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-001/008
- **Iraupena**: 0:01:40. **Hasi**: 00:14:45. **Bukatu**: 00:16:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Fontecilla, Gontzal
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » San Juan
- **Laburpena**: San Juanera abarketekin joaten ziren ogitartekoa hartuta. Meza eta erromeria egoten zen. Handik Bakiora joaten ziren.

Transkripzioa
- San Juanera gaztetan?
- Bai.
- Abarketakaz, bokadillotxue hartunde.
- Oiñez?
- Ordun ez duu eukitzen izan da. Ordun San Juanera dxuten izen garie

abarketa barridxekaz, batatxue, batie, ta jersetxu bet. Ta dxuten izen garie egun guztireko. Ta eruten izan du bokadillotxue etxetik. Ta ondo, ondo pasaten zan, alegre. Alegre izan nai. Eta lagunek be bai.
- Ta San Juanen ze egoten zan ba?
- San Juanen mezie, ta gero ba dxantzie, sueltue dxantzan.
- Bertan ganien?
- San Juan. San Juanen, mezie akabata, egoten izan diz trikitixak, ta dxantzan. Ta handik bajatu, ta Bakidxora. Ta Bakidxon, erdi janda, hau justo egon da. Ta han be jantzan. Ez, ondo, gaztetasune ondo pasa dot. Ondo. Alegre izan nai. Ta dana balidxo, ostantzien zer? Amarik bez, aiterik bez, gosie, nik guk asko pasa duu.
- Ta San Juanetan be kantau edo ingo zenduen ba zuek?
- Bai
- Ze kanta kantetan zan San Juan egunien?
- San Juaneri. “San Juanetako….”
- Ahaztuta dakozu?
- Ahaztute dakotez horrek geuzek orain.
- Ahaztute baie ondo, ondo, elegante pasaten izan du.

3.4. San Juan kanta

- **Hizlaria(k)**: Gangoiti Asla, Jesus; Renteria Anduiza, Jose Anton
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-033/015
- **Iraupena**: 0:00:51. **Hasi**: 00:25:52. **Bukatu**: 00:26:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » San Juan
  Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
- **Laburpena**: San Juanetako abestia kantatzen dute.

Transkripzioa
- Ezer kantaten zan hamen San Juan egunien?
- Jesus: Untxakue.
- Jose Anton: ba bai. Aurrerau kantau duu. Papelak etxin dakotez.
- Ta zein da kantie?
- Jesus: San Juan Portaletaña.
- Biak:
"San Juan ante Portaletaña,
larunbat arratsaldian,
hamalau atso tronpeta joten
matraillo baten gaiñian."
- Jose Anton: Matraillo bakizu zer dan? txaboli lez.
- Biak:
"matraillo baten gaiñian.
Urra, urra, urra San Juanetan!
jantzan egingo du ipar haizetan.
Uju, ju, ju San Juanera goaz gu!
Uju, ju, ju San Juanetik gatoz gu!"
- Jose Anton: Beste kanta bat be kanta du aurrekuen orfeoiegaz San Juanetan Goiko plazan, Hori ez daitz, buruz ez dakitz.

3.5. Aratusteak galarazita, isilean ospatu behar

- **Hizlaria(k)**: Alegria Uriarte, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-078/015
- **Iraupena**: 0:02:47. **Hasi**: 00:34:16. **Bukatu**: 00:37:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Aisia » Jai-giroa » Inauteriak
  Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena**: Artzako frontoia ez zen itxia gaur egun bezala. Aratusteak galarazita egon ziren gauza txarrak pasatzen zirelako; hori dela-eta isilean ospatzen ziren. Tostadak jateko ohitura bazegoen.

Transkripzioa
- Frontoirik ez zan egon?
- Bai, bai. Frontoie egon zan, frontoie egon zan auntxek dauen lekuen on zan frontoie.
- Artzan?
- Bai. Hor frontoien.
- Alaba: Igiridxe ezaten zan, ezta?
- Frontoien itxen zien aratustitan egoten zien aratustitako zerak frontoien, nagusidxetzat nagusidxentzat, nagusidxek, nagusi-nagusidxek. Ze gerrie sortu orduko diñot, bai gero hogeita hamaseidxien azpitxik berbetan. Eta fabriketan, fabriketan be oten zan. Jentie batuten zan, jente heldue ze horrek, horrek jaidxek debekatute oten zien orduen, debekatute ta geuze pasaten dizela aratustitan geuze asko pasaten dizela ta itxen ziren ixil-ostuen, ixil-ostuen fabriketan, frontoien be bai. Ze Brasillen be pasaten zien, kristonak pasaten zien Brasillen, iñon zelebraten badan hori dxaidxe, han zelebretan da. Heridxotzak be oten zien e, hori dala ta ez dala. Jentiek urteten dauelez maskarakaz eta horrekaz zerakaz, ba aprobetxa eitxen dauie holako zerak lantzin bateri pasadie emoteko. Ta horixe dala ta ez dala ba hamen ba.
- Baie hori Bermion be bai?
- Bermion bai, Bermion. Oin [gau-argidxe] be dxakintzen zan eta ixilien eitxen zan, ixilien eitxen zien horrek, ta gero Francon denporan oniño gehidxau.
- Ta ze oten zan Bermion aratuste egunien?
- Aratuste egunien ba gu umiok dxazten giñen karatulekaz eta horrekaz.
- Alaba: Marro?
- Marro, marro, marro. Hori bai eitxen izan da, marro. Ez nai ezan eguno dxaztekue. Baten edo bitxen ez daitz imiñi banauen karatulie esaten dotsagun, baie ez nai ezan. Ta gure anaidxek be ez zien izen horrenbesteko zerak. Batzuk dxantzitze ta haretxek edozer, dxantzi dxaidxe aratustitan, aratustitan tostadak bai, tostadak aratustitan goxo. Tostadak! Hori bai.

4. Familia eta harremanak

4.1. Bale-baleka

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Valle, Maria

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-001/021
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:39:08. **Bukatu**: 00:40:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Bale-baleka jolasten zuten mutilekin. Zelan jolasten zuten azaltzen du. Neskak tabaka ibiltzen ziren.

Transkripzioa
- Eta zer mutillekaz ibiltzen ziñien?
- Klaro ibil naiena! Bale-baleka ta.
- Bale-baleka?
- Bai.
- Zer da hori?
- Korridxen. "Bale!" hala korridxen andanan hara andanan hona.
- Olgetan.
- Bale-baleka ez dozu ein eguno? zuek ez. Gu ibiltzen izan garie mutillek eta henbrak batera ibiltzen izan garie olgetan, ta igual bateri tokeu izan dxako lepun dxo ta lo eittie, ta guk eskapa. Eskapaten izan dogunien, geu topa eziñik, ta topaten izan dauenak bera lo. Ta haulan, imien geuzek.
- Eta tabaka-eta ibiltzen ziñien neskak?
- Bai, bai. Tabaka asko, tabak elegantiek. Nik tabak, gure amak ekartzen doskulez tabak be pintteta elagantiek.

4.2. Txikotarekin "karbeka" eta "piruke"

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Valle, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-001/026
- **Iraupena**: 0:01:07. **Hasi**: 00:45:43. **Bukatu**: 00:46:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Mariak ez zuen bizikletarik izan. Txikotarekin "karbeka" eta "piruke" ibiltzen ziren.

Transkripzioa
- Eta zuk umetan euki zendun bizikletarik-edo?
- Nik ez, horrek geuzek ez.
- Ta zure nebak bai.
- Gu karneka txikotagaz.
- Karneka? zelan da hori?
- Txikota lagun bik, eta emon txikotari ta guk salta. Ta ba piruke, oste-osteka kolarratan, ta holan olgetan. Gure nire denporie gaztetasune ondo dxun de.
- Eta bizikletarik-eta ez zendun euki orduen?
- Nik neuke ez dot euki eguno.
- Ta Bermion egon zan bizikletan alkiletako lekue?
- Eon diez bai, eon diez, eon diez. Baie orduen gure denporan bizikletak-eta gitxi.

4.3. Bainujantzi barik

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Valle, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-001/032
- **Iraupena**: 0:02:30. **Hasi**: 00:52:42. **Bukatu**: 00:55:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekak eta uretako jolasak
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena**: Ez zuen igerian ikasi, ikaratu egiten zen. Gerora, portuan neskatila lanetan ibili zen. Aritzatxura joaten ziren bainua hartzera, baina sasoi hartan ez zuten bainujantzirik. Sekula ez uten kremarik ematen.

Transkripzioa
- Zuk ugerrien be ikesko zendun umetan.
- Ez dot ikasi, ez dot ikasi uger.
- Eta zelan ba?
- Ikaratu eitten izan nai.
- Bermiotarra eta ikaratu?
- Bai, bai, bai, bai. Halan da, alperra izan nai, alperra eta ikaratsue. Ta gero barriz neskatille ibil nai portuen, ta bajaten izan gariz otzarak garbiten edo kajak garbiten uretara eta ez nai izan. Baie gaztetan bai.
- Eta baiñeu eitten ziñien?
- Bermion baiñue? Aritzatxun.
- A bai? Aritzatxun.
- Ta portun be eitten izen dauie. Baie asko Aritzatxure, hortik gora.
- Ta zu be bai? ta zelako traje de baiñue zan lehengoa zuen gaztetakoa?
- Traje de baiñue da ordun ala?
- Zelakoa zan?
- Pantalonakaz!
- A bai?
- Klaro. Pantalonak eta gonie!
- Eta ganetik?
- Gonie ta pantalonak.
- Dana tapeta.
- Ordun ez zan egon traje de bañorik.
- Ta mutillena zelakoa zan?
- Kantzontzilluek.
- Ta listo.
- Neure denporan e! Gero dana eon da, gero eon diz traje de baiñuek, tapa rabuek ta dana. Nire denporan hauri.
- Eta joaten ziñenien Aritzatxure-edo, kremarik-eta emoten zenduen morena jartzeko edo ez erretako?
- Gonigaz, erropie kendu ta azpikogonigaz.
- Baiña kremarik-eta emoten zenduen?
- Kremarik ez zan egon orduen.
- Bapez.
- Nivea.
- Nivea danetarako?
- Nik ez dot emon eguno e! ta izan nai baltzaue, ta ez dot emon eguno

ezebe. Dirurik bez erosteko. Orain danerako daku dirue, orain bai. Nire denporan ez da egon.

4.4. Familia bermeotar-bermeotarra

- **Hizlaria(k)**: Renteria Anduiza, Jose Anton
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-025/002
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:00:43. **Bukatu**: 00:03:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elizondo, Iratze
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
  Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak
- **Laburpena**: Bere gurasoak eta aitona-amonak bermeotarrak ziren. Bere aitona bat errepublikazalea zen eta beste bermeotar askorekin batera, Kubako gerran egon zen. Beste aitona patroia, kofradiako presidentea eta alkateordea izan zen, oso gizon estimatua herrian.

Transkripzioa
- Ta ama, ta aitxe, ta hamengoak?
- Danak bermiotarrak, atxitxek, amumak eta bisatxitxek... danak bermiotarrak. Neuk daitzela familidxe ez duu okin kanpotarrik inor, ez aitxen aldetik, ez aman aldetik.
- Zer danak portu mandakoak edo baserritxarrak be bai?
- Ez, ez, ez, ez, ez, bidxek izan diz arrantzalik: nire atxitxe bat, aitxen aitxe, “abuelo” esaten ezan dotsagun hareri ta aman aitxeri “atxitxe”. Gauzie ezan zan errepublikanue, bitu detaillie, baie errepublikanue, ta Kubako gerrik atrapa zauen. Kubara dxun zin gazte pillo bat Bermiotik, bueno, Bermiotik bakarrik ez, baie hametik asko azukarie kargaten edo kafie kargaten-edo. Oin gizaldi pasa da, gizaldi ta hamar urte edo izango diez ta gerriek atrapako zauien. Ta han eon zan gerran eta gero etor zan hona, ta niri beti esaten ezan dosten harek insurrektuen aurka in zauela berak gerrie nik orduen beratzi urte-edo, nik ezetu doten neuk hamalau urte neukala hil zan bera abuelo. Eta zer da insurrektue? beti galdezka ni, gero dxausi naitzen konture neu halan insurrektue. Kubanuek euren herridxe defenditen ta eurek insurrektuek ta zuek hametik jun zarinak zuek korrektuek? Zelan ez da imien halakuek. Ta nik beti esaten dot zer da insurrektue ba? “Insurrectos cubanos” esaten /zantsoien/ ezan dotsoien. Ta beste aldetik, aman aitxe, aman aitxe ezan zan Bermion arrantzalie, ezan zan patroie, Karmengo Amako patroie, ta izan zan kofradiko lehendakaridxe urte pillue, historidxa handiko gizona ezan da. Teniente alkalde be ezan da, esan notzun lehengunien: Bermion gizonik... ta ez dotsut /etsut/ ekarri bera papela, ekarko dotsut. Gizonik botauena Bermion elekziñuetan bera etsaten /zantsoien/ ezan dotsoien botorik gehidxen ta bakizu zeitxik, amak dakoz kontata, bera ezan zan errukiorra-edo esaten dana ta jentiek orduen badakizu gerra ostien gosie ta gerra aurrien be bai ta bera presidentie izankeran kofradidxen ba errepartue eitxen izan dauie eta jentie dxuten ezan datson etxera ta: “Agapito Agapito ez dau diru apur bet etxien ez daku zer dxan-ta”. Ta berak ordun diru apur bet baiño ez bada be errepartue eitxen ezan dauen irebazten dan denporiri itxaroten ba, gero pagako dauila edo kofradiko kajatik. Ta andrak zoratute okitzen

ezan dauen beragaz, ez guapue ezan dalako, ez da ezan guapue ta ez bada ba hauri! Ta detailliek, okin zauen amari dakotsat entzunde, detailliek okin zauen berak. Klaro bapor bi okin zauen eta bera patroie batekue, ta txalupek, etxie neguen ez dauela ezer [harri iketzik-eta] ez gastateko, ta berak urteten ezan dauen itxosora, igual txitxarrotan da txitxarrorrun gero molle ganien jentiri emoten hirune txitxarro zer dan jentiri emoten jateko. Ba haulako personajie.

4.5. Aitona kofradiako presidente

- **Hizlaria(k)**: Renteria Anduiza, Jose Anton
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-025/004
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:03:55. **Bukatu**: 00:07:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elizondo, Iratze
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- **Laburpena**: Gerra garaian, amaren aldeko aitonak bermeotar askori lagundu zien Iparralderantz ebakuatzen, bera arrantzan ibiltzen baitzen han. Euzkadiko gobernuak bi bapore zituen iparraldean, "Lehenengoa" eta "Bigarrena", horietako bat gero Venezuelara joan zen. Bere aitonaren seme bat, 18 urtekoa, kapitain batek hil zuen gerran. Andra Mariako artziprestea, don Gines Uriarte, bere aitonaren bila joan zen Hendaiara herrira bueltatu zedin eta beste bi urtez izan zen kofradiako presidente.

Transkripzioa
- Hareri pasa datxon zortzi seme alaban aitxe ezan zan, nire ama ezan da zaharrena. Nire amak gerran hogeita hiru urte, ezkondute ta imie jaidxo da, nire arrebie. Lau ume okin zauen etxien gerran: neure osaba bat, lau urtekue, ta beste... lau ume etxien. Ta atxitxe errefujiauek pasaten Sananderetik beste osaba bat hamazapi urtekugaz baporan Iparraldera ta Euskadiko Gobiernuek okin zauen Iparraldien bapor bi: Lengokoa ta Bigarrena izenak, bapor txikidxek izango zin. Euretariko bat dxun zan gero, mutrikuarra kapitxena izan zan, akordako dast gero izena, Venezuelara dxun zien holako baportxugaz, Venezuelara dxun zien eskapaten hametik. Ta nire atxitxe ibiltzen zandan iparraldien arraintzen refujiauentzako ta gauzek holan dizela, seme bat hamazortzi urtekotxue in tsoien hil. “La quinta del treinta y nueve”. Kepa ta in bi zauen kunplidu hamazortzi urte. ta gerra erun zauien ta ordun, orduntxeko altzata kintek, ta gixajue ikaratu-edo in zanela erun zauien sierrara, buruen dakot Sierra Bandos, Aragoire ta gixajuek ikusi dauenien dana bonbak ikaratu eta kapitxen batek danan aurrien bertan hil zauen, beran lagunen aurrien hil zauen mutille ikaratu ein dxela ta beste barik, ez ikaratuteko bestiek dala-ta. Gure atxitxek gixaue ba Iparraldien, ta halako baten amaittu zan gerrie ta Bermion eon zan arziprestie ezaten zan ta Santa Mariakue, don Gines Uriarte Aretzaga, gizon famosue izaten zan, auren lagune, faxisten lagune izan da. Ona, txarra, ez dait, baie faxisten lagune, gure amumagaz okitzen zandau harek hartun-emon handidxe kale bat bertan kalien bizitzen ezan die goiko plazan. Ta kofradidxen iñor ezin arregla kofradiko gauzek eruten, zeitxik gerra aurrien zer in dxauien ez dauien jakitzen zan ta beran

areridxuek ezan dizenak esan dotsoie autoridadieri: “ha gizona ez bada ekarten handik kofradidxe ez dauela formarik aurrera eruteko”. Ta dxun zan Hendaidxera don Gines Uriarte Aretzaga ta gure atxitxek esantson, gure atxitxe ez daitz antiklerikala izan bada, nazionaliste gogorra ezan da, baie elizigaz eon zan mindxute zeitxik berak ikusten ezan dauen eliziek parte hartu zauena faxistekaz gure herridxen kontra, ta hori ez datson kentzen ezan burutik. Ta esan dotson: “Ni zuekaiñe faxistengaiñe etorri, semie be hil eiztazuie ta ez daitz zer da”. Ta bestiek: “Agapito etorri in /bizara/ biher zara ta”. “Ez ze neu be hil ingo nozuie ta”. Bueno, ta beste baten, beste egun baten, dxun zan don Gines papelak eta danak reglan eta ekar zauen Agapito famosue Bermiora. Imin zauien ostabere bera presidente kofradidxen ta urte bi in zauen ostabe beste urte bi ta.

4.6. Astean 13 txakur handi

- **Hizlaria(k)**: Alegria Uriarte, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-078/010
- **Iraupena**: 0:03:29. **Hasi**: 00:21:50. **Bukatu**: 00:25:19
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elizondo, Iratze
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
  Aisia » Kultura » Zinema
- **Laburpena**: Gaztetan drogeria batean aritu zen lanean eta argazkiak errebelatzeko laborategia ere bazuten. Karburoa ere saltzen zuten; karburoa zertarako erabiltzen zuten azaltzen du. Astean 13 txakur handi (10 zentimo) irabazten zuen. Irabazitako dirua zineman gastatzen zuten. Zine mutua zen sasoi hartakoa.

Transkripzioa
- Ta beste bat sare-fabrikekue, Antonio, Antonio Garcia, Anton Garcia. Horrek izaten zin horrek, karretie errebelaten ezan dauinak, Kodak. Hori be zeozer ezan da. Drogeri baten hori otie. Ta hantxe bertan, Nardiz kalien, ta ni hantxe pintxe, horrek eitten eta karburue paketatan imintzen. Zer da karburue? Ba, atziñen baserridxetan holako zertxu bet oten zan, ez zanien argirik oten, argirik ez zan oten baserridxetan, herridxen be askorik ez, esan dotsuten moduen ba bonbille bategaz igual ba etxe guztidxen,batara bestera eindxe, auntxek salara ta bestera, ezkatzara. Karburue saltzien paketatan, killoko paketan sartzien baserridxetarako izaten zan hori. Zer irebazten ezan dot nik astien? Ba astien hamahiru txakur handi, hamahiru txakur handi. Txakur handi izaten ezan dizen “diez centimos”, txakur txikidxek “cinco centimos”. Zentimok be on zien, zentimokuek gitxiau ikusten zien, zentimonekue zer bat on zan ezizena imin zena ojalaterue zentimonekue. Baie zentimuek gitxi ikusten zien, ibiltzen zienak txakur txkidxe, txakur handidxe. Lekeitxon, txori txiki bat, txori handi bet edo haulan. Ta orain hamar zentimokuek, ba bakigu zelakue dan eurue ba orduen txakur. Irabazten ezan dotena hamahiru hamahiru txakur handi. Zetako izaten zan dan hori? Ziñera dxuteko astien baten, astien baten. Ziñek orduen mutuek egoten zien. Hau nau esaten oniño berrogeidxen azpittik gerrie oniño zertu barik on zan. Eta ziñera, total! Txarloten ziñiek eta Txarlot. Gero, kaballistenak eta honek, baie mutuen izaten zien, mutun zen, baie gero traduzidute oten zien erderaz ta aittek leidu eitten gendun.

Hori gauze handidxe ezaten zen astien baten ziñera dxutie, mekaguen dios! “Ideal ideal Cinema”, hori, orain zera dana, Nestor Bastarretxea zera dana, zelan deko izena, kasiñuen zeran dau hori. Bai. Ontxe be badau han ziñie, dxuten diz hara ziñera. Ba haixe! “Ideal Cinema” izaten zan, “Ideal Cinema”. Batzokidxe be, horretan urtitan inaugure zan, batzokidxen be ziñie oten zan, geruau be. Ba horixe! Astien ba zeozertxu ba emoten ezan dun. Ta ni bakarrik ez naz egon hor drogeridxen, beste bat be bermeotarra on zan. Maximo, Maximo gure mutil-lagune, antziñeko gure mutil-lagune orain be bada, bizirik dau. Ta haren lehenguso bat be pintxe oten zan.

4.7. Itsasora joan arte "praka txiki"ekaz; jolasak

- **Hizlaria(k)**: Alegria Uriarte, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-078/014
- **Iraupena**: 0:03:15. **Hasi**: 00:31:01. **Bukatu**: 00:34:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elizondo, Iratze
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
  Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu
- **Laburpena**: Mutikotan beti janzten ziren "praka txiki"ekin. Itsasoan hasi arte beharrean ez zuen praka luzerik jantzi. Kalean zertara olgetan zuten azaltzen du: dienteka, txapaka, pilotaka...

Transkripzioa
- Eta han zuk, zuek uniformerik edo zeozer ibiltzen zenduen?
- Ez, ez. Fraka txikidxekaz, fraka txikidxekaz. Fraka handirik dxantzitzirik pentsa bez. Ez. Fraka txikidxekaz orduen, belaunera arte.
- Neguen be bai?
- Bai, bai, bai, txikidxekaz, txikidxekaz.
- Alaba: Ta zemat urtegaz?
- Fraka luziek e kontu eizu, itxosora hasi nazenien hamalau urtegaz orduntxe fraka luziek. Ta orain txiki-txikitterik fraka luzikaz ibiltzen die ta polittau dauz umiek. Gero gure dxokuek okitzen genduzen kalietan gauez, geure dxokuek "dienteka". Hor horman kontra imiñi, holan planta horman kontra, horma kontran ta gero haren ganera saltaten, osea, horma kontran bat plantaten da horma kontran ta gero bestiek atzien bat, bi, hiru, lau edo bost-edo alkarren ganien.
- Neskakaz?
- Neskakaz be ibiltzen giñen bai, bai. Neskakaz be ibiltzen giñen lagunek okitzen gendun [...].
- Baie olgetan ibiltzen ziñien, olgetan?
- Ez, horretan, horretan mutillek mutilletara. Bai, bai, bai hori geuze zera zan orduen, tabu esaten dxakona ez da.
- Ta zetan gehidxau ibiltzen ziñien?
- Gerua, gero urtiek gorantz etor dizenien ba, orduen bai neskakaz, neskakaz orduen bai.
- Eta baloarik-edo, baloirik-edo okitzen zenduen?
- Zelan?
- Pelotarik edo baloirik-edo.
- Bai, baloie kalien olgaten gendun apur bet ze orduen autorik be ez zan ibiltzen, kalien apur bet. Holan txakur handidxek, txakur handidxek horrek

esan dotezenak horma kontrara botaten eta horreri esaten dotsagun, horreri dxokueri, dirue honek honek zerak txakur handidxek txakur txikidxek bota ta holan zeiñek asiau ta zein, horman kontran txapaka, “txapaka” esaten dotsagun horreri txapaka. Txapaka horrekaz txakur handidxekaz. Pelotaka eitxen gendun, galazota dau hondiño, harek letrak borra barik ongo die Andra Mari elizen, Santa María elizen "se prohibe jugar a la pelota, bajo multa" han eitxen gendun pelotara.
- Alaba: Esku pelotan?
- Esku pelotan Bai. Pelotan be bai. Oniño harek bueno, orduko zera pintxurie ba dxun eitten da urte batetik bestera, baie hondiño han ongo da "se prohibe jugar a pelota, bajo multa".

4.8. Etxeetako ateak denetzako zabalik

- **Hizlaria(k)**: Larrozea Estibaliz, Luzia; Munitiz Zallo, Julita
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-083/005
- **Iraupena**: 0:02:26. **Hasi**: 00:06:32. **Bukatu**: 00:08:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elizondo, Iratze
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa
- **Laburpena**: Antzina denak ezagutzen ziren Bermeon. Etxeko ateak zabalik egoten ziren, denak ziren lagunak-eta. Etxera sartzeko "Ave María Purísima" esan behar izaten zen.

Transkripzioa
- Atziñeko Bermio zelakue zan?
- Luzia: Atziñeko Bermio ez daitz ba zelakue ezan dan atziñeko Bermio.
- Julita: Atziñeko Bermio lagun gehidxau orain baiño.
- Luzia: Orain dau kanpotar gehidxau bermiotarrak baiño. Ezetu bez ez gara eitten alkar, kanpotarran pasiñugaz.
- Julita: Ta lagun be gehidxau, alboko atie be igiritte.
- Luzia: Kisketa ganien.
- Julita: Ta geurie be igiritte ta trankil.
- Luzia: Orain ez.
- Julita: Orain ez.
- Luzia: Gitxi-gitxi badan be zerrajie etxa biher dozu /bizu/, bandidugaittik.
- Ta lehen kaletako atiek-eta?
- Julita: Igiritte, kisketa ganien ta igiritte, giltzik be ez duun biher izaten ezan /bizatezan/.
- Luzia: Antziñe ez zan oten zan horrelakorik, kisketa ganien itxi ta zeuk guzun lekure tire egun guztiko. Han okitzen ezan zun, baie gaur ezin dxe.
- Ta kisketak-eta zelakoak izaten zien?
- Luzia: Normala.
- Julita: Normalak.
- Oingo modukoak?
- Luzia: Ez, ez.
- Julita: Ez, oraingulakuek ez.
- Ta zelakoak ziren ba?
- Julita: Etxie?
- Luzia: Atie?
- Zelakoak ziren kisketak?

- Luzia: Burdizkuek, burdizkuek okitzen zauen kisketa.
- Ta atie zabaltzeko ta?
- Luzia: Zabaldu, kisketa ganien itzi zu ta listo, ta zer datorren ba... "Ave María Purísima” esan da barrure. Hori esan barik ez.
- Ha ez!
- Julita: Baie orain ez e!
- Luzia: Orain ez dau horrelakorik antziñen. Igual ez badiño hori amak, atzera ia nor itzi dozun kolarrien esanda "Ave María Purísima", hori esan barik ezin sartu etxera, "Ave María Purísima" ta barrure. Ostantzien ez dau entradarik. Beste mundo bat.
- Julita: Baie ni atziñeko kalera bizitzen dxun ingo leki nai. Gaztelure ni neu. Beti gusta dast. Aiztie bizi de, aizte txikidxena.
- Lucia: Irene.
- Julita: Baie, neuri beti gusta dast bera kalie.
- Zer deko ba, diferentie-edo?
- Julita:- Ba bertan dxaidxo zaralez ta bertan ibil zaralez zeure gaztetasune olgetan.
- Luzia: neure denpora guztidxe bertan.
- Julita: Plazuleti da-ta Gaztelun tabernak dauzen lekuen ba.

4.9. 'Burutse' ezizena

- **Hizlaria(k)**: Ormaetxea Ormaetxea, Anastasia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-085/002
- **Iraupena**: 0:01:26. **Hasi**: 00:00:55. **Bukatu**: 00:02:21
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elizondo, Iratze
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak
- **Laburpena**: Burutse ezizena bera aitari jarri zioten. Zer dela-eta jarri zioten azaltzen du. Amaren aldeko familiari Txoko esaten zioten eta hori da duen bigarren ezizena.

Transkripzioa
- Zuk ezizenik badekozu ala?
- Bai, 'Burutse'.
- Zelan?
- 'Burutse' Ta esango dotsut hori 'Burutse' zelan dan. 'Burutse'. Etor zien atziñeko zaharrak, han Gaztelun, neure aitxe kaso baten, Gaztelun dxaidxoku da. Ta han, Gaztelun, oten ezan dizen atziñeko zarrak enbarkaziñue zelan datozen ta, ba, ikusten sartzien. Etor zan, haur neure etxeko atxitxe edo “a saber”, ta hori etor zan txapel barik, haixik erunda txapela. Ta Bermioko gizonak beti erun dau txapela. "E! beitu fulano txapel barik” esaten “buru hutsien datoz", holan buru hutsien, buru hutsien bidxotza, holan da 'Burutse' izizena dakune. Holan ezan da atziñeko zaharrak. Gero, beste bat be bai, 'Txokotarra'. Ezan da nire atxitxe nire amuman atxitxe bueno, gizona. Ezan zan jokaridxe, hamen, bueno, ezkiñe guztidxetan Euskal Herridxen karta dxokuen da holan. "E, fulanok be auntxek txokue ein dxau" Hori da bigarren izizena: 'Txoko'. 'Burutse' ta 'Txoko'.

4.10. Errepublikako bandera erre; askok botoa erosten zuten

- **Hizlaria(k)**: Ormaetxea Ormaetxea, Anastasia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-085/016
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:30:16. **Bukatu**: 00:32:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elizondo, Iratze
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak
- **Laburpena**: Bere gurasoak errepublikazaleak ziren. Beldurrez errepublikako bandera erre zuen Anastasiak etxean horrelakorik aurki ez zezaten. Aitaren hainbat lehengusu batzokian ibiltzen ziren, abertzaleak baitziren. Askok botoa diruz erosten zuten.

Transkripzioa
- Gure ama ta ezan diz errepublikanuk, ama ta ezan diz errepublikanuk. Hon da ikurriñe hamen, gurin, errepublikanue.Ta etorten ezan dizelez, ba, zer barik etorten ezan dizelez, etxik eta errekonoziten etorten ezan dizelez ba zer ein nauen? hori errepublikanuen banderie ein nauen erre. Erre in nauen, suten in nauen erre. Orduen ikatza okitzen ezan dulez, ta ein nauen erre, ikurriñe bera ikurriñe errepublikanuna, bai. Etorri eitten ezan diez, etorri eitten ezan diez bidxotza.
- Ta ama ta aitte bidxek errepublikanuek?
- Bai. Bai. Baie gure aittek okin dotxuz /okintxuz/, bera seme bakarra ezan da, nire aitte, baie lehengusuek okin dotxuz /okintxuz/ ezan dizenak batxokikuek. Ezan diz, izatilez Sabino mandakuk ezan diz harek. Ta botue etxateko-ta lehengusuek neure aitteri: "Lengus, ia botorako ia guretxako boto bat edo, ia emoten bazun". Baie gure aitte bera be bai diruzaletxue ezaten ezan dalez dxakitzen ezan dau haren lehengusuek dirugaz erosten ezan dauien hau, botue etxateko haurei. "Beno, emoten bastazun neuri bere, pagaten bastazun" Egun baten, aittek neuri konta, gabonatan-ta igual, ama hildxe gero ezan da hori. Ta atziñeko gauzek igual berbetan dxanda gero: "Aitte" hauri pregunteten zantsaten "Aitte, zer da zerien" "Ba halan". Eurek itzen ezan dauien, dxakitzen ezan dauien honek e, zelan pagaten dauien diruek, zelan pagaten dotsoien jentiri haureri botue etxateko ta beran lehengusuek "Zer Elias, etxakozu bototxue guretzako, ela?" "Bueno dirue pagaten bazun, neuk be bai etxako dot" Baie errepublikanue ezan da gure aitte ta ama, ama gehidxau ezan da oniño.

4.11. Bi urterekin umezurtz

- **Hizlaria(k)**: Telleria Madariaga, Aintzane
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-096/002
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:02:44. **Bukatu**: 00:04:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Ama eta izeko egun berean alargundu ziren. Bi barku hondoratu eta 11 gizon hil ziren. Bi urte zituen Aintzanek eta bederatzi hilabete ahizpa txikiak. Izekok beste hiru ume zituen. Etxe batera joan

ziren denak bizitzera. Neba-arrebak bezala izan dira bostak. Portuan eta baserrian egin behar izan zuten amek familia aurrera ateratzeko.

Transkripzioa
-Nire ama ta e izeko egun baten alargundu zien. Isaro ta Osasuna izan zien motorrak. Itxo zien bidxek, hamaike gixon itxo zien orduen. Nire aiztik okin dxau hamar egun San Roke egunin indxe, ta nik urte bi txe erdi gehidxau. Aizte bidxek ein bi'zan dauielez bihar etze batera dxun gañen bizitzen aizte bidxek ta bost; harek okin'txuz, nire izekok okin'txus mutil bi ta neska bat. Mutillek okin dxau bost urte, a zaharrautxuaue zan ta, Iñakik okin dxau nik paño zazpi hilllebete gidxau, ta nire lengusiñiek okin dxau zazpi hillebete nik paño...nire aiztiek paño gidxau, oxa, nire aiztiek ta lenguxíñiek, aiztek, neba-arrebatzak in gari beti, ze hasi gariez imetatik, bularra artzi zan dauie amana bidxena, zaindxen eitxen zan dauie bihar ta klaro, harek bosta, bost urteko mutillek, Dxulenek, harek itxen zan gaitxus gu dxabon, baie horretan holan gauzela, ez dauielez okin ezelako dirorik, danatara in dxauie bihar: portuen in dxauie bihar, ligorrien baserridxen in dxauie bihar, txarridxek hiltzen in dxauie bihar, saltzien horrek txarridxek gu manteniteko.

4.12. Goian zerua eta behean lurra

- **Hizlaria(k)**: Telleria Madariaga, Aintzane
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-096/008
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:09:47. **Bukatu**: 00:11:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Aintzanek etxeko lapikoa ipintzen zuen hamar urte zituenerako. Amak eta izekok fabrikan lan egiten zuten familia aurrera ateratzeko. Gazterik alargundu zirenez, "goian zerua eta behean lurra" geratu ziren.

Transkripzioa
-Asiske aulan izan da geure biximodue. Gero, hamar urte allega dxast, hamar urtin e neu esan naielez neskarik zaharrena, amak eta izekok esaten zan doztie: "Aintzanetxu, hamen imin dxot zeure eguerditxue, indxabie, eitxen ta eskolara orduko, eingo'tzazu patatatxuek sartun ta urditxue erreko zazu lapikuri. Dxangozue zeuek ta arrikotxue gero geuk ingu gatosenien biharretik." Bidxek etorten zan di eta, ta haur halako baten, etorritze, gauien datona: "Aintzane?" ta "zer?" "Urdei zatitxu be pe ez dazu itzi, lapikuen." "Ama, zelako urdidxe? Nik ez dot egin erre baño." "Ez dotzut esan barrure etzateko ta gero etzateko, eitxeko prijidu ta etzateko?" "Ai nik ez daitz, baie ez in kasurik pe, ain gozo dxan du gosigaz etor gariz ta."
-Hamar urtegaz ia...
-Hamar urtegaz ia!
-Inddaba lapikoa e preparetan.
-Klaro! Eskola orduko ze ama ta koitxadak ez dauie okiñ iñondik, baserridxe bai, ta soluen itxen zan dauie bihar, ta artzizan du, goserik ez du okiñ e? Hori beti, ta iñori emon dxaten be bai asko. Gure amak eta asko lagundu

dauie, eurek esan arren, beti esaten zan dauie gure amak ta izekok: “guk ez dulez okin negar itxeko astirik pe, gizonari, ze umiek, bost ime okin dxus bidxon arte, ta iñondik ez e, goidxen zerue, ta beien lurre. Asiske haulan biximodue.

4.13. Gotzon Garitanonaindia apaiza

- **Hizlaria(k)**: Telleria Madariaga, Aintzane
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-096/022
- **Iraupena**: 0:02:52. **Hasi**: 00:27:30. **Bukatu**: 00:30:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
  Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena**: Gotzon Garitaonaindia Mañuko abadea oso etxekoa eta adiskide handia zuten. Sarri etortzen zen bazkaltzera. Herriaren alde lan asko egindako gizona, bai klandestinitatean bai behartsuei laguntzen.

Transkripzioa
-Herriko jentie esan’zu, jente askok lepoa emon’tzuela
-Klaro, euskeriek ez dau balidxo ta.
-Baia hor egongo zien be abertzaliek eta laguntzi laguntziñoa emon bienak ez ta? Edo ez? Edo zuek azkenien etzekoak?
-Ze esango’tzut ba? Laguntziñuek ba, ze esan got, edo ikarie eon da, edo zer eon dan ez daitx zer laguntxu, badaki nik ez karizena ezan hiru launtxu baño. Begoña Gastañero ezetu’zu? Euskaltzaindiakue?
-Baia entzunde badekot, entzunde bai.
-Horren semie be bai, ze horrek ikastolie emoten’zan dau. Gotzon Gonai… Garitonaindia ezetu’zu?
-Ez, baia entzunde hori be bai, euskaltegitzik eta…
-Bai, hori geure etxe-etxeko, etxe-etxekue ezan da, Mañukue ezan da hori koitxadue, hori sartadaka hil dxauie, ze horrek eliziri asko lagundutzo, en akel… klandestinidadien, Frantzire pasaten ta guztien, ta koitxadue biharrien fabriken ta biharrien, ta gure etzera etorten’zan di eta klaro, Bermion lau aiztek ero, Teodoro Anasagastire kanbidxe zien, horrek etze barridxek in zinien Intxaustitzik. Ta lau aiztek bizi’zan die, hirugarrenien gaztinak, laugarrenien zaharrenak. Ta horregaz amistade total handidxe okin dxu, ta otorten’zan da koitxadue biharretik: “Ia non dauen usein goxuena han dxan got eguerdidxe ta!” Ta e, lentejak asko gustaten’zan jatzo ta gure amak koitxadiek: “e, Floren lentejak takozuz? Ba nik amen dxan got”. Dxaten’zan dau ta gure ama koitxadiek imitzen’zan dau salan tunbeta “amen ingo’zu ordu erditxu lo gero biharrien dxuteko”. Baie ezan da lagunduteko, harek Mañure dxuten’zan garie ametik gora gu beti imikaz eskolaratik, e, mezie entzuten domekan-domekan, umik artunde ta mezatxue entzunde, bertan elizin aurrin okin dxau berak etzetxue bixi’zan dana, ta juesti jaus esaten’zan tzo, neberi dakola, halako suterraneo bat okin dxau berak, ta koitxaduek, ta esaten’zan dozku han, elizen batun dauen dirotxuk e: “Aintzane, Polixene ta Begoñe?” ta, “Zer?” “Han dakotez batun dunen dirotxuek, eta harek imiñi bakotxa berin lekotxutan, fulano dau hildxe, ta harek be ez dakolez koitxaduek nondik, aunke sea zapata batzuk erosteko.” Haulan ezan da haren biximodue, gure etzera

etorten’zan da koitxadue, ta Bermion esaten’zan’tzoie: “e, han dator a abade marikolle, zapatillekaz” Baie harek asko, herridxen asko lagundu dau harek, asko-asko-asko.

4.14. Ume-jolasak

- **Hizlaria(k)**: Telleria Madariaga, Aintzane
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-096/028
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:35:15. **Bukatu**: 00:37:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: "Tropaka", "andaka" (txorromorroka), "tabaka", "kromoka", "jangaka", "pillotxaka"... ibiltzen ziren. Neska eta mutil batera. Oso kale alaia izan da eurena. Behin lehengusinari panpina ekarri zioten, kartoizkoa. Aurpegia garbitu zion eta akabo.

Transkripzioa
-Ta ze zetara olgeten zenduen ba?
-E?
-Zetara olge?
-Tronpaka, andaka…
-Andaka?
-Bai, andaka ta: haulan planta, ta handik salta lepora, lepora salta; nautike ta pasoka, nautike ta pasoka, planta handik eta saltaten; tabaka; kromoka, dxangaka…
-Dxanga?
-Dxangaka, baki’zu zer dan? Basie imiñi haur ez ta? Ta aulako zerak e, haulako zer batzuk, burdiñeskuek eta zeiñek sangaka hobeto; pirotxaka, pirotxaka palo bat imiñi, puntek atata ta zeiñek e zerau, ta gero konta, e?
-Mutillekaz be bai?
- Bai, mutil dxe enbra, mutil dxe enbra,
-Nahastien?
-Nahastien, Intxaustin, e total ezan da kale alegrie, harek barridxek iñ arte, Atalde ta iñ arte. Atalden e zera beti eon da, e zera dauena, zelan dako izena? Istitutue dauena orain, lehengo istituto zaharra, Atalde, bai; Anasagasti kalie, Atalde? Hor dau, hori istitutue ezan da, bai.
-Ta muñekarik edo, euki zendun?
-Nok ekarkozku ba? Akordaten nai e, neure aiztiri ta lengusiñiri ekarri, koitxadari muñeka bana erregitan.
-Zuok muñekie ez dozue esaten, zelan esatezue?
-Panpiñe, baie atxiñe guk muñekie.
-Andrakille edo ez dozue?
-Andrakille, ez, muñekie atxiñen, guk. Ta, ekartzon ta nire aiztiek lelangoko momentuen in zauen arpidxe garbitxu, arpidxe garbitxonin ta kartoizkue ezan da gero ikaratu. Ze jostaillo okingu guk ba? Ezebez.

4.15. Herri-laguntzak kanpotarrentzat orduan ere

- **Hizlaria(k)**: Telleria Madariaga, Aintzane

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-096/029
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:37:08. **Bukatu**: 00:38:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena**: Ez dute inoiz herriaren laguntzarik izan. Lehen ere ijitoentzat eta kanpotarrentzat izaten ei ziren. Behin jertse bat tokatu zitzaion zozketan eta ez zioten eman txukun jantzita zegoelako.

Transkripzioa
-Bai laguntziñuek iñondik be ez du okin e, iñondik-iñondik-iñondik bez. Bermion eitxen'zan da laguntziñuek haurreri jente otorrikueri txe ordun be, jitanuri txe haulakuri. Ze gero, gauez eoten'zan die amen eskolak, e fraillek eta imindxe, abadak eta imitze'zan dauie; ta han Sanjurjon, eoten'zan die gaueko eskolak, ta dxun itxen'zan nai hara eskolara be. Han baten urten dozten, gabonatako bueltan, ta haulan gauzek e errifeten'zan dauie ta, neuri urten jerse batek; kendu in dxoztien, ez doztien emon, nik arpidxe garbi te e onaiélez e garbi txe, arpidxe garbitxute ta erropa desentikaz, ba ez doztien emon, beiñauek tausela hori emon da. Klaro, gure izekok be dxosten dxakin dxauelez, etzin dxosten'zan du guk dana,dana, haulan.

5. Itsasoa

5.1. Emakumezkoen lana portuan

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Valle, Maria
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-001/038
- **Iraupena**: 0:02:03. **Hasi**: 00:58:48. **Bukatu**: 01:00:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- **Laburpena**: Emakumezkoen lana portuan zein izaten zen azaltzen du. Arraina Portuzarrera eraman behar izaten zen saltzeko, buru gainean eramaten zuten. Lantegietatik kaxak eta otzarak batu behar izaten zituzten gurdietan.

Transkripzioa
- Portuen?
- Andran biherra zein zan?
- Portuen? Portun neu ibil nai neskatille.
- Ta zer eitten zendun zuk portuen?
- Portuen? ba bentan saltzen izan da arraiñe, ta guk eruten izen duu motorretik bentara burun kargak.
- A bai? Ta buruen nun eruten zenduen ba?
- Buruen? sorkidxe imiñi hamen ta beragaz bentara.
- Ta bentie nun eitten zan ba?
- Portuen, portuen, hamen Portozarran.
- Portu zaharran.

- Bai. Orduen papardue asko, txitxarro be asko, ordun asko eitten da, orain ez dau, lehen arrain asko egoten izan da. Antxobie be elegantek, baie orain ez dau, ez dau lehengorik, ez dau lehengorik, dana eskastu, danak duez ta danak duz-ta.
- Ta hori ze izeten zan eguneroko biherra motorretatik bentara arraiñe eroatie egunero-egunero?
- Ta gero, bai, ta gero kajak batun, otzarak batun. Antziñen otzarak izaten izen die handidxek, lau arruko lau arru, ta harek otzarak batun fabriketatik, ta gero ba kajatan, karrutan, ta harantz dunak harek kajak batun eta horrek biharrak egon diez bai. Ondo, ondo. Ondo egon garizenak ondo ta txarto egon dizenak ordun be txarto.
- Ta horrek biherrak beti andrak eitten biezan, ezta? andrak. Gizonak...
- Gizonak itsosora ta etortzen zanien etxera, etxera lo.
- Eta andrak orduen.
- Andrak biharrien. Bai, neskatille ibil nai neu be.

5.2. 13 urterekin saregin

- **Hizlaria(k)**: Uriondo Uriarte, Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-023/005
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:07:06. **Bukatu**: 00:08:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
- **Laburpena**: 13 urterekin hasi zen saregin beharretan "Madre Macarena" baporean Eusebio Beitia patroiarekin. 18 urterekin sotapatroi egin zen eta 21 urterekin arduradun, ugazaba-andre "uzandra". 1996. urtean erretiratu zen. "Uzandra" bakoitzak bere saregin-taldea zuen.

Transkripzioa
- Hamahiru urterako hasi nitzen "el día tres de marzo del año cuarenta y siete". Memoridxen dakot zein baporetan be, ta patroie be bai, memoridxen dakot, "Madre Macarena" ta patroie Eusebio Beitia. Eusebio Beitia hor dauzen Eusebio Beitian bisattitte-edo. Entzun dozu /entzunzu/? "el año cuarenta y siete, el tres de marzo", gaurku lez dakot memoridxen, "Un lunes". Entzute dozu /entzutezu/? ta gero ba andrie zera zaharra izan zanelez, nire koñatun ama izan zan maestrie-ta, zaharra izan zalez ba ya hamazortzi urterako ba ein nintzen sotapatroi esaten dan lez, "segundo, segundo de a bordo". Ta hogeta bat urterako, hogeta bi etteko, hogeta bi enerun eitteko ta marzue edo otubrien ba hasi nintzen jefa ta "hasta el año mil novecientos noventa y seis"eko otubrien itzi dot. Ordun egoten izan garizen bost uzandra. Uzandra ba, uzandra izaten izan da ba agintzaidxe, enkargadi izati lez. Ta bakotzak, ba bakotzak beran grupue eukitzen izan dau, ta gero akabun allega gara nobentan batera, neu bakarrik danakaz. Baia ordureko baporak ba gitxittute egon diz. "Ochenta o asi" holan lotuko zin orduen, "en el noventa y seis" itzi dot, ta gaur akabata dauz danak, gaur ez dau portun iñor bez-ta.

5.3. "Uzandra" lanak

- **Hizlaria(k)**: Uriondo Uriarte, Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-023/006
- **Iraupena**: 0:02:07. **Hasi**: 00:08:29. **Bukatu**: 00:10:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
- **Laburpena**: Ugazaba-andrearen, "uzandrea"ren beharrak eta ardurak zeintzuk diren azaltzen du: gainerako beharginak antolatu eta ardura guztiez arduratu. Patroia eta armadorea pertsona bera zen eta berarekin egon behar izaten zen egunero. Hainbeste urte lanean ibili arren, ez du aparteko arazorik izan inorekin.

Transkripzioa
- Ta zein zan uzandrien biherra?
- Uzandrien biherra izan da, lelau izaten izan da, baia gero asko kanbidxe zan. Jaubiek deittuten izan dotsu /izantsu/ zeuri, ta uzandriek diru osea, uzandriek ein biher izan /bizan/ dau bihargiñek ba bota hara ta hona ta bestera. Ta gero biharran erresponsabilidadie, modistie izati lez, ba modistiek ba trajie ba eitsi imiñi modeluk eta danak, ta gero harek josi, baia zuk errespondidu biher dozu /bizu/ harek txarto edo ondo zer eitten dauen. Hori izan da uzandrien biharra.
- Zuk hartu-emon patroiegaz edo armadoragaz?
- Patroie ta armadora dana izan da bat. Hamen patroiek ta armador, eon zin patroiek hiru armadoregaz, herrikorik ez da egon hemen. Patroie ta armadora dana izen da bat. Ta hareaz, hartun-emona ba hareaz euki bihar izan dozu /izanzu/ diaridxo.
- Ta gero zuk saregiñekaz.
- Bai, ba nik prepara biher izan dot /bidxan dot/ ta ba nik erun biher izan dot /bidxan dot/ dana. Ta lelau izaten izan da ba jaubie, baia gero nik neuk urte asko askotxu lelau ba eitten izan doten zelakuk ein biher dauien ta zer dan, neu dirijiten izan nai eurekaz, ta ez dot okin hori iñoz, iñoz etor jazte e, honek feministetako bat be eitteko gizonan, ez dot ezin dot esan gizon garau baten ganez ein dotenik, itzi etxat ein iñori e! "que no es igual". Osea neure biharra erresponditen dot. Txarto badau, neu nau hamen erresponditeko ta kobru ta ez kobru ta ez dalez izan, total da atipiku, gauze diferenti izan da itsosue herridxegaz. Geuze total diferentie. Ta erun dot, bittu zemat lagun pasa dotezen ta danakaz, neure denpora guztidxen lagun bigaz baiño ez nai hasarratu, [...] danak. Ta danakaz gaur bere diez neuriek, uzandrie da osake neuk ume hazi dotazen guztidxek ta zaharrauek etor dizenak be, dakotez jentie ba harek beste gruputatik etor dizenak ba ba igual, zuk ez dozu okin konzepto zerie, ta gure dotsiet /gutsatie/ hara berorreri Begoña ba printzipala, ba gure dotsat /gutsat/ ba neure denpora guztikue esati lez e, persona ba, beste batzukaz hartun dozu ba deziziño gehixau igual ba zuk pentsau dozune ba.

5.4. Neskatilen lana

- **Hizlaria(k)**: Uriondo Uriarte, Mari

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-023/014
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:29:45. **Bukatu**: 00:30:58
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- **Laburpena**: Portuko neskatilen lana zein den azaltzen du: otzarekin arraina hartu, biberak eraman, dirua kobratu... Ahal den arinen bota behar zen berriro baporea itsasora herrian ez baitzuzen dirurik irabazten.

Transkripzioa
- Zuk esan dozu neskatille be ibil ziñela.
- Bai, ibil nai, bapora eukin doten urte bi edo ein dotez neskatille, baia bueno neure biharra ba han falta gehidxau eitten izan doten lez ba neskatille "podía hacer cualquiera".
- Zein zan neskatillien biherra?
- Neskatillien biharra da: bapora datorrenien portora arraiñe dakar, bueno ba harek eittentsuz otzarak ekarri, lagundu, harek gizonak baporak urten biher badau arin, neskatillen pentsure gizon bateaz itzi; arraiñe pise; hareri gizonari biberak eruen; diruek kobra. Osa ze esango dotsut /esangotsut/ ba? kridxada eitti lez, hareri gizonari, ta dana eukin listo preparata ba ariñau juteko. Antziñe-antziñe, gure gaztetan-ta, ba esaten izan die beseuteko-ta ba neskatillek oki biher izaten dauie krielak tertzakaz-eta preparata-ta, ta mutil txikidxegaz ba batelin imindde-ta. Osa gauz bat bandejan iminttie, jatekue datozela amak ez [...] benga arin, juteko biharrera, ba igual-igual-igual-igual. Neskatillen biharra hauri izan da, patroiek aginddu edo gizonak barrukuk hau edo bestie, edo ene bada han bokadillo bat ekarteko edo tabako bat-edo, itsosora. Kustiñue izaten izan da bapora itsosora etxa biher dela /bidela/ arin, herridxen ez dala irabazten-eta, hauri bakarrik, hauri bakarrik e!

5.5. Josketa, orratzak, hari-motak

- **Hizlaria(k)**: Uriondo Uriarte, Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-023/016
- **Iraupena**: 0:02:20. **Hasi**: 00:34:46. **Bukatu**: 00:37:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
- **Laburpena**: Sareginaren egunerokoa lana jostea zen. Ezin zenean josi "frijelatu" egiten zuten. Orratz berezi batzuk zeuden sareak josteko, hiru-lau mota desberdinetakoak. Hasieran egurrezkoak ziren, gerora etorri ziren plastikozkoak. Haria lehenengo kotoizkoa zen; gero, kuraloizkoa; eta, beranduago, 50. hamarkadan-edo, nylonezkoa. Kotoia usteldu egiten zen, eta Dakar aldean (Senegal) marmoka asko zeudenez erraz usteltzen zen.

Transkripzioa
- Ta hola saregin kontuena-eta, eguneroko biherrana ta, ze biher izaten zan

saregiñen egunerokoa?
- Bai josten! Josten, osa baporak abiseten dotsu /abisetentsu/, bueno abise antziñe portora etorri arte be ez zan jakitten izan. Datoz, ta hausitte dako, horra saregin bi, hara saregin bet, ha josi biher izan dozu /bizanzu/, hausitte ezin izan dau jun itsosora-ta. Ezin denien haulan frejile, frejilar haulan, ta "bolso" zaku esaten izan dotsagu /izantsagu/, baia bera arraiñe egon dan lekuko zuluk eta konpondu ondo, ostantzien han antxoak ensegida eitten izan dotsuie /izantsuie/ bidie errementa "y ahí se quedaba todo".
- Zelan josten zan?
- Orrotzakaz, espezialak egon diz orrotzak, orrotza ta artazidxe josteko. Hiru-lau orrotz klase e, bai, hiru-lau orrotz klase.
- Zelakoak zien?
- Egurrezkuk. Egurrezkuk, gero etor zin plastikozkuk be baia egurrezkuk izaten izan dizen ba.
- Izenik-edo eukitten ban edo orrotza zan?
- Ez. Orrotza, orrotza ta gero "uno, dos" markaziñue, numeraziñue, "unos, dos, tres", markaziñue okitzen izan dau.
- Beti egurrezkoa.
- Bai egurrezku izan da, gero plastiku etor da e! Baie egurrezku beti izan da gozuaue. Hausi eitten izan da asko, baie pasa eitten izan da. Eukitzen izan dozulako batzuk ganera izan diz saregin profesional polittek e, geuzek erreminttek ondo dakoienak-eta. Ta okitzen izan dauie ba, belztute izati lez bera ze esango dotsut /esangotsut/ ba? haulan, haunelez, kolorie-ta politto esatie lez, laban-laban korriteko, "pa que vaya" "dxa-dxa", politto, musturtxue afiñeta-ta.
- Ta haridxe?
- Haridxe bai, haridxe lelau aldogoie, ta gero nylona. Nylona eon zan, nylona bat baie zantarra, nylon nylon purue, nylona etor da "cincuenta y" lelangoko lelangokue nylon etor zan "sesenta y dos"erako etorritte egon da, "cincueta"n edo haulan. Frantzittik ekar zauien bat, ez zan izen nylon purue, "barbas" esaten izan dotsaguen /izantsaguen/ bizar morroi bat etor zan bera saltzien. Ta lelau-lelau etor zan kuralon, kularoie, algodoien atzetik kuraloie, ze algodoie eitten izan da usteldu ta gero Dakarrera ta hasi zienien, ba klaro han sikatu ein bihar ta ostantzien gero marmoka, hori medusilakue izan da marmoka, ta horrek eitten dau erre asko.

5.6. Sareak tindatzen; murtzilak

- **Hizlaria(k)**: Uriondo Uriarte, Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-023/017
- **Iraupena**: 0:01:08. **Hasi**: 00:37:06. **Bukatu**: 00:38:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
- **Laburpena**: Kotoizko sareak tindatu egiten ziren. Nylon mota bi zeuden; batek ez zuen murtzila, korapiloa, ondo hartzen. "Laskie" egiten ikasi behar izaten zen, ("laskie" murtzila baten izena da).

Transkripzioa
- Emoten izan dotsoie /izantsoie/ tintie ba horrekaz eindde, ze arbola ezan

da bera? haren zozpalak kendu ta ein dxo-dxo-dxo-dxo ta harekaz tintie, baie gero alkatrana be bai, alkatrana be bai, alkatrana ta doie "cincuenta y algo" "seis"en edo haulan alkatrana-ta emoten izan dotsoie /izantsoie/ ta gero nylonak urten dauenin ba nylonak ez dau okin problemarik, nylonak ez dau okin problema garau bat bere. Ta hari dxoten izan da, nylona baie bat izan da brillodune ta karo ez dau hartzen izen moropillue euskeraz, guk murtzillie esan izan dotsagu /izantsagu/ ez dau, ta gero eitteko zera bere, juntie hari bet bestiaz haridxegaz, jakin bihar izan da /bizanda/ eitteko laskie ta, ikasi bihar izan diz /bizandiz/ geuza batzuk ba, ostantzien eitten izan da "de nudo a nudo" txafa eitten izan da tqa klaro ba feo, feo ta zulue.

- Laskie zer da?
- Laskie da hari bi haulan imiñi haulan, "dra" ta bestien begidxe ta "drink". Laski da murtzile baten izena. Bai laskie., bai.

5.7. Sareak sikatu eta tindatu

- **Hizlaria(k)**: Uriondo Uriarte, Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-023/021
- **Iraupena**: 0:03:47. **Hasi**: 00:45:12. **Bukatu**: 00:48:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
- **Laburpena**: Kotoizko sareak astero sikatu behar izaten ziren ez usteltzeko. Bapore asko zeudenean sareak zabaltzeko leku gutxi zegoela-eta, Lamera puntan eta Talako arboletan zabaltzen zituzten. Moilan lekua hartzeko askotan goiz jaiki behar izaten zen. Sikatu ostean, tindatu egin behar izaten ziren; fabrika batzuetako frijiontzietan tindatzen ziren, irakindako tintean. Tintea marmoka kentzeko izaten zen.

Transkripzioa
- Pauli: Esaizu hauri, patatiegaz zer pasa dxatzun. Esango dau, Itsaso? papatiaz ze pasa dxatzon, istorixe pasa dxatzo patatiaz, ia konta!
- Mari: Patataie erosi nauen Bermiora etor naienien, hartu nauen terrenotxu bet errentan ta ba patatie eraitteko. Ta hartu nauen ta ni patatie ederra gero, haulako patatie, zelako patatie! liso-liso-lisue. Baie ezetara be ezin dxan, gogorra! Ure bera bera patatie, ure sartzien izen daniko lodittu, bapez, patatiek beti eitten dau [...] lodittu, keba, ure! Ta ba nik ha patatie berau dxan bihar ta nik honeaz ezin dot ezer ba. Dxun naien patatie saltzien, gero neuk patata ona erosteko, ta ha saldu. Ta “dxun biher dot /bidot/ hamen baiño merkiau emon biher dot /bidot/”, hiru pezetan egon zan patatie kilue eta nik esan doten: "ba hamaike errealien emongo dot". Ta ni nauen ba hamaike errealien, ta haur andra bat etor dxazten alde zeran, ta esan dotsatenien hamaike erriel, ba benga dana piseten, ta jentie hamaike erriel esan daunien ba dana beteta, ta haur. Ta "zu bidxer nator ostabe, bidxer ekarko dotsutie ostabe, ta zuk itzizu hauneri atzekuri be".
- Pauli: Kilotxu bet-edo, zeuk erun barik dana. Baie merke eizan dalez.
- Mari: "Itzi eizu ba", ezetz!
- Pauli: Berak erun bidaula dana.

- Mari: "Ni nau lelau, asieske nik nahi doten beste". Harek ume danantzako erun dittuz /erunttuz/ patatak. Hurrego egunien etor zan ta esan dotsat /esantsat/: "Engrazi, patatie dakot". "Zuez zeu, patata ama txarridxen etxera, nik ez dot gure hori papatie-ta".
- Ama txarridxen etxera.
- Pauli: Ama txarridxen etxera. Klaro, patata gogorra ta harek erun dau neu nau lelau ta berak dana ta urten dotso ba patata zantarra, ta beste egunien jun dxatsoonin ofreziten "Engrazi, etorri hamen dakot-ta". "Zeu ta zeu patata tira ama txarridxen etxer. Ez dot bihar zure patatarik-ta". Klaro gogorra.
- Mari: Baia haulan holan saldu nauelez, saldu nauen kajatatik. Merkiau emoten izen dot, emon ta eskapa neuk plazatik.
- Pauli: Liikide zauen patata gogorra.
- Hori ez da tranpie eittie?
- Pauli: Ordun libre, hori ez da [...]!
- Mari: Nik erosi dot, niri saldu dostenak be, ba emon dost! Kinttel bi patata.
- Pauli: Asike gero zuk beste batzuri emotie ez da izan pekatu, ezta Mari? zeu be engañe, ta merkiau hondiño.
- Mari: Ta nik merkiau emon, saldu merkiau. Eske ezin dxan ezin dxan, baie. Ta haunek kanpotarrak orduntxek etorritten hasitte egon zien Bermiora, eta asko "Oye, una patata ni el presto se puede comer". Neuk harrapa, hamen neure patatien antzekue. Ta entzun dotsatenien grazidxek emon doste, "ni el presto se puede hazer".
- Pauli. Harridxe izan dok ha, harridxe.
- Mari: Harridxe izan dok ha.

5.8. Atunaren arrantza

- **Hizlaria(k)**: Kalzada Allika, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-029/015
- **Iraupena**: 0:04:05. **Hasi**: 00:26:30. **Bukatu**: 00:30:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elizondo, Iratze
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
  Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Atuna
  Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasontziko garbitasuna
- **Laburpena**: Aparailu bat du esku artean eta hori azaltzen du. Botabararak atunetarako prestatzen ziren. Atuna zelan hartzen zuten azaltzen du. Aparailu batzuk aipatzen ditu.

Transkripzioa
- Hau da kordela, baie honek darue beraune ta haulako barille bategaz ta han barillen gero, fitxe amo txikitxukin. Bai, hau da kordela. Beraunegaz barille bat darue ta kobla bi, amo txikitxukaz, hauri da, bai. Arraintzen ibiltzen dune hau da.
- Baie hori arrasterutan?
- Arrasterutan ez, arrasterutan sarie. Sarie. Hau ez da. Motorratan ta lebatzetakuek ta kabratakuek-eta horrek diez. Han arrastan sarie baiño ez dau, gehidxau ezebez. Ta gero preparaten ezan garizen, okin dxuu guk sei hillebeteko lizentzidxe, ta sei hillebete akabaten ezan danien preparaten

ezan garizen atunetarako, botaberakin. Botaberak diez haulako palo bi. Bai, harekaz, botadera bakotzien hiru apaidxo. Eruten zandun danatara bi, sei, zortzi, hamar, hamalau apaidxo, hamalau apaidxo eruten ezan duun hori atunetarako. Ta barruen hamalau ta hamabost lagun bai.
- Ta atune zelan harrapetan zenduen?
- Atune ba, hau kordela okitzen zandun eskuen, haulan. Goizerik egune eitten danik gaue ein artien haulan. Ta agarraten ezan dauen, segun ze apaidxo, ba apaidxuek ezan die puntekue, erdikue ta berdelekue. Ta punten agarraten zandauen ta "Jesus punten", ta edo "Jesus erdidxen", “Jesus berdelien" ta haulan.Ta atrapaten ezan dan gero txistegaz, ba gero, haulako ol bat, makil bet, mataputxeta dako horrek izena. Mobiten ezan dotsagun atune enbarkaten ezan duun hamen, buruen, klak-klak ta arkadara. Ta gero arrain asko badan, eguerdi ingiruen eguerdidxe dxan orduko eitten ezan duun gobernateko neberara, edo horretara, ordo asko dizelako goizerik gauera, bai.
- Ta txiste esan dozune zer da?
- Txiste, gantxo bat. Ba,zelan esango dotsut. Txiste da gantxo bat, palo baten, Koldo hauri eskobie ekarri bia! Auntxek esango, bai, bai, ez dako inportantzirik. Hauri, hauri, hauri, hauri eskobie hor dauena. Hau gero be bihar dot-eta. Bueno, hau dalakuen, hau, hamen okitzen ezan duun gantxue. Hau ez, hori ezebez. Hau gantxue haulan ez da, barille bat burdiñezkue ta bera barillie gero haulan puntetxue, puntigaz atune datorrenien dxanba enbarka barrora. Ekarten ezan duun ta bertan bon-bon eta arkadara. Ta gero, lohittuten bada,odola lohittuten danien lanbasa. Lanbasa da hau eskobie ezatilez bardin baie punten trapukaz, trapukaz, ezta? ta halan biribil, biribil, biribil,biribil ure etxaten ezan duun baldigaz atrapa, orduen ez da egon mangerarik-eta horrek gauzek-eta. Lanbasa garbittu ta ure etxa. Hau da lanbasa. Mataputxeta apunte dozu ez da, mataputxeta.
- Ez.
- Mataputxeta da, atune hiltzen dauena.
- Mataputxeta.
- Txiste.

5.9. Artoa azala atunetarako; Atun-kalak

- **Hizlaria(k)**: Kalzada Allika, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-029/016
- **Iraupena**: 0:02:57. **Hasi**: 00:30:35. **Bukatu**: 00:33:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elizondo, Iratze
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
  Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Atuna
  Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsaspeko geografia
- **Laburpena**: Artoaren lastoarekin amua prestatzen zuten eta atuna bertara hurbiltzen den. Atunetarako eta zimarroirako erabiltzen zen. Gerora karnata erabiltzen hasi ziren. 10-11 egunez egon ziren atuna harrapatzen. Kalak aipatzen ditu, Azoreetara arte joaten ziren.

Transkripzioa
- Eta karnadie ibiltzen zenduen, edo?

- Ez, ez, ez. Amurie da hori, amurie. Apunte, amurie. Ta horrek darue amo bat doblekue ta eitten ezan dan lastukin, artuen lastue, haregaz ta gero, arrastie. Arrastie da, por ejemplo, hamen daruez orrotzak, haulan, orrotzak, orrotzak, orrotzak ta hori imintzen ezan duun hamen belaunen gaiñien haulan honetara, honetara ba haridxen formie atateko. Uretan dator hori arraiñelez, ta bertan punten eruten dau lanie, lana berdie ero gorritxue, haren brillora atunek agarraten dau. Bai, bai. Ta gizon bat dau Anton Bilbao, patroie ezan da geu zahartzara. Horrek apaidxuaz atun asko on dan lekuen atunek traga dauenien amurie urten dotson hametik sakatzetik. Ta hareri urten dotsonien beste atun bet, o sea ke, amo bategaz atun bi atrapaeniko gizona. Bai, bai, bai, bai, markie da gero! Haurrek ein dxau, haurrek gizonak, bai.
- Eta esan dozu, artoan horrekaz, azalak ibiltzen zenduezela.
- Bai, bai, bai.
- Baie bakarrik atunerako?
- Atunetarako. Ha ez da segiten zan, atune ta zimarroie. Bai haurretako. Gero, auntxek horregaz atrapaten da, gero etor da gero, beste sistema bat biberukaz pikien. Kañaberiaz ta karnadiaz, zebue esaten dotsoiena. Biberutan eruten ezan duun karnadie ta kostarun hau ta enbarkaziñue ta txiparra. Ta oten zandan karnadie ta kañaberakaz, kañaberakaz. Hamen dau holako bat ezatilez bardin.
- Erretratuen?
- Bai.
- Ta zemat denboran egoten ziñien atunetan?
- Atunetan en jeneral hamar-hamaike egun ta etxera, bai
- Ze kalatan-edo, hemen non dauz?
- Ba, esaten batsut kalak sinestu bez ez dozu eingo. Ba, horrarte Azooresetara arte. Bai, Azooresetara arte dxuten ezan garizen, bai.
- Ta kala batzuen izenak hemen, hurrekoak eta bakizuz?
- Hamen: Errekaro, Okarantza, Dxustumanku, Alta, Zigarre, Harrizar, ta horrek kalak, Eskote, famosue, Eskote, hori Frantzi aldien eitten da hori. Hamen kalak nahiku dauz, bai.

5.10. Atuna txorien laguntzaz topatu

- **Hizlaria(k)**: Kalzada Allika, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-029/017
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:33:32. **Bukatu**: 00:35:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elizondo, Iratze
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Atuna
  Natura » Fauna » Hegaztiak
- **Laburpena**: Txoriek laguntzen dute atuna non dagoen jakiteko: txirrina eta braia dira txoriak. "Arraine kalata dau" esaten dute hori ikusten dutenean. Moilako argazki zaharra batzuk erakusten du. Arraina detektatzeko makinak 1957-1958. urtean hasi ziren erabiltzen, ordu arte txoriaren bitartez asmatzen zituzten.

Transkripzioa
- Ta zelan jakitzen zenduen non dauen atune edo zelan igertzen zenduen?
- Aparatugaz ta txoridxegaz, bai. En jeneral, txirriñe, txori bet listue,

itsosuen dauen halako txikitxue. "Antikete! Listo! Emasi!" Han semie dau entzuten.
- Ta zelako, zelako txoridxe da txirriñe?
- Txirriñe txi-txi-txi, txikitxue. Ta beste bat dau braille, braille atunen. Montata dauenien braillek! Dau en bez de hegazkeran ibilli, bertan montata itsosuen, "azpidxen dako harek arraiñe" esaten da "azpidxen dako". Horreri esaten dotsagu arraiñe kalata dau, bai.
-Eta aparatoak..
- Haunek di kañaberak arraintzen dauzenak. Moillen.
- Eta zuk beti ezetu zuz aparatoak ala, detektateko arraiñe.
- Ba, beti ez. Hori aparatuek etor dizena, esango dotsut, “el año, el año cincuenta y ocho, cincuentas siete, cincuenta y ocho”, sondakaz.
- Ta hori baiño ariñau zelan igartzen zenuen non dauen?
- Ba txoridxegaz. Beran ganetik pasata. “Agarra dosku” ta bertan buelta-bueltaka. Ta gero etor dizenien biberuek masidxegaz, etzaten ezan duun masidxe ta bera altxaten zanda.
- Masidxe?
- Masidxe da zebue. Biberuen eruten zandune, bai.

5.11. Bisigu-arrantza

- **Hizlaria(k)**: Kalzada Allika, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-029/021
- **Iraupena**: 0:03:17. **Hasi**: 00:47:29. **Bukatu**: 00:50:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elizondo, Iratze
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Bisigua
- **Laburpena**: Bisigu-arrantza azaltzen du: tertzak antxoa txikiarekin plameatzen zuten amu bezala; harria jartzen zioten tertzari behera eramateko; tuntuxak kordela izaten zuen lotuta...

Transkripzioa
- Ta zelan jakitzen zenduen non dauen atune edo zelan igertzen zenduen?
- Aparatugaz ta txoridxegaz, bai. En jeneral, txirriñe, txori bet listue, itsosuen dauen halako txikitxue. "Antikete! Listo! Emasi!" Han semie dau entzuten.
- Ta zelako, zelako txoridxe da txirriñe?
- Txirriñe txi-txi-txi, txikitxue. Ta beste bat dau braille, braille atunen. Montata dauenien braillek! Dau en bez de hegazkeran ibilli, bertan montata itsosuen, "azpidxen dako harek arraiñe" esaten da "azpidxen dako". Horreri esaten dotsagu arraiñe kalata dau, bai.
-Eta aparatoak..
- Haunek di kañaberak arraintzen dauzenak. Moillen.
- Eta zuk beti ezetu zuz aparatoak ala, detektateko arraiñe.
- Ba, beti ez. Hori aparatuek etor dizena, esango dotsut, “el año, el año cincuenta y ocho, cincuentas siete, cincuenta y ocho”, sondakaz.
- Ta hori baiño ariñau zelan igartzen zenuen non dauen?
- Ba txoridxegaz. Beran ganetik pasata. “Agarra dosku” ta bertan buelta-bueltaka. Ta gero etor dizenien biberuek masidxegaz, etzaten ezan duun masidxe ta bera altxaten zanda.
- Masidxe?
- Masidxe da zebue. Biberuen eruten zandune, bai.

5.12. Berdeletan

- **Hizlaria(k)**: Kalzada Allika, Patxi
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-029/027
- **Iraupena**: 0:02:48. **Hasi**: 00:59:25. **Bukatu**: 01:02:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elizondo, Iratze
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Berdela, txitxarroa, sardina
  Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak
- **Laburpena**: Berdeletan otsailetik maiatzera arte aritzen dira eta gero hasten dira atunetan. Berdela zelan hartzen zuten kontatzen du. Behin amua eskuan sartu zitzaion.

Transkripzioa
- Bisiguegaz batera berdela be atrapaten zenduen?
- Ez, ez, ez, ez, ez ez, ez. Berdelan sasoie da, febreruen hasten die.
- A, besaue ta gero?
- E, besaue orain, beseuten iñor ez dabil orain, ez dabil iñor horra ez da dirijiten. Hor lebatzetan dirijiten dizenak dauz, hiru enbarkaziño-edo, kordatxugaz lebatzetan. Goizien dxuten diez ero beste han etxaten dauie ta eguerditzerako datoz etxera. Hiru-edo dauz, Duke ta beste bi edo hiru dauz. Ta berdeletan hasten diez febreruen. Harek eta maietzera artien, ia kupue imindxe dakoie. Gero, maietzien hamaretik hamabostera urteten dauie atunetan, bai. Bermiotarrak urteten dauie, honek e, pikekue dau bat, Erreñezubi, horrek urteten dau goittarrakaz, getaidxarrakaz ta oridxotarrakaz-ta urteten dau. Bai, horrek urteten dau hillien hiruen-edo urteten dauie pikien, dxuten diez Frantzire. Hor eitten dauie zebue, karnadie ta dxuten die horrek, horrek die kañaberakuek. Baie horrek bestiek die kazakuek, amugaz atrapaten hori, kazakuek. Horrek haulako

kordelagaz, orain en bez de kordela dakoie karretakaz fitxie. Fitxiegaz, bai. Automatikuek, elektrikuek e! Dxausten danien berak kantaten dau “kin-kin-kin-kin”, bai, bai ta berak batzien dau dana. Orain dana da adelantue.
- Ta zu berdeletan ibildxe zauz?
- Honbre! Ta hori be bai, bai.
- Ta berdela zelan zelan harrapaten zan.
- Amukaz, amukaz, bai, amukaz. Berdeletakuek dakoie orain karretakaz, bai. Haulako beraune, beraune errieten dauie ta “rrrrruuuuuu, ba bum, bom bom bom bom” berak markaten dau, “drast!” sabligaz han datortso gora, berak despeska ta guztidxe gero! Holako kuadrorik nik ez dot ikusi. Ta guk lehen haulako kordelagaz eskuz. Niri pasa dast hametik edo pasa dast, amue inke. Inke dxasten amue ta makiñe guztidxen etor garizen. Abise tson talaidxeruri telefonidxetik ta dxun naien klinikara, bertora, medikure, ta atara dostien indxiziño bat emonda. Hauna barrura arte okin doten sartunde.
- Ta ez dotsun ezer hartun, arteriarik edo?
- Ez, ezebez! Pastille bat emon dosten, bai, bai. Esan zan medikue don Emilio Uriarte Ametxaga, hil dxe.

5.13. Sorkia zelan egiten eta jartzen den

- **Hizlaria(k)**: Zallo Bengoetxea, Antoni
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-070/029
- **Iraupena**: 0:03:01. **Hasi**: 00:50:10. **Bukatu**: 00:53:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- **Laburpena**: Itsasoan eta portuan lan egindako jendea ekonomikoki oso ondo egon da, lan asko zegoen eta nahiz eta lantegian izan. Sorkia zelan egiten den azaltzen du zapi batekin. Sekula ez da aritu arraina saltzen auzorik auzo eta etxerik etxe, beti fabrikan edo bentan.

Transkripzioa
- Egixe esan portuen ta itsosoan ibilli izen zarienok biherrien, berez ekonomikoki nehiko ondo egon izen zarie.
- Klaro bai, bai bertan eitzen izan duu. Ta gero, fabriketan be jente asko ibil dde ordun, ta fabrikek be orduen, oin be badabiltzez, baia ordukue izaten izan da ba hori. Ta geuk be salazoie ipintzen izen duu apurtxu bet gixau paga, fabriketik urteten izan dauinai ta goizetan ba igual baten ba: "hiru ordutxu etorko nai" bestiek "lau ordutxu" ta holan. Ta eruten izendduz kontutxuek ba ondo.
- Ta lehen esan dozuna hori sorkidxena, zelan eitten zan sorkidxe?
- Zelan esango dotsut ba?. Holan, holan, holan, ezta? Haulan, baie handidxe izaten izan da bera ta gero haulan biribile haulan imiñi ta hemen imintzen izan duuz otzarak eta listo. Baie bera izaten izan da zer handi bet, sorkidxe, holan trapo luze bat handixe, ordun eitten izan da errez haulan biribil-biribil eitten izan da haulan, haulan imiñi haulan bueltan buelta, baia handixe izaten izan dalez ba buru osue tapaten izan dau honek. Hamen hamen iminitte, hametik askotan arraiñen ure dxeusten izan jatzu, bai. Ta gero apur baten portuen papardue alasan esaten izan da. Ia baporak ein dau, etxa dittu beran tertzak ta gero imin dau beran alasak ta honantzien,

baporekuek amuaz atrapaten dauenak izaten izan die eurentzako gizonantzako , eurentzako ta portuen. Ta portuen egoten izan gara nehiko andra erosten harei. Pise ta bentan baiño merketxuau paga ta gero harek gero guk erun fabrike batera ta saldu, ta han eon nitzen horrek erosten ibil gariz, neu ta neure lehengusiñe bi ta beste bi egoten izan gara horrek erosten, baia izan zan andra asko, andra asko egoten izan gara horrek erosten. Alasako papardue.
- Eta hor otzaretan nora eroaten zenduen arraiñe?
- Bentara!, bentara klaro piseteko.
- Zuri iñoz ez jatzun tokeu ingurura joan biher izetie auzoatara-edo arraiñe saltzen?
- Ez holan ez, hori ez dot ein iñoz, hori ez. Horrek erosi bai, lasakuek euren gizonanak be erosi, guk eitten izan duu pise, amontona ta gero geuk erun fabrike batera ta han saldu eitten izan duu ta ba beti ataten izan da zozertxu. Ba geuk pagaten izan baduu ez nai akordaten orain zera, baie, pagaten izan baduu igual ba orduen pezetak izan dilez, pagaten izan baddu hogei pezeta geur kilotxue ba gero arregletan izan gara hogeta bost-edo, baten batak bihar badau derrigor edo etxateko kanpora edo, ba hauri han irabazten izan dune, hori partitzen izan duu, hor izan gara gero lau lagun.

5.14. Beti portura begira

- **Hizlaria(k)**: Zallo Bengoetxea, Antoni
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-070/030
- **Iraupena**: 0:01:17. **Hasi**: 00:53:11. **Bukatu**: 00:54:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
- **Laburpena**: Bapore bakoitzak lau bat neskatila izaten zituen. Antoni beti ibili da etxeko baporeetan. Beti inporta izan dio arrantzale munduak. Gaur egun ere etxetik ikusten du portu alde guztia eta handik egoten da begira.

Transkripzioa
- Ta bapore bakotzak zemat neskatille eukitzen bazen?
- En jeneral lau, baia gu izan gara bi lelau, neure, neu ta lehengusiñe ta gero beste bateaz hiru, hiru izan gara.
- Beti bil zara etxeko baporatan?
- Bai, bai, bai. Gero ha saldu denin gizona herriku izan da, baie gero izan da ha saldu ta gehixau ez dot ez duu euki itsasotik. Orain itsasok inportaten dost, honek seme txikixek esaten dost, estaen dosku baie. Maridxe, ni ta seme zaharra: "Han dator fulano" izenakaz, "han dator Erreñe zubi, ekar deu bai arraiñe semie, baie askorik ez" ta beti gauz konbersaziñoan portokue: "Kofradixe igiritte badau gaur arraiñe dator ta kofradixe dator, etxik dauz zahartzuek kasko biejun, baia bistie dakot ba ha dan-dana-dana! Ukusten dot Ogoñotik bueltie emon Izaro bueltie emon ta Sollube, dana ukusten dot goiko etxetik, bai, dako goiko etxiek ba terrezatxue. Talan egon zara iñoiz? ba Talan karin-kara dekot terrazatxue, ta handik ukusten duu, ta nik ba hauri: "ontxe jun diz semie itsasora " zaharragaz. Ta Bilbokue, Bilbon bizi dxast bigarrena, hareaz be bai, baia txikidxe: "atara

sueldue dakozuela betotik portotik, beti zauzie portue ha". ta harek ez daki enbarkaziñorik bez.

5.15. Kontserba-lantegiko funtzionamendua

- **Hizlaria(k)**: Ormaetxea Ormaetxea, Anastasia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-085/008
- **Iraupena**: 0:01:51. **Hasi**: 00:18:17. **Bukatu**: 00:20:08
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elizondo, Iratze
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- **Laburpena**: Lantegian egiten zuen lana azaltzen du erabiltzen zituzten makinen funtzionamendua azalduz. Behargin gehienak andrazkoak ziren.

Transkripzioa
- Ze biher eitten zan bertan, danetarik? Arraiñe garbittu, filetiek ein...
- Bueno, atune, atune lelau ba datorrenien atune ba ha atune goberna ein bihar dozu /bizu/. Tripiek eta gauzek ta zerin, burue kendu matxetagaz ta tiñetara etxa ta garbittu. Gero, makiñetara etxa bihar die /bide/ trontxoiek-eta eitteko, bai. Ta harek trontxoiek emoten ezan dotsazun /zatsun/ ba gatza tiñetan, ta gero, parrilletan plega. Gero, harek parrilletan ta bai zeretan bere gero, tosta ta tostaten danien ba, harek bajoiek-eta ein bihar duu /bidu/ imiñi lekutan hotzittuteko-ta. Hara, parorik be ez dau farbiken esatilez biharrien, ez dakozu parorik be. Gero emoten ezan doskun ordu laurdentxu, ordu laurdentxu meridxandie dxateko atsaldien.
- Iloba: Baie hori gero.
- Gero, bueno
- Iloba:Zaharra ezan zaranien.
- Baie aurduen, aurduen ezan da
- Iloba: Baie gaztetan ezuie okin
- Gaztetan ez da egon holakorik. Gaztetan ez da egon holan.
- Iloba: konta ordun sasoiko...
- Ez da gaztetan holakorik. Auntxek, auntxek dauz horrek gauzek, auntxek auntxek.
- Ta bihergin asko han?
- Bihar asko.
- Ta bihergiñek?
- Bihergiñek neurelez. Danak, danak bardin.
- Baie zemat ziñien?
- Asko, asko, asko.
- Andrazkuek?
- Ba, danak andrazkuk ta gizonak okitzen ezan dun lagunduten ta honek, latak-eta ataten ta bagoiek-eta lagunduten bagoietan-ta lagunduten, bai. Gizonak be bihar asko.

5.16. Kontrabandoa dela-eta karabineroekin tratuan I

- **Hizlaria(k)**: Munitiz Lartitegi, Inas

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-089/019
- **Iraupena**: 0:03:22. **Hasi**: 00:41:06. **Bukatu**: 00:44:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elizondo, Iratze
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Arrantzako administrazioa eta legeak
- **Laburpena**: Baporean jeneroren bat ekartzen baldin bazuten karabineroekin egin behar izaten zuten tratua. Behin Frantziatik olioa ekarri zutenean harrapatu egin zituztenekoa kontatzen du.

Transkripzioa

- Baten pasa daskun, nire presisamente artez esanda, neuk asko okitzen ezan dot haurekaz, zera handidxe okin ezan dot, ta baten pasa daskun olidxue eitxen ezan dun igual, Frantzitxik ekarri ta lagun bat igual diñotsu lagunen bat ,makiñerako olidxue, ta sarri esaten dotsu lagunen batek igual: "Txo Inas, entera nai Frantzire zuzela eta ekarrik bidoi bi”, kasu baten berrehun litroko bidoi bi edo bat edo oten ezan di beste bidoitxu batzuk berrogeta hamar litrokotxuek oten ezan diez edo ekarrik haulako lau bidoi-edo. Ta neuk be igual beste bateri. Ta baten pasa zan, neuk beste bateri esan ba ekarteko ta ekar doskun ba haunek lau bidoi txiki, berrogeita hamar litrokuek, ta on garizen baporak ba Artza zelan on da orduen, Artzie beteta oten ezan da baporakaz, ehun ta berrogeta hamar edo hirurogei auregehita ezaten ezan garan baporak Bermion, bitu zemat txalupe orain ez dauz, nik hogei edo hogeita bost edo zemat dizen, ta hiru diz tarriñegaz ta ibiltzen dizenak hiru, ta orduen oten ezan dan ehun eta berrogeita hamar edo gehidxau, ta gero in biher zan/bizan/ bapor batetik bestera pasa horrek, handik baporetik ba geurera ta beitu neuk haulan, ta beti karabiñeruek beti geure mandarantz begire: "Txo!" -[...] sozibuek egon garizen, lau soziu ezan ezan gara- ta olidxue pasaten: "Txo pentsaten dot karabiñeruek fitxeta gauz, fitxe gaittuzila, pentsaten dot entera dila", "Keba! Ez harek tamata harek ikusi bez, ez da pentsa bez!", "ez gero! sarri ikusten dot beituten ta". Ez nai on trankil. Horretan haulan gauzela ailega zan batel bat mutillaz, kostadora: "Inas!", "Zer?", "Karabiñerue dxuteko", "Karabiñerue dxuteko?". Esan doten: "Han, atrapa gaittuz ia oin zelan klarieten garizen. “Esan in dotsutie gero, holan apurtxu zelan zakugaz tapata-edo, oin atrapa gaittuz ia oin zelan klarieten garizen". Dxun naien ta: "Que hay, que hay", "Que me ha dicho el txo que me estáis llamando", "Os hemos visto que estáis pasando bidones de aceite de un barco al otro". Ta esan doten: "Pues si, le hemos dicho esto y esto y, hay que aprovechar cuando es eso hay que aprovechar, como ustedes saben pues no vamos por cuatro bidones y el que va pues, a veces yo también le traigo a otros y otros también me traen a mi así andamos, pero no creo que es, claro controlando, Si ha sido por ejemplo”. Baie ezan dalako en bez de Bermion itzi dirue olidxuna itzi ein ezan dun Frantzin ta klaro hori ba kontrabandue da, errozoie dan monduen, kontrabandue da, baie guk be bai, koño, ezan dalako bardatik olidxue bermiokue baiño hobiaue eta bastante merkiaue be bai, ta haurrek gauzek ez badun eitxen beti, ba klaro ez dau mundurik be ze horrek gauzek haulan diez, han badau merkiau ba hara zuez.

5.17. Kontrabandoa dela-eta karabineroekin tratuan II

- **Hizlaria(k)**: Munitiz Lartitegi, Inas
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-089/020
- **Iraupena**: 0:03:55. **Hasi**: 00:44:28. **Bukatu**: 00:48:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elizondo, Iratze
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Arrantzako administrazioa eta legeak
- **Laburpena**: Baporean jeneroren bat ekartzen baldin bazuten karabineroekin egin behar izaten zuten tratua. Behin Frantziatik olioa ekarri zutenean harrapatu egin zituzten eta tabakoaren truke lortu zuten libratzea.

Transkripzioa

- "Bueno, bapora atraka hauna mollera", "Bapora mollera atraka? Holan baporak amarrata" Danak haulan alkarren boidxetan, baie ezan da liue, [...] handik ta total enpatxue, bapora ezin sartu han. “Zelan salbaku handik eh, ze bapora handik salbateko haulan ta haulan haunek bapora guztidxek safa biher diz /bidiz/ honek baporak handik urteteko”. “hau da hori dena, “nada, nada, aquí nada. Dentro de media hora quiero que este el barco aquí". Zaindxen bi, beti oten ezan dizen guardidxen bi. Bat ezan da, esaten ezan dotsagun jeneralmente, ezaten ezan da espezialistie okitzen ezan dauen hamen haulan zintxe gorridxe ta okitzen ezan dau haregaz konfidantzie nehiku ta bestie, beste karabiñero naturala, haregaz gehidxau, ha ezan zan bermiotarra, bueno bermiotarragaz ezkondute ta okitzen ezan doten zer handidxe. Ta esaten bateri bestiri "Oyé no, no hay alguna cosa que, como, como podemos aclarar esto" -gure ezan dotsat /guzantsat/ esan azpitik diru pasaten- “ezindxe aklara hau zeozelan?”, "hori niri ez esan, eso a mi no me digas, dile, dile al otro". Ze bidxek ezan arren karabiñeruek ba bidxetan bata beti agindxuten dauena bidxen tartien batek agindxuten dau, ezer badan batek eitxen ezan dau. Ta "Esan hareri", ta haregaz gehidxau, konfiantza gehitxuau ta esan ein dotsaten "ta haulan ta haulan, total da haulakue, zer handidxe emoten dozune ta “al fin y al cabo” lau bidoi baiño ez die, en jeneral lau bido txiki, ta beitu hamen ze halako dauen, eske Bermio guztidxe molesta biher da /bide/ nik, guk [...] hametik tartetik bapora atateko. Ta ez dau ezebez halan ezebez ez dau klarisiñorik?" "Bueno, laster etxako dotsutie" –haulan berbarik berba esan dotsaten e!, berbarik berba-. laster botakotsutie mutillegaz, karabiñeruen kasetara atara lau kartoiek rubidxuek”. Kartoiek rubidxuek, okin ezan dun kartoiek, Kanariasetik ta ekarritze ta orduen, karabiñeruek pasa ezan doskun ordun, hor. “Halan ta halan, lau kartoi etxako dotsutie zerara, kasetara, ta ze esango dotsat mutilleri eruteko" .Ta ein dotsaten atzie emon ta segi, hauri esan ta bertan itzi, zer ein dotsaten segi aurrera, ta esan dosten "Oiga,oiga usted,oiga usted, ven aqui, ven aqui, has dicho esto y esto, y te marchas tan tranquilo, ¿Tu que crees?" ez nau dxo arpidxen, mekauen! eske neuk be gauze feue ein dotsaten, esanez, erosi, “como quien dice” erosi ta hondiño neuk esan: “Txo! lau kartoi emongo dotsut eta hala, ta dxuen”. Hori ezin dxe ein personiri, ta zemat bider akorde dxaten faenie. Halan ta halan ta [...]: “Hara, bakizu zer?” arpidxen, "No te pego en toda la cara, y te rajo la cara,no sé por que! Mira, mira haz lo que quieras!" Berak karabiñeruek, bera, berak jenidxuaz, berak eta bestie, bestiek deitxu otson ta eurek bidxek eskapa neure ondotik jenidxugaz neu arpidxen ez dxotiarren. Kuestiñue da, nik , neure lau

kartoiek erun dotsaten kasetara ta halan klarie gariez, gidxau iñok ez dau, gero betiku lez amistadie. Geure atune, antxoe bokartak dauzenien bokartak emoten ezan dotsagun paketatan barritan, ta geure bizimodue haur ezan da.

5.18. Gizona arrantzalea eta baserritarra

- **Hizlaria(k)**: Telleria Madariaga, Aintzane
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-096/011
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:13:25. **Bukatu**: 00:15:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
- **Laburpena**: Hogei urterekin ezkondu zen. Senarra arrantzalea izan da, baina baserria ere gustuko izan du eta asko laguntzen zuen baserriko lanetan. Itsasora joan ezin zen egunetan ondo pasatzen zuten, lan apur bat egin, kartetan jokatu eta horrela.

Transkripzioa
-Gero, hogei urtegaz ezkondu nai.
-Gazte!
-Bai, atxiñe halan ezate zan da, hogei urtegaz. Arrantzalie esan dot senarra, seme bat okin dxot, berton, amen bixi dana, Gotzon. Ta a gizona be neugaz batera etorten zan da hona, ze ameko osabak esaten'zan dost: "Aintzane, bedarra batzie dakot ta otorko zara?" "Bai" ta izekok, Eragone okin dxau izena, esate'zan'tzo: "Kontuz Gaspar!, ze horreri, e, pistidxek ikaratu itxen dauie ta, kontuz e!" ze hau esanda total e, okin dxauelez anaidxe bat honek, kapitxena gazte-gaztetatik, geixue etorri, asurretako geixue etorri, ta on zan pistidxelez haulan e. Baie, herritzik etorten zan ¡atzo jentie ikasten, makiñiste ta patroi itsosorako, ta total esan dau e baserridxe alegrie. Lagunduteko be etorten zan ¡atzo jente guztidxe. Ta diñotzuten modun e hori zera batzien, bedarrak, ta halako baten igual batunde bedarrak, ikusten zan dauelako siontzoie bat, nire aldarridxek aurtik gora: "Papaue!" esaten'zan'tzo nire izekok "ez dotzut esan?" Bueno, hortik ikusten'zan du farola itxosoku be, "Salvador, gaur etze, bidxar etze egune dakosu farol gorridxe dau imindxe ta." "Eragone" esate'zan'tzo "Iala, benga, eratzi esniek, ta ensegidaten imiñi afaidxe, kartaka in bi'du gero ta." Ta pasaten'zan du berton egunek, haulan geure biximodue.

5.19. Lan asko eta irabazi gutxi fabrikan

- **Hizlaria(k)**: Telleria Madariaga, Aintzane
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-096/024
- **Iraupena**: 0:01:16. **Hasi**: 00:31:13. **Bukatu**: 00:32:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
  Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

- **Laburpena**: Goserik ez dute pasatu baina estu bizi izan dira. Fabrikan goizeko seietatik gaueko hamarrak arte, astean berrogei ogerleko irabazteko. Lan gogorra zen.

Transkripzioa
-En akellos años koitxadak gu, ia ba, biharrien e geure denpora guztidxen, ez du okin txiki bet eguno; goserik ez du okin, baie dirorik bez, ez du okin nondik eta. Atziñen urridxek ezan dis e irebazten'zan duzen diruk, ze fabriken eon naitzen denporan be, ez dot nik asko eiñ fabriken, baie igual goizeko seiretan dxun biharrien, e? ta gaueko hamarratararte ba igual aste guztidxen berrogei ogorloko, zentzak allegaten'zan'tzu horrek ba? Ezebez bez. Ta han astulez itxen'zan'zun bihar fabriken, han ez zaitxus konsideraten'zan e, umie zarala ta, gaztie zarala ta. Ze atxiñen galdarak, ta harek galdarak berotuteko iketza eon da, ta iketza igaroten bizan da, ta gu harek zeztuk artunde, zuk takixu, harek pisuek, ta ez pazara kapaz etzera. Ta dirue bizan'zulez, ba eiñ in bizan'zu. Ein dxot latak, gizonan biharrak be intaz, latak solda, soldadorakaz.
-Danatarikoak.
-Asiske, portun, portun ein dxot bihar, motorratan.

5.20. Kontserba-fabrikako lana

- **Hizlaria(k)**: Telleria Madariaga, Aintzane
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-096/039
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:59:06. **Bukatu**: 01:02:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- **Laburpena**: Antxoari burua kendu eta gero "enbaja", latan sartzen zen. Atunari burua beste batzuk kentzen zioten. Trontzoak egin eta egosi egiten zen. Kipulak txikitzen ere jarduten zuten; berakatza, ereibotza. lehortzen jarri, beltza kendu, "enbaja... "Lateruak" eta "galdareruak" ziren fabrikako gizon bakarrak. Lan gogorra zen, eskuak urratuta amaitzen zuten. Jornal txikia, 40-50 duro astean.

Transkripzioa
-Ta hori esan'zu bi e biher eitten zendula bai fabriken eta fabrikako biherra ze biher zan?
- Gogorra, ba lelau atune antxoatan, buru kendu antxobiri, ta gero enbaja, tiñetan garbitxu, ta gazti zaran arte ba andidxek e, andrak e zertun, ordaindu, ta guk atara. Ta gero, antxobie itxen'zan dunien, ba salasoien imiñi. Horrek harri manduek, salasoiekaz pegateko, emongo'tzut antxobatxue probateko, neuk eindxe dakotazenak, ta horrek zertun. Gero atune, atune kentzi'zan do burue, nik ez dot kentzi'zan, andrak eoten'zan die a ello-kuek buru kentzi'zan dauienak. Bai, guk eguek kendu, ta barroko tripek atara, gibarrollek eta horrek. Ta atxiñen gibarrolle, okitxe'zan dauena atunek, tiñetan imitze'zan du, ez dai zelako medikamentue itxeko erute'zan dauie, bai [...] ta harek atara, bai haunek guztidxek urrutute okitzen'zan'duz e? Eskuk, atxiñen guanterik be ez talez eogon.
-Klaro!
-Urrutute okitzen'zan'duz. Ta horrek, gero horrek trontzoiek egin, ta kosedoratan, kosedorak on diez, han handidxek ta hor e itxen'zan die

egoxi, muerigaz. Ta solo bat okitzen’zan dauie e gure fabrikekuek, ta hara solora dxuten’zan gari kinpuletan, kinpulek txiki-txiki-txiki indxe etxaten’zan datzoie hareri, lau edo bost zati egin kinpulek, ereño zati bet da berakaz zati batzuk, ta harek egoxi haretan zeratan. Kajak oten’zan die haulan, plegata imitzen’zan’zuz, horrek biharrak. Ta egosten’zan dien atara. Ataten’zan danien, otzitxuten’zan danien, imitzen’zan du parrilletan, sikatu arte, egun bi edo pasaten esan danien, orduen asaltxu kendu, da imitzen’zan dun atzera sikatuten, euren zerak, trontzoitxutan, trontzoitxutan, sikatuten. Egun bi edo haulan pasaten’zan danien, ba harek baltza gustidxek kendu, arraska ta garbi-garbi imiñi. Ta gero haulako zertxu batzuk oten’zan diez ebaitxeko kutxillugaz, ze lata a meide, ta igual okitzen’zan’zuz zeuk lau andra, ta zuk bat aurrien, ba zuk hareri a basto emoteko, ebaitxe, ta harek enbaja, enbaja latatan ta gero makiñetan pasa, errebise zelako faltarik padako, oridxue etxa hareri txe danak, eze falta barik, ta haurrek gauzek.
-Ta gizonak be egoten zien?
-Ba, lateruk, lateruk ta galdareruek, bi edo hiru oten’zan diez horrek galdareruk eta horrek.
-Eta jornala?
-Esan’tzut ba! Ezebez, berrogei ogorloko igual, berroge ta hamar, ezebez. Baie zemat bihar indxe?
-Ord asko?
- Joe! Ez tiño’tzut ba? Ba goixeko seiretako igual dxun da…
-Zutunik?
-Ta…

5.21. Ama eta izeko fabrikan lanean

- **Hizlaria(k)**: Telleria Madariaga, Aintzane
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-096/040
- **Iraupena**: 0:00:54. **Hasi**: 01:02:11. **Bukatu**: 01:03:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- **Laburpena**: Amak eta izebak beste lan egindako gizonik ez ei dago. Kontserba-fabrikan egiten zuten. Askotan gaueko hamabiak arte ez ziren etxera agertzen.

Transkripzioa
-Amak eta, gure amak eta Garabillasen in dxauie bihar, danatan in dxauie gure ama koitxadak eta, gure ama koitxadak in dxauien beste bihar! Ta e, gu hasteko, gitxi de, ez ta eon gizonik harek in dxauien beste bihar, ez ta eon deretzorik! Harek in dxauien beste bihar koitxadak. Ta larota hamabi urtegaz hil yast ama, neure ama zaharrena, bera geratu de azkaningo. Gaueko hamabidxetan ta sarri dxun gari ni ta aiztie, gure ama agertuten ez fabriketik: “baie non demoniño dau gure ama ba?” oireko: “Ama, bai ondiño?” “Ta ze in bidu ba?” Garabillasen oten’zan diselez eurek imitxekuk e, horrek errepartuek e etxateko kajak dxosten, kajak atxiñen, kajatan dxosten’zan dun, kajak dxosten, ordutararte.
-Zure aman sasoien eta alarguntasun kontuek eta?
- Ezebez! Ez du okin txikirik be, iñondik bez.

5.22. Aita itsasoan ito zen

- **Hizlaria(k)**: Telleria Madariaga, Aintzane
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-096/041
- **Iraupena**: 0:02:31. **Hasi**: 01:03:05. **Bukatu**: 01:05:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasoko arriskuak Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- **Laburpena**: Aita itsasoan ito zen Castro inguruan. "Galernakoak" bai baina beren aita-eta ez ei zituzten sekula aipatzen. "Izaro" eta "Osasuna" ontziak elkar jo eta hondoratu egin ziren. Aitak ez zekien uger egiten (igerian) eta ito egin zen. 11 lagun ito ziren.

Transkripzioa
-Da zure, zuen aitte zein zan?
-Itxo.
-Desa-desagertu edo tope...
-Ez, ez, ez zaitxuzen topa, da ori kontun okin’bi de eguno gure aitxe ta e tzusina aitxetu, eguno. Beti aitxetu dauie galernakuk, galernan itxo disenak, bai gure aitxe ta eguno bez. Badakotez nik e erretratuek harenak topako lekitxutea nik haur nonon dakotez ta, ikusteko zuk.
-Zuk ez dozu akordun eukiko?
-Zelan okin got pa, urte bi txe erdigaz nik zelan esetukot pa! Dxulenek pai ezetu dau aitxe, bai nik ez, nire aiztik hamar egun okin dxau, San Roke egunin dxaidxo’zan, hogeta zazpidxen itxo zan agostuen aitxe.
-Da nik haur e...
-Nun, nun itzo zan?
-Isaro da Osasuna...
-Bai.
-Kastroko bueltan.
-Kastro bueltan.
-Gure aitxe ta dxun zien herritxik euren e zera indxe, atune deskargata, ta bestie etor zan onantz, ta antza alkarreri berbetan duzela txoke in zauien.
-Euren artien txoke?
-Bai, agostue zan ta, ta txokie ta auri gure ama, aitxek ez tauelez dxakin uger, osabak dxakin dxau uger, baie osaba be itxo in zan antza golpie artunde edo ez taipa zelan. Hamaike itxo zien, ta beti esaten dot, bai gure aitxe ta ez dako iñok kontuen? zelan esango da hori? Laster ikusko’tsut e hau kentzi’stasunien topako’tsutez haur dakotez ta.
-Ta hamaika itxo zien?
-Hamaika itxo zien.
-Ta, beste-beste batzuk ordun salba zien?
-Bai, ta mutíltxu bet dau bertan erretratuen aulan hildxe, nik konserbaten dot ausitze dana, beitu zemat urte dakoien ta, hiru ta hamazortzi urte ez ta? Gastata be badau bera okitxen, papela barridxek eta atata dakotez baie. Bertan ikuste da mutiltxu bet, e itxosora dxuten zan dana, atrapa zauiena itxota, ikusten da bertan. Haulan geure biximodue lastana.
-Da bestiek zelan salba zien? Baten-batek edo...
-Bai edo ausilidxe edo ohola-oholan baten ganien edo haulan, horrek ez zínak ikusi, antza golpie edo artun zauien edo.
-Zelako enbarkasiñue zan?

-Atxiñen zer bakuek, horrek e latin bat, latin batekuek edo ez tai zelan esaten zan’tzoie.

6. Politika

6.1. Aitak egiten zituen hilkutxak

- **Hizlaria(k)**: Monasterio Zubillaga, Begoña
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-006/035
- **Iraupena**: 0:00:58. **Hasi**: 00:56:24. **Bukatu**: 00:57:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- **Laburpena**: Bermeotik alde egin zutenean, bere gurasoak Bermeon gelditu ziren. Aita Soltxaga jeneralaren laguna eta herriko arotz bakarra zenez, berak egiten zituen hildako militarren hilkutxak eta amak laguntzen zion.

Transkripzioa
- Orduen joan ein ziñien. Danok? aitte, ama eta danok?
- Ez, aitte ta ama ez. Aitte ta ama horren lehen esaten hasi naiena, horren Soltxagan, hori jefie, Soltxagan hiltzen izan dizanien eurenak, militarrak eurenak, ba eitten izan /tsoie/ deutsoie kajie olezkue, ta gure aittek eitten izan /ttuz/ dittuz harek. Geure aittek eitten izan /ttuz/ dittuz ta gure amak emoteko guri emon doskune kastigue, eureri dirueri haulan beitute, kandela negarretan irabaziko dirue emon bihar orain, hau dirue, hain beste kosta jazkune gauetan kandeliegaz argirik ez dalako egoten izan herridxen. Ta kandeliaz amak lagunduten izan /tso/ dotso aitteri, ta haretan irabaziko dirue.

6.2. Kofradiako dirua Iparraldera

- **Hizlaria(k)**: Renteria Anduiza, Jose Anton
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-025/005
- **Iraupena**: 0:02:12. **Hasi**: 00:07:05. **Bukatu**: 00:09:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elizondo, Iratze
- **Gaia(k)**:
  Politika » Jarrera politikoak
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- **Laburpena**: Bere aitonak eta beste gizon batek, gerra heldu zenean, kofradiako dirua Iparraldera eraman zuten eta Euzkadiko gobernuaren kutxan sartu zuten. Gerra bukatu ostean, gerrara bueltatzerakoan, dirua banatu zuen. Beste aitona, aitaren aita, errepublikazalea izan zen, baina bere aita abertzalea.

Transkripzioa
- Datu bat amak konteikue dakot, okintzen ezan dauen beran lagun zintzo

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-087/024
- **Iraupena**: 0:02:41. **Hasi**: 00:39:05. **Bukatu**: 00:41:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elizondo, Iratze
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
  Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Errepublikanoek beraien kafetegia zuten Lameran. Gerraostean, gose garaian, milizianoak soloak eta jatekoak jagoten egoten ziren lapurretarik ez izateko. Baina, behin, Soledadek portuan ikusi zuen bat atun lata bat hartzen eta berak ere hartu zuen, eskubidea zuelakoan.

Transkripzioa
- Ta republikanuek non oten zien?
- Katalin: Igual etorten die zeure etxera be.
- Soledad: Lameran on da euren lekue, errepublikakue Lameran.
- Katalin: Edonon.
- Soledad: Euren eh, zentrue.
- Katalinen alaba: Zentrue. Batuten ezan dizen...
- Soledad: Batuten zandizen Batxokidxen faxistek, edo zerak nazionalistek.
- Katalin: Bai egidxe, Batzokidxe eurentzako hartun ezan zauien.
- Soledad: Republikiek Lameran, non dau e, Koyoten tabernie, han oten zan da republikie. Orduen oten ezan da bertako andrie Fernanda izena. Gizona ein dotsoien kartzelara eruen ta fusille, ein dotsoien Fernanda "por la republika!"
- Katalinen alaba: Republikanue ezan dalako denuntzidxe ta eruen.

- Soledad: Hauri inkisiziñue on da atziñe. Ha esaten bozun ha esaten dozule. Gerrie akaba danien gero, pasa da hamen, neuri pasa dast ta, akaba da gerrie gero postgerrie etorten da, ta guk ez dulez okin dirorik ta ni gaztie ezan naielez orduen atako nauen orduen edozer. Hamalau edo hamabost urte eukin nauen, gosie on dalez, on zien milizianuek bermiotarrak, milizianuek ortue dxabotekuek ta danak etxekuek, akordetan zara? Buano milizianuek. Milizianuek eitten ezan dau, dxaboten ezan dauien jentiek ez eruteko biberarik ez ostuteko. Miliziano batek non hartzin dauen bost killoko latie atunena, ta nik ikusi dotenien bost killoko latien hartzien, neu be dxuen ta hartzien hasi: "Zu geldik". "Zer geldik?" neuk ba. "Nik etxien dakotez gosek hiltzen jenti ez daku zerik eta, ta itzi ein biher dostazu hartzien". "Keba! Ez dozu erungo", "zelan ez dotela erungo? Zeuk bai ta nik ez?". Agarra latie [...] orduen ta, agarra latiri bost killokuri ta etxera! Atunena!
- Katalinen alaba: Nondik fabriketik, dendatik edo nondik?
- Soledad: Portutik, barkuen eruteko ezan da kapora ta.
- Katalinen alaba: Ai! Eruten dauie hara almazenalez.
Katalin: Ostuten fabriketatik.
- Katalinen alaba: Aldauenak aldauen eitten dau, oten ezan dizen dxaboten, ta zuk ikusi dozuniko bat ostuten zuk zer ein dozu, zeuk be..
- Soledad: Bera, milizianue, neure planta bajako goiko hirugarren pisokue ezan zan.
- Katalinen alaba: Klaro, zeu denuntzidxe ez zaitsuzelez zeuk be denuntzidxe.
- Soledad: Agarra nauen latiri ta neuk be eruen. Larga horreri, Tutu, larga horreri. Zelan largako dotsat nik horreri? Zeuk deretsue dakozu hametik hartzien, ba neuk be bai. Hartun ta etxera "Alabatxu, egunen baten hilko zaitsuzie danan artien" "ez dau ardure ama! Oin dxan eindo dogu /ingu/ ta!"

6.24. Goseak jota jatekoa edonondik lortu beharra

- **Hizlaria(k)**: Luno Arenaza, Soledad
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-087/025
- **Iraupena**: 0:02:58. **Hasi**: 00:41:46. **Bukatu**: 00:44:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elizondo, Iratze
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Osasun-zentroak
- **Laburpena**: Soledad beraien kaleko denda batera ogi bila joan zenean, kanoi batek apurtutako eraikineko zati batek hankan jo zuen. Italiarren ospitalera eraman zuten, Serrat lantegira. Handik ere zer jana eraman zuen etxera. Gose ikaragarria ezagutu zuen. Errazionamenduak ez zuen asko irauten.

Transkripzioa
- Soledad: Gero hasi zan bonbardeuek eta horrek, bakizu, bonbardeuek. Ezetu zu zuk? Bonbar...
- Katalinen alaba: Nik ez.
- Soledad Zuk ez, zuk? Bonbandeue Bermion, kañoiek etxaten...
- Katalinen alaba: Sollubetik.

- Soledad: Haurtik. Bueno, gero ni, ni, ezan naielez edozelakue, dxutekue, dendan on baten ogon, geure kalien, Aurrekoetxean, bera Lameraneko dendan emoten ogidxek ta nik zer dxuen, dxuen korrekto e, "bueno, neu lelau atendidu" Dxoten dau berak kañoiek aurreko etxeko miradora, dxoten dostak hau pantorrillie, italianuen zera da, ospittalera erun hauna, Serrateneko fabrikie, Serrateneko bera nor on da, Mertxe, Mertxe. Hara! Han on da Kruz Rojie, hara, hara erun nauien. Italianuen artien on naien ni. Hara be etxera erun tasak hainbeste bibera handik, handik. Hara, zeuk be ta neuk ez, igual, igual. Gero diñoste andra bik ez eh, harek ezan diz ganera armadorik honek zer, esan dostan "zu, Tutu", "zer?" "lagunduko dozu geuri hametik loidxetik eruten koltxoitxuek-eta?" Klaro, itzi ein zauien gero koltxoiek eta dxuteko gerrakuek jentie. Ta nik tontionek: “Bai, lagunduko dotsut, erun dotsatien mantak, koltxoiek eta ezkiñe guztidxe etxera. Ta amari esan: “hau ta hau ein dxosku Urangak”, "Tentela! Ta zetan ez zu ekarri etxera zeuk be bai?" "nik ez etxera, segidu eingo dostien ostantzien ta" "Laguneri ekartsat iñori lagun". Ta armadoriek ezan zien gero harek, bai! Txokolateneko Konsuelo ta beste bat.
- Katalinen alaba: Ba ezan bazan triperako arin! Eurek baiño lelau zeure etxera.
- Soledad: Bai, ni koltxoitxik inporta dxastela niri! Gero kaiñoiek ta behien ganera. Berak kaiñoeik ez nau dxo, miradorreko zatidxek, hamen, hamen, hamen dakot markie, hamen, hamen. Italiano artera, han egon, bertan haulan.
- Katalinen alaba: Gosie kendu dozun hango egunekue ta gero, biberak eskatu etxerako. Ta harek danak igaro zuk!
- Soledad:- Makiñe bat gose kendu dotsiet goiko jentiri-ta. Makiñe bat! Ta neuk be bai. Ostuko nauen orduen, bera, barra be bai. Bar osue be bai.
- Baie razionamentue ta okitzen zenduen?
- Soledad: Okin dxuu, okin dxuu. Gailletak eta, txokolatie, arroza, indxabie, garbatxue danala! Baie erraziñue, ez zauen balixo ezan ezetarako be.
- Katalin: Egun baterako.
- Soledad: Erreziñue hobeto, txarto on gara gu, gerran txarto pasaikuek gara gu gero! Ta asko ikusikuek, batzuk ez baie guk bai, neuk bai.

6.25. Bala-zorroak kiloka saltzen zituzten

- **Hizlaria(k)**: Munitiz Lartitegi, Inas
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-089/014
- **Iraupena**: 0:01:56. **Hasi**: 00:26:57. **Bukatu**: 00:28:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elizondo, Iratze
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- **Laburpena**: Sollube lubakiz (trintxeraz) beteta egon zen. Bala-zorroak (kaskilloak) asko egoten ziren eta kiloka saltzen zuten. Diru asko ateratzen zuten.

Transkripzioa
- Hau Sollube-eta kontetan dabe, hau be handidxe. Hor oten ezan dan Solluben. Kontuz, hametik, bueno, bertan Solluben goidxen zauzela, hori dana oten ezan da trintxerakaz beteta. Ta hor gerra handidxe ezan dalez, oten ezan diz euretan trintxeratan, ze gu dxuten ezan garan gero horra, ta

oten zandizen kaskilluek montoilletan, kaskilluek oten ezan dizen fusillen bakizu, kaskilluk balinak. Ta horrek eitxen ezan duu batun. Horrek eitxen ezan dun batun ta gero esaten ezan dun killue ez daitz zelan ezaten ezan dan txiki bet edo txakur bet edo ezango zan killue. Ta eitxen ezan dun horrekaz ba partikararako dirue zan, eitxen ezan dun ta topaten ezan dan asko, asko oten zandie. Ta sugertie eoten ezan bada, topatie amtetralladorie on dan zillue topaten ezan bazun, han oten ezan die ba asko, han ape marie! Zako bete bertan batzin zan leku baten "como quien dice!". Ta horrek saltzin ezan duz ta beragaz majo partikararako dirutxu okitzen ezan dun horrekaz kaskillukaz. Ta bonba de manue sarri bonba de manue gitxi, gitxi gorabehera dxakitzen ezan dun zelan, zelan dizen gauzek. Sarri igual atrebiduren bat beti bonba de manue safa halakue, anillie, ta bota, ta ostu, ostu ta bota ta lantxin behin errementa eitxen ezan dasku, beste baten ez dan errementaten ezan. Ta sarri holan, gerran da, o! Euren balan puntek-eta, ta gero rollue ezaten ezan da hamen narrue imiñi hamen ta narrue balien puntekaz beteta, garrikuen, garrikuen narrue bala balien puntekaz beteta politxo imindxe, ta kaletik harro, harro.

6.26. Falangera joan behar derrigortuta

- **Hizlaria(k)**: Munitiz Lartitegi, Inas
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-089/015
- **Iraupena**: 0:01:12. **Hasi**: 00:28:53. **Bukatu**: 00:30:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elizondo, Iratze
- **Gaia(k)**:
  Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
  Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- **Laburpena**: Falangistengana joan behar izaten ziren derrigortuta. Batzokitik Andra Mariko elizara joaten ziren instrukzioan. Sasoi hartan batzokia errekisatuta izan zuten falangistek.

Transkripzioa
- Ta gu oten ezan garan lagunek Falangien, baie oblige ez geuk gure ezan /guzan/ dulako, oblige! Ta gu ba pozarren. Halan da guzti be, ze fusille emoten zandoskun, olezko fusille. Ta eitxen zan, dxuten ezan garan istruziñiuen hasi, bakizu batzokidxen, batzokidxe non dau, ba hor oten zan ordun Falangie. Hasi batzokitzik ta hauna Santa Mariako elizera dxuten ezan gariz istruziñuen olezko fusillegaz, ”ti-ta, ti-ta”. Ta gastadoriek aurretik-eta, ta txapela, hori bordatxue hamen, ta gero rollue ezaten ezan da ba txapela buruen erutie ta ape Marie!
- Eta derrigortute esan dozu?
- Bai, obligeta! Eruten ezan gaitxuzen Falangiek. Domekan, domekan istruziñue elizera ta kanta bakizu "Cara al sol" ta horrek kantak ba beti beti kantak, beti. Kanta, ta kanta, ta kanta, ta kanta edozer kanta. Ta txiki bateitzik, gaueko hamaiketan ta igual Lameran ba kantaten ondo, ondo jentie, egualdi ona.

6.27. Bermeotik Bakiora ihesi gerra denboran

- **Hizlaria(k)**: Telleria Madariaga, Aintzane
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-096/003
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:04:04. **Bukatu**: 00:07:04
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- **Laburpena**: Gerrak baserrian harrapatu zuen Aintzane. Bakioko baserri batera joan ziren, baina bidean osaba galdu zuten. Agertu zen halakoren batean begia galduta. Laster itzuli ziren handik eta etxea soldadu italiarrez beteta aurkitu zuten. Ez zuten haiek eskainitako ogia hartu nahi izan.

Transkripzioa
-Bai klaro, or bitxartien, gerrie etor da, ta gu baserrire etorten zan gari asko. Hamen baserridxen atrapa gaitxuzen gerriek, lenguso zahar bidxek eta neu. Txiki bidxek geratu zien amagaz herridxen. Hor hasi zien tiroteuen pakun-pakun-pakun, atxiñeko horrek zerak, ta gu izeko Eragonegaz asto baten egin gariz hametik urten pentsa, atxiñeko gauzek zelan pentsaten diz e, ez doskule in bihar ezer, goitxik ikusten abioiek ta gu geure astotxugaz hirurok ta izeko. Baserri bet dau haur Bakidxon onduen, dakona Urkidi izena, hara dxun gañen, han ein dxusen hiru-lau egun. Baie horreta baten, horretako nire amak eta neba bat okin dxauie, ez tana esan e santue, normaltxue esatiles, atakikas on zan geratute, baie guk dana enteniten zantzaku; ta a koitxadue geugaz batera, behi bategaz urten zauen ta ha ze in dxaskun? Piñudidxen hor, galdu. Gu allega garisen hara Urkidire, ta osaba falta, osaba falta, gaue pasa ta agertuten ez, zer pasaten ete datzo geure osaba koitxaduri? Halako baten, beste eguni, bigarrenien agertu zan, ta behidxe, begidxe galdute, da berari ezebe pasa bez. Haur, gero ba pasa du hiru-lau egun; ta pasa danien hori, ze hor esaten zan dauie italianuek “Aquí morir y allí resusitar”, entzu’zu? Koitxaduek, inuxentiek zelan etor dizen, ta hor ikusten zan du guk, hortik bera zer otor dan. Hiru-lau eindxe, egun eindxe, etor garizen, topa dun hori Pellune dako gure baserridxek izena, Pellune...
-Pellune?
-Pelluna, bai, ta or topa duzen italianuek. Jesus zemat italiano! Zer okin zauien e gauzie ba! Muñeka, ogi, gauze... baie etze guztidxe destrosata, katxarro gustidxek atata, ze hor okitzen zan du solo eder bat, mallukidxekaz, mallukidxekaz eskandalue okitzen zan du hor mallukidxek. Harek mallukidxek dxanda, ta klaro, harek behitxuek gero, txaltxue in dxoskun han tartien, entzutezu? Ta ha txaltxue ekar dun karruen, burdidxe esaten zan ¡atzon atxiñen, burdidxe, ta heurek hareri erreberentzidxek eta ez dai pa zer pentsaten zan dauie, jangoiku dala edo, nik ez daitz, hareri erreberentzidxek ta mosuke, ta gu haulako betondue imindxe hirurok, sei urte okintaz, bestiek bos gehidxau, hiru gehidxau, ba sei tze hiru beratzi ezta? Ta bestiek ba zazpi hillebete gehidxau, ta geuri, guk ezebe hartun bez, haunen besteko ogidxek, atxiñeko harek ogi handidxek, ta geuri emoten, ta guk ez du gure hartun bez, “e, ¡Que cosa más rara que los niños no querere pan malgro!”.

6.28. Aitona ezkutatuta frankisten beldurrez

- **Hizlaria(k)**: Telleria Madariaga, Aintzane
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-096/005
- **Iraupena**: 0:00:41. **Hasi**: 00:07:53. **Bukatu**: 00:08:34
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- **Laburpena**: Aitita PNVko zinegotzia izana zen, eta ezkutatuta egon zen frankistak sartu zirenean: batzuetan, basoan; eta, beste batzuetan, kortan egindako zulo batean.

Transkripzioa
-Gero pasaten dala, gure atxitxe esan da konsejala "en aquellos años" ba PNVkue, ta guardidxek segidu asko, ta koitxadue beti e piñudidxen lo itzen gauien, ta gu hirurok, imiek, han piko baten azpidxen. Klaro, han ikusten'zan du triskornio, atxiñen ba'kisu triskorniuek zelakuek eruten'zan dauien; han dxirtadie, e hamen dator izeko, hamen datos guardidxek. Ta okitze'zan du kortan behidxek ote'zan dien lekuen, solo handi bet eindxe ta koitxadue han barruen e gordeta. Ia ze zan ta, PNVko konsejala esan dala ta personie holan.

6.29. Familia osoak izen euskaldunak

- **Hizlaria(k)**: Telleria Madariaga, Aintzane
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-096/017
- **Iraupena**: 0:01:59. **Hasi**: 00:20:53. **Bukatu**: 00:22:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Euskara eta politika
- **Laburpena**: Izen euskaldunak izan dituzte familian. Politxeneri "Poliparka" esaten ei zioten mojek. Aintzaneri, berriz, "Gloria". Familiako izenak esaten ditu banan-banan. Horietako bitxiena "Eragone".

Transkripzioa
-Begoñe ta Aintzane, Iñaki ta Dxulen.
-Ta, Polixenek ez deko tradusiñorik?
-Ez...
-Begoñak bez?
-Poliparka imitzen'zan tzoie, Poliparka.
-Poliparka?
-Ba, ta bestik be, harek be e'tzon entzungo, bai.
-Ba Poliparka!
-Edo Miren, Miren Polixene esan dalez, Miren deitxuko'tzoien igual.
-O Maria.
-Hauri. Baie niri, niri in dxostie
-Baie zu bautisotik Aintzane, ez ta?
-Nik Aintzane dakot nik beti. Danok okin dxu euskeraz guk e? oiñ haunek sartun zin horrek sartun zinien, ein dxostien tradusiñuen Gloriagaz, ta beitu lelangoko euskerie kanbidxeteko etor zanien, akordaten zara? Urte asko diez, zemat urte? Pillo bat, ba Bermion lelau lelau ezan naien, neu ta aiztie

dxun garisenak, e? Esan’tzaten “Imindxe imiñi, nik hori izena ez dakot hau baño” Ta nire semie be Angelegaz on dalez orduen, ezin esan da euskeraz imiñi tze, imin’tzaten hareri be, euskeratute Gotzon. Guk danak taku euskeraz. Nire aiztie Begoñe, hiru alaba dakoz harek, Goiuri e Dxaione ta Miren Bego. Ta harek lobiek dakoz, erdikuek dakoz alaba bi: e Lorea…
-Bai baia horrek ia gaztienak bai.
-Horrek gaztiek.
-Baia len eta, zuen osaba-izekoak eta be bai? Izen euskeldunek?
-Danak euskerak, esango’tzutez neuk: zarrenak Paul, Migel e Mikel, e Sabin ta Imanol. Ta, izekuek ezan dizelakon lau anaidxe ta lau arreba, Eragone, Maria, Juana ta Florentina, Polentzi, gure ama.
-Ta Eragone ze izen da?
-Ba hauri, ez dako tradusiñorik, ze politzo ezta? Guztaten ¡atzu? Lobik takotzo Eragone, lobik takotzo.

6.30. Falanjearen sermoiak entzutera behartuta

- **Hizlaria(k)**: Telleria Madariaga, Aintzane
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-096/035
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:47:15. **Bukatu**: 00:49:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Politika eta Franco
- **Laburpena**: Batzokia izandako etxea hartu zuen beretzat Falanjeak. Fabrikatik ordubete galdu eragin eta behartuta joan behar izaten zuten hara "euren inuzentekerixek entzuten". Errebeldea izan da Aintzane, ez zuen amore ematen. Bandera edo "txori" espainiarrak eramatera behartzen zituzten eskolan baina berak kendu egiten zituen.

Transkripzioa
-[…] Fabriketik oblige itxen’zan gaitxuz gu falanjera dxuten, falanjie ezan da geure batzokidxe, han eon die, eurek esan die dxauiek falanjekuk. Ta ordu bete galdu erain itxen dozkun fabriken ta hara dxuten’zan gariz e euren iñuxentekeidxek entzuten. Kanti, kanti be zelan ezan da? Auntze derrepentien ez yast akordaten. Ta han eitxen esan dozku, ta obligeta oztantzien etzera, ez dau biharrik, hara oblige itxen’zan gaitxuz dxuten, falanjera.
-Ta fabrikakoak falanjekoak zien ala?
-Ez zin esan baie ordun antza ditadorik e haurrek obligeten’zan txusie, entzuten’zu?
-Ta ze eitten zenduen? Falanjera juen ta…
-Ezebez, iñuxentekeidxek kanta, eurek diñoienak, ze esango’tzu ba? Cara sol da haurrek gauzak kanta. […] Eskolara sartzin’zan garisenien Cara sol da nik eguno bez. Ez dai nor otor da, ta txoridxek imindxe amen nazionalak, handik mojak, jesus! Zertzuk esaten’taz eurek mojari, ez dot kure esan. Ta gure txiki bidxek, gure txiki bidxek, txikidxek esaten’zan’tzaku aizteri, ta ni rebeldie ezan nai e, horretan esango’tzut, ni ezan nai rebeldie, nik ez tzat parkatuten’zan iñori be. Ta neure umik ikusi, neure lengusiñi ta aiztie ikusi bertan española amen txori handi bategaz, e atxiñe! Ni dxuen ta arranka, nik kendu, alla kuidauz. Total ezan nai rebeldie, “las cosas como son!”
-Eta hori eitziarren sigorrik edo?

-E, alla kuidau, nok dxakin dxau nok kendu’tzon ba? alla! Harek urtenkeran Karmelitasetatik, nik txoridxek kendu: “beran ama txarridxeri imitzi dakotzo horrek txoridxek” esanda.

6.31. Euskadiren alde lan asko egindakoa

- **Hizlaria(k)**: Telleria Madariaga, Aintzane
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-096/036
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 00:49:15. **Bukatu**: 00:50:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Politika » Politika eta Franco
- **Laburpena**: Aintzane oso iraultzailea izan da, ez du beldurrik izan. Asko egin du Euskadiren alde. Baserriz baserri ibili da zigortuentzat janaria eta gauzak biltzen.

Transkripzioa
-Billurre be eukiko zenduen?
-Ez dot okin atxiñen ikararik e, total ezan nai e rebulusionaidxie e, ni? Oingo, atxiñen e, Jesus! Nondik e nai ibilli ni? Nik euskadiaitxik in dxot, ta gure jentiek in dxau, e? ez neuk esateko, ez neuk esateko, kariñotxu. Euskadiaitxik asko, asko, sigortute be on dizen gustidxentzako. Ni ta izeko ibiltzen’zan garie, ametik, baserri guztidxetatik batzien, beitu barik nor dan, euskaldune dana, herriku dana, batzin gauzek hareri eruteko gabonatan de dxaidxetan.

7. Herria, azpiegitura

7.1. Artika: erroten auzoa

- **Hizlaria(k)**: Hormaetxea Uriagereka, Txomin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-015/002
- **Iraupena**: 0:02:04. **Hasi**: 00:01:18. **Bukatu**: 00:03:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
  Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena**: Artikan 16 errota zeuden, Bermeon hasi eta Sollubera arte.

Transkripzioa
- "Barrio Artigas", Bermioko errotan barridxue, "barrio de los molinos de Bermeo".
- Semea: Zemat errota egoten zien hor?
- Hor ezetu dotez /ezetutez/ nik hamasei errota.
- Emaztea: Fandanguene etxiek izena.
- Hamasei errota. Hamasei errota egon die Bermion hasi tte ba Sollubera arte, ta Mañu, Sollube. Hamasei errota.

- Emaztea: Orain bapez.
- Badauz baie gitxi, zarratzen duz-ta. Errotak akabaten duez. Ta artu-urune be eskas dau ya, taluk itzeko. Artu be gitxi ereitzen da ta gero ta gitxiau ta hor gabiz. Taluk eitten duz hondiño hamen, taluk eitten duz asko. Bastante eitten du hondiño. Baia hori ya badoie galtzen, galtzen doie.
- Ta errota danak bardiñek zien?
- Bueno, batzuk die hiru errota, lau errota, bost errota, holan. Desberdiñek, bost errota, sei harek gehidxenak. Seidxen seikuk gehidxenakuk, ostantzien hiru ta lau normal. Hiru errota ta lau errota etxe bakotzien. Holan izeten izen da beti.
- Ta danak zien gari-errotie eta arto-errotie?
- Gari-errotie lehenau nire denporan ez horren beste baie zeuzer bai. Gerraostien, ogidxe falta zanien ba gerraostien, hainbeste gehidxau errotak biher eitten izen dabe, ogidxen faltara. Gerraostien, baia ostantzien lehenau asko, lehenau artu eta inddabie, ta errotak ta artu eta inddabak ta ganadu be bai hor barridxun errotakaz nahastien.

7.2. Elektrizitatea uraren indarraz

- **Hizlaria(k)**: Hormaetxea Uriagereka, Txomin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-015/016
- **Iraupena**: 0:02:28. **Hasi**: 00:36:22. **Bukatu**: 00:38:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena**: Errotetako uraren indarra elektrizitatea sortzeko ere erabiltzen zen dinamo bidez.

Transkripzioa
- Eta hori ure ez zenduen ibiltzen elektrizidadie eukitzeko-edo?
- Bai, be bai, aprobetxeten izen da horretan be bai, bai. Geur eukin ddun errotie izeten izen dana geure errotan gure etxie ba izetielez esate baterako, ha ta beste hogeta hamar metrure edo berrogei metrure edo berrogeta hamar metrun-edo. Gero han dinamo bat, dinamue. Ta errotien uretik hartunde ha dinamue han etxien, argidxe eitteko, argidxe eukin ddun.
- Semea: barridxun lelengokoa.
- Bai, gure barridxun bai. "Ciento veinti cindo ciento treinta voltios" baie argi izaten die, bastante motelak.
- Semea: Lelengo argidxe ha izen zan.
- Lelengo ard¡gidxe ha izen zan uregaz, errotako uregaz. Errotako ure aprobetxaten dala instalasiñuek urenak-eta. Gero han dinamu ipiñitte, dinamu ba elektrizidadie. Ure-errotak ba uregaz artue idxo ta ure gero dxuten izen da beste erreka batera. baina gero han eukin doguz iñoz holan be egon die errotak be, mixtos, mixto.
- Ta zemat erreka pasetan zien handik?
- Errekak? errekie bat Sollube, bat dator erreka handidxe ur asko datorrena. Han dauz gero presak eta presan hartzen dozu ta due presatik errotara arte badue ubidetik. Ta gero handik gero handik beste errota batera. Hamen badau errota bat, beste errotie dau igual ba ehun metruen, beste errota bat, gero beste ehun metruen beste errota bat, etxitan. Haretara

danetara dau beti uren ubidiek, ubidek, ubidek, ure dxuteko lekue. Gero errekatik aparte ba solutara pasau izen du ure erregateko letxugek eta berdurie eta hartzeko ure. Euririk ez deuelez eitten beti gusture, danan gustue, ba handik errotako uretik erregaziñuek eta horrek danak, mobimientu guztidxek urenak. Politto egoten izen da.

7.3. Lehengo eta oraingo Bermeo

- **Hizlaria(k)**: Aginaga Santa Marina, Pauli; Erezuma Elorriaga, Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-073/004
- **Iraupena**: 0:03:04. **Hasi**: 00:06:22. **Bukatu**: 00:09:26
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elizondo, Iratze
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
  Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- **Laburpena**: Beraien umezaroko Bermeo txiki-txikia zen. Mundaka bidean olatu biziarekin olatuak errepidera heltzen ziren. Lamera txikia eta moila ere aldatuta daude. Lamera berdin dago, baina berriztatuta. Talak, ostera, berdin jarraitzen du. Industria kendu eta etxe asko eraiki dituzte.

Transkripzioa
- Eta zuen umetako Bermio zelakue zan?
- Mari: Txikitxue.
- Aldie dakozuie zuek, hamaika urteko aldie baia.
- Mari: Txikitxue, Bermio izen da txikitxue. Artez esateko portue izen da beteta on dana ze ostantzien txikitxue. Orain horren doblie da Bermio.
- Pauli: Bai.
- Mari: Doble baiño gehidxau.
- Pauli: Doble baiño gehidxau Mari.
- Mari: Gehidxau.
- Pauli: Orain da Bermeo kapital.
- Mari: Bai.
- Pauli: Hau mandie kapitala ta bestie Bermio.
- Mari: Bestie Bermio.
- Pauli: Bermio, Bermio zaharra ta bestie Bermio barridxe, Bermio bi.
- Mari: Ta gero Tala zer.
- Pauli: Ba Talan betikulez Talie.
- Mari: Baie hor bada barridxe ta ha bestie Talakue beste izen bat okin bidau.
- Pauli: Bai ba, hori be bai.
- Mari: Praidxeruek harek.
- Pauli: Plaidxeruek. Zetako plaidxeruek?
- Mari: Plaidxie urre dakolako.
- Pauli: Karkarkar. Tonpoie, hatxak, Tonpoie. Ta bueno bai, Aritxatxu be bai hurretxu Mari.
- Pauli: Bai.
- Mari: Bai plaidxi be bai.
- Pauli: Bai.
- Eta Lameran, Lamera ta porto mandie-ta be kanbixeta dau?
- Mari: Bueno lamerie dau kanbidxeta Mundeka bidie, Mundeka bidien

lehen etorten izen da itsosue datorrenien bizi olatuek kamiñoraiño. Ta gero lamera txikitxue on zan han.
- Pauli: Bai.
- Mari: Ba kendu dau, kendu dotsoien lamera txikidxe, in dxauie barrurantz sartu trenan bidiek eta horrek atara itsosuri ta han ein dxauie erreformie.
- Pauli: Ta gero portuen be bai Mari, portun be bai.
- Mari: Gero portuen ez dai ba.
- Pauli: Moille barridxe ta.
- Mari: Hor ez daitz.
- Pauli: Bai.
- Mari: Nik horixe, Mundeka bidina daitz.
- Pauli: Bai.
- Baiña bestela Lamerie ta Goiko plazie ta antzeran?
- Pauli: Goiko Plazie bardin dau, atziñekulez bardin bardin. Baie Lamerie dau errenobata, dau barriztute dau Lamerie, ez da lehengue. Kioskue be on dana, bandie dxoten okitzen ezan dune ha bere solta dauie, kendu dauie ta imin dxauie barridxe ha bere. Oseake barriztute dau Lamerie dana orain Talie dau betikulez, ez da Mari? Handik, bidien bai etxe barridxek baie ostantzien bardin.
- Mari: Bermiori ein dotsoie industridxe kendu ta etxiek imiñi.
- Pauli: Bai.
- Mari: Baie etxikaz ez dau zer dxanik, etxie ezin dozu dxan ta.
- Gasteu.
- Mari: Ostantzien lehen on diez hasten ezan zara Bilbo bidien fabrikez beteta manda bidxek ta orain etxiek eta etxik ta etxik ta kittu.
- Pauli: Bai.

7.4. Argia eta komuna etxean

- **Hizlaria(k)**: Alegria Uriarte, Julian
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-078/003
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:05:28. **Bukatu**: 00:07:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elizondo, Iratze
- **Gaia(k)**:
  Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- **Laburpena**: Argi bakarra izaten zuten Nardiz kaleko etxean: batean piztu eta bestean amatatu. Komuna ezkaratzean (sukaldean) izaten zuten. Beste etxe askotan komunitateko komuna egoten zen, denentzat bat.

Transkripzioa
- Zerak, etxiek, hiru kuarto: bat bi hiru, hiru kuarto okin dotsuzen, hiru kuarto, salie. Ordun argidxe, argidxe argidxe aprobetxa itzen zan bonbille bategaz, ezkatzeko bonbille bategaz salarako sala argidxe aitten ta aman salie, gelie ezan zana. Ta holako zer bat atata argidxe aprobetxa, argidxeri emoten dotsagun: atara ezkatzekue amata ta salakue biztu aprobetxa eitten zan da-ta. Ta kumune, kumune ezkatzien, kumune ezkatzien. Zerozer ezan da hori be, ze kumunek han sasoien eskillaran on dizen kumunek be badauz komunidadientzat. Hiru-lau habitaziñoko etxiek bertan Nardiz kalien eon diez, ezetu dodaz, kumun bet etxe guztidxetarako ta ezkillaran, ezkillaran. Ta hori be zeozer ezan da-ta.

- Ta zelako kumunek?
- Guk e, guk e, ezkatzien Nardiz kalien bizi giñenien. Gero...
- Itxoin.Ta zelakoak ziren kumunek?
- Atie, bueno.
- Kumunek?
- Kumune, kumune taza bat.
- Baie olezkue-edo?
- Olezkue, tapie olezkue, tapie olezkue, orain plastikorik ezan eon da, olezkue. Ta lababorik ta holakorik pentsa bez. Harridxe ezkatzien, harridxe ezkatzien eskuk garbittuteko, arpidxe garbittuteko ta ure egoten zanien hori. Horreittik esan dot nik uren faltie askok ez dakidxila zer dan, baie oniño uregaz txarto eitten bihar dogu /bardu/, guk orain ez du ezautuko, baie gure umien umiek-edo ezetuko dauie uregaz eskasedadie.

8. Baserria

8.1. Errotaren funtzionamendua I

- **Hizlaria(k)**: Hormaetxea Uriagereka, Txomin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-015/010
- **Iraupena**: 0:05:12. **Hasi**: 00:20:26. **Bukatu**: 00:25:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena**: Errotaren funtzionamendua azaltzen du atalka, zelan ehotzen "idxoten" zen: ubideak, presa, antepara "andapara", errotarriak, "txifloia", ezpata, txoria, "sardie"...

Transkripzioa
- Hori eitten da errotak en jeneralien ba ure datorren errekan onduetan dauz errotak en jeneral. Ure, Sollubetik eta mendidxetatik dator, ure datorrena, ta gero beti egon die ubidek eindde errota-etxietara, errotie dauzen etxietara. Uren bidie, eitten izen die presak, ure erreka handidxen presan hartun ta ubidek egoten izen die etxitara, etxiek errotak, errota-etxiek errota-etxiek, ta han idxoten izen da. Ure ta ipintzen izen die errotak en jeneral baserridxen barruen, beti-beti, baserridxen barruen ta andaparie depositue etorten izen dana ubidetik, andapara bat eukitzen izen du etxe onduetan, depositue andaparie. Han gordeten izen da ure, han egoten izen da ure. Handik gero, desnibela sei-zazpi metro desnibela egoten izen da etxera etxera desnibela, ba zazpi-zortzi-bederatzi metro "salto de agua", ure urteteko indderragaz. Ta urek indderragaz urteten deuen indderragaz haregaz errotak ibiltzen izen die, errota bakotzak beran manduk dekoz asitzeko eta lotuteko, errota bakotzak berak dekoz manduek makiñetan ta han eitten da lotu ta asi ta handik maneja, ureri pasue eta zarratu, lotzeko eta asteko ta biherrian ipintzeko, ta gero biherrien ba hogeta lau ordu ta gehidxau be igual eitten izen deu errotak deskantsu apur bet eindde, hogeta lau edo hogeta hamar ordu, deskantsa apur bet ta gero emon deskantsaldi bat, han eitten izen da deskantsa errotiek, harridxek be berotu eitten diez biherrien-ta. Ta ure behien, errotapien, ta goittik maneja, errota-etxetik barrutik, hemetik izetie lez. Errotak hamen eta ubidie egoten izen da han, han han elizie dauen kontun, han depositue. Ta hametik manejaten izen duz errotak: asi, lotu... dana etxetik. Ta uren grifuek eta

zerak egoten izen die txiploiek eta danak, danak izeten izen die desbardiñek batzuk tubo inddertsuaue beste batzuk estuaue, beste batzuk zabalaue. Hor idxoten izen da, errubedie behien ta goidxen harridxek, etxe barruen harridxek, errotak goidxen.
- Semea: Harek bekuek ze izen eukitten deue? harek zelan deittuten dozu pieza desberdiñeri?
- Piezak ba errobedie urena, bekue, ta gero gero ezpatie gora dxuten izen danana, errotara.
- Semea: Eji modure, ezpatie.
- Eje bat. Errubedatik errotara ta errota bat hamen, hamen holan [...] bat, bi, hiru, hiru errota hauxe medide antzien, bat, bi, hiru edo lau. Ta uregaz han behien, bakotza beran errubedie errota bakotzak, beran indderragaz. Igiri ta hasitzen izen da benga biherrien. Gero akabaten danien lotu ta holan. Baia urun ona e, urun ona Bizkaixen ona.
- Orduen horreri, zelan esan dozu?
- Ezpatie.
- Ezpatie. Gernikaldien-eta "txoridxe" da.
- Txoridxe da, txoridxe da behekue. Aber lelengo base bat dau, errotiek deko base bat egurrezkue, egurre, ta dekoz gero tubuek urenak bertara errubedara, hametik depositotik dator ure inddar handidxegaz e, errekan behien, ta hamen deko, behien sardie, sardie izena. Behien, egurrezku ha be, sardie, ta hamen ganien, hemen ganien dxuten izen da errotie hemen behien, hemen errotie, uren errubedie, beran zerak burdiñezkuek. Ta gero hamen goidxen, due harri bat hemen ta gero beste bat behien, bi, harri bi: bat geldi ta bestie martxan ejiaz. Uretatik hona goiko harrire ejie, hau ibiltzen da bueltaka, hau da errotie goidxen idxoten. Orduen idxotik eta gero barruen dana, artuk-eta etxe barrun dana manejaten izen da, kajak-eta urunenak-eta.

8.2. Errotaren funtzionamendua II

- **Hizlaria(k)**: Hormaetxea Uriagereka, Txomin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-015/011
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:25:38. **Bukatu**: 00:28:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena**: Errotaren funtzionamendua I pasartearen jarraipena da. Irina kaxetan gordetzen zen, haize barik. Errotaren funtzionamendua azaltzen du: sardea, txoria, opila. Txifloia zer den kontatzen du.

Transkripzioa
- Hor artuk klasifikeu onak eta danak, beti holan eitten izan deu errotiek biher. Uregaz ta gero handik, eruten izen die kaixatara, etxe barrure urun ona han sakatu ta haizerik hartun barik, zertu galdu barik beran nortasune dekona urunek.
- Semie: Hori mekanismu esan dozune izeten zan bera gero txoridxe edo hori edo ezpatie...
- Lelengo sardie, hamen hamen, behien uretan sardie. Hau da nibelien imintzeko errotie, nibela imintzeko. Eidxoteko urune hemen, sardiek. Gero hamen txoridxe, sardien ganien txoridxe, ta txoridxe gordeten izen da

lotzen izen dan lekuen, txoridxe lotzen izen da punto baten, txoridxe hamen ta hamen sardie ta hamen ez, bertan beran lekue opille. Opille, txoridxe egoten izen dan lekuen, opille, geldi egoteko ha burdiñezko txoridxe. Han eitten izen deu puntu bat, ta hemen eitten izen deu jire errotarridxek, hemen, hemen goidxen. Bat geldi, ejetik: bat geldi harri bet geldi ta bestie ganien eta idxoten.
- Ta lehen esan dozu txifloie.
- Bai.
- Zer da hori?
- Txifloie da handik deposututik datorren beste uren tubo bat errotien hona zerera, errubedara, errotien errubedara, eta hamen egoten izen dan juntie ure ta ure honen errubediaz hori izeten izen da txifloie, hori izeten izen da txifloie. Hori izeten izen da mekanismue. Han eitten du, han handik urteten izen deu ta han eitten izen du batzutan indder gehitxuau emon be bai ta ure be han mekanidxaute izen da handik manejaten izen da indderra errotiena eta dana. Hau txifloie hamen, gero errotien onduen, ta errubedie, ezpatie, ardatza gora ta goidxen errotak. Hori izen da, ta mobimientue errotiena.

8.3. Errotaren funtzionamendua III

- **Hizlaria(k)**: Hormaetxea Uriagereka, Txomin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-015/012
- **Iraupena**: 0:02:38. **Hasi**: 00:28:18. **Bukatu**: 00:30:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena**: Errota baten argazkia aurrean duela, errotaren funtzionamenduaren inguruko azalpen gehiago ematen ditu.

Transkripzioa
- Hemen dekot nik erretratu bet, baiña igual ez deko zerikusirik zuen errotiegaz, horren antzekoa euki zenduen zuek?
- Bai, bai, bai, bai, bai, bai, bai. Aber, hau de, aber zuk ia begidxen hobeto dekozuz ta, hau be errotaridxe izen da-ta, ia benga, esplike hori errotien asuntoa. Errotie, hemen dau errotie, hau da ardatza, hau de granu lotzen dan dobarie, dobarie esaten dotsagu honeri, dobarie, errotie dobarie hemen egoten da. Ta hamen deko hamen, hau bolantie hamen dauena da, errotie nibelatekue harridxe gorau, beherau, estuau, istu ta urun ona eitteko estutu ein biher izeten /bizeten/ da, ta hauneaz hauneaz errobe, honeaz eitten da ta gero errotie hamen beste, artun pasue errotara be hemen dau beste manejo zer bat, makiñe bat, ein biher dana /bidena/ ha be regule, zemat arto duen, arlo larrei badue ez deu ondo idxoten, medide baten dxun biher deu /bideu/ artue beti medide baten. Ta eitten deu ba idxo, medidu onien imintzen bazun, ba urun ona eitteko medide ona imin biher dozu /bizu/, asko botaten bazu, larrei, ba pasa eitten da, ez deu ondo idxoten. Honek dekoz, hamen dekoz manduek, errotie asteko, reguleteko, istututeko-ta dauz. Txirritxie, honeri esaten dxakonari txirritxie, ta hau ba beti izeten da mandue esaten danakona bolante bate lez ta handik eitten da dana, errotie handik eitten dotsu /eittentsu/ zeure beran nibelatan imiñi. Medidetan, beran medidetan. Ta hauxe da besterik. Gero, urune hemetik,

hemetik goittik, hemen errotak betetan die artuaz da gero urteten deu behien: goidxen bete ta gero urune du behera. Ta han eitten die: hametik batu, zakutan sartu ta etxitara eroan. Hauxe da errotie, ure dau hemen, behien dau ure, errekak be bai behien, depositue hamen ganien atzien, asaure, errotatik kanpuen. Hauxe, hauxe da errotie.

8.4. Ubideak garbitzen

- **Hizlaria(k)**: Hormaetxea Uriagereka, Txomin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-015/013
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:30:56. **Bukatu**: 00:32:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena**: Ubideak urtean behin garbitu behar izaten zituzten zikinkeria asko egoten zen-eta: egur zatiak, orbela, baza...

Transkripzioa
- Semea: Arazue eukitten dxuzena da gero akabuen galdu dienien ya garbittuteko be bai, ezta? ze urtien zemat bider garbittuten zuien ur bidiek?
- Ubidek, ba uren pasue, urtien baten.
- Semea: bazie formaten zan.
- Bazie ta grijue ta ure batek dakarzen egur zatidxek-eta beti dator orbela be bai, orridxe ta ure. Horrek garbittuten ba urtaro egon biher da /bide/ beti zain, beti zain, dxaboten-eta.
- Semie: Beti ibiltzen zien atxurrekaz-ta, ze orduen ez zan egoten eskabadorarik, orduen biher egoten zan...
- Dana eskuz, dana eskuz. Dana eskuz eitten izen da, garbittu ta brozak atara ta. Hiru lau gizon ubide danak garbittu izen die. Ubidera etxetik errotie dauletik eta presara be igual egoten izen die kilometro erdi be igual. Bidie urena, etorteko errekatatik errotara. Gero hemen ure hemen idxoten izen deu ta gero martxetan izen deu urek, hau errotie ibilli ta badue gero beste, beste bide batetik badoie ostarabe erreka nagosire ostarabe, ta haulan. Errotiena asuntu politte da, politte da errotien makiñeridxe bertan, gero beti egon biher de /bide/ zaindduten ta beti egon biher de /bide/ han bata bat dxaboten.

8.5. Errotarriak pikatzen

- **Hizlaria(k)**: Hormaetxea Uriagereka, Txomin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-015/014
- **Iraupena**: 0:02:34. **Hasi**: 00:32:25. **Bukatu**: 00:34:59
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Garia

Baserria » Baserriko lanak » Artoa
Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena**: Harriak hamabostean behin-edo pikatzen ziren. Peskantearekin altxatzen zen harria. Garia arinago ehotzen da; artoa gogorragoa denez lan asko ematen du.

Transkripzioa
- Semea: Harridxek pike noiz?
- Harridxek pike segun ze biher eitten dan, ba igual hamabostarik behin edo hogei egun edo zeuzer gehixau-gitxiau hor beti, pike.
- Semea: Altxa ein biher dana.
- Bai. Altxa harridxe, peskantiegaz altxa gora, bai peskantiaz gora.
- Semea: Peskantie zer da? harek burdiñek bidxek egoten zienak?
- Bai, bai. Danak die zerezkuek, burdiñezkuek, errotie altxateko. Ta errotie imintzen da, harridxe imintzen da goidxen, barruen, etxe barruen ya, gero eitten die pike hau de harridxe, hau eitten da pike ta geldi dauena be bai, bidxek, harri bidxek pike ein dizien hartun apur bet piketa imiñi "pa que tenga" agarralekue artuek eta harridxek, hor eitten die buztertu harridxe eta urune eitteko hor eitten die, alkartuten die artue ta eitten deu urune horretatik. Ta garidxena be estilo bardin antzien, baie garidxe da ariñau idxotuten dana artue baiño, ariñau idxotuten da bigunau dalez artue siketute-eta egoten da, ta hareri biher gehidxau emoten dotso harridxeri, garidxe ariñau igxoten da, ariñau. Baie garidxek, garidxek gero, lehengo, nik ez dot ezetu hori, baia, haiziaz garbittuten izen deue, eidxo orduko, hona askara bota orduko, hona botaten da granue, hemetik pasaten da hona, hamen dau harridxe ta hamen eidxoten da, hau de botateko depositue errotie beteta: hemetik garidxe ta artue bidxek hona botaten die, baia aparte, aparte eidxoteko batera barik. Gero, batera dungulue eitteko, batera urune, morokille eitteko hor dau erdiz erdiz garidxe eta artue. Ta taloa eitteko ez deu urunek garidxe apurtxu bet baiño eruten artuek, artuek garidxen urunen apur bet, apurtxu bet gustu emoteko.

8.6. Errotarriak Jatatik eta Frantziatik

- **Hizlaria(k)**: Hormaetxea Uriagereka, Txomin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-015/015
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:34:59. **Bukatu**: 00:36:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko lanak » Garia
- **Laburpena**: Errotarriak Jata mendiko harriekin egiten ziren. Harria gogorra izan behar izaten zen. Beste harri batzuk, zuriak, Frantziatik ekartzen ziren.

Transkripzioa
- Eta errotaridxek-eta nungo kanteratatik ekartzen zenduezan?
- Kantarie errotarridxe, Bakidxo ezetuten dozu, Bakidxo? Han dau Jata mendixe, handik harridxek hartun garidxek "monte Jata" Bakidxon. Handik handik ekarten izen die gehidxenak harridxek gehidxenak, harririk onenak, klaserik onena, kalidadie, izen biher deuelako /bideuelako/ harridxe gogorra.

- Baia zer kareharridxe edo ze harri zan?
- Ez. Harri normalak, kareharridxek bigunek die, gogorra izen biher deu /bideu/ artuntzako, kareharridxek "no resulta", dxan eitten deu laborie biher einkeran, gasta eitten da, ez deu gasta biher harridxek, harridxek gogor egon biher deu /bideu/ gogor lana eitteko. Eta haittik die harridxek gogorra, Jatako Jatako harridxe, ta gero garidxe, urune, garidxe idxoteko zuridxek egoten izen die, Frantzitik etorten izen die horrek, Frantzitik, Frantzitik. Baia gero horrek gitxittu ein zien, garidxe gero barruen, herridxen Espaiñien barruren hasi zien makiñek-eta, bai, beste errota batzuk, hemen guk errota artesanalak euki genduzen hemen, uregaz.

8.7. Arazoak uholdetan errotan

- **Hizlaria(k)**: Hormaetxea Uriagereka, Txomin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-015/017
- **Iraupena**: 0:01:27. **Hasi**: 00:38:50. **Bukatu**: 00:40:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena**: Uholdeetan arazo asko sortzen dira errotan.

Transkripzioa
- Ta uridxolakaz?
- Uridxolakaz problemak handixek, uridxolakaz ze ure euridxek batzutan gogor botaten deunien trugonadak eta honek, ño! ba urek altxa ta destrosuk ein uretan ubidetan, apurtu, presak eruen erreka nagosidxen, presak be apurtu urek udxolatan, udxolatan. Bai, beti beti dau udxolatan galtzeidxek ubidetan eta gero baitte presan be bai, presan be igual ur handidxek apurtu presie apurtu ha be, barriro hormak-eta eitten, ta benga! Holan beti, baie ur handidxekaz beti arazon bat, arazon bat beti, beti beti gastue beti. Urek inddar asko, urek euridxe eitten dunin, buf! [...] garbittu ta. Urek inddar handidxe deko ta beti arazuek asko, asko arazuek. Baie harek pasaten dizenin ahaztu ostabe, hurrungo uretara arte pazientzidxe, pazientzidxe. Holan izeten izen da beti martxie.

8.8. Gerraostean errotak prezintatuta

- **Hizlaria(k)**: Hormaetxea Uriagereka, Txomin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-015/023
- **Iraupena**: 0:03:37. **Hasi**: 00:46:07. **Bukatu**: 00:49:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Garia
  Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
  Baserria » Baserriko lanak » Errota
- **Laburpena**: Gerraosteko ogia txarra zen, irinaren kalitatea ere txarra zen eta. Errota asko zarratuta eta prezintatuta egon ziren. Errotari

askok estraperloan aritzeko aprobetxatu zuten. Gauez baino ez zuten ehotzen, ez ikusteko. Guardiek prezintua kenduta harrapatuz gero, eskupekoa emanda konformatzen ziren; hala ere, isunak ordaindutakoak dira. "Servicio nacional del trigo" egon zen errotak kontrolatzen.

Transkripzioa

- Ta gerraostie? errotantzako gogorra izen zan gerraostie.
- Gerraostie ba errotak askok ogidxe falle zeuenien ogidxe txarra ein zeuien gero gerratan, gerra denporan kalidadie urunek be ez euien eitten izen ondo errotak be zarratu eta kastigeta eukitten errotak be izetie lez.
- Semea: prezinteu ez?
- Prezinte eitten izen [...] izetie lez ño! "zuek erdi ondo kobrate dozu ta ez dakitz zer ta holako gora beherak ez da izeten geuza handirik ez da izeten izen baia errotari emon zotsoien /emontsoien/ ño! inportantzi bet geuzie erdi aberastute dauzela errotaridxek aberastute dauzela ez dakitz zer "estan vendiendo la harina, no sé que, no sé que...". Dana izen zan...
- Ze estraperloa?
- Bueno! estraperluk be egoten izen die, estroperlu be hor batzuk aprobetxa zeurien errotari batzuk aprobetxa zeurien, hori bai, ein zeurien bai.
- Semea: Zuek ze eitten zuen prezintuegaz gosie egoten zanien? prezintue zer eitten zuien solta ta ze...
- Prezintue guardidxeri-ta zakutxu bet urun emonda guardidxeri ta harek ipintzen izen duie prezintue lakrie barik ondo erdi aidien itzitte gero ha lakrie kendu ta errotie martxan imiñi zarratute useu dana ta holako tranpak, tranpak.
- Semea: Baia imiñi martxan noiz, gaubien edo noiz?
- Geubez, geubez, geubez. Ta ure dauenien, urik ez dauenien ezin ta ure dauenien.
- Semea: ta guardidxek etortzen zienien zer? eureri be apurtxu bet emon?
- Guardidxeri lelengotan emonten izen dotsagu ha errotak prezintekeran apur bet izteko errotaridxentzako be arnasa apur bet, arnasie hartzeko, arnasie hartzeko. Danari eitten izen da tranpeue.
- Orduen eurek be, eurek zarratu , eurek prezinteu errotak baia gero eureri...
- Bai. Eureri be, gosie egoten izen da. Umiek dekozienak eta: "pa los chicos y un poco de harina y tal". Negarrez egoten izen die harek be.
- Orduen multarik-eta ez zenduen pageu biher izen?
- Bai, bai, bai, bai. Egote izen dalako "Servicio nacional del trigo" kontrolak egoten izen dire errotak eta artuk eta danak balidxu emon dotsoien "más de la cuenta" errotaridxek estraperluen saltzen dauzela urune ta ez dai zer ta badai nor ta. Gero kontrola imin zeurien Bilbon, "Servicio nacional del trigo", harek harek errotak be kontrola eitten izen dittuz /izenttuz/: ze zemat idxoten dun, kontrol bat eukin dxun, kontrolata. Ta han kontu guztidxek erun biher librutan: ze arto sartzen dan, zemat kilo, zemat tonelada, zemat kantidade idxo dan ta horrek danak deklare ein biher izeten duz, ta handik eitten izen deue gero " a este le toca hacer entrega de pues igual de dos, tres, cuatro, y hasta veinte sacos de maíz". Eurek eitten izen dueu euren kalkuluek ta dana izen zan erdi lapurretie ta ba! nahaste bat.

8.9. Ipar-haizea gaztarentzako kaltegarri

- **Hizlaria(k)**: Sasiain Aiestaran, Bitorio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-018/023
- **Iraupena**: 0:01:23. **Hasi**: 00:37:51. **Bukatu**: 00:39:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
  Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena**: Gazta usteldu egin daiteke ipar-haizearekin edo erreka-haizearekin; hori dela-eta, leihoak ondo zarratu behar dira. Gazta harrotu egiten da. Haizagailuak jartzen ditu etxe barruan gaztentzako. Gatzagiaren (kuajo) neurria ondo kontrolatu behar izaten da. Bere amak behiaren esnearekin ere egiten zuen gazta.

Transkripzioa
- Gaztaie bai eitten da, usteldu be eitten da gaztaie e. Eitten die, eulidxek be bai, eulidxek be jodiuten deu ta bestetara horko iperrak eta erreko-haizie txarrenak. Bentanak-eta orduen ondo ixi behar die, harrotu eitten deu gaztaie. Huekoa ataten dxako barruen bai.
- Orduen kontuz ibil biher da.
- Bai, bai, bai. Sasoien kontuz ibil behar da erreko-haizie edo iperra dauenien bentanak-eta ondo ixi.
- Ba hamen iper-haize askotan eukiko dozue.
- Enei! asko, gero bentiladorak haiziaz, bentiladoraz eukitten dotez barruen: bat aberidxetako dekot, beste bat hamen behekoa dekot aberidxeta ta goikoa bategaz dekot goidxen asko eukitten doten lekuen.
- Eta gero lebadurak edo holako...
- Ez likidoa ekarten du, kuajo, kuajo. Kuajoa, medidetxue hartun behar dozu , holan txirristadatxue, igual hiru-lau gaztai killoko eittekoari txirristadatxu bet bakarra etxa biher dxako. Larrei ez da ona haidxe be. Hantxe hartu behar dotsezu beran medidie-ta hartu behar dotsezu. Ama defuntiek-eta ikusitte nik be eitten neuen-ta.
- Orduen amagandik ikesi zendun.
- Bai, amak eitten zittuzen /eittenttuzen/ gaztaiek behidxenagaz be igual-ta, ta amari ikusitte, holantxe.

8.10. Patata gogor-gogorra saldu zuenekoa

- **Hizlaria(k)**: Aginaga Santa Marina, Pauli; Erezuma Elorriaga, Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-073/020
- **Iraupena**: 0:03:44. **Hasi**: 00:42:33. **Bukatu**: 00:46:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elizondo, Iratze
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
  Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

- **Laburpena**: Marik behin patatarekin gertatu zitzaion anekdota bat kontatzen du. Itxura oneko patata zen, baina oso oso eskasa. Ohiko patata kiloa 3 pezetatan zegoen eta berak 11 errealetan jarri zuen saltzen. Andra batek dena erosi zion eta hurrengo egunean kexaka joan zitzaion. Hala ere, hurrengo egunean berriro saldu zuen. Bera ere engainatu egin zutela dio.

Transkripzioa
- Pauli: Esaizu hauri, patatigaz zer pasa jatzun. Esango dau Itsaso? Patatigaz zer pasa datson historidxe pasa iatson patatigaz. Ia, konta”
- Mari: Patatie erosi nauen Bermiora etor naienien. In nauen terrenotxu bet errentan ta patatie eraitxen. Ta hartun nauen ta patatie ederra gero, haulako patatie. Zelako patatie liso-liso-lisue, baie ezetara be ezin dxan.
- Pauli: Gogor.
- Mari: Gogorra. Ure berak patatiek ure! Saltsie loditxu bapez, patatiek beti eitxen dau saltsatxue loditxu, ke ba! ure! Ta “nik hau patatie berau dxan bihar ta nik honegaz ezin dxot ezer ba”. Dxun naien patatie saltzien gero neuk patata ona erosteko, ha saldu ta dxun biher dot hemen baiño merkiau emon biher dot. Hiru pezetan on zan patatie kilue ta nik esan doten hamaika errealien emongo dot, ta nik ein nauen hamaika errealien. Ta andra etor dxastenien zera, esan dotsatenien hamaike erriel ba benga dana piseten. Ta jentie hamaika errealien esan dauenien, dana beteta. Ta haur ta, itzizu bidxar dator ostabe, bidxar ekarko dxatsuie ostabe ta zuk itzi zu hauneri atzekuri be.
- Pauli: Kilotxu bet edo zeuk erun barik dana, baie merke ezan dalez.
- Mari: Itzizu ba. Ezetz.
- Pauli: Berak erun bi dauela dana.
- Mari: “Ni lelau ta si eske nik gure doten beste”. Harek ime danantzako erun dotsuz patatak. Hurrengo egunien etor zan, esan dotsat: "Engrazi, patatie dekot". “Patata. Ama txarridxen etxera, nik ez dot gure hori patatie-ta”.
- Ama txarridxen etxera?
- Mari: Bai.
- Pauli: Ama txarridxen etxera. Klaro, patatak gogorra ta harek erun dau neu nahi lehelau ta bera dana ta urten dotso patata zantarra. Ta beste egunien dxun datsonien ofreziten "Engrazi, etorri hamen dakot-ta". "Zeu ta zeu patatak, tire ama txarridxen etxera, ez dot bihar zure patatarik eta". Klaro, gogorrak.
- Mari: Baie halan holan saldu nauen nik.
- Pauli: Bai.
- Mari: Saldu nauen ha patatie. Merkiau emoten izen dot, emon ta eskapa neu plazatik.
- Pauli: Likide zauen patata gogorra.Orduen libre, hori ez da.
- “Supervivencia”.
- Pauli: “Exactamente”. Bai.
- Mari: Neuk erosi dot, niri saldu dostenak be ba emon dost.
- Pauli: Bai.
- Mari: Kintzel bi patata.
- Pauli: Asi ke gero, zeuk beste batzuri emotie ez da ezan pekatue, ezta Mari?
- Mari: Ta gainera ...
- Pauli: Zeu engaiñe ta merkiau hondiño.
- Mari: Niri, ta nik merkiau emon, saldu merkiau. Eske ezin dxe, ezin dxan baie ta haunek kanpotarrak orduntxek etorritxe hasitxe on zin Bermiora eta asko, "Oye, una patata, ni el presto se puede comer". Neuk halan: “hamen

nire patatien anztekue”. “Ni el presto se puede hacer”.
- Pauli: Harridxe ezan dok ha, harridxe.
- Mari: Harridxe ezan dok ha!
- Pauli: Ai Jesuse!

8.11. Ama eta biak basora egurretara

- **Hizlaria(k)**: Telleria Madariaga, Aintzane
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-096/026
- **Iraupena**: 0:01:21. **Hasi**: 00:33:11. **Bukatu**: 00:34:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
  Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- **Laburpena**: Basora joaten ziren ama eta biak egurretara. Ez zuten dirurik ikatza erosteko. Buruan ekartzen zuten karga. Libre zen basotik egurra ekartzea.

Transkripzioa
-Sue eitxeko basora, egurretan, lagune, ametik bera. Hau bidie in barik eon zan, hortik bera bajaten’zan gariz, egurke, burun artunde. Atsaldien kalin planta, harek txikitxute kamarara idxen, ta igual e topaten’zan du leku, “Aintzanetxu dxun in bi’du ba”. Neu esan nai basokue gehidxen, zaharrena neu ezan naielez, amagaz, “dxun in bi’du lastana ba e afaidxe imitxeko ez daku zerik eta otabarra edo piñue edo zozer ekarri in bi’du te”. Ta dxuten’zan gariz, ta ikusten’zan gaitxuzenin lagunek, “e, zelako egur ederrak, topa in bi’tzaku lekue horrek non topa dauien”, ta gure amak: “Aintza, Aintzanetxu?” ta “Zer?” “Dxun en bi’ku ze harek topa ingozkue lekue ta bat be barik itxiko gaitxu.” “Ama, ostabe? Ostabe? Ni kantzata nau te, ostabe?” etorri in bihar egurretan. Ezta egon iketzik ez dirorik erosteko ta, laguntxu, haurrek danak ein’taz.
-Eta zuen basoak zien horrek edo?
-Bai! Bakotxak beranak dauz hor basuek, bai.
-Ez, ez dakit, igual baten bati paga...
-Ez, ez, ez libre eon da, zeuk kusune, jentie dxuten’zan da, errotatatik be dxuten’zan die karrugaz e piñuk etxaten eon zinin hor, ta jentiek hortik be ekarten’zan’tzuz egurrek. Baie gu en jeneral ametik gora, ametik edo kabotik, baie en jeneral ametik gora.

8.12. Txerrikia landu eta saldu

- **Hizlaria(k)**: Telleria Madariaga, Aintzane
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-096/032
- **Iraupena**: 0:02:24. **Hasi**: 00:40:29. **Bukatu**: 00:42:53
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- **Laburpena**: Bi txerri hiltzen zituzten urtean baserrian. Saltzeko ere erosi eta lantzen zuten txerrikia. Buzkantzak egiten zituzten, oso onak.

Txorixoak oliotan sartzen zituen lurrezko ontzietan. Solomoa ere bai. Txintxortak ere egiten zituzten. Beren Iñaki "mutil" ibili zen gaztetan, ordua ematen. Patroi bat etortzen zitzaien etxera taloa jatera.

Transkripzioa
-Eta txarridxek esan’zu zure amak eta saldu itxen’biezela buskentzak eta
-Bai, bi hiltxen’zan duz urtien etzerako. Kasuneskan, kasuneskan imitzen’zan duz gatza eomonda, ta okitze’zan do halako arka bat okitze’zan do, atxiñeko baserriko horrek e, baulek esaten yatzoienak. Han okitze’zan do urte guztikue gatza emonda, ta gantzaridxe, bakizu zer dan gantzaridxe ez ta? Gantzaridxegaz eindxe txorixuek gantzaridxen barruen, koipie eindxe, horrek e potik e seramikakuek horrek, horretan okitze’zan do. Ta solomue, solomue sikatute, txiki-txiki-txiki-txiki indxe olidxotan harek, itsosorako ta danien maletie imitxeko, horrek.
-Ta etzerako bi txarri, ta salduteko?
-Salduteko ba, urdi asko ez dun saltzien, saltziko be aparte erosten’zan dauie eurek, saltziko, bai. Baie buskentza asko, esaten’zan dauie: “Pellunekulako buskentzik eguno ez du dxango, eskandalue”. Ta harek txintxortak eta, etzera etorten´zan die guri jentie, arrantzalik: “txintxortik pakozu, txintxortak? Igual txikiteorako harek txintxortak guzta.
-Txintxortak zeri esate’tzazu?
-Ba hori gantzaridxe urtuten dana geratzin dana? Hauri de txintxortak, esati lez urdidxe be itxen bazu, bakizu zelan e ikoldute geratuten dan, ba haurrek tiz txintxortak. Ta gure Iñaki mutil e motorrien, ta bakizu atxiñe mutillek orduk emoten dxuten’zan diz etzitara, gizonari: “e, fulano! Zortzitako ordue; bengano! Zortzitako ordue”. Ta patroi bet etorten’zan da gure etzera a ello, zeitxik? Gure amak talotxuek itzen’zan dau, urune be okitze’zan du arkan, baserritxarrak esan garin arren, ogi modorik be ez dalez egon, ba talue, ta asmaten’zan dau harek e noiz eongo dan talue ta etorten’zan da, ta gure amak emote’zan’tzo: “Aiba! Euren afaidxe dxateko” ta, kolkuen barruen eruten’san dau beran e, talotxue, goxo.

8.13. Buzkantzak zelan egiten diren

- **Hizlaria(k)**: Telleria Madariaga, Aintzane
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-096/033
- **Iraupena**: 0:03:13. **Hasi**: 00:42:53. **Bukatu**: 00:46:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
  Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- **Laburpena**: Buzkantzak zelan egiten diren. Esteak errekan garbitzen ziren. Estea betetakoan "galdostu" egiten ziren buzkantzak, hau da, ur irakinetan pasatu.

Transkripzioa
-Buskentzak zelan eitxen bazen bakizu?
-Estigaz, haulako zera sartunde haulan.
-Ta ze sartze otzun?
-Ba bisperan edo egun bi lelau itxen’zan do porrue txikitxu, kinpulek txiki-txiki-txiki-txiki in ta porruek txiki-txiki-txiki. Harek, esan’tzuten moduen e zerantzako, txorisuntzako e hori gantzaridxe okitzen dauela, aparte okitxen’zan dauie beste, beste pote bat, e horregaz, koipigaz. Ta haregaz

koipigaz prijidu horrek ondo, kinpulie ta zera, porrue. Ta aparte gero egosten'zan dauie arrosa. Hotzitxuten'zan danien, eitxen'zan dauie hori nahasta, ta gero, txarridxe hiltxen zunien, haren odola artzin'zan do, ta gero haren odola nahasta. Ta erain-erain-erain dxe, imitze'zan dau gatza ta piper gastalekue ta klabue, klabue…
-Zer da hori?
-Halako zertxu bat esaten'zan da, zer bat eoten'zan da denda bat, errotigaz eidxoten'zan dauena, klabo. Ta horrek piper gastalekue bestie, nahastaten'zan'tzoie hori, ta gero zatitxuk indxe, urditxue eta haulan, bera goxotuteko bera zera.
-Ta piper gastalekue, zein da hori?
-Ez dai ba, baltza esaten'zan da piper gastalekue, hor eidxota emoten'zan dozku hor dendan: "ekau ez dai zematena piper gastalekue", klabue ta horrek nahastaten'zan´tzuz, gatza ta itzen'zan dauie. Gero estiek garbi-garbi-garbi in bizaten'zan diez, estiek, horretan errekara, garbiten harek, klaro. Harek garbi-garbi-garbi-garbi in, arraska danak, bueltie emon ta okitzen'zan'tzuz garbitxute aska baten gure amak eta. Ta gero harek halako enbudo bat, enbudo bat haulan, imiñi estiri sartunde haulan, ta eskuz, oiñ makíñen itxen dauie, eskuz itxen'zan du a. Ta gero galdoztu saltziko, galdoztu…
-Zer da hori?
-Ba ure imiñi irikitzen, ta a odola ta gauzie kendu, dxateko moduen imiñi ia, galdoztu.
-Ta galdoztu zer da bakarrik buskentzan e ganien edo?
-Amarraten'za'uien e haulan zer bategaz.
-Bai hari bategaz edo kordela edo…
-Mimen zati bategaz, amarra haulan txorta bat, sei edo zazpi ta han zertun, ta sartun ta urten, han okitze'zan dauie, galdoztu hauri de.
-A galdoztu de…
-Hauri berotu hauri…
-Gora ta bera ibiltzie sartzen.
-Han okindxe apurtxu baten, bera odola iñ arte gogortu. Ta gero haurrek atara ta saldu.
-Hortik be jornaltxue.
-E ba, baie ez ta ezan dirorik atxiñe, ze, ze diro esan ta atxiñen laguntxu ba? Zapata batzuk erosi ta kabo, klaro ez ta eon besterik eta.

9. Diaspora

9.1. 4.000 buru gobernatu behar

- **Hizlaria(k)**: Sasiain Aiestaran, Bitorio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-018/007
- **Iraupena**: 0:02:56. **Hasi**: 00:11:52. **Bukatu**: 00:14:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan
- **Laburpena**: Boisen 4.000 buru (ardiak eta bildotsak) gobernatzen zituen bi txakur lagun zituela. Hango lurrak leunak direnez, Euskal Herriko lurretan baino errazago zaintzen ziren. Ameriketako ardiak buru zuriak izaten dira, ez latxen modukoak. Boiseko ardiak bildotsetarako erabiltzen ziren. Ugazaba hamar egunetik behin joaten zitzaien janaria

eramatera. Artiletarako ere erabiltzen zituzten. Kiuna eta Nanpan konpainiak zeuden; Bitorio Kiunan egon zen. Artzain asko euskaldunak ziren, bat bera ere ez zen amerikarra.

Transkripzioa
- Ta zemateko artaldie euki zendun ba?
- Lau milleko bandie ibiltzen neuen nik, lau mille buru.
- Lau mille buru?
- Bai, bai. Billots ta ardi.
- Ta zemat txakur?
- Bi edo hiru. Bi-hiru gaztetxue neuk eroan neuena notsatiena horixe.
- Eta bi-hiru txakurk lau mille gobernetan bazen?
- Bai, bai, bai, fazil! Hameko berrehun ardi baiño hango horrek ardidxek fazillau manejetan die. Terrenoa dielez te lisuek-eta, ta gero goidxetan nobera goizien zur egon biher da /birda/. Goizien eitten gendun, goizien ni hiruretan-eta altxetan nintzen ardireko e! Harek, majadie esaten dotse, lo eitteko lekue, han artapetan bazuz zelan gure manejetan dozuz, harek zabalduten badie ez die manejetan ondo ardidxek. Ta holantxe!
- Eta harek be latxak zien?
- Ez, ez, ez. Harek [ontzatzekoak], buru zuridxek izetan die hangoak, bai. Hamekoak buru baltzak dien moduen buru zuridxek, eoten die buru horrek be, buru baltzauak eoten die, aharidxek izetan die, "toroak"esaten dotsie aharidxeri buru baltza esaten dotse, billots hobie eitten deue.
- Ta horrek klasiek ze izen deko?
- Horrek, hori ni ahaztute be banau, buru zuridxek izeten die. Idxe laniaz be begidxek tape eitten jakez batzuri bai. Badauz hamen be hataiko ardi klasie be egoten die bai. Ta holantxe. Ta ni trankille izen naz, trankille. Ondo, ondo beti.
- Ta gero han hango ardidxek be zer, esnetarako ibiltzen zenduen?
- Ez, ez bilddotsa kentzen jake hareri. Bilddotsa bai, bai. Uzabak etorten zanien, lelau preguntetan "zelan zauz zeu?" preguntetan zosten /preguntetasten/ berak uzabak etorten zanien; hamar egunerik hamar egunera dxatekuaz etorten jakuzen. Ta esaten zeban: "zelan zauz?". Ha "zelan zauz?" esaten ban eta "very good" esaten zotsagun /esatetsagun/ ta gero hasten zan preguntiek eitten. Ha ardidxeri bilddotsa, bilddotsari "lambs" esaten dotse ba, "very good lambs" esaten [fad] esaten zeurien eta "ya" esaten notsan eta konforme egoten zan. Ez zan dxoaten ardidxe ikusten eguno dxatekuaz ze igual asau egoten zien ba ta holantxik.
- Ba lanarako be ibilko zan.
- Lanie be bai, lanie be asko. Toneladak egoten zien han asko. Ze konpañi bi euki genduzen: Kiuna eta Nanpa euki genduzen. Ni Kiunan egoten nintzen behien, ta Nanpa eon zan Boiserau. Ta hantxe, asko, berrogetaz gizonak hametikoak danak egon gintzezan, amerikanu bat be ez euen egon gero han.

9.2. Tigreak eta hartzak ardiak hiltzen

- **Hizlaria(k)**: Sasiain Aiestaran, Bitorio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-018/013
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:23:03. **Bukatu**: 00:26:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea

- **Gaia(k)**:
  Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan
- **Laburpena**: Boiseko piztiak edo animaliak. Behin tigre bat hil zutenekoa kontatzen du; hainbat bildots hil zizkien tigreak. Hartz ("otsoa" dio Bitoriok, Bermeon Bizkaiko beste herri askotan bezala) bat ere hil zuten; 16 ardi hil zizkien.

Transkripzioa
- Eta han ze animali edo ze pizti egoten zien holan ardidxen koiotiek eta...
- Koiotiek eta bai, tigrek be bai. Tigrie be hil gendun bat, emie, esnie euki zeuen, irundi baten holantxe neuk esaten ta ardidxek ez euien ta txakurrek loidxe neuk esan notsan etxera joan gintzezenien illuntzidxen joan gintzezenien: "txakurrek zeuzer ez deue gure izen etorri ba" esan notsan, ta "bidxer goizien neuk lagunduko dotsut". Ta zigarroa eitten ta ni albokaldien han ta riflie neuk albokaldien ta: "ekarrik!" ta Kantinflas izena dekon txakur bet euki gendun, nabar bat, ardidxereko-ta txakur ona [...] holakoatarako, honek otsoantzako-ta txakur ona. Ta brudxetik goittik "da!" geure aldedire ta "riflie ekarrik hona" esan ta dxaurti otson buru-burutik koidxu, tigrie. Ta emie izen zan, ta esnie euki zeuen. Han, hatxa handidxek egon zien bertan ta harek hatxak guztidxek errekozidu genduzen umiek topeko genduzela-ta, baiña bapez! ta lau galau ardau emon oskuzen uzabak, lau galautxu ardau, hil dulako. Baia billotsak hil doskuzen e, billotsak eurreko bularra eta errapiek [...] zin, ta lau-edo topeu genduzen billotsak hildde.
- Tigriek ataketan bazen?
- Bai.
- Ta ze animalik gehidxau eitten zeban euren kontra? otsoak-eta?
- Otsoak be bai, otsoak be sarritten eitten deu han. Hamazazpi egunien hamasei ardi hil doskuzen, hil gendun otsozar itzela baltza. Ta ogidxe eittie ez dxakon gustetan hareri kanperueri ta bera dxoango dala goidxetan esan osten hara ardire, ta "dxoan ba, neuk eingo dot ogidxe-ta". Ni maoirdomuek ikesitte egon nintzen bertan zelan eitten dan, lelengoan hori kanperue ez neuen eukin-ta. Dios, ta ogidxe ondo eitten neuen ta "Gerard, eroateko balak!" ta tiroak asmau nittuzen, ta esan dosten zein aldarrittik dxoateko eta piñu lodi beten ondoan txakurrekaz frenteu ein zan otsozarra. Dxaurti otson handik gorauko handik eta beheko errekako uretara otsozar itzela, ta narrue kendu otsegun, koziñerientzako horreri Maria Larraurintzako konpañien euki gendun alfonbrie ein behar dogule-ta, ta kendu otsegun narrue, baia sasoie txarra izen eta ulie solte dxakon.
- Geuzetxu bat, otsoa zereri deitzen dotsazu "oso"ri edo "Lobo"ri?
- "Oso, oso", bai "oso".
- Ta zelakoak izeten zien hango otsoak?
- Baltzak, baltzak, baie piñu harek haulako piñu lodidxe gure ixeten deu idxoteko, "dxa-dxa-dxa" erpiek ta punteraiño idoxten deurie arbolieri, han punten dauzenien rifliaz "daunba!" harek ekarten dabe erramo-hotsa goittik behera zirkiñik be ez dabe behien eitten, erremente eitten deurie ze alturie
dekie piñuek handidxe-ta, ze gu en jeneral piñudidxetan ibiltzen gintzezan goidxetan.

10. Natura

10.1. Tximista, trumoi, azeri eta koiote ugari

- **Hizlaria(k)**: Sasiain Aiestaran, Bitorio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-018/014
- **Iraupena**: 0:02:11. **Hasi**: 00:26:03. **Bukatu**: 00:28:14
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Natura » Meteorologia
  Diaspora » Lana diasporan » Artzainak eta kanperoak diasporan
  Natura » Fauna » Basoko animaliak
- **Laburpena**: Boiseko mendian ia egunero izaten zituzten oinaztuak (tximistak) eta trumoiak; hala are, ardiak ez ziren beldurtzen. Koioteak eta lukiak (azeriak) ere egoten ziren, baina horien beldurrik ez zuten izaten. Erriflea beti eramaten zuten aldean. Lukia hiltzea ez da erraza, baina behin hil zuen bat. Ugazabari animaliaren belarria eraman behar izaten zitzaion hil zuela frogatzeko.

Transkripzioa
- Ta oiñeztue egunaro en jeneral uden. Uden beti, oiñeztue txo, trugoie ta oiñeztue. Larrittu eitten gintzezan baie...
- Ta ardidxek billurtuten zien?
- Ardidxek ez, ardidxek ez zin ikaratuten. Ardidxek ondo egoten zien bai.
- Ta koiotiek-eta?
- Koiotiek egoten zien. Koiotiek eta honek harek be badekozuz honen hamen Sanander alden egoten dienak, koietiek bai, lukidxek eta koiotiek die bestiek, polizi-txakurrek die horrek. Harek laiñoa dauenien, euri-garoa eta laiñoa dauenien ardire apeletan deu en jeneral.
- Baia horren billurrik ez?
- Ez, ez, ez, horrek danak piztidxe danak eskapetan deu han. Honek "elkak" esaten otsien behidxen antzekoak egoten diz han ba, "elka" esaten dotse.
- "Elkak"?
- Bai. Ta haredxek be personie ikusten deuenien arin eskapetan deue, bai, piztidxek danak eskapetan deu han.
- Lukidxek?
- Lukidxek be egoten di, hamekoak baiño txikitxuauek egoten di han lukidxek, bai. Lantzien bat hiltzen genduzen, baie lukidxe gatza da hiltzen, ta honek beste, zuk esan dozunek be bai e. Akordetan naz han Boise Rivesetik behera txamixalatara sartzen egon nintzen ardidxekaz goittik beheraz, goittik beheraz, ta iper-haize bat hametik inpernuko barrabasa baiño hotzaua, halako bide zahar antzeko karkabaratxu baten egon nintzen, ta ardidxek "raaa!", bueltie ta:" zer dau hor ba?", riflie bertan, riflie ez zan faltetan lepotik gero han en jeneral-eta, ta ardidxen adi pareta egon zan ta dxaurti ein notsan ta "kakakatik" emon notsan tiroa ta uzabak galau bat ardau emon dxosten haredxena be. Belarridxek eroaten die burutik kendute, bai muestrie uzabari ta holantxe.
- Orduen belarridxek gure deu esan zemat...
- Bai, bai, eitteko. Otsoari be bai, otsoari be horidxe ein biher izeten dxan, belarridxe kendu. Ta dxatekoan bille goazenien hamar egunengarren eroaten gendun bertara.

11. Euskara

11.1. Ardien belarriko marka

- **Hizlaria(k)**: Sasiain Aiestaran, Bitorio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-018/033
- **Iraupena**: 0:01:10. **Hasi**: 00:53:31. **Bukatu**: 00:54:41
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Lexikoa
  Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- **Laburpena**: Ardiei belarrian egiten zaien marka: "miru-buztena", "urkulue", "okatza"... Beharrezkoa izaten da egitea. Ardiak ez ditu sekula aseguratuta izan. Gau batean txakur batzuek 39 ardi hil zizkioten.

Transkripzioa
- Ta ardidxeri belarridxen markie eitten jakie?
- Bai bai. Hatariko makiñetxu bateaz edo artazidxekaz edo be bai kortadie. Batzuk miru-buztena esaten dotse; beste batzuk urkulue; beste batzuk okatza,-ta segun bakotzak, bakotzak bere pastoriek ze marka dekien, bai.
- Orduen markie jartzen jakie jakitzeko norena dan edo?
- Bai norena da, hori ona da. Nik [idxoko] urtietan ez dot eitten hori markiori ona da ointxe be eittie hori, ona da. Ointxe be batzuk, pastore batzuk eitten dotse.
- Ta gero seguro kontue-eta, ardidxek zelan aseguretan die?
- Ardirik ez dogu aseguretan guk.
- Ez? ta sekule ez dozue, zozer paseu ezkero ez dozue ezer kobretan.
- Ez, ez, ez, ez.
- Edo ermandadie-edo.
- Baia ermandadie behixena-eta egoten zan lelau, baia oin ardidxenik ez dau. Etorri ein jatezan niri gure baot han imini, baiña ba esan neuen ez, ez.

- Ze holan lukidxekaz-eta euki ezkero zozer.
- Txakurrek, txakurrek di txarrenak. Geu beten hogeta hamalau trage ostiezan hortik.

11.2. "Pelenkak", "partillie", "hondokarridxe", "masisale"

- **Hizlaria(k)**: Renteria Anduiza, Jose Anton
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-025/015
- **Iraupena**: 0:02:22. **Hasi**: 00:31:24. **Bukatu**: 00:33:46
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elizondo, Iratze
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Itsasoan erabiltzen diren Bermeoko hainbat berba aipatu eta eta euren esanahia azaltzen du: "pelenkak", "partillie", "hondokarridxe", "masisale".

Transkripzioa
- Pelenkak. Pelenkie da lebatzetako amuen imintzen zun, lebatzan, lebantzan, hau da, kontraidxu esaten dotsagu, hau da goxuena da. Atunena da miekie edo belarridxe. Hau, belarridxe esaten dune, eindxadie be esaten dotsagu. Lebatzari eitxen dotsagu zatitxue holan kendu ta amuen imiñi beste lebatz bat atrapateko. Ostantzien txibidxie, txibidxie, "jibia" .
- Bai, bai.
- Ha imiñi rabalez, rabalakue, ta hori da, pelenkie. Partillie, partillie.
- Zer da?
- Ba, partillie dirue partidu. Irebazten zune mahaidxen dxesarri ta dirue partidu.
- Itxosoko jornalari ta partillie.
- Bai. Hondokarridxe. Hondokarridxe da gu guz uger bidxok, igeridxen ta nik eitzen dotsut zuri agarra burutik ta hondora saka, hondora saka.
- Ah! “Aguadilla”.
- Hondora saka, zu zauz itxoten. Han dau hondokarridxe emoten. Halan esaten du Bermion ontxek be.
- Zer da “aguadilla” moduen.
- Zer da hori?
- Aguadilla erderaz edo…
- Ba saka burutik, ba zeu joditeko. Uretara saka ta hondora ta zauz itxoten ta zu uger, zu burue atera ezin atara ta bestie zeure hondora sakaten. Horreri esaten dotsagu hondokarridxe. Masisale, masisale da, masidxe ez dakizu zer dan?. Masidxe da, errotie eitxen dan moduen, errotie, kafie idxota, ba masidxe be eitxen da, masidxe eitxeko dau holako batzuk dauz, aparatu batzuk ezta? ta eitxen da sardiñetan ta useten ezan dauien ta santurtziarrak-ta masidxe botateko arraiñe ba apurtue arrain apurtuek-eta, txitxarro edozein klasetako arraiñek. Sartzin dozu holako katxarro baten ta eitxen dozu masidxe, harek masidxek balidxotsu gero ugerie formateko uretan arraiñe atraiteko bertara, nahi txitxarrue, nahi bokarta nahi edozer. Masisale.

11.3. "Botabarak", "masamorrie", "maridxie", "mare bat", "mandazkada", "mandaz"

- **Hizlaria(k)**: Renteria Anduiza, Jose Anton
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-025/016
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:33:46. **Bukatu**: 00:35:51
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elizondo, Iratze
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Itsasoan erabiltzen diren Bermeoko hainbat berba aipatu eta eta euren esanahia azaltzen du: "botabarak", "masamorrie", "maridxie", "mare bat", "mandazkada", "mandaz"

Transkripzioa
- Botabarak, botabarak bakizu zertzuk dizen, harek paluek atunetan eruten dizenak, masta halakuek zelan da? eukaliptuek, eukaliptuen arbolak, holako lodidxerakuek, handik imintzen diez apaidxuek gero daidxola. Apaidxuek haulan, kazan, kazan dxuten diez baporak horrek danak

kaseruek diez, holan duez, atzien gotabera bi ta aurrien beste bi txikidxauek ta handik duez apaidxuek zabalien. Hauri da gotaberie. Masamorrie, masamorrie da ba hauri, masidxe ein dozune, masamorrie ein dozune.
-Zelan, zelan?
- Masamorrie.
- Bai.
- Bermion esakerie dau andrak esaten dauie "masamorrie eingo zaitxut". Igual txarto porta ta "Txo, ze ein zu?" “Masamorrie eingo zaitsut, masitxu eingo zaitxut".Masamorrie. Maridxie da "la partija". Zeure partie altxa dozune, diru partilletik. Maridxe bat.
-Hori beti itxosoagaz lotute.
- Eh?
- Hori beti itxosoko...
- Bai bai. Sueldue izatil ez, herridxen ein zun maridxie, ta mare bat denpora bat. O sea ke "un tiempo concreto" esaten da, mare bat da mare bat izan lei lau egunekue edo hamabost egunekue. Urten itxosora ta gueltan zatozena, mare bat ein dxuu, "Ze ein zu hamen marin ba?" "Hamen ez dogu ein ezebez" O sea ke mare bat da hori, mare bat. Mandazkadie, mandazkadie da, mandaz, baporak balantzadak eitxen dau. Ta halako mandazkadarik, ta mandatik itxosue sartu. Mandazkadie, mandaz, mandazkadatik ba, mandaz.

11.4. "Luzien", "koroskera", "kapan egon", "kapaue", "kankamuek", "kaidie"

- **Hizlaria(k)**: Renteria Anduiza, Jose Anton
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-025/017
- **Iraupena**: 0:02:16. **Hasi**: 00:35:51. **Bukatu**: 00:38:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elizondo, Iratze
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Itsasoan erabiltzen diren Bermeoko hainbat berba aipatu eta eta euren esanahia azaltzen du: "luzien", "koroskera", "kapan egon", "kapaue", "kankamuek", "kaidie".

Transkripzioa
- Luzien, itxosuen azpitxik uger eitxie. Itxosuen azpitxik eh.
- “Bucear”-edo?
- Bai “bucear”-edo, luzien. Bermion luzien esaten datso."Txo luzien abille zara". Koroskerie, koroskera. Koroskerie personiek, "Zuk koroskera bat dakozu" "Neuk be bai". “Lebidxas” frantses, norberan formie, baie hamen gauze bat dau. Etxurie ba. Hamen gauze bat dau, baporari zauzelez beti itxosora begire bapora bator igual, hamen ni ez nai ezan neu abille, abille diñot, baie jentie dakozu aman txarridxen etxetik bapora "han dau, fulano da", "Ta nondik igarri, korroskerie dako harek" "ba, Igeldona bestiña edo ugerriña aurreko palue /etsazu/ ez dotsazu ikusten halan dakona".
- Antza-edo.
- Antza, bai, bai. Korroskerie, korroskerie, korosta aurrie da, koroskerie. Kapan eon: kapan eon da egualdi txar bateri arpi emoten egon geldi-geldike, kapan. Tenporalari aurre emoten, kapan. Kapaue: kapaue, ba zeru

kapaue. Zerue ba eguzkirik ez danien ikusten, zerue tapata daueniko "goi kapaue dau” esaten du Bermion.
- Goi kapaue?
- Goi kapaue. Kankamuek: kankamuek diez “anillas”, “anillas”. Bertatik dxuten da braderue, haulan, anilluek diez, batzuk metalezkuek, beste batzuk azerozkuek handik dxuten da sokie. Kankamuek. Kaidie da: kaidie da, bueno kaidie gauze askori esan lei baie sarien kaidie da "largo y alto" alturie ezati lez, kortxotik beraunera dauen luzerie da kaidie, ta bestie da luzerie.

11.5. "Arrantxe", "ardorien", "apaidxue", "apaidxe", "anpurrek", "izkurridxe"

- **Hizlaria(k)**: Renteria Anduiza, Jose Anton
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-025/021
- **Iraupena**: 0:02:37. **Hasi**: 00:44:02. **Bukatu**: 00:46:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elizondo, Iratze
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Itsasoan erabiltzen diren Bermeoko hainbat berba aipatu eta eta euren esanahia azaltzen du: "arrantxe", "ardorien", "apaidxue", "apaidxe", "anpurrek", "izkurridxe".

Transkripzioa
- Arrantxe: “atondu” esaten dauie.
- Konpondu, atondu.
- Atondu” baserritarrak ta atondu esaten dauie, ez da? Etxie atonduten nabil, edo hau edo bestie. Guk “apaidxe”: apaidxe ba trastiek bakotzan lekutan ondo imiñi ta. Apaidxe "nora zuzi ba?" "Bidxar daku bapora apaidxeteko ordue" esaten da auntxek be bai. "Mutillek omon dau bidxar zortzitako ordue motorra apaidxeteko" “Zer itxosura zuziela?” “Bai atunetarako prepara, preparatie”, apaidxie. Arrantxe, apaidxe hamen. Anpurrek: anpurrek diez lebatzan barrutidxek. Lebatza, lebatzari eitxen datso. Ohitxure bat eon zan Bermion, lehen bakizu lehen Bermion eon zin da hogei motor edo lebazaliek, ta eon da ohitxure handi bet iñon ez dana eon, Hondarrabidxe be bai, herri bet da lebatzetan asko ibil dxena baie Bermio ezan da generaziñutatik lebazale profesionalak. Ta ze eitxen zandauien, zu atrapaten bazu zure apaidxugaz bost lebatz, zuk okitzen ezan dozu deretxue hametik hau kontraidxue hametik ebaitzeko, ebaitzeko hametik zatidxe ta barruko gibela, gibela-ta dakolakon, ta hamen dako kokotxak, lebatzan kokotxak gauzerik goxuena dauena. Honek kokotx bidxek, hametik kontraidxo zatitxue ta barruko gibela ta urdille ta danak zeuk erun etxera. Atrapaten dozuzenak, edo gure batzazun laguneri omon, baie zeure trofeue ha ezan da. Lebatza kajara ta kontraidxuek ta zeuretzako etxera, gibela ta horrek danak dxateko. Ta anpurrek, horrek anpurrek eitxen ezan dauien euren andrak platertxuen imiñi hamen igual lau kokotx, gibela ta hameko zatidxe ta saldu eitxen ezan dauie, saldu eitxen ezan dauie. Honelez patatakaz imintzen dozu saltsa berdien ta da gauze total gauze goxue. Izkurridxe: plaktona. Itxosuen dauen. Izkurridxe, plaktona esaten datso erderaz. Izkurridxe dxaten dau arraiñe, dana bokarta be bai. Arrain danak dxaten dau izkurridxe.

11.6. "Kordie", "errunbue", "dribie", "karrie"

- **Hizlaria(k)**: Renteria Anduiza, Jose Anton
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-025/022
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:46:39. **Bukatu**: 00:48:52
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elizondo, Iratze
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Itsasoan erabiltzen diren Bermeoko hainbat berba aipatu eta eta euren esanahia azaltzen du: "kordie", "errunbue", "dribie", "karrie".

Transkripzioa
- Kordie da: kordie, apaidxo bat tertzie ezan lei, baie berrogei tertza diez ba kordie. Kordosue, “cuerda” erderaz txikota da, baie kordie beste gauze bat da. Kordie da beran, tuntuxe goidxen ta gauze dana ba, kordosue, ezan lei berrogei tertzakue edo ehun tertzakue. Erronbue: erronbue da txalupe bat dxoten badauen hondue, hatzigaz, erronbue eitxen datso, zillue. Handik ure dator barrora, "Bapora daku erronbue eindxe" "Zer dxo zuie ba?" "Hatzie dxo duu, erronbue". Dribie edo karrie, entzun dozu? Ez. Dibrie da: txalupie due kostara, itxoso zabalien ez zu botako ankillie uretara zeitxik hondo handidxe dau ta zuz kostara, en bez de portora sartu karnadakaz hil barik, eitxen dozu akabun, ankillie bota, arpigue bota, arpigue esaten dotsagu, arpigue bota hogeita hamar brazatan edo guzen herridxetara, botaten zu arpigue sokigaz, ta eitxen zu aurretik amarra, baie harek arpiguek honduen ez badauen artzien hatzie edo gogortuteko, triblie eitxen dau. Hamen etxa dozu, baie /etsu/ ez dotsu tiretuten, dator dandarrez dator. Ta diñotsu: “ [arpigu dribili eitxen dau gero]. Karrie be esaten duu, halan agarraten dotsazu txikotari ta "entzun hau karrieten dau eh" en bez de firme ogon dandarrez dator, karrieten. Halako baten atrapaten dau oskaren bat onduen, atzie atrapaten dau ta eitxen dau tenso geratu "Ei, ia ez dau karrieten" diñozu. Hauri da karrie, dibilie edo karrie.

11.7. "Kikunbera", "dxoidxue", "uridxolak", "usubillue", "entxaduek", "suesta"

- **Hizlaria(k)**: Renteria Anduiza, Jose Anton
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-025/029
- **Iraupena**: 0:02:13. **Hasi**: 00:54:50. **Bukatu**: 00:57:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elizondo, Iratze
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Itsasoan erabiltzen diren Bermeoko hainbat berba aipatu eta eta euren esanahia azaltzen du: "kikunbera", "dxoidxue", "uridxolak", "usubillue", "entxaduek", "suesta".

Transkripzioa
- Kikunbera, buruz behera saltatie.
- Uretara.
- Dxuidxue, bitu zelako berbie, hau ez zu topaten iñongo dikzionaidxutan. Dxoidxue dau, esatilez "Ze eualdi klase dau ba?" Itxoso holan mobidue, itxoso paillazue. “Dxoidxue dxauk gaur be" Ez itxoso handidxe ez kalmie, dxoidxue halan plaplapla. Saltxaidxue esaten du, saltxaidxue esaten du Bermion asko "Bitu zelako saltxaidxue" Hori esaten dauie asko honek, tximiñoizaliek tximiñoizalien batela txikidxe dalez, ta holan da ibiltzen diez " Zelako saltxaidxue eon da gaur, garriko miñe dakot" esaten dauie askok. Dxesarritxe zauz da holan da binbon-binbon, itxosuek holan zarabiltze, saltsaidxue. Dxoidxue: urdxolak, urdxola bakizu. Uzobillue, uzobillue da hamar lagun zarataka ta "Zelako uzubillue armaten dozue ba?" Ez dozu esaten?
- Ez.
- Bai, guk bai. Bermion bai, uzubillue.
- Zaratie-eta.
- Bai, baie en bez de berbetan normal ogon, ba hau ba zer da eskandalue, eskandalue esaten da. "Zer da uzubillue hor dauena ba". Uzubillue.
- Tabernatakoari ta esaten dotsazue.
- Bai uzubillue, bai. Entzaduek esan dotsut dizela “ropas de agua”. Suesta: entradan dauen gizona ikusi dozu, hor sarreran dauen gizon holan dxantzitxe bera neskatue eon dan lekue. Harek dako buruen txapel mota bat ha da suesta baia ha suesta gaur egun ez da useten, ha dalako atziñeko dxakenarruen halakue, txapela. Ta holaniez egiñikue, suesta. Hauri suesta ta horrek galdu eingo diez horrek berbak.
- Suesta orduen da buru ganeko...
- Bai buru ganeko txapela da, ordun denboratakue, gaur egunin ez da suestik.
- Gizonezkoak dxanzten...
- Bai, bai bai.
- Itxosoko jentiek edo?
- Itxosoko jentiek bakarrik dxanzten ezan dau ha, suesta, orain suestik ez dau. Ta laster dxakin bez jentiek suesta zer dan.

11.8. "Tuntudxe", "koidxidu", "txintxiñe", "kañe"

- **Hizlaria(k)**: Renteria Anduiza, Jose Anton
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-025/030
- **Iraupena**: 0:02:33. **Hasi**: 00:57:03. **Bukatu**: 00:59:36
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elizondo, Iratze
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Itsasoan erabiltzen diren Bermeoko hainbat berba aipatu eta eta euren esanahia azaltzen du: "tuntudxe", "koidxidu", "txintxiñe", "kañe".

Transkripzioa
-Tuntudxe, tuntudxe da bolla. Papardotan ta besegutan ta, holan agarraten zantzazun hametik eta eitxen zanzun koidxidu. Koidxidu badakizu zer dan? "Errolar el aparejo" haulan, koidxidu eitxen ezan duu. Tuntudxen koidxidu.

Tuntudxe. Txintxiñe: antxoa txikitxue, antxoa txikitxue atrapatten ezan dune karnadatako papardue eta beseuterako. Ha imintzen ezan dozun begitxik edo tripetik eta gero buztenetik pramie, ha karnadie. Antxoa txikitxue da txintxiñe, txintxiñe. Kaiñe: kaiñe da, kañie ez kaiñe baiño. Kaiñe da Mundekako errekara bazuzen sarritxen, ikusten da errekiek dakarren zuritxazune, zuritxute laiñue izati lez. Ez zara fije sekule? Izaro be ikusi bez, zuritxute. Ta gero eguzkidxek eitxen dau ha dana urtu.
- Laiñue da.
- Laiñue ez da. Errekiek formaten dauen kaiñe da.
- Zarraoie baiñe errekatik...
- Zarrazoien estilue da.
- Baie errekatik datorren?
- Bai.
- Menditxik edo?
- Errekan ez dauena ez da kaiñe. Mendidxen oten da sarritxen laiñue bajatute, ha ez da kaiñe. Baie kaiñe da errekiek eitxen dauena ta hor, Mundekako errekiek ekarten dau sarritxen. "Bitu holan ta ape marie! kaiñe bitu zer dauen han, aurrekorik ikusi bez".
- Orduen ze diferentzi dau kaiñetik zarrazoire?
- Zarrazoie pentsaten dot nik humeduaue dala, humeduaue da, ur gehidxau dako. Zarrazoie ogon lei errekatik kanpo be bai.
- Niretzat zarrazoie da itxosuen mandakoa-edo.
- Bai ba, baie kaiñe ez dau itxosuen, kaiñe errekatan bakarrik dau. Hori kaiñe kabuen ez da ikusten. Kabuen ongo da zarrazoie, Matxakun, Matxakun zarrazoie ba illundute, tapata, “Ave Maria zer da zarrazoie ba!”. Baie hori kaiñe beti ikusko dozu Mundekako errekan edo Lea-Artibaien edo ez daitz errekatan, hamen asko oten da, bai, kaiñe.

11.9. "Terrela", "ubilladie", "suesgorie", "tximistieten", "berrela"

- **Hizlaria(k)**: Renteria Anduiza, Jose Anton
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-025/031
- **Iraupena**: 0:03:24. **Hasi**: 00:59:36. **Bukatu**: 01:03:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elizondo, Iratze
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena**: Itsasoan erabiltzen diren Bermeoko hainbat berba aipatu eta eta euren esanahia azaltzen du: "terrela", "ubilladie", "suesgorie", "tximistieten", "berrela".

Transkripzioa
- Terrela, terrela be bai. Terrela be da, hauri, zarrazoie, kaiñe, terrela. Terrela illuntzitan botaten dan, denpora baten esaten ezan duun Bermioko mutillek erdidxek bularratik dxus zak ta Mundekako neskari, mundekako neskari, neskakaiñe "bakizu zemat terrel pasa dauien horrek mutillek?", dxun gauez ta oiñez etorten ezan dizen bustitxe. Terrela, humedadie da humedadie, terrela.
- Humedadie da terrela edo iruntze edo ez.
- Bitu, gauze asko dauz terrela, kaiñe, bestie, baie terrela hauri da guretzako. Humedadie gauetan ta dxausten dan, zelako terrela, zelako terrela dau botaten ba. Hori herridxen be bai. Kotxiek eta bustitxe ta ez da?

- Bale.
- Terrela.
- Iruntze edo zuek esaten zuie leidxe, iruntze edo?
- Leidxe bai, illuntze ez. leidxe bai, leidxe dau leidxe dau botaten baie terrela be bai. Ubilladie: arraiñek eitxen dauena dxup! "Eh ze ezan da ba?" " ubilladie eindxau arraiñek". Ez zu ikusi igual arraiñe saltaten baie indxau "dxup!" buztenagaz "dxup!", ta horreri esaten dotsagu ubilladie.
- Ze igual, ure ikusten zunien, zuk igertzen dozunien...
- Bai, klaro. Ure dau kalma, kalma. Ta halako baten "dxop!". "Ubilladie eindxau arraiñek, atunek-edo". Ein bihar mazi, mazi karnadie bota ta han datortsu gora. Suesgurie: suesgurie be bai da arraiñek hauri "dxup!" eitxen dauena. Ba arraiñek beitu gauzek-edo, arraiñek eitxen dauen halakuek diz.Ukulladie be arraiñek eitxen dau, suesgurie be bai. Tximistie be bai, antxoiek eitxen dau tximistie. Tximistie, "txist!" "Han bokarta tximistieten" Bokartak, bokartak txikitxuek dizelez txis txis, tximistieten. Tximistie atunek ez dau eitxen, atunek eingo dau ubilladie, baie tximistie bokartak. Ta bokartak ez dau eingo ubilladarik, gauzek gero. Bakotzak dako beran halakue. Berrela, berrela da, baporan, baporan montajien erdiguneko ha, ha da, berrela. Leko bat, baporan leko bat da berrela.

11.10. Erdararik jakin ez, ezta ulertu ere

- **Hizlaria(k)**: Aginaga Santa Marina, Pauli; Erezuma Elorriaga, Mari
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-073/010
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:19:43. **Bukatu**: 00:21:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elizondo, Iratze
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Bermeon ez ei da inoiz erdararik egin, beti euskaraz. Erdara kanpotik etorritako jendeak ekarri zuen. Lamerako dantzaldietan askotan erdara ez zekitelako baztertuak izaten ziren. Pauli 13 urterekin Bilbora joan zen neskame erdararik jakin barik, negar asko egiten zuen ezin zirelako elkar ulertu; laster bueltatu zen etxera.

Transkripzioa
- Eta zuen erderie zelakoa zan?
- Pauli: Erderie? Erderie zelakue zan dan erderie. Dxakindxu erderaz ela? zelakue ezan dan esateko.
- Mari: Erregie?
- Erderie!
- Pauli: Doña Sofia, don karlos, berton presenta.
- Zuen erderie zelakue zan?
- Pauli: Gure erderie zelan ezan dan.
- Mari: Ta nik dxakin dxot erderaz?
- Pauli: Hori ba, hori ba.
- Mari: Ontzek be ez daitz.
- Pauli: Ez du dxakin guk erderaz. erderaz "si, no" "no, si". Besterik ezebez.
- Mari: Ez daitz er dan erderie.
- Pauli: Hamen ez da egon erdaldunik iñor be ta, dana euskaldune. Gero, etor diez hortik inkisiziñue.
- Mari: Gero da honek.

- Pauli: Bai gero da atrapa doskune dana. Gero da etor dana trenak ekarriko jentie.
- Mari: Hori bai, Lameran dxuen ta honek aldeanatxuek eta dxantzan gureñe iñok etorri gure bez.
- Pauli: Bai.
- Mari: Honek aldeanatxuek erderarik ezebez ta bestiek erdera berbetan.
- Pauli: Modosa, modosa.
- Mari: Eurentzako ba dana.
- Pauli: Ta gu koitxaduek defenditeko erderaz ez duu dakin ta /dxakindxe/. Ni Bilbora dxun naitzen hamahiru urtegaz kridxada Bilbora, ta ez nauen dxakintzen zan ezebe! Jesus, ene bada! eske akordata beste barik tristezidxe sartzien dast.
- Ta erderaz jakin barik?
- Pauli: Bapez! Ezebez! gauze handirik ez, ahaldun moduen defendidu. Ta denpora gitxi garrenen etor naitzen ia negarrez hasten ezan nai ta, gure entendidu ta ezin entendidu. “Zer diñost honek andriek ba?” Igual imiek, imiek atenditeko imiek imetxu bi edo on zien ta eurekaz imikaz ta gero imitzen ezan nauen harrikue eitxen, ohiek eitxen, ha itxen, bestie eitxen, hamahiru urtegaz ta eruen nauien imetxuek bakarrik dxaboteko dalata. Ta klaro, hasi dasten erderaz berbak esaten ta nik entenditen ez ta “zer diñost ba?” ta negarrez beti.

11.11. Eibarko euskararekin arazoak

- **Hizlaria(k)**: Bengoa Madariaga, Katalin
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Goiria Mendiolea, Nerea
- **Erref**: BRM-087/020
- **Iraupena**: 0:03:27. **Hasi**: 00:29:38. **Bukatu**: 00:33:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elizondo, Iratze
- **Gaia(k)**:
  Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
  Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- **Laburpena**: Eibarren neskame zegoela, erraz ikasi zuen Eibarko euskara. Behin, errekadu bat egiten bidali zuen nagusiak eta "lekak" zertzuk zien ez zuen jakin, eta ezer barik bueltatu zen. Txakur handiari ere desberdin deitzen zioten.

Transkripzioa
- Katalina: Ta mutiltxue dxuten nintzen ni, neskak bertako enbrakaz, neure uniformetxugaz ta orduen ez daitz zapata harek okin banaue. Ba imie hartute dxuten nintzen kale-kale ta gero haurekaz henbrakaz batuten nitzen ta bertako idiomie ensegidakuen ikasi nauen. Etxera dxun naitzen amagaz entendidu ezin.
- Alaba: Eibarrekugaz?
- Katalina: Eibarrekugaz.
- Alaba: Horrenbeste gatza ezan da?
- Katalina: Bai, lekakaz beitu ze pasa dasten.
- Alaba: Konta.
Katalina: Eibarren neuen kridxada ta uzandriek bota, uzandriek esan: “hau baiño hurrau, hametik dxun ta han dakozu bentatik hau ekarri, hori ekarri”. “Ta hori zer da ba?” erderaz esan bihar. “A bakitz, esango dotsat, hametik

killo bat hortik libra bat ondo”. Ta gero, beste egun baten: “Dxungo zara plazara ta ekarko dozuz lekak”. Pregunte eingo dot, ez datso gustaten preguntetie ta lekak, lekak, lekak, lekak. Ta ein dxasten ahaztu lekak, ez daitz ba zeuzer ein dxasten, distraidu ein naien ta ahaztu dxasten niri lekak. Baie hortarako ama okitzen nauen zera, txakurtegixegaz plazan, Isabel okin zauen ta ni "Isabel esan dost uzandriek ba haunek eta haunek eta haunek eruteko" zestillatxuegaz eta dirutxuegaz dxuten nitzen. Emoten dotsaten hareri ta ha etor ezan dasten gero, bueltak edo danak ta eruten dotsaten dana etxera edo, bai. Ta esan dost lekak ekarteko ba, ta gero beste gauze bat, danak on zien menos lekak. Hartun, “despues de que” lekak, lekak esaten ta ahaztu, ez nauen dxakin zertxuk dizen. Nik pregunte eitten ezan dot "hori zer da ba?" ta hau, ez dxasten ahaztuten, dxakitzen nauen zer dan ta, lekak, lekak esaten ahaztu. "Ez dotsu esan gehidxau ezer?" Ai ba la letxe ze esan dost ba! "Ezer esan dotsu gehidxau?" "Ba ez dakitz, ezebez gehidxau" Beragaz dxun naien ta "lekak non dauz ba?" "Ai ahaztu dast". Han dxun nai ostabere, lekak, lekak, lekak auntxek ez dast ahaztuko lekak, lekak, lekak, lekak ta resulta que uzandrik: "lehen zeittik ez dazu esan ba?" hainbeste leka.
- Alaba: Baiñie.
- Katalina: Txarkuteridxen aurrien jentie, "orain diñostazu hauri? on apur baten”. On ta on ta beste bat etorten ta nik haulan, “ene bada zer [...] lekak zertzuk ete dizen lekak”. Ta esan dau horrek: “baiñek”. Baie esan dosten neuk erosteko “ai nik ez dakitz, ni hamen egongo nai”. Ene bada galdu nai ni lekak eruteko, bera falta, eurek falta, baie ez dot dxakin lekak zertzuk dizen ta hamen datoz killo bat baiñegaz. “Horrek ezan die lekak?” Baie ez, berari preguntetigaittik, “erderaz ikasten etor zara hona?” Horrek arrabidxue emoten dost! Baia euskeraz be, bertan lekak nik ez nauen eguno be entzun ta holako gauza asko pasaten ezan dasten niri han. Txakur handidxeri, txakur handidxeri ez daitz zer, seme! Seme ez daitz zelan. Horren diruek be izenak okin dxauie.
- Soledad: Txakur handidxek?.
- Alaba: Hamen txakur handidxek baie beste herri batzutan beste izenak.
- Ibarrangelun zelan da ba txakur handidxe?
- Katalina: Ba, txakur handidxe. Ibarrangelun Bizkaidxen, baie ha Gipuzkoa ezan da.
- Ez da txori handixe, Ibarrangelun.
- Katalina: Bai txori handi, txori txikidxe hor da. Baie han ez! baie han semik.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Gasteizko umezurztegi batetik Bermeora (BRM-002/002)

Gasteizen jaio zen. Umezurztegi batetik ekarri zuten Bermeora, umetan. Abizenak jatorrizkoak ditu. Aita ere adoptatua zen; haren historia: bederatzi urterekin itsasora bidali zuten; lehengusuarekin ezkondu zen, gurasoek tratua eginda; ez zuten umerik izan eta bera adoptatu zuten. Zergatik ez dituen abizenak aldatu.

2. Aita gazte hil zitzaion, itsas istripuan (BRM-002/003)

Aita nola hil zen, oso gazte, itsasontzian gertatu zen istripu batean. Lo zeudela, bi lagun hil ziren, erreta: makinista eta aita, sugina. 13 urterekin aita gabe geratu zen.

3. Ama gaixorik eta bera batetik bestera (BRM-002/004)

Amak izaten zituen arazoak, barizeekin. Odol jarioak izaten zituen, eta bera bizilagun baten etxean egon zen, baita amonaren etxean ere, baina ez zen ondo egon han. Etxe hartako kontuak.

4. Aitak makinista titulua atera zuen (BRM-002/007)

Ama eta aita nongoak ziren. Aitak makinista titulua atera zuen bere kontura. Fogonero lanetan ibiltzen zen. Arrastreroetan ibili zen lanean. "Partillie". Ama etxean egoten zen.

5. Umetan, dotrina eta jolasak; dantzak eta senargaia (BRM-002/010)

Igandetan, dotrina. Don Carmelo apaizak pelikula mutuak jartzen zizkien. Kalean jolasten zuten. Musika non izaten zen. 12-13 urterekin hasi ziren dantzan. Senarra izango zuenak kontserba lantegia zuen: Ormaza kontserbak. Izan zuen pretendiente baten kontuak; lotsatia zen hura. Senarra nola ezagutu zuen.

6. Senarra, ezkerreko politikari ezaguna (BRM-002/014)

Senarra politikan nola hasi zen. Seberren familian denak ziren nazionalistak, eta bera ezkerrekoa, 'Acción Vasca'koa. Gerra sasoia. Galdakaoko jendearekin batu zen. Galiziara joaten ziren bileretara. Eskumakoen mesfidantza. Herri Batasuna. Diputatua izan zen.

7. Harreman ona herriko politikarien artean (BRM-002/016)

Francoren garaian istiluak izaten ziren, baina Herri Batasunak eta batzokikoek elkar laguntzen zuten. Harreman ona.

8. Gerra garaian ihesi; etxea obusek puskatuta (BRM-002/018)

Gerra sasoian, gaztetxoa zen. Aita ebakuatuta egon zen, Frantzian, bost hilabetean. Ama eta bera gaizki ibili ziren; osabaren etxera joan ziren, Mundakara. Aita bueltatu zenean, etxea obusek hautsita zegoen.

9. Umetako jolasak: tronpaka, karneka, piruke (BRM-002/023)

Umetako jolasak. Dotrinaren ondoren, pelikula ikusi eta kalera joaten ziren. Tronpaka, txikotagaz karneka (saltoka), piruke (ezkutaketan)...

10. Mutilekin dantzan; lanean hasi zen (BRM-002/024)

11-12 urterekin Alamedara joaten hasi ziren, goiko plazara; mutilekin dantzan. Sare lantegian egoten zen lanean; hari matazak egiten. Ehun lantegiak. Garcianekoa lantegia non zegoen.

11. Sare lantegiko lana (BRM-002/026)

Sare lantegian egiten zuen lana. Kordela, karreteak. Hari matazak egiten zituen. Lehortzen jartzen zituen. Saregileak. Sareak kanpotik ekartzen hasi ziren, merkeago, eta lantegiak porrot egin zuen.

12. Hari matazak egiten eta sareak konpontzen (BRM-002/028)

Hariarekin matazak nola egiten zituen azaltzen du. Makinak. Sareak konpontzen ere ikasi zuen. Oholezko orratza. Ez zitzaion gustatzen lan hori, gerriko mina egiten zitzaion. Saregile eskola kofradia zaharrean zegoen. Dirua irabazteko fama zuten saregileek.

13. Kontserba lantegiak; Bermeoko bokarta (BRM-002/029)

Beste lantegi batzuetan ere egin izan du lana noiz edo noiz, kontserba lantegietan. Lehengo soldatak baxuak ziren. Bermeok fama zuen bokartarekin (antxoa). Oraingoa, kanpotik ekarria, ezberdina dela dio. Nola prestatzen zuten bokarta.

14. Arrantzaleen arteko harremana; egungo kontuak (BRM-002/031)

Bermeo, Lekeitio eta Ondarroako arrantzaleen arteko harremana. Lekeitiokoak gogorrak zirela dio, baina langileak. Arraina gutxitu egin dela dio. Antxoa. Semea atun-ontzietan dabil, Afrika aldean.

15. Bermeoko eskolak; karmeldarrak (BRM-002/033)

Karmeldarretan ibili zen eskolan. Eskola publikoak eta josefinetako mojak, orain Kafe Antzokia dena.

16. Neskak eta mutilak aparte eskolan; mojak (BRM-002/035)

"Karmelitetan" neskak eta mutilak "hermanotan". Hermana Secundina. Hermana Micaela gaiztoa zen: Cara al Sol kantatzean besoa altxarazten zien; titarearekin jotzen zien. Laboreak gustatzen ez zitzaizkionez, eliza garbitzen jartzen zuten.

17. Karmelitetan, hamar urtera arte (BRM-002/036)

Karmeliten ikastetxean ez zen asko ordaintzen. Bigarren solairukoek "pagokoak" ziren, medikuen alabak eta. Tratua berdina, baina ezberdin janzten ziren. Bilbora joaten ziren aberatsak hamar urterekin.

18. Hiru senar-emazte etxe bakoitzean Bermeon (BRM-004/002)

Umezain egon zen etxe batean. 10 pezeta ordaintzen zioten hilean. Jendea estu bizi zen Bermeon. Etxebizitza askotan hiru senar-emazte ere bizitzen ziren. Gelak eta sukaldeak txikiak ziren.

19. Bermeoko kalean txerriak eta oiloak (BRM-004/003)

Orain Bermeoko Gran Vía dena orduan "Morondo" zen eta baserri giroa zegoen; oiloak, untxiak, txerriak, behiak, korta txikiak... denetik egoten zen. Bermeoko kaleen izenak; nolakoak ziren.

20. Euzkadiko diruak balio ez hileta ordaintzeko (BRM-004/005)

Ama hil zitzaion gerra hasieran. Hileta ordaintzerakoan, esan zieten euren diruak, "Euzkadiko diruak", ez zuela balio.

21. Aita negarrez arraun-ontzia galdu zuelako (BRM-004/008)

Arraun-ontzietan joaten ziren arrantzara, hurbilera. Aita bailandran ibiltzen zen; eta, behin, urperatu egin zitzaion, Matxitxako aldean haitza jo zuelako ontziak. Orduan bakarrik egin ei zuen negar aitak.

22. Julian Gaiarre tenorea Bermeon (BRM-004/010)

Julian Gaiarre etortzen omen zen kantura Bermeora. Eta familia ezagun bateko alabak ibiltzen ei ziren eurekin pasioan. Gero haurdun agertu ei zen bat. (XIX. mendekoa da Gaiarre).

23. Bermeoko ontziolak (BRM-004/012)

Hainbat ontziola egon da Bermeon. Marea gora aprobetxatzen zen ontziak batetik bestera eramateko. "Sitsenekoak" ontziola jabeei buruzko komentarioak.

24. Ezizenak Bermeon (BRM-004/013)

Belarrikonekuk da bere familaren ezizena. Pekanekuk zergatik bihurtu ziren Kakanekuk. Ezizenak ziren nagusi Bermeon, abizenak jakin ere ez askotan. Hainbat aipatzen ditu.

25. 'Arre-arre, asto bizkortxue!' (BRM-004/016)

Baserrietatik etortzen ziren astoak lotuta egoten ziren kale batean, eta kale horri Astokalea esaten zitzaion. 'Arre-arre, asto bizkortzue; arre-arre, asto zantartxue; arre-arre, asto putetxue!' esaten zuen Bakioko baserritar batek.

26. Politikagatik haserretu jendea Bermeon (BRM-004/020)

Antzina denak lagun ei ziren Bermeon, baina gero politika sartu zenean, batzuek errepublikazaleak, beste batzuk nazionalistak... haserreak sortu ziren. Kofradian ere teilaz hormatxo bat egin ei zuten etxe barruan.

27. Inudeek ekarritako diruekin jaso zen Bermeo (BRM-004/022)

Euren ama ez zen inude ("aiña") joan. "Handikien umeentzat bular hori ona bada, guretzat ere bai" esaten ei zuen aitak. Inudeak dotore jantzita agertzen ziren herrira. Janzkera deskribatzen du. Inude egondako lau edo bosten diruak bildu, ontziak erosi eta horrela altxa ei zen Bermeo.

28. Erdarakadak (BRM-004/023)

Erdaraz gutxi zekien inude bati gertaturikoa. "Echa vino, corta pan" omen zen askok orduan zekiten erdara bakarra. Begoñaren aitak ere ez zekien erdararik. Mediku erdaldunekin euskaldun elebakarrei gertatutako pasadizoak.

29. Neurriak hartzeko sistema bitxia (BRM-004/024)

Behin, bermeotar bat joan zen Bilbora etxerako erosketak egitera, kortinak-eta. Soka zatiak eraman zituen moztuta neurri gisa. Hori ikustean, saltzaileak galdetu zion ea txahala saldu zuen.

30. Pezeta biko isuna eskolara ez joateagatik (BRM-004/026)

Begoñak "kalba egiten" zuen askotan, piper, ez zen eskolara joaten. Alkateak araua jarri zuen eskolara joan gabe kalean harrapatzen zituztenei bi pezetako multa jartzekoa. Garabila alkateak asko egin ei zuen herriarengatik.

31. 'Errite Deuna' ontzia ostu (BRM-004/028)

Ontzioletan baserritar askok egiten zuen lan. Hasieran, belaontziak egiten ziren; eta, gero, motordunak. Eurek ere izan zuten motorduna, 'Errite Deuna'. Harrapatu egin zieten gerra denboran.

32. Monarkikoak etxean ezkutatuta gerra denboran (BRM-004/029)

Nazionalisten aholkuz, gerra denboran (Francotarrak heldu aurretik) monarkikoak ezkutatuta egon ziren etxean, atentatuen beldurrez.

33. Erdaraz ez jakiteagatik, trenez erratu eta kartzelara (BRM-004/031)

Bermeotar bati gertatutako istorio gogorra. Bilbora ihes egin zuen lehendabizi. Frankistak sartu zirenean, Bermeora itzuli nahi izan zuen trena hartuta. Baina Iruñera presoekin zihoan trenean sartu zen erratuta eta luzaroan egon zen espetxean, erdaraz ez jakiteagatik. Begoñak zaindu zuen familiaren bitartekaritzaz askatu zuten.

34. Fruizera errotara (BRM-004/033)

Fruizera joaten ziren Bilbotik-eta errotara. Bermeoko Demikutik ere bai astoaz. Elektrikoa omen zen errota hori. Bermeon hainbat errota egon zen baina gero galdu egin ziren.

35. Sardetak harrapatzen errota inguruetan (BRM-004/034)

Kanaberaz harrapatzen zituzten "sardetak" errotetako kanaletan. Haitzetan, berriz, muxilak, lapak eta abar biltzen zituzten.

36. "Eskopolota", armairua eta abade baten ezizena (BRM-004/037)

Bermeoko abadeak diruzaleak ei ziren. "Eskopolota" esaten zitzaion armairuari, eta baita abade bati ere. Abade horri atera zioten kanta kantatzen Begoñak: Anbeikiz, Anbeikizen bastoie...".

37. Osabaren erdarakada Santanderren (BRM-004/040)

Amak bazekien erdaraz, gaztetan Santanderren ikasi zuelako, arrantza kontuengatik han bizi izan zenean. Behin, amonaren nebak horrela eskatu omen zuen kafea Santanderreko kafetegi batean: "Oye, trapozuri, venemi tekoalde!".

38. Begoñak Errepublikako bandera jaso zuenekoa (BRM-004/041)

Begoña maisu baten etxean egon zen umetan errekaduak egiten. Maisua errepublika zalea zen. Errepublika aldarrikatu zen egunean Begoñak jaso zuen bandera maisuaren etxean. Lehengokoa baino politagoa iruditu zitzaion.

39. Errepublika denborako antzerkia (BRM-004/042)

Antzerkia egiten zuten gazteek errepublika denboran. Antzerki baten gaia kontatzen du zehatz-mehatz. "!Que viva el rey!" esaten zen lekuan, "!Que viva el sultán!"esatera pasatu ziren Errepublika etorri zenean. Eurek ez zuten politikaz ulertzen.

40. Alfontso XIII.ak emandako diruaz etxea erosi (BRM-004/043)

Alfontso XIII.a Bermeora etorri ei zen. Itsasoan ito zen hainbat bermeotarren familiei dirua eman zien. Diru horrekin etxea erosi zuen andre baten istorioa.

41. Gasteizko gotzainaren bisita (BRM-004/046)

Behin Gasteizko gotzaina etorri zen Bermeora bisitan. Kaleak eta etxeak apaindu zituzten. Beren kalean bi ume jarri zituzten: bata, san Juanez jantzita; eta bestea, haurtxo Jesusez; beste leku batean, hamabi apostoluak, eta horrela.

42. San Pedro ez da monarkikoa (BRM-004/047)

San Pedrori loreak botatzen zitzaizkion prozesioetan. Gerraostean atera zuten prozesiora, baina burua eta esku bat erori zitzaizkion. Begoñaren osabaren komentarioa: "horrek esan nahi du San Pedro ez dela monarkikoa".

43. Etxetik bota monarkikoei botoa ez emateagatik (BRM-004/048)

Begoñaren osaba hiru etxetatik bota zuten monarkikoei botoa ez emateagatik. Ugazabak 10 pezeta eskaintzen zion, baina abertzalek zenez, nahiago izan zuen kalera joan.

44. Antzinako Bermeo (BRM-006/006)

Duela 80-90 urteko Bermeo zelakoa zen kontatzen du. Herriraino erreka egoten zen; bertara joaten ziren arropak garbitzera

45. Lamera partea; Torrontero (BRM-006/008)

Bermeo asko aldatu da, lehen lantegi asko zeuden. Lamera partean zelako zen azaltzen du: haitzak zeuden, ura heltzen zen, Torrontero zegoen Pilatosen etxeko taberna.

46. Komunistak eta nazionalistak baino ez (BRM-006/011)

Komunistak eta nazionalistak baino ez zeunden lehen. Gerra aurretik, monarkiaren aurkako grebak egon zirela gogoratzen du.

47. Eskola: Nardiztar Joneko etxea eta karmeldarrak (BRM-006/012)

Eskolarako adina ez zuten umeentzat, Nardiztar Jon kalean bi urteko umeak-eta hartzen zituen emakume bat zegoen, Bego bertara joan zen. Ostean, karmeldarren ikastetxeko mojetara joan zen 14 urtera arte.

48. Moja karmeldarrak (BRM-006/014)

Karmeldarretako mojak aipatzen ditu: Madre Josefa, Micaela, Antonia, Hermana María, Ines, Cayetana... Denetarik ikasten zuten.

49. Karmeldarretako hainbat kontu (BRM-006/018)

Laboreak egiten zituzten Madre Josefarekin. 14 urtetik aurrera ikasi nahi izanez gero, ikastetxetik irten behar izaten ziren. Ikasleak bi taldetan banatzen ziren: debaldekoak eta ordaintzen zutenak. Baserri-auzoetatik ere joaten ziren karmeldarretara.

50. Gudariak etxe askotan (BRM-006/020)

Eskolan ez zuten zigor gogorrik izaten. Bere ahizpak-eta, zigortuta egoterakoan, leihotik salto egiten zutela kontatzen du. Karmeldarretan gudariak egon ziren ebakuatuta. Fraideetan zeudenei txalet batean prestatzen zieten jatekoa eta beraiek eramaten zieten. Etxe askotan egon ziren gudariak. Beraiek hainbat izan zituzten etxean: Saseta batailoikoak, Itzarkundia batailoiko zumaiar batzuk, Tolosakoak eta Berrobikoak...

51. Agintariak Santa Eufemiara (BRM-006/023)

Alfontso XIII. urtero etortzen zen Bermeora, Santa Eufemiara. Beste erregeak ere etortzen ziren Santa Eufemian egiten baitzuten foruen juramentua. Franco ere sarri etortzen zen, eta bera zetorrenean txipiroiak batzen ziren. Horrekin lotutako kanta bat abesten du.

52. Alcalá-Zamora eta Azaña Bermeon (BRM-006/026)

Alcalá-Zamora eta Azaña, Espainiako presidenteak, Bermeora etorri ziren olatu-horma (rompeolasa) ikustera. Abertzaleak mendira igo ziren poltsikoan banderatxoak zituztela; eta gauez, errepublikazaleek parte eman zutenean, gertatutakoa kontatzen du.

53. Errepublikazaleak eta abertzaleak kofradian (BRM-006/027)

Kofradian ere errepublikazaleak eta abertzaleak banandu egin ziren. Eraikin erdian adreiluak jartzen hasi ziren banatzeko, baina alkatearen baimena ez zutenez ezin izan zuten bukatu.

54. Batzokia eta errepublikazaleen lokala (BRM-006/028)

Batzokia Lameran zegoen eta errepublikazaleena ere pixka bat barrurago. Kikunbera etxean militar bat bizi zen.

55. Lutxanara ebakuatuta; bueltan, bermeotar baten salaketa (BRM-006/030)

Abadeek euskaraz ez egiteko agindua izan zuten, beraien gainean bizi zen sasoi hartako abadea, don Juan. Hainbat abade espetxeratuak izan ziren.

Lutxanara joan ziren ebakuatuta Begoña-eta; bueltan Mungiraino joan ziren oinez eta handik Mañu auzora kamioi batean. Mañutik behera zetozela, andre faxista bat aurkitu zuten eta hark salatu egin zituen, bueltatu zirela esanez. 30 ogerlekoko isuna jarri zieten.

56. Aita Soltxaga jeneralaren lagun (BRM-006/032)

Nazionalak sartu zirenean, Bermeoko arotz bakarra bere aita zen; eta Soltxaga jeneralaren lagun egin zen, biak baitziren ehiztariak. Josteko makina kendu ziela esaterakoan, berriro bueltatu zieten, baina gero, atzera ere kendu.

57. Emakume abertzaleak (BRM-006/037)

Bere aitak Erremedio kalean zuen tailerra. Josteko makina kendu zieten gerra sasoian. Batzokia errekisatu egin zuten; eta bertara deitu zuten haren ahizpa. Nazionalek herri bat hartzen zuten bakoitzean, Lamerara joan behar izaten zen garbitasunak egitera. Berarekin batera, berarekin josten ikasten zebiltzanak ere egon ziren.

58. Burdinazko gerrikoa; Matxitxakoko bataila (BRM-006/040)

Burdinazko gerrikoari eta Matxitxakoko batailari buruzko azalpenak ematen ditu. Bizpahiru bermeotar hil ziren Matxitxakon, tartean bere lehengusu bat.

59. Matxitxakokoak (BRM-006/042)

Matxitxakon egon ziren batzuk aipatzen ditu. Asko luzaroan egon ziren kartzelan, heriotza-zigorrarekin; jatekoa-eta eramaten zieten andre batzuek.

60. Atxirikatik ekartzen zuten irina gose denboran (BRM-008/008)

Bera joaten zen irin bila eta amak egiten zituen taloak. Indabak ere ekartzen zituen. Aitonaren baserritik ekartzen zuen jeneroa. Erriberatik gora Almika aldera zeuden errotak. Berak Atxirikatik ekartzen zuen irina. Gero errota guztiak galdu ziren.

61. Lau uniforme ezberdin jantzi zituen soldadutzan (BRM-008/012)

Gerra amaieran mobilizatu zuten baina ez zuen tirorik bota. Valentzian egon zen soldadu hasieran, gero Madrilen. Lau uniforme ezberdin jantzi zituen. Madrilen hobeto Valentzian baino.

62. Andra Marietan aurkitu zuen andregaia (BRM-008/014)

Orain ei daukate gazteak aukera olgatzeko. Orduan ez, goiz-goiz joaten baitziren neskak etxera, eta hor amaitzen zen animazioa. Soldadutzatik etorri eta gero hasi zen neskatan. Andrea Andra Marietan topatu zuen.

63. Urruneko kanpainak txarrak familientzat (BRM-008/021)

Okarantza, Kalabarri, Kalatxiki... kostako kalen izenak. Eguneko arrantza egiten zen antzina. Gero, sei egunerako eta ateratzen hasi ziren atunetara. Eta gero urrutiko kanpainetan hilabete asko. Txarrak ziren hauek, batez ere andreentzat.

64. Antxoa eta atuna inportanteenak Bermeorentzat (BRM-008/022)

Bapore asko egon zen sasoi baten. Antxoak eta atunak inportantzia handia izan zuten Bermeon. Txitxarroak ere bai. Bisigua galdu egin zen; arrasteroen erruz, gehienbat.

65. Katuek "begizune", zorte txarra ekartzen ei zuten (BRM-008/026)

Katuak zorte txarra ematen ei zuten. Ezin ziren ontziratu,"begizune" ekartzen dutela eta. Emakumeak ez ziren ontzietan ibiltzen baina patroi baten hiru alabak lan egin zuten sasoi batean.

66. Erresakak Justoren ontziari hondoa jo eragin (BRM-008/029)

Azaroaren batean, bera ontzian guardian zegoela, erresaka handia sortu zen eta ontziak hondoa jo zuen. Bizirik irten zuen.

67. Dinamitaz eta karramarroaz sarrerako haitzak kentzen (BRM-008/038)

Portu inguruko haitzak kentzeko dinamita erabiltzen zen. Gero karramarroaz (grua berezia) jasotzen zuten harrotutako harria.

68. Arrainak arrantzaleen erruz galdu dira (BRM-008/041)

Lehen arrain gehiago egoten zen, baina ez zen itsasoa errespetatu. Txiki eta handi, denak harrapatzen ziren. Arrasatu egiten zuten itsasoa.

69. Bi fraide eurekin batera ontzian Dakarrera (BRM-008/043)

Baporeak bedeinkatuta egoten ziren. Fraideek izaten ziren gehienetan bedeinkatzaileak. Dakarrera (Senegal) joan zirenean, fraide bi eraman zituzten baporean. Bietako bat legoa zen; beti errezatzen zegoen.

70. Mundakarrak erdararako joera handia (BRM-008/046)

Igartzen dio berbetagatik zein den gernikarra, mundakarra... Mundakarrak erdaraz egiten ei dute ia beti, "nabeganteak" (zama-ontzietako marinelak) izan direlako. Bermeon dena euskaraz egiten zen. Montañesekin-eta (kantabroak) ikasten zuten erdara apur bat. Bada Bermeora ezkondutako montañesik.

71. Aitaren sasoitik beranerako aldaketak (BRM-009/003)

Bere aitaren sasoian egun bat edo bi baino ez zuten egiten itsasoan, eta Asturiastik ikatzarekin ibiltzen ziren baporeak. Beraiek, ostera, luzaroan. Justo hiru bider egon da Dakarren (Senegal). Arrantzarako erabiltzen zituzten aparailuak aipatzen ditu: traina (sarea) eta amuak.

72. Behegainean lotan (BRM-009/004)

Bapore bakoitzean 15 lagun joaten ziren. Behegainean egiten zuten lo, alde batetik bestera balantzaka.

73. Gerra hasi zenean, itsasoan (BRM-009/006)

10 egunez atunetan joanda zeudela, ikatz bila joan behar izan zuten Bilbora; eta Bilbora sartzen ari zirela, milizianoekin egin zuten topo. Orduko kontuak aipatzen ditu.

74. Ezin Bermeotik irten (BRM-009/008)

Bilbora heldu eta gerra hasi zela jakin zutenean, Bermeora etorri ziren. Portuan zain zeudenak arduratuta zeuden, ez baitzekiten ezer haiei buruz. Atzera itsasora ez irteteko agindua izan zuten, baina beraiek lan egin beharra zuten.

75. Beldur handia zegoen Bermeon (BRM-009/009)

Faxistak sartzen hasi zirenean, beldur handia egon zen, mairuak zetozela-eta; etxean egon behar zen, inora joan barik. Donostiatik hasita, kostako herriak hartzen hasi ziren eta beldurra areagotzen zihoan.

76. Bermeotik ebakuatuta (BRM-009/010)

Nazionalak Bermeora sartu zirenean, Bilbora joan ziren ebakuatuta, eta bertako portuan egon ziren pare bat hilabetean. Inguruko mendietan, Solluben-eta, borroka handiak egon ziren. Bilbo hartu zutenean, herrira bueltatzeko esan zieten.

77. 'Cuarta División de Navarra'ko Flandes batailoian (BRM-009/011)

Mairuek mutiko gazteak, La Quinta del Biberón, mendira bidali zituzten, Rikardo bera ere tartean. Bilbotik Gasteizera eraman zituzten tropak osatzeko; handik, hainbat mugatara joan ziren. Bera Cuarta División de Navarrako Flandes batailoian ibili zen.

78. Batailan I (BRM-009/012)

Ebroko eta Aragoiko batailako gertakizunak kontatzen ditu.

79. Batailan II (BRM-009/013)

Ebroko eta Aragoiko batailako gertakizunak kontatzen ditu.

80. Zauritutako laguna (BRM-009/014)

Justo frontera bere lagun batekin batera joan zen, Julianegaz. Hildakoak baino ez ziren ikusten, errepublikanoak zein faxistak berezitu barik. Julian eta bera Sierra de Cabalen galdu ziren; eta, ikusi zuen hurrengoan, ez zuen ezagutu: ohatilan (kamillan) zegoen zaurituta.

81. Bata bestea hiltzen (BRM-009/015)

Borroka gero eta gogorragoa zen. Kataluniatik eta Errusiatik etorritako armamentua zegoen. Batak bestea hiltzen zuen, bestea nor zen jakin barik; ez zegoen beste egitekorik. Bera ere azkenean zauritu egin zuten.

82. Madrilgo frontean I (BRM-009/016)

Frontean zauritu ostean, etxean egon zen bi hilabetez. Kuartelera bueltatu zenean Madrilgo frontera bidali zuten. Bertan ere bermeotarrak aurkitu zituen, lehenago langile-batailoietan preso egondakoak. Francoren aldekoak Madrilera

hurbiltzen ari ziren, fortifikazio onak zituzten bertan. Metrailadoretako batailoi batera destinatu zuten Rikardo, baina ez zuten erasoaldirik izan. Handik abisua etorri zitzaien Madril okupatuko zutela; hori dela-eta, ikaratu egin ziren: errepublikako indarrek armamentu ona zuten Madrilen.

83. Madrilgo frontean II (BRM-009/017)

Aurreko pasartearen jarraipena. Talavera de la Reina (Toledo) herrian eta Tajo errekan gertatutakok kontatzen ditu.

84. Madrilgo frontean III (BRM-009/019)

Aurreko pasartearen jarraipena. Tajo aldetik Ciudad Real aldera joan ziren, eta handik Avilara. Avilan zeudela bukatu zen gerra.

85. Gerra bukatuta, Pininioetara (BRM-009/020)

Espainiako Gerra Zibila amaitu zenean, Alemania eta Frantziaren artean beste gerra bat hasiko zelakoan, eta Frantziak Espainiari eraso egingo ziolakoan, Pirinioetara eraman zituzten.

86. Itsas armadako "Alcala Galiano"n (BRM-009/022)

Francoren indarrek Valentzia eta Cartagena aldea hartu zutenean, itsasgizonak zirenek bertako armadara joan behar zutela esan zioten. Ferrolen itsas armadako "Alcala Galiano" errepublikazaleen itsasontzian sartu zen.

87. Armadako 'Crucero Canarias'en (BRM-009/023)

Justo 25 hilabetez egon zen Espainiako armadako itsasontzi handienean Crucero Canariasen. Marinakoek izaten zituzten eginbeharrak azaltzen ditu. Bermeotar gehienak joaten ziren marinara. Crucero Canariasen 1.200 gizon zeuden.

88. Sollubeko borroka (BRM-009/025)

Bermeon herrian bertan ez zen borrokarik egon. Italiarrak egon ziren Bermeon, eta inguruan gorriak. Solluben egon zen borroka gogorra. Portura kanoikada asko bota zituzten.

89. Ebroko batailan bera bakarrik bizirik bere taldean (BRM-010/001)

Ebroko batailan zazpi laguneko taldetik Rikardo bakarrik geratu zen bizirik. Euskaldunak ziren gehienak. Francoren aldean borrokatu zuen Justok, behartuta.

90. Guardia zibilek tiroz garbitu frontetik ihes egiterakoan (BRM-010/002)

Bere taldeko bermeotar baten kasu tristea. Ebroko Batailan Kepa laguna larritu egin zen eta ihesari eman zion. Atzean zeuden guardia zibilek tiroz garbitu zuten.

91. 180 gazte bermeotar hil ziren gerran (BRM-010/003)

Bermeon 180 gazte inguru hil ziren gerran. Asko boluntarioak, errepublikaren alde borrokatu zutenak.

92. Soldadu italiarraren ogerlekoa amari eroan (BRM-010/006)

Faxistak Bermeon sartuz geroztik 'Euzkadiko diruak' ez zuen ezer balio. Janari eske joan behar izaten zuten baserrietara. Behin, Justori soldadu italiar batek ogerlekoa eman zion dendan esne kondentsatua erosteko. Justok dirua hartu eta amari eraman zion.

93. 112 bermeotar ito 1912ko galarrenan (BRM-010/010)

1912an 112 bermeotar ito ziren galarrena baten eraginez. Banaka batzuk salbatu ziren. Espainiako Erregea etorri zen hiletatara. Orduan 'uriko ume' (hospiziokoak) asko ekarri zen Bermeora.

94. ELAko karneta erre faxistak sartu zirenean (BRM-010/012)

Errepublika denboran sarri izaten ziren mitinak. "Guardia asaltoak" etortzen ziren halakoetan; behin neska bat zauritu zuten tiroz. Manifestazioak ere ugari, sindikatuenak eta, UGTkoak esaterako. Kanpoko jendea gehienbat. CNT ere bazen. ELA ere bai. Justok sindikatu honen karneta zuen 14 urterekin. Faxistak sartu zirenean erre egin zuen. Ez zuen kuotarik pagatzen.

95. 14 urterekin tailerrean lanean (BRM-010/013)

Justo portu ondoko tailer batean ibili zen lanean, 14 urterekin hasita. Astean bi pezeta irabazten zituen. Behin ugazabaren andreak eraman zuen berarekin lanera eta zazpi pezeta ordaindu zizkion.

96. Batzokia eta UGT eta errepublikanoen egoitzak Bermeon (BRM-010/015)

Batzokia zegoen Bermeon. Komunistek edo UGTkoek egoitza izan ei zuten txalet batean, Mundakara bidean. Kikunbera Etxearen jabea Arzadun Jenerala zen. Karlistak baziren baina ez zuten indarrik. Errepublikanoen egoitza Lamerako kafetegi batean zegoen. "Unión de Izquierda Republicana"koak ziren.

97. Domeketan bost xentimoko paga (BRM-010/016)

Ez zen istilurik sortzen errepublikanoekin-eta erlijio kontuengatik. Domeketan bost xentimoko paga izaten zuten.

98. Fraidea idi-zilaz ikasleak jipoitzen (BRM-010/018)

Fraideetan ibili zen Justo eskolan. Fraideak sotanaren kordoiaz jotzen zituen ikasleak. Baserritar batek ekarritako idi-zilaz ere bai, amorru biziz, gainera. Behin sekulako zapindua eman zion ikasle bati idi-zila ezkutatzeagatik.

99. Hermanoetatik Fraideetara pezeta bat merkeago zelako (BRM-010/020)

Santanderren ('Sananderen') bizi izan zen Justo familiarekin. Itzuli zirenean Hermanoetan sartu ziren Justo eta anaia; bost pezeta ordaintzen zuen bakoitzak hilean. Amak atera eta fraideetara eraman zituen han lau pezeta zelako.

100. Alfonso XIII.a ikusten zuen etxe aurretik pasatzen (BRM-010/022)

Alfonso XIII.a Santanderrera joaten zen beraneatzera. Justok beren etxe ondotik pasatzen ikusten zuen zalgurdian. Jaio eta berehala joan zen Santanderrera bizitzera.

101. 13 urterekin eskola utzi, dena ikasita (BRM-010/024)

Eskolan denetik ikasten zuten liburu bakar batetik, entziklopediatik. Aritmetika, Geografia, Gramatika... Dena ikasi zuela, eta bidali egin zuten eskolatik. 13 urterekin tailerrera.

102. Jostailuak eurek egiten zituzten umetan (BRM-010/025)

Eurek egiten zituzten jostailuak: latorri zati batez batela; barrika bati kendutako uztaiaz jolas; 'birinbolie' izenekoa... Eta madariak eta sagarrak osten zituzten. Beste jolas batzuk: neskekin 'bale-baleka', 'txorro-morroka', pilotxuen (txirikilan).

103. Emakumeak goizeko seietan igerira (BRM-010/027)

Paperez eta sokaz egiten zituzten baloiak. Portuan egiten zuten uger. Mahoizko prakekin. Emakumeak kamisoiaz egiten zuten igeri, goizeko seietan Artzara joanda.

104. Bapore baten sugin ('fogonero') soldadutzara joan arte (BRM-011/001)

13 urterekin hasi zen tailerrean lanean. Hiru urte egin zituen. Gero, gerra amaitu zenean, itsasoan hasi zen, sugin ("fogonero"). Edurne zen lehen baporearen izena, eta Jauna emon egizu bigarrenarena. Sua lurrun-ontzietan zaintzea zen suginaren beharra.

105. Bokarta harrapatzen (BRM-011/002)

Bokarta harrapatzen ibiltzen ziren kostatik hurbil, egunez. Gero hasi ziren 'ardoran' arrantzan, gauez. 14-15 lagun ziren, baina txikia zen baporea. Beren 'San Juan de la Cruz' baporearen argazkia.

106. Makinista lehenengo, patroi gero (BRM-011/004)

Soldadutzatik etorri eta makinista azterketa egin zuen ("fogonero habilitado"). Hiru sozioren arten barku berria egin zuten. Hiru urte egin zituen makinista eta gero beste zazpi patroi 'San Juan de la Cruz' baporean.

107. Barku berriari motorra muntatzen Zumaian (BRM-011/005)

Gero barku handiagoa egin zuten Zumaian. Hilabete egin zuen haren gasoliozko motorra muntatzen Unanue tailerrean. Bermeon ere muntatzen ziren motorrak.

108. Bokarta neguan harrapatu zuten urte hura (BRM-011/007)

Sardinetan eta txitxarrotan ibili ziren atunetan baino lehenago. Urtarrilean hasi ziren urte hartan bokarta (antxoa) harrapatzen. Orain udaberrira arte ez

dago bokartarik. Bokarta harrapatzeko trainak erabiltzen zituzten. Gero atunetan 'pikien', ehizan, kanaberaz.

109. Dakarreko ibilera neketsuak (BRM-011/008)

Dakarrera (Senegal) joan ziren 57-58 urtean lehenengo aldiz. Bermeotarrak ia guztiak, baina baziren Lekeitioko eta Elantxobekoak ere. Sei hilabete egin zuten. Lehertuta amaitu zuten; behar asko. Atuna (zimarroia) harrapatu, garbitu, trainak eskegi... Gero Kanarietara eraman behar izaten zuten arraina.

110. Ikerketa espedizioa Dakarretik arrain-lekuen bila (BRM-011/009)

Ikerketa espedizioa antolatu zuten, bost barku hegorantz, Sierra Leonara arte, eta beste bost iparralderantz. Gora zihoazela, barku batek hondoa jo zuen eta hor amaitu zen espedizioa. Gero, hasierako martxari jarraitu zioten.

111. Sei hilabeteko hiru kanpaina Dakarren (BRM-011/010)

Gutunez komunikatzen ziren hemengoekin. Hurrengo urteetan ere joan ziren. Urrian joan eta Gabonak ere han igarotzen zituzten. Udaberrian itzuli eta bokartatan jarduten zuten hemen.

112. Irabaziak zelan banatzen ziren tripulazioaren artean (BRM-011/011)

Lehenengo urtean 23.000 pezeta atera zuen bakoitzak sei hilabete eginda. Irabazien erdia armadorearentzat izaten zen eta beste erdia tripulazioarentzat. Tripulanteak berdin kobratzen zuten. Gero armadoreak plus bat ematen zien makinistari eta patroiari. Patroiari laurena ordaintzen zitzaion.

113. Lo egiteko oso leku txikia barkuan (BRM-011/012)

Patroiak, makinistak eta marinelek osatzen zuten tripulazioa. Hamabost lagunek sotoan egiten zuten lo, oso leku txikian. Komuna non zegoen.

114. Lekeitiarrekin ondo konpontzen ziren, giputzekin eta santadertarrekin txarto (BRM-011/014)

Bermeotarrak ondo konpontzen ziren Lekeitiarrekin. Ez hain ondo ondarroarrekin. Eta gaizki "goiarrekin", giputzekin. Gezurtiak ei ziren. Eta santandertarrekin,'montañesekin', are okerrago. Faltsuak ei ziren.

115. 'Crucero Canarias'en egin zuen soldadutza (BRM-011/016)

Soldadutzako argazkia (1942). Crucero Canariasen egon zen.

116. Neskatilek gizonen erdia kobratzen zuten (BRM-011/017)

50 kiloko sardina otzarak eramaten zituzten andreek buruan baporetik kofradiara. Gero hasi ziren esku-gurdiak. Neskatilek Marea erdi ('marixerdi') kobratzen zuten, arrantzaleen erdia, alegia. Jornalari 'marixie' esaten zioten.

117. Arrain-enkantea zelan egiten zen (BRM-011/018)

Kofradian egiten zen arrain-enkantea. Gizon batek prezioa kantatzen zuen goitik behera eta erosleak botoi bati ematen zion komeni zitzaionean.

118. Ehunka barku deseginda eta hondoratuta Bermeo aurreko itsasoan (BRM-011/019)

136 bapore egon ziren sasoi batean Bermeon. Portua zeharo beteta egoten zen. Legatz-zaleak asko. Eta handiagoak ere baziren. Gero, kentzeko orduan ehunka bapore desegin ziren: motorra eta beste elementu batzuk kendu, itsaso zabalera eraman eta hondoratu egiten zituzten. Ehunka ei daude hondoan. Saldu ere asko egin ziren.

119. Bermeon baxurako arrantza ia bakarrik (BRM-011/020)

Bermeon baxurako ontziak egon dira beti. Sasoi baten arrasteko banaka batzuk ere bai, baina gero Ondarroara joan ziren. Koadroko beren ontziak 24 metro eta 100 zaldi zituen. Hurrengo izan zutenak 200. Biak Zumaian eginikoak.

120. Garbitasun gutxi eta erosotasunik ez ontzian (BRM-011/021)

Brusaz (eskoba latza, zepilloa) garbitzen zen ontzia. Gero ura baldeka bota. Norberaren garbitasuna, berriz, zer zenik ere ez zekiten ia. Arroparik ez zuten aldatzen hogei egunean atunetan zebiltzanean. Arropa eta guzti lo. Ez kamainarik, ez koltxoirik, ez mantarik... Oholaren gainean lo, itsasoko jaka, 'jakenarrue' almohadatzat ipinita. Geroagoko ontzietan bazen erosotasun gehiago.

121. Mahoizko arropak eta txapela, marinelen uniformea (BRM-011/022)

Jende guztiak mahoizko arropak janzten zituen. 'Jakenarrue' eta 'jake lodixe' negurako. Eskularrurik ez zen orduan. Gizon guztiak urdin jantzita eta txapelaz.

122. Itsaso txarra zegoenean denak farolari begira irten ala ez jakiteko (BRM-011/023)

Eguraldi txarra bazen ez ziren irteten. Eta itsasoan harrapatuz gero, portura laster "arribadan". Lau "seiñeru" egoten ziren eguraldiari begira; talai-zainarekin harremanetan egoten ziren eta eurek erabakitzen zuten itsasorako girorik zegoen ala ez. Farol berdea pizten pizten bazen irten zitekeen, eta gorriaz berriz ez.

123. Haizeen izenak (BRM-011/025)

Ekialdeko haizeari 'iparra', kanpoko haizeari 'norta', sartaldekoari 'mendebala', hegoaldekoari 'herriko haizie'. Orduan ez zegoen irratirik eguraldiaren berri izateko. Norberak igarri behar.

124. Iretargiaz ez da ardora ikusten (BRM-011/026)

Iretargi betea dagoenean ezin da bokartatara joan. Ilun egon behar du, 'ardora', zuritasuna ateratzen duelako. Iretargiaz ez da ardora ikusten.

125. Marea jaisten zenean ezin itsasora irten (BRM-011/027)

Marea jaisten zenean Bermeoko portua lehortu egiten zen eta itsasora ezin irten. Bapore guztiak hondoa jota geratzen ziren.

126. Txoriak eta izurdeak arrantzaleen lagun onenak (BRM-011/028)

Itsas txoriak seinalatzen dute non dabilen antxoa. Izurdeek azaleratzen dute, txoriek aprobetxatzen dute azaleko arrainak jateko, eta arrantzaleek txoriak ikusita jakiten dute non dabilen arraina.

127. Izurdeei jarraika ontzi guztiak (BRM-011/030)

Izurde asko zen lehen. Ontziak haiei jarraika ibiltzen ziren egun guztia, jakinda antxoa bilatuko zutela. "Manjungie" esaten zaio izurdeak arraina azalera ateratzeari.

128. Bokarta 'argira' edo 'ardorean' harrapatzen zuten gauez (BRM-011/033)

Antzina karburuzko kandilak erabiltzen ziren argi egiteko. Kandelak ere bai. Geroago, dinamoaz elikatutako bonbillaz. Gerora, 'hondoko bonbillak' sortu ziren bokarta harrapatzeko. "Bokarta atrapau dogu argire" esaten zen, edota argi barik bazen, "ardorien'.

129. Patroi bakoitzak bere "zimarroikerixek" (BRM-011/034)

Patroi bakoitzak bere sekretuak edukitzen zituen, "zimarroikerixek".

130. Bedeinkazioak eta ur bedeinkatua zorte ona izateko (BRM-011/035)

Barrezka dio santuren bat izaten zutela barkuan. Beren baporea egiterakoan, gilan domina batzuk ezarri ei zizkioten. Ur bedeinkatua ere izaten ei zuten ekaitza zenerako. Barku berriak beti bedeinkatzen ziren.

131. Arazoak izen euskaldunak ipintzeko (BRM-014/002)

Seme-alabei izen euskaldunak ipintzeko arazoak izan zituzten parrokoarekin. Senarrak esan zion ez zuela bataiatuko izen euskalduna ipintzen uzten ez bazion. Nereari "Maria Nerea" jarri behar izan zioten azzkenan. Eta hori ez zen pertsona izenekin gertatzen bakarrik. Bizkarra abizena, esaterako, Vizcarra idazten zuten. Euskaltzale gehienak gerra denboran erbesteratu edo hil egin zirelako gertatzen zen hori.

132. Alazne "Asno" guardia zibilaren emaztearentzat (BRM-014/004)

Bermeon amarekin kalean zebilela, guardia zibil baten andreak zera esan zion amari: Porqué le llama a su hija 'Asno'?" Amak erantzun Alazne deitzen ziola. Nolanahi ere, uniformearen atzetik denetariko jendea egoten da. Alaznek, umetan, aurre egin zien udaletxekoei izena dela eta. Asko irentsi beharra egokitu zaie alor horretan.

133. Durangoko Kurutziaga Ikastolaren hasierak (BRM-014/007)

Hizkuntza bat ez da galtzen erabiltzen bada. Kezka horrekin, seme-alabak etxe batean biltzen hasi ziren irakasle bat hartuta. Handik gutxira, Norbaitek lokal bat utzi zuen Kurutziaga kalean, eta berehala hasi ziren umeak apuntatzen. Txiki biak eraman zituzten eurak. Hamazazpi ume ziren denera.

134. Arazoak komunioa euskaraz egiteko (BRM-014/008)

Andra Mari parrokian erdara hutsez egiten zen jaunartzea. Jesuitetara jo zuten eta han onartu zuten euskaraz egitea. Hamazazpi ziren ikastolatik zetozenak. Gurasoak trebatu zituzten kristau ikasbidea emateko.

135. Juan XXIII.aren jarraitzailea (BRM-014/009)

Jesusen mezuarekin maiteminduta geratu zen katekista lanetan hasi zenean. Juan XXIII.aren jarraitzailea da, ez dator bat oraingo Vatikanoarekin. Juan XXIII.a izan zen lehen aita santua presoak bisitatzera joan zena.

136. Eztabaidak katekisten artean euskara dela eta (BRM-014/010)

Katekista erdalzaleak ere baziren, eta euskarari bidea ireki zitzaionean eztabaida sutsuak izaten zituzten eurekin. Horien berri ematen du. Zenbaiti min ematen zion meza euskaraz entzuteak.

137. Ikastola Kurutziagatik txalet batera (BRM-014/011)

Kurutziagatik txalet bater joan zen ikastola, orain dagoen lekura. Kreditua eskatu behar izaten zuten errenta ordaintzeko. Gero handik irten zen Ibaizabal Ikastetxea, lanbide-heziketa, batxilerra eta abar ematen zituena.

138. Bermeon guardia zibilak integratuta (BRM-014/015)

Batzokiaren aurrean zegoen kuartela Bermeon. Karlistarik ez zegoen ia gerra aurrean. Guardia zibilak herrian integratuta zeuden.

139. Karabineroak eta haiei ateratako kantuak (BRM-014/016)

Karabineroak ere bazeuden Bermeon, itsasoko mugimendua kontrolatzea zen haien eginkizuna. Haiei buruzko kantuak ere baziren: "Charito, no le eche su caca... Zuri nok esaetsu hori...".

140. Zinean "españoladak" nagusi (BRM-014/021)

Zinean Imperio Argentina, Miguel Ligeroeta horrelakoak ziren artista famatuak; "españoladak" ikusten ziren batik bat.

141. "Itsasotik datozenian" eta "Amilibia Amilibia" kantak (BRM-014/024)

"Itsasotik datozenian arrain barik etzera" eta "Amilibia Amilibia" kantak.

142. "Ai Patxikotxuena" eta "Amak atakotsuela" kantak (BRM-014/026)

"Ai Patxikotxuena" eta "Amak atakotsuela" kantak. Edozer kantatzen zen, bakoitzak zekiena. Jende alaia da bermeotarra.

143. Gora Euskadi "katuta" (BRM-014/028)

Gabonetan etxean kantatu egiten zen, eta "Gora Euskadi askatuta!" oihu egin ere bai. Behin guardia zibil batek kargu hartu zien esanez "Gora Euskadi" esan zezaketela, baina "katuta" ez.

144. "Errosatxu" kanta (BRM-014/030)

"Errosatxu, agiñik ez eta txurruak nundik jangozuz..." kanta.

145. 300 bezero inguru; erroten gainbehera (BRM-015/003)

300 bezero inguru izaten zituzten errotan, auzo ezberdinetakoak hurbiltzen ziren. Bakio, Busturia eta Mundakatik ere hurbiltzen ziren. Errotarriak "frantses harria" ziren, harri zuria. Gari errotak gutxitzen joan ziren arto errotak ugarituz.

146. Zelan landu behar da artoa? (BRM-015/004)

Taloa egiteko, irina fin-fin eho behar da. Artoa zelan landu behar den azaltzen du. Ihartutako artoa izan behar da. Irina kaxetan gorde behar da, gaztaina egurrezko kaxetan. Gipuzkoarrek ezberdin lantzen dutela dio, ez dute ihartzen. Ameriketan ere hamaika talo egindakoa da, semea han izan baitzuen 20 urtean pilotari. Azoketan ere ibili izan da taloak egiten.

147. Urak indarra behar du (BRM-015/005)

Errotak errekako uraren indarraz jartzen ziren martxan, elektrizitate barik. Sikatea egonez gero arazoak izaten zituzten. Elektrizitatea erabiltzea garestia zela dio, ez zuen ekonomikoki merezi. Bizkaiko irina garestiagoa zen hobea, finagoa, zelako.

148. Mundakan burdin usaindun irina (BRM-015/006)

Mundakan gerra ostean ez zen ogirik egon eta mundakarrak artoa jaten hasi ziren, baina ez zuten labe handirik baserri gehienetan egoten ziren moduan. Hori dela-eta, sukaldeko labean igartzen zuten eta arto hark burdina usaina zuen. Euren bezeroei irin ona ematen zieten txarraren truke, txarra pentsutarako erabiltzen zuten.

149. Dungulua (morokila) (BRM-015/007)

Bermeon "dungulue" esaten zaio morokilari. Zer den eta zelan egiten den azaltzen du.

150. Gerraostean ogi txarra (BRM-015/027)

Gerraostean, ogia luxuzko artikulua zen. Ganora gabeko ogia zegoen, txarra. Orokorrean, jateko sasoi txarra zen, jendea libretarekin ibiltzen zen. Beraiek beraien bezeroei baino ez zieten ematen errazionamendua.

151. Artoaren atalak: "garafie", artobizarrak, txokorra... (BRM-015/031)

Artoaren azalari "garafie" deitzen diote. Arrantzarako erabiltzen zuten askotan, amuan jartzeko. Koltxoiak egiteko ere asko erabiltzen zen "garafie". Artobizarrak erretzeko eta infusioetarako egiten zuten eta txokorrak sua pizteko.

152. Esnea saltzen etxerik etxe (BRM-017/002)

Almiketxu gaur egun jatetxea izan arren, lehen baserritik bizi ziren. Jantokia dagoen tokian, korta zuten eta esne-behiak zituzten. Bermeoko kaleetan etxerik etxe aritzen ziren banaketak, bezero finkoak zituzten. Gero plazara joan eta barazkiak saltzen zituzten. Astoz egiten zuten joan-etorria. Udan

guardasola erabiltzen zuten azala ez belzteko, ez ei zen polita-eta. Esnea kuartiluka (litro erdi) neurtzen zuten. Hiru-lau tarrin-esne eroaten zituzten saltzeko.

153. Portaleko eskolara (BRM-017/007)

Almikan bertan zuten eskola; hala ere, Bermeoko Portaleko eskolara joan beharra izan zuten auzokoa zarratu zutenean. Portaleko eskolan doña Justiniana izan zuen maistra. Euskaraz zein erdaraz egiten zuten.

154. Josten eta bordatzen (BRM-017/009)

Arratsaldetan eskolan josten eta bordatzen ikasten zuten. Eskolan aparte ere bazegoen josten ikasteko aukera eta bertara ere joaten zen.

155. Botikan neskame (BRM-017/010)

Fonsea botikakoen etxean neskame aritu zen gaztetan. Ezagunak ziren lehendik esnea saltzen baitzieten. Botika gainean bizi ziren. Goizeko bederatzietan zabaldu behar izaten zuen botika, nahiz eta ez jakin errezetak-eta ematen. Gero etxeko beharrak egitera joaten zen. Irabazitakoa beretzat izaten zen, ez zuen etxean entregatu beharrik izan.

156. Almiketxu erretegiaren hasierak (BRM-017/015)

Baserriko behiak kendu ostean, erretegia eta taberna zabaldu zuten bertan. Maiatzean, Ama Birjina dela-eta, eskola umeak bertara joateko ohitura dago. Hasieran, oraindik behiak zituztela, eskolatik etortzen ziren umeentzako gozokiak saltzen zituzten eta gurasoentzako kafea. Ardorik ez zuela emango esan arren, azkenean taberna jarri zuten.

157. Domeketako dantzaldiak (BRM-017/019)

"Agarrauen" dantza egitea erdi bekatu ei zen; hala ere, egiten zuten. Domeketan Bermeoko zinemara eta dantzaldietara joaten ziren. Neguan Goiko Plazan egiten zen dantzaldia eta udan Lameran. Dena bukatzen zenean, mutil-lagunak lagunduta bueltatzen ziren etxera; berari lagundu eta Artikara joaten zen bere senarra izango zena.

158. Pentsamendu txarrak izanez gero, konfesatzera (BRM-017/021)

Neskak dantzan zeudela hurreratzen ziren mutilak beraiengana dantzan egiteko eskatzen. Gustukoa ez baldin bazen ezezkoa ematen zien. Bi edo hiru orduko dantzaldiak izaten ziren. Pentsamendu txarrak izanez gero, konfesatu beharra izaten zuten. Almika auzoko elizan bi konfesategi zeuden eta ilara luzeak egoten ziren.

159. Misioak eta jaunartzeak (BRM-017/026)

Misioetan zabaltzen ziren baloreak zeintzuk ziren azaltzen du. Jaunartzeak urte behin-edo egiten ziren, ume guztiek batera. Hiru auzotako umeak joaten ziren bertara dotrina ikastera eta lehen jaunartzea egitera.

160. Ezkontzako arropa eta ezkon-bidaia (BRM-017/030)

Ezkontza Almikan bertan ospatu zuten. Teodora oso argala zen eta sasoi hartan oso txarto ikusita zegoen. Ezkontzako arropa lodiagoaren itxura emateko moduan josi zioten. Etxean bertan egin zuten eguerdia (Bazkaria).

Bere arreba bikotxa Guadarraman zegoenez moja, Madrilera joan ziren ezkon-bidaian. Ez zuten bidaia luzerik egin.

161. Lehengo hiletak (BRM-017/033)

Baten bat hiltzen zenean, etxean bertan izaten zuten gorpua gauean gaubeila egiteko. Auzokoak batzen ziren arrosarioa errezatzeko. Hurrengo egunean, meza ostean, kanposantura joaten ziren. Almikan bertan dute kanposantua.

162. Sepulturen ohitura (BRM-017/034)

Familia bakoitzak bere sepultura izaten zuen elizan. Sepulturan zer egiten zuten azaltzen du pasarte honetan. Domeketan sepulturara joaten derrigorrezkoa zen. Ohitura hori desagertuta dago.

163. Andrak eta gizonek desberdin konfesatzen zuten (BRM-017/036)

Almikan konfesategi bi eta kapera bat izaten zuten. Konfesatzerakoan, andrazkoak konfesategiko alderdi batean egoten ziren eta gizonezkoak bestean.

164. 'Via Crucis' (BRM-017/038)

Pazko egunez ereinotzekin soloak-eta bedeinkatzeko ohitura. Elizan 'Via Crucis'a ere egiten zen

165. Argindarra eta ura betidanik ezagutu du (BRM-017/043)

Arropa eskuz garbitu behar izaten zuten. Etxean bazuten ura eta bestela etxe behean dagoen garbitokira joaten ziren. 'Txinbo' xaboia erabiltzen zuten. Argia ere beti ezagutu du etxean, eliza ondoan dutenez horretarako aukera izan zuten.

166. Ardi-tratulari (BRM-018/002)

Ardi-tratulari bezala ibili da urte askoan; Zegama aldean ardi asko saldu ditu. Dirua egiten zuten, inguruko ardiak tratulari bakar batzuek eramaten zituzten-eta. Juan Agirre tratulari zornotzarrarekin aritu izan da asko. Bere ama ere ardi-zain ibilitakoa zen.

167. Ameriketan artzain (BRM-018/003)

Umetan hasi zen aititarekin batera artzain lanetan. Ameriketara joan zen artzain eta 4 urtez egon zen Boisen, mendian. Handik arrebari bidaltzen zion dirua, diru asko irabazten zuen-eta. Berarekin artzain egondako beste artzain batzuen arrebarekin ezkondu zen.

168. Boiseko bizimodua (BRM-018/005)

Boisen bera kanperoarekin egoten zen. Berak, artzaina zenez, ardien kargua zuen eta kanperoak jatekoa prestatu, karrokanpoa antolatu... Ugazaba suitzarra izan zen, oso ondo konpontzen zen berarekin bere lana ondo egiten zuen-eta. Kanpero barik zegoenean, txakurrekin ere berba egiten zuen bakardadeak jota. Boisen zegoela, ez zen ezertarako herrira bajatzen, urtean 15 eguneko baimena izaten zuten, baina herrian diru asko gastatzen zen. Mendiko goiko partean kanpin-dendetan egoten ziren eta behealdean karrokanpoan. Boisen berarekin kanpero egon zena gernikarra zen, Faustino Olea.

169. Bildotsen jaiotzak; ilea mozten (BRM-018/009)

Bildotsen jaiotzak azaltzen ditu. Ameriketara joan zenean bere ardiak lehengusuari saldu zizkion. Beraiek ez zieten ilerik mozten ardiei, gringoak eta mexikarrak joaten ziren horretara; makinekin egiten zuten prozesu guztia. San Jose inguruan ebakitzen zitzaien ilea.

170. Boiseko mendietako jatekoak (BRM-018/010)

Egunean hiru bider jaten zuen okela, eta lodituta bueltatu zen etxera. Arraina ere ugari jaten zuten, errekan arrantzatzen zituzten-eta. Erriflearekin oiloak harrapatzen zituzten. Kontuz ehizatu behar ziren oiloak, basozainak zeudelako. Aulestiar bati 50 dolarreko isuna jarri zioten.

171. Mendietako ur eta arrain garbiak (BRM-018/011)

Boiseko mendietako ura oso garbia zen, garden-gardena; arrainak ere horregatik ziren onak. Behin ugazabak berarentzako arrainak harrapatzeko esan zien eta basozainak aurkitu zituzten haren etxerako bidean.

172. Mendiko denda, sukaldea... (BRM-018/012)

Boiseko mendietan artzain-lanetan zebilenean nolako sukaldea izaten zuten azaltzen du. Beraiek batzen zuten egurra eta erraz pizten zuten sua erretxinarekin. Haizea egon arren, kanpin-dendan ez zegoen arriskurik. Nahiz eta asko ibili, loditu egin zen.

173. Soldata urtean behin (BRM-018/015)

Boisen artzain zegoela urtean behin jasotzen zuten jornala. 14 ogerlekoan egon zen dolarra orduan; beraz, diru-aldaketan asko irabazten zen. Hilabetean 250 dolar kobratzen zuen.

174. Gutunak Boisetik Mañura (BRM-018/017)

Boisen artzain zegoela, eskutitzak idazten zizkien etxekoei. Aita eskoladuna zen eta bazekien irakurtzen eta idazten; amak, ostera, ez. Gaztelaniaz gutxi zekiela dio.

175. Landak alokatu (BRM-018/019)

Bildotsak bizirik saltzen zituzten, balio gehiago zuten. Landa asko errentan izan dituzte artzainek, lehen ere horrela egiten zen eta orain ere horrela egiten du Bitoriok.

176. Gazta egiteko prozesua (BRM-018/020)

Esnea eta gazta saldu izan ditu urte askoan. Gazta egiteko prozesua eta bere sekretuak azaltzen ditu. Lehen ez zuten hozkailurik.

177. Gazta egiteko moldeak eta prentsak (BRM-018/021)

Esnea garbitu egin behar izaten da gazta egiteko, trapu batzuk erabiltzen dira iragazteko. Trapu barrukoa plastikozko molde borobil batzuetan jartzen zen prentsan ipintzeko. Gazta egin eta bi hilabete eta erdira saldu daiteke. Ur beroarekin kentzen zaio lohia gaztari.

178. Esne eta gazta salmenta (BRM-018/026)

Gaztarekin eta esnearekin diru asko irabazi daiteke, baina gaztarekin kontuz ibili behar izaten da alperrik galdu daitekeelako eta diru-galerak izan. Esnea zentralera eramaten zuen saltzera. Bakio aldeko landak hobeak dira barrualdekoak baino.

179. Ardien gaixotasunak (BRM-018/028)

Ardiek gaixo asko izaten dituzte: birikietakoa, gibelekoa, herrena, hazteria (sarna)... Hazteria kentzeko botikaz beteriko bainera baten sartu behar da ardia buru eta guzti. "Mamitis": bildotsa jaiotzerakoan otzikara batekin errapea usteltzea. "Untze erraiñe": esnea urtzea.

180. Ardia arkara (BRM-018/030)

Ahariak ardiari egun edo egun eta erdi lehenago igartzen dio arkara dagoela. Adardunek adarrarekin erasotzeko joera izaten dute. Andra Mari bueltan izaten da arkara egoteko sasoirik ohikoena; hala ere, urte osoan zehar jaiotzen dira bildotsak. Bildotsa jaio aurretik, ardia bost hilabetez egoten da ernari. Denbora txarrak eta ilargiak zerikusia izaten du jaiotzan.

181. Mañu, artzaintzarako leku egokia (BRM-018/032)

Mañu aldean lehen artzain asko zeuden ardi asko zeudelako. Arrieta, Gamiz eta Jatabe aldean asko egoten ziren sail handiak daude eta.

182. Ganadu eta esne ugari (BRM-018/035)

Lehen Mañuko etxe denetan zegoen ganadua. Tratulariak etxerik etxe ibiltzen ziren txahal bila; gaur egun, aldiz, zaila da bakar bat saltzea. Bitoriok ez du behirik orain. Berak esne-behiak izan ditu beti; egunero eramaten zuten esnea Bermeora.

183. Idi-uztarriak (BRM-018/038)

Idi-uztarri bakarra zuten lanerako. Azpigarria Sollubetik ekartzen zuten. Asko aldatu dira baserriko lanak. Uztarriak gipuzkoarrek egiten zituzten; San Pelaion ere bazegoen uztergile bat. Gehienetan pagoarekin egiten zen buztarria, baina urkia ere erabiltzen zen batzuetan.

184. Neba-arrebak: hirukiak eta esku-bonbak hildakoa (BRM-018/040)

Gerra hasi zenean, 8 urte zituen. Aititarekin ardiak zaintzen ibiltzen zen. Bera baino zaharragoa zen anaia gerraostean hil zen, esku-bonba bat lehertuta. Beste hiru, hirukiak, jaio eta lasterrera hil ziren.

185. Gerratea Mañun; milizianoak (BRM-018/041)

Mañutik Gernikako bonbardaketako eta Sollubeko aireplanoak oso ondo ikusi zituzten. Gerra hasieran, lehenengo aitona-amonen etxean egon ziren, baina gero osaba baten etxera joan ziren; gerratea bukatzerakoan bueltatu ziren etxera. Etxe guztietan egon ziren milizianoak jateko eske.

186. 63 urtez sakristau (BRM-020/001)

Juan etxean bertan jaio zen, Irazabaletan, "Jose handidxene" edo "Sakristauena" izenez ezaguna denean. Etxe horretakoa izan da beti Mañu auzoko sakristaua. Juan 63 urtez ibili da monagilo zein sakristau, bi urte eta erdirekin hasi zen monagilo lanetan. Bere etxean epistola latinez abesten zuten, bere aitak bere kontura ikasitakoa zekien latinez.

187. Sakristau-lanak (BRM-020/002)

Sakristauaren beharrak zeintzuk diren aipatzen du: kanpaiak jo, eliza garbitu... San Juan inguruan soloak-eta bedeinkatzen zituzten eta etxeri etxe ibiltzen zen abadeari laguntzen. Kanpaia egunean hiru bider jo behar zen eta zapatuetan 4 bider.

188. Kanpaia eta txilina (BRM-020/003)

Kanpaiak goitik zein behetik jotzen dira Mañun. Domeketan meza sarreran txilina jotzen zen eta horretarako gora joan behar zen. Hiru kanpai daude Mañuko elizan; horietako bat hil-kanpaia zen.

189. Hil-kanpaiak (BRM-020/004)

Hil-kanpaia norbait hil zela jakin eta segituan jotzen zen eta eguneko kanpai guztiak hil-kanpaiak izaten ziren. Lehen hileta-elizkizunak goizez izaten ziren eta gorpua kanposantura eramaten zen elizara baino lehenago. Emakumezkoen hil-kanpaiak hiru tokadadunak ziren, gizonezkoarenak laukoak eta umearenak txilina.

190. Hiletetako otorduak; ondrak (BRM-020/005)

Ume hiltzen zenean hilkutxa zuria izaten zen eta lau andarik eramaten zuten. Hiletetan andariei hamaiketakoa ematen zitzaien elizpean eta kanpotik etorritako senitartekoentzako bazkaria tabernan. Ondrak bederatziurrenak dira, hil eta hurrengo bederatzi egunetan egiten zena.

191. Mañuko kanposantua, eliza... eraiki zutenekoa (BRM-020/006)

Mañu lehen San Pelaioko parrokiaren barruaren zegoen, baina gerora Almikekoak izan ziren. Azkenik Mañun egin zuten eskola, eliza (hasieran ermita), abade-etxea eta kanposantua. Bitorioren hiru neba-arreba, hirukiak, izan ziren bertan lurperatutako lehenengoak. Idi-gurdiekin ekarri zituzten harriak.

192. Soloak, kortak... bedeinkatu (BRM-020/008)

Soloak, ortuak, kortak eta ganaduak baserri guztietan bedeinkatzen ziren. Isipuarekin ur bedeinkatua botatzen zen. San Juan egunez leizarra balkoian edo leihoan ipintzen da eta maiatz pazkoan kendu. Erramu egunean, ereinotza bedeinkatu eta soloetan jartzen da.

193. "Abadientzako eskaridxe" edo "sakristauena" (BRM-020/009)

Sakristauaren lana abadeari laguntzea, kanpaiak jotzea eta eliza garbitzea zen. Horrek truke zelemina hartzen zuen, etxe bakoitzak bi-lau kilo arto ematen zizkion sakristauari, abadeari garia ematen zitzaion. Abadeak beraien etxean jaten zuenez, beraiek, sakristauen etxekoak, hartzen zuten. "Abadientzako eskaridxe" edo "sakristauena" deitzen zitzaion bilketa horri. Gerora, etxe bakoitzeko 20 ogerleko ematea erabaki zen. Gaur egun etxeko 1.000 pezeta ematen dira (6€).

194. Gizonezko sakristaua (BRM-020/011)

Mañuko sakristaua beti gizonezkoa izan da beraiek dakitela.

195. Bedeinkapenak isipuarekin (BRM-020/012)

Ganadua isipuarekin bedeinkatzen zuten. Isipua zelakoa den azaltzen du.

196. Suteetako kanpaiak (BRM-020/013)

Nonbait sua egonez gero, kanpaiak jotzen ziren. Karmenetan ere, jaietan, kanpai denak jo behar izaten dira. Suteetan, kanpaiak entzun eta denak elkartzen ziren laguntzeko.

197. Aseguruak eta diru-batzeak (BRM-020/014)

Baserriek ez zuten gaur egungo asegururik. Sozietate bat izaten zuten suteetako kalteak babesteko. Etxerik etxe diru-batzea egiten zen etxea erre ostean.

198. Elbira Zipitria Mañun dago lurperatuta (BRM-020/016)

Elbira Zipitria andereñoa eta ikastolen sortzailea eta sustatzailea Mañun bertan dago lurperatuta. Hil aurretik eskatu omen zuen hiltzerakoan bertan lurperatzeko.

199. 'Batxiller', arrantzale familia (BRM-023/003)

Aita Bermeoko arrantzalea zuen, Bizente Batxiller. Bere aitonarengadik datorkio Batxiller ezizena. Berari ere jende nagusiak Batxiller deitzen zion. Aita San Miguel auzoko baserritarra zen. Neba-arreba guztiek izan dute itsas munduarekin lotura, baina bera saregin bakarra.

200. Eskola nazionaletan (BRM-023/004)

Eskola nazionaletan ibili zen umetan. Bere neba-arrebak, ostera, mojetara eta "Hermano"etara joan ziren, baina berari Gerra Zibilak harrapatu zionez, bera publikora. Gurasoek ikasketak izatea nahi zuten; hala ere, nahikoa ikasi zuenean, 13 urterekin saregin hasi zen. Etxean amarekin matematika-ariketak arrainaren prezioa kalkulatzen egiten zituzten. 37 urterekin berriro joan zen gau-eskolara.

201. 1947. urtean 118 saregin (BRM-023/007)

Mari saregin lanetan hasi zenean, 1947. urtean, 118 saregin inguru zeuden bost taldetan banatuta. Hasiera batean ez zen lan profesional bezala hartzen, baina gerora hasi ziren gizarte segurantzan kotizatzen.

202. Kotizazio kontuak (BRM-023/008)

Hasiera batean ez zuten gizarte segurantzan kotizatzen. Gerora montepíon sartu ziren eta 1943. urtean kofradiatik igualatorioan sartu ziren ziren, baina 18 urterekin kendu egiten zieten igualatoriokoa. 1958. urte inguruan hasi ziren gizarte segurantzan; gizonei lehenago heldu zitzaien. Kofradiak ordaintzen zuen zati bat. 1962. urtean greba bat izan zuten ez zirelako akordio batera heldu.

203. 137 enbarkazio (BRM-023/010)

Greba eginez gero Bermeo hondoratu egingo zen. 137 bapore egon ziren gehienez, horietako bi banderarena eta farolena: motor txikienak eta baporeenak. Marea bajatzerakoan, Artzakoak irten zitezkeen itsasora, baina portukoak ez, eta señeroak egoten ziren hori kontrolatzen. Motor txikiak, ostera, ehundaka egon ziren.

204. Armandoreen soziedadea eta kofradia (BRM-023/011)

Saregin bakoitzak bezero kopuru zehatz bat zuen: 20, 30, 40... bapore. Baina denak batera armadoreen soziedadean batzen ziren; ermandadean ordaintzen zuten gizarte segurantzan barik. Beste zentrala kofradia zen, han tostartekoak eta armadoreak batzen ziren. Bertako antolaketa zelan egiten zen azaltzen du.

205. Sareginen soldata (BRM-023/012)

Sareginen soldata. Bera lanean hasi zenean neskatila bezala 1947. urtean, 2.5 pezeta irabazten zuen egunean saregin bezala. Ezkondu zenean, 7 ogerleko irabazten zituen eguneko "uzandra" izanda; sareginak, aldiz, 5 ogerleko irabazten zituen. Hasieran apuntatu egin behar izaten zuten egindako lana gero eskatzeko. Azkenerako, astean-astean kobratzen zuen. Marik "uzandra" bezala berak eraman behar izaten zituen bere taldeko sareginen kontuak.

206. Harrapatutako arrainaren araberako soldata (BRM-023/013)

Arrantzaleen soldata harrapatutako arrainaren araberako zen, egin behar denean egin behar da lan. Edozein egunetan egin behar izaten da lan. Sekula ezin izan da herrian bezala lan egin itsasoan.

207. Ahal den arinen itsasora irten beharra (BRM-023/015)

Portutik noiz irten garrantzitsua da. Berandu baldin bazoaz, eguna argitzeko, egun osoa galdu duzu eta ezin duzu arrantzarik egin. Ez zegoenez soldata finko bat, irabazitakoaren portzentaia irabazten zenez, lan asko egiten zen. Lo eta jan ahal zenean egiten zen. Goizaldean lanera joan beharra egoten baldin bazen ere, berdin-berdin joaten ziren.

208. Hari-fabrikak (BRM-023/018)

Hari-fabrikak Bermeon egon ziren. Azken sareetan erabilitako nylona Tailandiatik ekartzen zen.

209. Hari-lodierak (BRM-023/019)

Hariek lodiera mota askokoak egoten ziren. Egin beharreko lanaren arabera mota desberdina erabiltzen zen. Bere egindako lehenengo sareek 80 kilo berun izan zuten. Mari lanera beti joan da pozik eta gustura.

210. Sarearen mailak eta zakuak (BRM-023/020)

Sare-mota bakarra zegoen, baina arrain txikiagoak hartzeko sarearen maila desberdina izaten zen. Txitxarroa eta berdela harrapatzeko zakua aldatu egin behar izaten zitzaion. Sareko arrainak hartzeko salabardoa eta mediomundoa erabiltzen zuten.

211. Kotoizko hari-motak; orratz-motak (BRM-023/022)

Erabiltzen zituzten kotoizko hari-motak aipatzen ditu: konposturakoa, pegatzekoa, sendagarria, armatekoa. Lau-bost orratz klase desberdin ibiltzen zituzten. Hariak berdeak eta marroiak izaten ziren; berdea, antza, gutxiago ikusten da itsasoan. Bermeoko Garzia fabrikako haria zen onena.

212. Sare motzari lazo zuria (BRM-023/023)

Ondo josteko ez omen dago sekreturik, lana gustuz egitea baino ez da kontua. Beharrera ez da joan behar bakarrik dirua irabazteko asmoz. Txarto edo motz egindako lanari lazo zuri bat jartzen zaio hurrengotan jakiteko zein den eta polito jartzeko. Ugazaba-andreak, "uzandrak", errepasatu behar izaten zuen gainerakoen lana.

213. Sare-konpontzaileen arropak (BRM-023/024)

Normalen sare-konpontzaileak moilan egoten ziren, baina neguan kofradia zaharrean egoten ziren. Antzina mantoiarekin egoten ziren ipurdi azpian ezer ez zutela. Amantala derrigorrezko jantzia da; garrantzizkoa da arropa egokiak izatea. Udan ortozik edo txapinekin egoten ziren; bestela zapatilak zituzten.

214. Ama guardien arropak garbitzera behartuta (BRM-025/006)

Bere aitak Burgosen egin zuen soldadutza; eta, gerora, ezkondu ostean, urte asko egin zituen etxetik kanpo: soldadu, gerran, lanean... Bitartean, bere ama guardien arropak garbitzera eta janaria prestatzera behartu zuten.

215. Amama kartzelan; emakumezkoen zigorrak (BRM-025/007)

Bere amama Larrinagan (Bilbo) izan zuten preso. Santa Eufemiako sakristauaren bitartez handik ateratzeko laguntza lortu zuten, baina gerora ere bizi gogorra izan zuen. Kanoiekin Bermeoko ur-depositua lehertu zituzten eta emakumezkoak joan ziren Lanerako kakak batzen, bere amama tartean.

216. "Urkulue", "sardangue", "entxaltxie", "tiborta", "zingelekue" (BRM-025/012)

Itsasoan erabiltzen diren Bermeoko hainbat berba aipatu eta eta euren esanahia azaltzen du: "urkulue", "sardangue", "entxaltxie", "tiborta", "zingelekue".

217. "Plamie", "krispidu", "tertzie" (BRM-025/013)

Itsason erabiltzen diren Bermeoko berbak aipatu eta eta euren esanahia azaltzen du: "plamie", "krispidu", "tertzie".

218. "kintzela", "sagan", "sardie", "saltsaidxue", "potrokilluek", "pipetoia" (BRM-025/014)

Itsason erabiltzen diren Bermeoko berbak aipatu eta eta euren esanahia azaltzen du: "kintzela", "sagan", "sardie", "saltsaidxue", "potrokilluek", "pipetoia".

219. "Itsosotie", "isillekue", "frakarroiek", "etxegune", "etxada" (BRM-025/018)

Itsasoan erabiltzen diren Bermeoko hainbat berba aipatu eta eta euren esanahia azaltzen du: "kaela", "itsosotie", "isillekue", "frakarroiek", "etxegune", "etxada".

220. "Errebatigue", "entzaduek", "enbaja", "eskeitze", "dindilizke", "partilletxie", "baldie" (BRM-025/019)

Itsasoan erabiltzen diren Bermeoko hainbat berba aipatu eta eta euren esanahia azaltzen du: "errebatigue", "entzaduek", "enbaja", "eskeitze", "dindilizke", "partilletxie", "baldie".

221. "Baidekue", "maribera", "marigora", "aupe", "hatsittu" (BRM-025/020)

Itsasoan erabiltzen diren Bermeoko hainbat berba aipatu eta eta euren esanahia azaltzen du: "baidekue", "maribera", "marigora", "aupe", "hatsittu".

222. "Arraina bezatu" (BRM-025/023)

Itsasoan erabiltzen diren Bermeoko hainbat berba aipatu eta eta euren esanahia azaltzen du: "arraina bezatu".

223. "Baidxe", "miekie", "indxadie", "atesa soka", "astilleidxe", "ankillie", "aldadie egin" (BRM-025/025)

Itsasoan erabiltzen diren Bermeoko hainbat berba aipatu eta eta euren esanahia azaltzen du: "baidxe", "miekie", "indxadie", "atesa soka", "astilleidxe", "ankillie", "aldadie egin".

224. "Haize afrontue", "abantxien" (BRM-025/026)

Itsasoan erabiltzen diren Bermeoko hainbat berba aipatu eta eta euren esanahia azaltzen du: "haize afrontue", "abantxien".

225. "Trisie", "indxadie", "sakatza" (BRM-025/028)

Itsasoan erabiltzen diren Bermeoko hainbat berba aipatu eta eta euren esanahia azaltzen du: "trisie", "indxadie", "sakatza".

226. 'Aisena', 'kontraisue', 'trakerue', 'bitsezgaltzien', 'bragerue' (BRM-026/001)

Lexikoa: 'aisena', barkuen aparkalekua; 'kontraisue' legatzaren paparra; 'trakerue', aparailuak barkutik uretara botatzeko tresna; 'bitsezgaltzien': kaitik uretara saltoka gelditu barik, jolasean; 'bragerue', sareareari lotzen zaion sokarik lodiena.

227. 'Saidxie', 'bragerak', 'korostokola', 'traola', 'artza', 'alasan' (BRM-026/002)

'Saidxie', barkuaren behe partea, "cala"; 'bragerak', kubiertako armazoien arteko espazioa; 'korostokola', ura atxikatzeko balio duen ohola; 'traola', aparailua batzeko ohola; 'soidxie', aparejua labaintzekoa gastatu ez dadin; 'artza', amua lotzeko modua; 'alasan', norberarentzako arrainak harrapatzeko aparailuekin arrantzan.

228. 'Txintxola', 'amuskixe', 'laskie', 'baltzue', 'mansdungie', 'driben' (BRM-026/003)

'Txintxola', berunean aparejua lotzeko forma klase bat; 'amuskixe', amuan jartzen den karnata; 'laskie', soka punta bi elkarri lotzeko forma; 'baltzue', bapore talde edo multzo bat; 'mandsungie', izurdeek antxoa aurkitu eta kanpora ateratzen dutenean sortzen den anabasa; 'driben' 'dribe-sariek'; antzina gauez luzetara botatzen ziren sareak; arrainak burua kateatuta geratzen ziren sarean, eta gero kaian egiten zen "despeska".

229. 'Pikien', 'ollague', 'gallie', 'trenpak', 'sorkidxe' (BRM-026/004)

'Pikien', haztegiko karnataz ehizan atunak harrapatzen; 'ollague', aparejuaren lotzen den begia edo lekua; 'gallie', amuak arrainak ez ihes egiteko duen kakotxoa; 'trenpak', sareak uretatik jasotzeko sokak; 'amure emon', amore eman; 'sorkidxe', andrazkoek buruan erabiltzen zuten bigungarria pisua erabiltzeko.

230. 'Zierbanue', 'trinketa', 'antzireko bez', 'tronkala', 'kriela', 'enserie", 'sendagarridxe', 'subille', 'arille', 'sokalie' (BRM-026/005)

'Zierbanue', aurreko bela haundi bat; 'trinketa', beste bela bat; 'antzireko bez', inportantziarik eman ez zerbaiti; 'tronkala', denon jabetzakoa, komuna; 'kriela', tretzari karnata ipintzen laguntzeko ohola; 'enserie", sareginek erabiltzen duten josteko forma; 'sendagarridxe', kortxotik beherako maila lodia; 'subille', soka mota bat; 'arille', "ovillo"; 'sokalie', soka mota bat.

231. 'Amudie', 'loidxie', 'bisandie', 'sergerie', 'uetena' (BRM-026/006)

'Amudie', ehizan atunetan egiteko amuari eransten zaion apaingarria; 'loidxie', lonja; 'bisandie', legatz emea; 'sergerie', atunak saltoka dabiltzanean sortzen den anabasa; 'uetena', erreka amaieratan sortzen diren korronteak edo zurrunbiloak.

232. Bermeo Bilbo eta Getaria baino lehenagokoa ei da (BRM-026/008)

Bermeo da Bizkaiko herririk zaharrena, Bilbo bainozaharragoa. Orain Getaria famatzen da asko baina Bermeoren historiak ez du Getariaren inbidiarik.

233. Atuna kontserban ipintzeko formulak Bermeon eta Getarian (BRM-026/009)

Atuna poteratzeko formula Getarian: gordinik sartzen da potetan. Berari ez zaio modu hori gustatzen. Bermeokoa zein den azaltzen du.

234. 'Aizerrikue', hegoaldeko haizea (BRM-026/011)

Mendebala, ipar-mendebaldetik datorrena da; hego-mendebaldetik datorrena, hegoaldeko haizea, 'aizerrikue'; 'surosteko aizie', haize gogorra. Denborale gogorrenak ipar-mendebaldeko haizearekin izaten dira; Matxitxako aldetik jotzen du.

235. Ilargiaren argitan egondako arrainak kalte egin (BRM-026/013)

Bera arrantzan hasi zenean ez zen gauez irteten iretargia bazegoen, ez zelako ardorarik, arrainaren zuritasunik ikusten. Behin, Afrikako uretan zebiltzala, ilargi betearen agerian egondako arraina jateagatik marinel guztiak gaixotu ziren.

236. Antxoaren arrautzak: 'arbixe' (BRM-026/015)

Antxoak maiatzean botatzen du arrautza, 'arbixe'. Sei milioi botatzen ei ditu bakoitzak, eta horietatik sei bakarrik gelditzen dira bizirik. 'Arbixe' Norvegiatik ekarri ohi zieten, harekin mazamorrie' egin eta itsasora botatzen zuten karnata gisa, eta 'ugerie' egiten zen("estela de grasa"). Sardina etortzen da hura jatera.

237. Arrantzara irten zen lehen egunean zorabiatu. (BRM-026/016)

Mutikotan arrain-fabrikan ibili zen. Itsasora bisigutara irten zen lehenengo egunetan zorabiatu egiten zen. Gero antxoatan, atunetan eta abar ibili da.

238. Dakarreko lana oso gogorra (BRM-026/017)

Donibane Lohizunen egin zituen hiru urte barkuetan lanean. 23 urtez joan da Afrikara arrantzara. 1957an hasi ziren bermeotarrak Dakarrera (Senegal) joaten. Oso behar gogorra zen. Sareak egunero jarri behar ziren lehortzen. Ez zen bera joan lehen urte haietan.

239. Donibane Lohizunen lan-baldintza hobeak (BRM-026/018)

Hogeita bat urterekin Donibane Lohizunera joan zen lanera. Askoz ere baldintza hobeagoetan egiten zen lan. Hemengo arrantzaleak profesionalagoak eta kementsuagoak ei ziren. Hangoak lasaiagoak.

240. Arrantzale guztiek berdin kobratzen zuten (BRM-026/019)

13 urterako arrantzaren inguruko lan asko eta asko zekien: aparejuak prestatzen, karnata ipintzen, fabrikakoak... Sartu berriei, 'mutilei', marea erdi ematen zieten, soldata erdi. Gero osoa. Berak hasieratik jaso zuen osoa. Denek berdin kobratzen zuten.

241. Patroiak edo armadoreak mila eginkizun portuan ere (BRM-026/020)

'Arrain partie' jasotzen zuen arrantzale bakoitzak. 500 kilo harrapatzen bazituzten, bost arrantzalearentzat. Gehiegi irizten dio, batez ere gutxi harrapatzen zutenean. Patroiak zeregin ugari izaten zuen portura helduta gero ere: barkua lotu, garbitu, itsasorako berriz prestatu...

242. Barkuz beteta Bermeoko portua (BRM-026/021)

1960ko hamarkadan 130 legatz-barku egon ziren Bermeon, eta handiagoak beste 110. Ez ziren portuan kabitzen. Hainbat bermeotar instalatu zen bere barkuarekin eta familiarekin beste leku askotan: Aviles, Algeciras, Santander, Castro... Ondarroan ere bai.

243. Harreman ona leku ezberdinetako marinelen artean (BRM-026/022)

Ondarroarrekin harreman handia izan du. Bere denboran ez da egon pike edo ikusiezin handirik ondarroarrekin. Noiz edo noiz bakarrik, politika kontuengatik edo itsasoko gorabeherengatik. Baina normalean harreman ona egoten zen leku ezberdinetako marinelen arten.

244. Itsasoan trabatuta zegoen barku asturiarra Bermeora ekarri (BRM-026/023)

Marinelek asko laguntzen zioten elkarri. Behin barku asturiar bat aurkitu zuten itsasoan geldi, sareak helizean trabatuta. Bermeora ekarri zuten erremolkatuta; gainera soberan zuten arraina oparitu zieten. Betiko lagun egin ziren.

245. Armadore gehienak patroiak dira, arrantzaleak (BRM-026/025)

Orain ere armadore gehienak patroiak dira. Itsasoko jendea dira, marinelak.

246. Antxoa oso inportantea Bermeorentzat (BRM-026/026)

Antxoa oso inportantea izan da Bermeorentzat. Antxoa hurrean harrapatzen da. Egunero itzultzen da portura. Atunetan, berriz, urrun joan behar da, eta gastuak ere handiagoak izaten dira.

247. Bermeok egoera berriei aurre hartzen jakin du (BRM-026/027)

Zoro fama du Bermeok, baina oso jende argia dago hemen. Bermeon ontzi txikien aldeko apustua egin da, eta errentagarriak gertatu dira. Getarian, berriz, barku handiak egin dituzte antxoatarako, eta gero antxoarik ez... Porrot egin du zenbaitek.

248. Berdelari ere mugak jarri dizkiote zorionez (BRM-026/029)

Berdelari ere muga jarri diote, bestela agortu egingo dutelako. Giputzek sarez harrapatzen dute. Ondo irizten dio mugak jartzeari, bestela prezioak behea jotzen duelako.

249. Kutsadurak kalte handia egiten dio itsasoari (BRM-026/030)

65 edo 66an ez zen antxoarik egon. Baina hurrengo urtean bai. Azkenengo urteetan antxoa gutxi egon da, eta jendeak susmoa du kutsaduragatik dela. Prestige-k ere ez dio batere mesederik egin. Eta etxeko detergenteak eta abar ere kaltegarriak dira.

250. Ekologistaren jardun zentzugabeari erantzuten (BRM-026/031)

Ekologista bati entzun zion Euskal Telebistan esaten ez dela utzi behar arrantzan hamabi milaren barruan. Baina arraina, karnatarakoa batez ere, kostan dago. Nora joango dira ba arrantzaleak?

251. Hondoratutako "Motxo" ontziaren kasua (BRM-026/032)

Zumaiako kostan urperatu zen Motxo ontziaren kasua. Antonek garbi du ez zebilela arrantzan sareak botata, zer zegoen ikusten baizik. 'Bragerue' bilduta agertzen du argazkietan, sareak bota barik zituen seinale. Gehiegi hurbildu zen kostara eta olatuek galdu zuten.

252. Bermeoko arrantzaleen asegurua (BRM-026/033)

Kofradiak egiten ditu aseguruak. Sei tasatzaile daude herrian. Herriko aseguruak zelan funtzionatzen duen azaltzen du.

253. Barkuko karguak (BRM-026/037)

Baxurako ontzietan hamabost gizon ibili ohi dira. Patroia eta sotapatroia goian; makinista eta engrasadorea behean. Horietaz gain, sukaldaria eta mutila... Gero badira gauza ezberdinez arduratzen direnak. "Txo" mutilari esaten zaio.

254. Bermeon andrazkorik ez barkuan baina Armintzan bai (BRM-026/039)

Bermeon ez du ezagutu andrazkorik barkuan lanean, baina Armintzan bai.

255. "Txuriko"ren kantuaz, arrain batekin urperatu zen txakurraren historia (BRM-026/042)

Artola aita-semeen "Txuriko" abestiaz gogoratzen da. Hor agertzen den historia benetakoa dela dio.

256. Patxi 'Pitxarra' (BRM-029/001)

Pitxarra ezizena bere amamarengandik datorkio. Ezizenaren nondik norakoak azaltzen ditu.

257. Soldadutza Bermeon bertan (BRM-029/005)

12 urtegaz hasi zen itsasoan lanean. Bere aita armagina zen eta Ondarroan hasi zen 16 urtegaz arrastreko ontzian. Soldadutzan Marinan egon zen, Ferrolen hasi eta Bermeon bukatuz. Soldadutzan Bermeon zegoen bitartean, itsasora joaten zen diru apur bat irabazteko.

258. Zazpi urtegaz batelean laguntzen (BRM-029/007)

Zazpi urterekin batelean hasi zen anaiei laguntzen. Etxerik etxe joaten zen gizonak abisatzera. 12 urtegaz hasi zen gero lanean itsasoan. 14 urte behar ziren joateko, baina hala ere, joan zen.

259. Baimena lortzearekin batera itsasora (BRM-029/008)

Itsasorako baimena lortu zuenean, Etxe-bazter enpresarekin joan zen itsasora. Orduan sortu zioten banketxeko libreta. Anaiak soldadutzara joan zirenean, Ondarroara joan zen arrastrera soldadutzara joan arte.

260. Koipeztatzaile ta makinista (BRM-029/009)

Soldadutza bukatu ostean koipeztatzaile moduan hasi zen beharrean. Gerora, erretiratu arte, makinista bezala aritu zen.

261. Eskolara barik elizara lotan (BRM-029/011)

Eskolara gutxi joandakoa da. Eskolara joan beharrean elizara joaten ziren lotan. Behin harrapatu egin zituzten. 12 urtegaz hasi zen lanean; gerora damutu egin zen.

262. Etxerik etxe itsasorako deika (BRM-029/012)

Mutil moduan hasi zenean beharrean, etxerik etxe joan zen itsasora lanera joan behar zirenak abisatzera. Telefonoa jarri zenean, etxetik bertatik deitzen hasi zen.

263. Mutil arrastrean (BRM-029/013)

Ondarroako arrastrean hasi zeneko egunerokoa azaltzen du. Mutil moduan guardiak egin behar izan zituen eta nahiago zuen urrunera joatea egunak kanpoan pasatzeko eta lo egin ahal izateko.

264. Istripu larria: uretara erori eta justuan salbatu zuten (BRM-029/018)

Atun sasoia maiatzaren hasieran hasten da gaur egun; lehen, ostera, uztailean hasten zen. 1965. urteko San Fermin egun batean, itsaso txarra zegoela, uretara erori zen. Ez zegoela konturatu zirenean, nahiko larri atera zuten uretatik. Beste istripu bat ere izan zuen gerora.

265. Makinistaren beharra (BRM-029/019)

Makinistaren beharra zein den azaltzen du. Makinistek besteek baino gehiago kobratzen dute.

266. "Arrain zantar"en banaketa (BRM-029/022)

Bisigutan ibiltzen zirenena, "arrain zantarrak" agertzen ziren, aparteko arrainak. Horien banaketa egiten zuten. Itsasoan bizi izandako anekdota batzuk kontatzen ditu.

267. Bisigutarako 30 brazako tertzak (BRM-029/023)

Bisigua detektatzeko ez zuten ezer izaten, ez txoririk ezta makinarik ere. Tertza bakoitzak 60 braza zituen eta 30-60 tertza botatzen zituzten. Ezer harrapatzen ez zutenean, "aparirik be ez" esaten zuten.

268. Karnatan prestatzen (BRM-029/024)

Atunaren kanpaina urrian bukatzen zen eta antxoa txikiarekin hasten ziren karnata egiteko. Karnata gatzetan izaten zuten. Tinek 80 kilo inguru zuten.

269. Bisigutan baita Gabonetan ere (BRM-029/025)

Bisigutan azaroan hasten ziren, hotzetan. Hainbat urtetan, 1952. urtera arte, Gabonetan ere joaten ziren.

270. Andra Marietan eta Santa Eufemitan jai (BRM-029/026)

Bermeoko jaietan, Andra Marietan, etxera etortzen ziren arrantzaleak. Hiru-lau egun etxean egin ostean, Santa Eufemia egunerako bueltatzen ziren berriro ere.

271. Gurasoak "neba-arrebak" ziren (BRM-031/003)

Bere gurasoak etxe berekoak ziren, bere aitaren gurasoek bere ama uritik ekarri zuten, adoptatu. Neba-arreba moduan hazitakoak ziren, beraz.

272. "Astilleros Arkotxa" (BRM-031/007)

Soldadutzatik bueltatu zenean, aitaren tailer berrian, "Astilleros Arkotxa"n, hasi zen lanean. Artzan izan zuten ontziola.

273. 15 urterekin gerrara (BRM-031/008)

16 urte bete orduko, San Andres batailoira joan zen boteak eta trintxerak egitera eta sukaldari lanetan aritzera.

274. 16 urterekin preso (BRM-031/009)

Bere kuadrillakoak ebakuatuta joan ziren Frantziarantz; baina bera etxean gelditu zen, hagina kenduta minez zegoelako. Elantxobera heldu orduko, harrapatu eta preso hartu zituzten. Galdeketan Jesusen izena aipatu zuten, eta bera ere atxilotu egin zuten 16 urte bete zituen egun berean. Sei urteko kartzela-zigorra ezarri zioten, baina hiru hilabeteko kondena baino ez zuen bete Bilboko komandantzian. Hiru solairutan banatuta egon zen komandantzia.

275. Aita Ameriketara eta ama inude (BRM-031/011)

Ontzioletan krisia egon zen sasoian, bere aita Ameriketara joan zen lanean. Jesusek sei urte zituen eta bere ama inude joan zenez, Bermeoko familia desberdinekin bizi zen. Familia batekin oso txarto egon zen, beste batean, ostera, gustura.

276. Etxe batean eta bestea bizitzen, aita eta ama etxera itzuli arte (BRM-031/012)

Mutikoa zelarik astora igo eta erori egin zen. Dena markatuta geratu zen. Osabarekin izandako gorabeherak. Bere buruaz beste egin zuen bera zegoen etxeko batek eta beste etxe batera aldatu zen bizitzera, Ormazatarrenera. Halako batean, aita itzuli zen Ameriketatik eta ama Bilbotik inudetzatik, eta harrezkero ondo bizi izan ziren herrian. Eskolara hasi zen joaten, Hermanoetara hasieran.

277. Ama umezurtzaren istorioa (BRM-031/015)

Ama urikoa zuen. Kontatzen zuenez, jo zitzaizkionean bila umezurztegira, "aldeanie" ikusi zuenean, ihes egin zuela. Baina amamari neskatila hura gustatu, eta ekarri zuen Bermeora.

278. Txerriak hazten gose denboran (BRM-031/018)

Gerra etorri zen arren, ez zuten goserik pasatu. Soroa zuten, eta gainera txerriak ere hazten zituzten. Egurra ere saltzen zuten kalean. Aita arotza zen.

279. Urre zuriak eta urre gorriak bakarrik balio zuten (BRM-031/019)

Gerra denboran, "nazionalak" sartuta gero, diruarekin izandako arazoak. "Euzkadiko diruak" ez zuen jada balio, "urre zurixak" (zilarrezko txanpona) eta "urre gorrixak" (urrezko txanponak) bakarrik.

280. Bilbora zalgurdian sorgin baten kontsultara (BRM-031/020)

Juanita txikia zela, Bermeon uholdeak izan ziren egunean, erori eta mokorra hautsi zuen. Gerra denbora zen. Bilbora eraman zuten "landoian" (zalgurdian) Solluben zehar. San Frantzisko kaleko igarle-sorgin batengana eraman zuten.

281. Babeslekuetara lasterka sirenak entzutean (BRM-031/022)

Bilbon amarekin zegoela (gerra denbora zen), sirena jotzen hasi eta jende guztia "alaurike" eta lasterka joan zen babeslekuetara. Barruan jende guztia errezatzen. Handik irten, Atxuriko geltokira joan eta trenez itzuli ziren Bermeora. Bazuten dirua, gerrara joan aurretik aitak txanponez betetako kafetera bat utzi zielako.

282. Bermeon uholde izugarriak gerrarekin batera (BRM-031/024)

1937ko maiatzaren 2an, uholde izugarriak izan ziren Bermeon. Frontearen lehen lerroan zegoen herria, Solluben "gorriak" eta herrian frankistak baitzeuden. Babestera zetozen soldadu italiar eta alemanak hartu behar izan zituzten etxean. "Politikako liburuak" ezkutuan gordetzen izandako komeriak.

283. Esku-bonba lehertuta, umeak zauritu (BRM-031/025)

Jolasean zebiltzala, esku-bonba bat aurkitu, lehertu eta bi ume zauritu ziren. Juanitak mokorra hautsita zuen sasoi hartan. Ilea moztu zion herriko ume atzeratu bati.

284. Adurixe kalea, kale polita (BRM-031/028)

Bermeon jaio ziren Juanita eta Antoni Adurixe kalean. Oso kale polita ei zen. Garbitoki ederra zegoen. Gogoan du Juanitak nola etortzen ziren soldadu italiarrak mandoekin. Frantziskotarren ortuak zeuden ondoan eta hango madariak jan ohi zituzten. Zoriontsuak izan ziren umetan.

285. Bakailao-olioaz eta taloaz neska ederrak hazi ziren (BRM-031/030)

Indaba gorria azaz eta urdaiaz izaten zen eguneroko jatordua. Jesusek dio bere amaren Muruetako baserrian txerrikia ez zela sekula falta. Bermeora etortzen ziren saltzera. Txerriki ugari jandakoa de Jesus bere gazte denboran. Gogoan dute amak nola ematen zien "Aceite de hígado de bacala0". Indabak eta taloa ere sarri jaten zuten. Neska ederrak hasi ziren; beren ahizpak, ostera, ez, "mikoak" zirelako.

286. Kalean olgetan (BRM-031/032)

Kalean asko jolasten zuten: "pilotxoka" (txirikilan. Nola jokatzen den kontatzen du), tronpaka, konboka, "txikotagaz karneka" (sokasaltoan), andaka (txorromorroka), "tabaka" (tortoloska). Harakinak ematen zizkieten tortolosak. Nola jokatzen zen. Kromoka. Diaboloaz ere bai. Aita teilatuak konpontzen ibiltzen zen eta han topatzen zituen diaboloak. Gomazko astunak hobeak ziren geroko plastikozkoak baino.

287. "Al cocherito leré" kanta (BRM-031/034)

"Al cocherito leré" kanta. Sokasaltoan egiterakoan kantatzen zuten. Mojetan ibili ziren eskolan eta euskara debekatuta zeukaten. Euskara eta erdara, biak ikasi zituzten ondo.

288. Goserik ez baina gaztarorik ere ez (BRM-031/035)

Gerra denboran ez zuten goserik pasatu, baina gaztarorik ere ez zuten izan, soloan eta tailerrean jardun behar izaten zutelako beharrean. Bitartean, beren lagunak jolasean kalean. Patata eman izan zieten kaleko familia behartsu bati. Amak labesua egin zain egoten ziren. Meloiak ere hartzen zituzten baratzean.

289. Herrikoagaz ezkondu behar ei da (BRM-031/037)

Aita eta ama ondo-ondokoak ziren. Abadeak esaten zuena: herrikoagaz ezkondu behar da, eta teilapekoa bada, hobeto.

290. "Fémina", barikuetako zinea (BRM-031/038)

Aitaren tailerrean ere lan asko egiten zuten Antonik eta Juanitak. Barikuetan zinea jarri zuten pezeta batean, "Fémina" esaten zitzaion. Eurak beti joaten ziren baina lagunak ez, ez zutelako izaten dirurik.

291. Mojei kalabazak eramaten (BRM-031/040)

Mojek etxeko ortutik kalabazak ekartzeko esaten zioten Juanitari. Eramaten zizkien; baina jende guztiaren aurrean eskerrak ematen zizkioten, eta lotsa-lotsa eginda geratzen zen.

292. Gizartean aldaketa handiak (BRM-033/003)

Hainbat kontu aldatu dira herrian. Lehen zaharrenek umeekin beste hartu-eman izaten zuten. Kalen neska-lagunari musua ematea ere galarazita zegoen. Denda domekaz zabalduz gero ere isuna jartzen zuten.

293. Komulgatzeko konfesatu beharra (BRM-033/004)

Pazko egunez behartuta konfesatu behar izaten ziren. Konfesatzerakoan txantela edo txanala ematen zieten komulgatu ahal izateko. Elizaren barruan jende txarra ere egon da, dirua ordaindu beharra tarteko.

294. Garizuma, bijilia eta prozesioak (BRM-033/005)

Garizuma garaiko bijilian dirua ordainduz gero okela jatea posible zen. Zinea ere ez zen egoten. Prozesio egunetan Espainiako banderak jarri behar izan zituzten leihoetan. Prozesioaren ibilbidea azaltzen dute.

295. Abadea palio azpian (BRM-033/007)

Gorpuzti egunez palioaren azpian joaten ziren abadeak.

296. Komitera eta jantoki sozialera jatera (BRM-033/009)

Jesus umea zela komitean ez zioten jatekoa ematen ez zekiela bakarrik jaten, nahiz eta neba-arrebak izan laguntzeko. Gerraostean Jesus komitera joaten zen jaten. Gerora falangeak izan zuen jantoki soziala gaur egun batzokia dagoen toki berean. Gosea ezagutu zuten, baina arraina beti izan zuten.

297. Baporeak bedeinkatu eta Gaztelugatxera (BRM-033/011)

Baporeak beti bedeinkatu izan dira. San Juan belarragaz bedeinkatzen zen. Abadeak bedeinkatu ostean familiakoak Gaztelugatxera joaten ziren bertan hiru buelta emanez. Gurutzea ere beti izaten zuten.

298. Neskatilak Gaztelugatxera eta Natxitura (BRM-033/012)

Neskatilak Gaztelugatxera joaten ziren bapore bedeinkatzerakoan eta baita atun-kanpaina hasterakoan ere. Natxituko (Ea) Socorroko ermitara ere joaten ziren.

299. Karnatarako eskapularioa (BRM-033/013)

Baporeetan eskapularioak jartzeko ohitura zuten zorte ona izateko.

300. Sorginkerien eragina (BRM-033/016)

Zaharragoei entzundako sorginkeria kontuak direla-eta, behin zer edo zer ikusi zuela pentsatu zuen. Laster konturatu zen zerk sortua zen ikusitakoa.

301. Sineskeren indarra eta eragina (BRM-033/017)

Antzina hainbat eta hainbat sineskera izaten ziren. Adibidez, itsasoan zeudela ezin zuten abadea aipatu ere egin.

302. Andre bihurtu zen txakurraren ipuina (BRM-033/018)

Itsasgizon batek behin txakur bat jo zuen ahausika egon zelako. Itsasotik bueltan andre bat izan zen txakur hori.

303. Jendea beldurtzeko bihurrikeriak (BRM-033/019)

Etxeetako atarietan aldaba egoten zen atea jotzeko eta umetan gau askotan jotzen zuten. Soloetan kalabazak ostu, hustu eta zuloak egiten zizkieten barruan kandela bat harriz; ostean, kolarretan ipintzen zituzten. Sasoi hartan kanposantu aurretik ez ziren ibili ere egiten gauez.

304. Izaroko komentua erre zutenekoa (BRM-033/021)

Piraten inguruko ipuin bat kontatzen du Izaroko komentua erre zutenekoa.

305. Serafin itsua eta Emilia Tremes (BRM-033/022)

Bermeoko andre bat, Emilia Tremes, oso indartsua zela dio Jesusek, 8 arro (ehun kilo) buruan eramaten zituena. Serafin itsua itsasora joaten zen eta ez zuen lanerako trabarik izan itsua izan arren.

306. Txibiaren zatiak (BRM-033/023)

Txibiak 4-5 zati ditu eta bakoitzak bere izenak ditu. Arrantza mota bakoitzerakoa atal bat erabiltzen zuten. Arrantza-munduko hainbat berba darabiltza pasarte guztian zehar.

307. Legatzaren atalak (BRM-033/024)

Legatzaren atalak zeintzuk diren azaltzen du eta horiek zertarako erabiltzen zituzten. Arrantza-munduko hainbat berba darabiltza pasarte guztian zehar.

308. Txibi arrak eta emeak (BRM-033/026)

"Arkibie" eta "biberue" azaltzen ditu. Txibiak harrapatzeko zer egiten zuten: emeak eta arrak. Arrantza horretan bizitakoak eta izandako arazoak azaltzen ditu. Karnatarako hobea zen arra.

309. Legatz emea eta arra (BRM-033/029)

Bakailaoa delakoan askotan "brixandie" jartzen dute salgai, baina beraiek, arrantzaleek, azkar igartzen dute iruzurra. Legatz emea eta arra zertan desberdintzen den.

310. Aingira autoktonoak eta pasokoak (BRM-033/030)

Jose Antonek kontatzen du biologo bati entzun diola 4 kilotik gora bereizten dela atunaren sexua, ordura arte ezetz. Aingira autoktonoak eta pasokoak daude, zertan desberdintzen diren azaltzen du Jesusek. Txibiek urtebeteko bizia dute.

311. 16 urtegaz gerrara borrokan (BRM-038/002)

16 urtegaz joan zen gerrara. Hori ez zen oso ohikoa, ez baitzegokion adinez. Bera ontziola bateko semea zen eta beste batzuei laguntzen joan zen arotz lanak egitera; hortik, laguntzera joan eta militarizatu ostean, borrokan bukatu zuen.

312. Markina eta Otxandioko fronteetan (BRM-038/003)

16 urte zituela, gerra garaian, arotz lanetan ontzi batzuk egiten laguntzen joan eta gero Balmasedako kuartelean bukatu zuen. Handik Markinara joan ziren. Faxistak Kalamua mendian zeuden eta handik "gaileta" eman ziotela dio eta ez zutela zer eginik. Azkenean, Otxandiora joan ziren. Otxandion ere eraso handiak ezagutu zituen.

313. Emaztearen senideak frontearen beste aldean (BRM-038/004)

Bere emazteak familia du Logroñon. Behin, Gerra Zibilari buruz berbetan, bertako senide batzuk Otxandioko frontean ere egon zirela jakin zuen; haiek, ordea, faxisten aldean egon ziren. Otxandioko frontean gauean izaten ziren eraso handienak. Txahal bat balkoia batean eskegita ikusi zuen eta bere emaztearen senideek, beste aldetik zebiltzanak, ere ikusi zuten.

314. Otxandiotik Bermeora Bilbo aldera joateko ebakuatuta (BRM-038/005)

Gerran Otxandioko borroka bizi ostean, etxera bueltatu zen. Jesusek ez zuen gerra aritzeko adinik eta ezin izan zuten derrigortu. Bermeora etorri eta

ebakuazioa etorri zen. Bilbora aldera joan ziren orduan babes bila aitagaz batera. Ama eta bi arrebak etxean geratu ziren. Portugaletera heldu ziren itsasontzi batean eta ontzian bertan gelditzeko esan zien arrantzale bezala.

315. Itsasoan ebakuatuta jasandako erasoak (BRM-038/006)

Gerra Zibilean aitagaz batera joan zen ebakuatuta ontzi batean. Arrantzale bezala egoteko esan zien, baina Jesusek ez zuen horretarako baimenik eta Bilboko komandantziara joan zen paperak egitera. Bertan ere bonben erasoak izan zituzten eta ontzia metrailaz beteta izan zuten. Orduan bizi izandakoak kontatzen ditu. Azkenean Santanderrera joan behar izan zuten.

316. Armirante Cerverarekin topatu eta etxera bueltatu behar (BRM-038/007)

Gerra Zibilean batetik bestera ebakuatuta ibili ostean, Santander aldera joan ziren. Bertan arrantzatzen zebiltzala, Espainiako armadako gerraontzia zen Almirante Cerverarekin topatu ziren. Bermeora joateko agindu zien eta ez zuten beste erremediorik izan. Bermeon karabineroek erregistratu egin zieten, baina ez zieten ezer topatu ordurako itsasora bota baitzituzten ezkutatu beharrekoak (ikurrina...).

317. 16. urtebetetzean kartzelara (BRM-038/008)

Bere lagun batzuk itsasontzi baten ezkutatuta Frantziara joan ziren gerra garaian. Bermeoko komandantzian parte eman eta beste ontzi bat beraien atzetik joan zen. Baina harrapatu orduko Elantxoben bajatu ziren bere lagunak. Hala ere, laster harrapatu zituzten. Jesusen etxera ere joan zen Guardia Zibila bere bila. Atxilotu, hamar egun Bermeon pasa eta kartzelara eroan zuten 16 urte bete zituen egun berean. Bermeoko kartzelan non zegoen azaltzen du. Hamalau bat lagun atxilotu zituzten.

318. Gerra-kontseiluak epaitua (BRM-038/009)

16 urte bete zituen egunean kartzelara sartu zuten beste 14 lagungaz batera. Bera eskolapioen kartzelara eroan zuten. Gerra-kontseiluak epaitu zutenean egindako galderak eta bertako azalpenak aipatzen ditu. Sei urte eta egun bateko zigorra ezarri arren, hiru hilabeteren ostean aske utzi eta etxera bueltatu zen.

319. Kartzelako egoera (BRM-038/010)

Kartzelan igarotako denboraldia ez ei zen oso gogorra izan, nahiz eta hango jateko ez izan etxekoarekin konparagarria.

320. Kartzelatik kanposantura (BRM-038/012)

Kartzelan zegoela, Derioko kanposantura eroan eta hildakoak bazirela entzuten zuten.

321. Trintxerak zelan egin (BRM-038/014)

Gerran trintxerak egiten ibili ziren, baina bera sukaldeaz arduratzen zen. Trintxerak zelan egiten zituzten azaltzen du. Zapadoreen San Andres batailoian ibili zen.

322. Kartzelan bisita gutxi (BRM-038/016)

Kartzelan zegoela bisita gutxi izan zituen. Behin soldadu zegoen lagun bat joan zitzaion bisitan. Kartak, ostera, bai jasotzen zituzten; aita arduratzen zen idazteaz. Kartzelak hiru solairu zituen, zigorraren arabera sailkatuta. Bermeotar asko batu ziren bertan.

323. Familiako ontziolaren hasiera (BRM-038/021)

Bere aita ontziola bateko jabea izan zen beste batzuekin batera. Hasieran bost bazkide izan ziren eta gero banandu eta bakoitzak bere bidea egin zuen. Bere aitak bere tailerra zabaldu zuen. Elkarrizketa garaian oraindik martxan zegoen beraien ontziola, Jesus erretiratzerakoan saldu egin zuten-eta. Hasierako urteetako lana azaltzen du pasarte honetan, bera soldadutzan egon zeneko garaikoa.

324. Moila zela-eta, ontziola bota eta berria egin behar (BRM-038/022)

Beraien ontziola ondoan moila egiten hasi zirenean, ontziola txarto zegoela esan eta eraikuntza dena bota beharra izan zuten. diru asko gastatu behar izan zuten.

325. Ontziola eskuz aldatzeko baimenak (BRM-038/024)

Aitaren ontziola bere izenean jartzeko, baimen berezi bat eskatu behar izan zuen gobernuan. Orduan ontziolari izen aldatu zioten: 'Astilleros Jesus Arkotxa'. Eraikuntza beraiena zen, baina lurraren erabileragatik Espainiako gobernuko itsas erakundeari errenta ordaindu behar izaten zioten. Erretiratzekoan, ontziola saldu egin zuen. Bermeon hiru ontziola zeuden: Arrien, Muruaga eta beraiena.

326. Itsasontzi bat zelan egin (BRM-038/026)

Itsasontzi bat egiteko kontuan hartu behar diren ezaugarriak. Hasieran planoak egiteko Bilboko ingeniari batengana joaten ziren, Madrildik baimena lortu ahal izateko. Gero beraiek egiten zituzten planoak. Planoekin egurra markatzen zuten.

327. Itsasontziak egiteko Kanpezuko egurra (BRM-038/027)

Itsasontzien armazoia egiteko haritza behar zuten eta gila egiteko eukaliptoa. Kanpezutik (Araba) ekartzen zuten materiala. Haritza Frantziatik ere ekartzen zen. Aurreko kodasta egiteko ere bertako egurra erabiltzen zen. Taxia hartu eta bertara joaten ziren egurra aukeratzera eta bertan ebakitzen zituzten.

328. Ginea eta Suediako egurra (BRM-038/028)

Itsasontziak egiteko egurrak ez dute aparteko tratamendurik behar. Armazoia zatika egin behar da, pieza bat bestearekin lotuz, josiz. Kanpoko forrorako Gineako egurra erabiltzen zuten, lehenago Suediako pinua erabiltzen zen. Kubiertan Suediako pinua, iparraldeko pinua, erabiltzen zuten.

329. Itsasontzia egiteko erremintak galbanizatuak (BRM-038/029)

Galbanizatutako iltzeak eta torlojuak, "puntamasak"... ziren itsasontzi bat egiteko beharreko materiala. Galbanizatua izatea derrigorra zen uretan erdoil ez zitezen. Galafata estoparekin egiten zuten. Estopa Erandiotik ekartzen zuten.

330. Margoa eta "black"a (BRM-038/030)

Itsasontzia margotzeko margo berezia erabili behar zen. Bilboko Julio Cano enpresatik ekartzen zuten. Pinturaz gain "blacka" (margo berezia) eman behar izaten zitzaion barrualdetik. "Black"aren garrantzia azaltzen du.

331. Eskuz egitetik makina elektrikoetara (BRM-038/032)

Ontziolan erabiltzen diren erremintak ez dira askorik aldatu urteen poderioz: zerra, aizkora... Hala ere, geldi-geldika erreminta elektrikoak sartu ziren, lehenago dena egiten baitzen eskuz (ebaki, lisatu...).

332. 'Gardie' familiako ezizena (BRM-040/002)

Gardie ezizena du familiak. Marrazoaren antzeko arraina da gardie. Oso haragi gozokoa omen lehortzen utziz gero.

333. Osaba Daniel, Agirre Lehendakariaren konfiantzazko gizona (BRM-040/003)

Aitaren familian sei anaia ziren, horietatik lau gerran ibilitakoak: aita Bou Nabarra-n, beste bat Gordexola Batailoian teniente, osaba Jesus Mediterraneoan Errepublikaren armadan, eta osaba Daniel Agirre lehendakariaren patruilariko mekaniko. Osabak eta Bermeoko talde batek pasatu zuten Santandertik Frantziara Agirre Lehendakaria. Osaba Danielek bizkartzain lanak eta beste lan batzuk egiten zizkion Agirre Lehendakariari Frantzian eta Bartzelonan.

334. Agirre Lehendakaria ihesi munduan zehar (BRM-040/004)

Eusko Jaurlaritzak antolaketa ona omen zuen. Bermeoko arrantza-ontzi asko joan zen Ipar Euskal Herrira gerra denboran. Arrantzan egin eta hortik ateratzen zuten diruarekin finantzatzen zuten hainbat gauza. Agirre lehendakariak ihesi ibili behar izan zuen munduan zehar kamuflatuta; azkenean Buenos Airesen azaldu ei zen. Osaba ere berdintsu, nahiz eta eskala apalagoan. Casablancara (Maroko) egin zuen ihes, eta han geratu zen bizitzen.

335. Erbestetik itzulitako iheslariak preso hartu (BRM-040/009)

II. Mundu Gerra denboran, alemanak hurbildu zirenean, askok ihes egin zuten Frantziatik Ameriketara. Baina andreak eta umeak, batez ere, Eusko Jaurlaritzak ipinitako tren batean etorri ziren Irunera. Esana zieten ez zitzaiela ezer gertatuko, baina denak preso sartu zituzten. Gero batzuk libre utzi zituzten eta beste batzuk Larrinagako kartzelara eta abar sartu zituzten.

336. Idazle ingelesak liburua dedikatu gudariei (BRM-040/012)

Matxitxakoko Batailaz. Idazle ingeles batek liburua dedikatu zien gudariei. Canarias armada-ontziko buruak gudarien bizitza barkatzeko eskatu zuen. Haren familiaz xehetasunak.

337. Matxitxakoko bataila (BRM-040/014)

Matxikako bataila: Baionatik Bilbora joan behar zuen Galdames kargaontziak, eta hura jagoten irten ziren lau "bou" edo patrullera. Horietako bi aldendu egin ziren, eta Canarias guda-ontzi faxistarekin egin zuten topo. "Bizkaia" sutan sartu zen Bilbon.

338. Aita Matxitxakoko batailatik bizirik irten (BRM-040/018)

Amak arreba gaztea kartzelara eraman ohi zuen, bularra emanez, heriotza-zigorraz zegoen aitak ikus zezan. Aita bizirik irten zen Matxitxako batailatik. Beren ontzia hondoratu zenean, txalupatan sartu ziren, eta han harrapatu zituen Canarias ontziak.

339. Nabarra ontziaren estrategia (BRM-040/020)

Eguraldi txarra zen itsasoan. Canarias itsasontziak distantzia handiko kanoiak zituen; Nabarrak, aldiz, ez. Horregatik, Nabarra ahal zen guztia hurbiltzen ahalegindu zen, nahiz eta jakin bizitza jokatzen ari zirela. Azkenik, Canarias itsasontziak hondoratu egin zituen. Saiatu arren, ez dute Nabarra itsasontziaren hondarrik aurkitu ahal izan.

340. Aita heriotza-zigorrarekin luzaroan (BRM-040/021)

1937ko martxoaren 5ean izan zen Matxitxakoko Bataila. Harrapatu zituzten marinelak, tartean aita, 1939ra arte egon ziren heriotza-zigorrarekin. Beste ontzi batek lortu zuen Bermeora sartzea, Canarias ontzia kostako kanoien beldur zelako.

341. 'Donostia' ontzia ihesi Arcachonera (BRM-040/023)

Donostia Bou errepublikazalea Arcachonera joan zen ihesi, Canarias atzetik zuela. Baina Canarias ez zen ausartu tirokatzera, beste estatu baten uretan zeudelako. Pasaian sartu zen Canarias ontzia Nabarrako atxilotuekin, aita tartean. Handik Ondarretako kartzelara eraman zituzten.

342. Ondarretako kartzelako hezetasuna (BRM-040/024)

Marea gora zenean, ura sartzen zen Ondarretako kartzelan. Hezetasuna dela eta, aitak gorputz guztia ekzemaz beteta izaten zuen harrezkero. Bilboko alde zaharreko botikari batek egiten zizkion azalerako pomadak.

343. Botazioz erabaki momentuan fusilatu ala ez (BRM-040/026)

Botazioa egin omen zuten Canarias itsasontzian atxilotutakoak bertan fusilatu ala ez erabakitzeko; eta ezetz irten omen zen. Ondarretako espetxean sartu eta heriotza-zigorraz egon ziren 1939 arte.

344. Aita indultatu, hiru seme-alabaren aita zelako (BRM-040/028)

Francok Matxitxakon harrapatutako bat indultatzeko agindua eman zuen. Aita aukeratu zuten gudariek, hiru ume zituelako.

345. Indultatu ondoren, soldadu (BRM-040/032)

Aita-eta, Ondarretatik indultuaz atera zituztenean, urtebetez soldadu bidali zituzten. Gasteizen egon zen, Zalditerian. Arraindunen kamioian egiten zuen joan-etorria, ez zegoen ezertarako dirurik eta.

346. Ontzitik uretara jausi hamar urterekin (BRM-040/033)

Fraideetan ibili zen eskolan. Zortzi urterekin, goiz jaiki eta lantxoak egiten zituen, diru apur bat ateratzeko. Amari ematen zion guztia. Hamar urterekin hasi zen itsasora joaten. Behin, uretara jausi zen. Uger egiten zekielako salbatu zen. Ontzikoak konturatu zirenean, buelta hartu eta onik atera zuten.

347. Osaba, Irujo eta Agirreren bizkartzaina (BRM-040/036)

Aita eta Casablancako osaba urtero joaten ziren Bilbora jatetxe batera. Behin, manifestazio batekin egin zuten topo eta pankartan Irujo (Manuel) ikusi zuten. Pankarta utzi, osabarengana joan eta elkar besarkatu zuten Irujok eta osabak.

348. Izen euskalduna izateagatik arazoak (BRM-048/004)

Denak izen euskaldunak familian. Arazoak izan zituzten horregatik; esaterako, Miren Gorane "Exaltación" eta Miren Garbiñe "Maria de la Purificación" bihurtu zituzten. Mojek beren izenez deitu izan diete. Atzerritik itzultzean izenaz galdetu ziotenean "Garbiñe" erantzun zuen.

349. Zigortuta ekitaldi frankistetara ez joateagatik (BRM-048/005)

Ez ziren joaten gerra osteko ekitaldi frankistetara. Eskolan zigortu egiten zituzten horregatik.

350. Dotrina erdaraz eta euskaraz (BRM-048/007)

Jaunartzea mojetan egin zuen. Erdaraz ikasi zuten dotrina. Euskaraz nahi zuenak Santa Eufemiara joan behar zuen. Otoitzak euskaraz dakizki.

351. Olgetan (BRM-048/009)

Eguen arratsaldetan jai izaten zen eskolan, eta Mundakara joaten ziren olgetara. Udan, intxaurrak eta madariak harrapatzen zituzten baserrietan. Zinera joaten ziren, eta dantzara ere bai, Lamerara. Sokasaltoan ere ibiltzen ziren.

352. "Nork egin du dantzan", mojen galdera (BRM-048/011)

Mojek dantzan nork egin zuen galdetzen zieten, eta norberak esaten zien, eskolakideren batek salatu baino lehen. Egun seinalatuetan elizara ez baziren joaten zigortu egiten zituzten.

353. Eskolako kontuak (BRM-048/013)

Karmelitetan, ordaintzen zuten ikasleak eta ez zutenak zeuden. Bera bigarren multzokoa zen. Besteak uniformeaz janzten ziren. Josten eta brodatzen ere

ikasten zuten. "Pizarriñe" (arbeltxoa) erabiltzen zuten idazteko. Urtean behin, udaleko agintariak etortzen ziren eskolara eta ondoen idazten zuena ateratzen zuten arbelera.

354. Zinemara Kasinora (BRM-048/015)

Kasinoan zegoen zinema-aretoa eta hara joaten ziren gaztetan. Mundakarrak ere etortzen ziren, eta gero dantzara joaten ziren Lamerara. Mahaspasak, kakahueteak eta horrelakoak hartuta joaten ziren zinera. Zine mutua zen orduan. Charlot, "Argala eta Lodixa" eta horien pelikulak ikusten zituzten. Gernikatik etortzen zen piano-jotzailea.

355. Lameran eta plazan dantzan (BRM-048/016)

Udan, jaiegunetan eta eguenetan, Lameran egoten zen dantza, bandarekin. Neguan plazan. Dantza lotuan zein librean egiten zuten, jo ta ke, nekatu arte. Umetatik ikasten zuten dantzan. Mutilak etortzen ziren dantza eske. Kalabazak ere ematen zituzten.

356. Dantzara joateko jantziak eta apaingarriak (BRM-048/019)

Batarekin eta abarketekin joaten ziren dantzara udan. Neguan, zapata edo botekin. Guardasolpean ibiltzen ziren euria zenean. Ezpainak pintatzen zituzten. Betondoak belztu ere bai inoiz mistoekin (pospoloak). Makilatu, depilatu eta horrelakorik ez zuten egiten.

357. Aritzatxuko hondartzara (BRM-048/021)

Aritzatxuko hondartzara joaten ziren. Abarketak bustita heltzen ziren etxera eta igarri egiten zieten. Bataz bainatzen ziren eta izaraz lehortzen. Geroagokoak dira bainu-jantziak.

358. Tonpoira bainatzera (BRM-048/023)

Bermeoko portuan ez zegoen bainatzerik. "Tonpoire" ere joaten ziren bainatzera. Ezkonduta gero ere bai. Baina gutxi joaten ziren. Berak ez zuen uger egiten ikasi, ahizpak ostera bai.

359. Lapak eta musilak batu eta jan (BRM-048/026)

Lapak eta musilak bildu eta jaten zituzten, gordinik, hondartzan. Orain galduta ei daude. Nagusituta gero ezagutu zituzten bainu-jantziak.

360. Nazionalisten mitinetara (BRM-048/029)

Nazionalisten mitinetara joaten ziren bakarrik, aitak ez zien besteetara uzten. Politxene izeneko emakume mitinlaria du gogoan. Batzokira joaten ziren sarri. Lameran zegoen orduan.

361. Antzerkia batzokian (BRM-048/031)

Aitak asko parte hartzen zuen antzerkietan. Bilbon ere antzeztu ei zuen behin, Coliseo Albian, "Peru gizon" obra egiten. Ia denak euskaraz egiten ziren. Denetariko obrak. Aratusteetan ere urtero egiten zen antzerkia.

362. Aita mugimendu abertzalean oso sartuta (BRM-048/033)

Aitak idatzi, mitinak bota eta denetik egiten zuen. Euzkadi egunkarian idatzi ere bai inoiz. Politikan sartuta egon zen. Sabino Aranarekin harremana zuen.

363. Herritik ihesi, mairuen beldur (BRM-048/035)

Beldurrez bizi izan zuten gerraren etorrera. Gurasoak herrian geratu ziren, baina bera eta ahizpa batek alde egin zuten. Bilbora joan ziren bapore batean. Zorabiatuta eta diruak galduta heldu ziren. Senargaia zuen Garbiñek Bilbon. Mairuen (moroen) eta italiarren beldur handia zegoen. Italiar mordoa ito zen Bermeon uholdeengatik.

364. Bilbotik Santanderrera ihesi, Santandertik Frantziara (BRM-048/039)

Ezagun baten etxean egon ziren lehendabizi Bilbon. Gero handik Santanderrera, barkuz Frantziara, eta trenez oso urrun, uste du Italiako mugara. Bartzelona hartu arte egon ziren han. Ez zuten Kataluniara pasatu izan nahi.

365. Ondo hartu zituzten frantsesek (BRM-048/040)

Ondo hartu zituzten Frantzian, era guztietako laguntza jaso zuten jendearen aldetik. Dirurik ez, libreta bat zuten dendara janari bila joateko. Dendetan izaten zituzten komeriak hizkuntza dela eta.

366. Herriko postaria triste alde egin zutenean (BRM-048/041)

Postariak asko maite zituen. Eurak joanez gero, kaleak triste geratuko zirela esaten zieten. Negar egin zuen alde egin zuten egunean. Erabilitako arropak ematen zizkieten.

367. Aita barberoa gerrara (BRM-056/002)

Nardiztar Jon kalean jaio eta hazi zen. Bere aita bizartegia izan zuen bertan. 1936. urtean Espainiako Gerra Zibila hasi zenean, bere aita gerrara joan zen. Umea izan arren, gogoan du aita gerrara joan zen egun hura. Zapadoreetan ibili zen.

368. Gerra garaian han eta hemen (BRM-056/003)

Bermeoko Talan dagoen etxe bakarra, baserri bat, bere amaren ahizparena zen eta han egon ziren denbora askoan gerra garaian. Gauetan "Casa del niño"ra joaten ziren lotan.

369. Gerrako atxiloketak eta brazaleteak (BRM-056/004)

Talan zeudela guardia zibil batzuk eskuak lotuta zituen mutil bat zelan eramaten zuten ikusi zuten, mutil barik bueltatu ziren. Alde egiten ez zuten gizonei besoan besoko bat, brazalete bat, jarri zien herrian nazionalek egin nahi zituzten gauzak egin zitzaten.

370. Gerra eta gudariak Bermeon (BRM-056/006)

Behin, gerra sasoian, Talan zeudela izekoaren etxean, fraide bat egon zen bertan gudari batzuk agertu zirenean. Sollube non zegoen galdetu zien eta

bere osabak lagundu zien. Bere amari ere jarri zioten askori besoan jartzen zieten besokoa, brazaletea. Alman kontserba-fabrikara joan zirela du gogoan eta garbantzu platerkada bat jan zuela. Aita etorri arte batetik bestera ibili ziren.

371. Aita zapadoreen batailoitik kartzelara (BRM-056/007)

Bere aita Santanderren egon zen gerran, EAE-ANVko zapadoreen batailoian; EAJ-PNVkoak, ostera, Santoñan egon ziren. PNVkoak entregatu egingo zirela jakin zutenean, beraiek ere entregatu egin ziren. Santoñako kartzelara sartu zuten.

372. Lau urtegaz Angelitaren eskolara (BRM-056/008)

Gerra sasoian ez zen eskolara joan. Aurretik, lau urterekin, Nardiztar Jon kalean zegoen eskola batera joan zen, Angelita Bengoarengana.

373. Kuartelera sinatzera eta mezara derrigorrez (BRM-056/010)

Bere aita kuartelera joan behar izaten zen sinatzera kartzelatik irten eta gero. Mezara ere derrigortuta joaten ziren. Mezara joan aurretik batzokira joaten ziren, sasoi hartan batzokia falangistek zuten errekisatuta, eta handik ilaran joaten ziren elizara.

374. Zaplaztekoa jaso ostean ikastetxea utzi zuen (BRM-056/014)

Hermanoen ikastexean "División Azul"eko abestia ez kantatzearren zaplazteko itzela jaso zuen. Aitaren barberiara joan eta azaldu egin zion gertatutakoa. Orduan, beste mutiko bat etorri zen idatzi batekin barkamena eskatzen. Hala ere, ez zen eskolara bueltatu.

375. Bermeoko hainbat instalazio elektriko jarritakoa (BRM-056/015)

Aitaren bizartegian lanean zebilela, 1944. urtean, bi gizon joan ziren Ormaza lantegiko instalazio elektrikoetarako norbait behar zutela esaten, eta Jesus hara joan zen. Ostean, ospitale psikiatrikokoa ere egin zuten. Beste hainbat eraikinetan ere ibili ziren. Handik "Talleres Ymega" tailerrera joan zen.

376. Gurasoak lan asko egindakoak (BRM-056/016)

Bere gurasoek zein lan egiten zuten azaltzen du. Ama askotan goizeko orduetan eta hotz handiarekin joaten ziren. Aitak barberiko lanak egiteaz gain soloan eta txerriekin ere aritzen zen. Gurasoak bermeotarrak zituen, aita Uritik ekarritakoa, beste bermeotar asko bezala.

377. Soldadutzan barbero eta postari (BRM-056/018)

Soldadutzara marinara joan zen. Han ere bizargin bezala aritu zen. Eskaintza ona egin zioten eta barbero eta postari postua hartu

378. Soldadutzan soldata oso ona (BRM-056/019)

Soldadutzan barbero eta postari moduan ondo irabazten zuen, tabakoa-eta garraiatzen baitzuen. Etxera bueltatu zenean lehen baimenarekin, jenero asko ekarri zituen etxera diru asko irabazten baitzuen.

379. Donostian mekaniko (BRM-056/020)

Soldadutzan urtebete egin ostean, aukera eman zioten hurrengo lekua aukeratzeko, Donostiara joan zen. Mekaniko postuan jarri zuten.

380. Tailerretik itsasora (BRM-056/024)

Gerratean, astoak eta zaldiak zeuzkatenak udaletxera aurkezteko agindua etorri zitzaien etxera. Han, Bakiora joan behar zutela esan zieten, soldaduei jatekoa eramatera. Handik Jata mendira bidali zituzten elikagaiak eta munizioa eramatera.

644. Talgo-a Goikoetxeak eta Oriolek sortua; Goikoetxearen traizioa (BRM-079/012)

"Cinturón de hierro" egin zuen Goikoetxea ingeniaria eta Oriol izan ziren TALGO trena sortu zutenak. Azken hizkiak euren abizenen adierazgarri dira. Esaten zen Goikoetxeak traizioa egin zuela, eta frankistei informazioa eman ziela. Beraiek jatekoa eramaten zuten lekutik bobardatzen zuten Burdinazko Gerrikoa.

645. Astoarekin soldaduei elikagaiak eta munizioa eramaten (BRM-079/014)

Hamabost egun inguru egin zituzten astoekin soldaduei jatekoa eta munizioa eramaten. Diru apur bat irabazi zuten. Soldaduekin eurekin egoten ziren kanpamenduan. Bera zen gazteena; astoekin zeuden beste herritar batzuk izendatzen ditu.

646. Euskadiko gobernua eta dirua (BRM-079/016)

Gerratean Euskadiko gobernua sortu zen eta Jose Antonio Agirre izan zen lehendakaria. Euskadiko dirua ere sortu zen. Nolakoa zen azaltzen du. Gero, diru hark ez zuela baliorik eta aldatzera joateko esan zieten.

647. Aita tuberkulosiarekin itzuli zen gerratik (BRM-079/019)

Aita biriketatik gaixotuta itzuli zen gerratik, tuberkulosiarekin. Astoarekin gertatutako pasadizoa. Gerora, ebakuntza egin zioten aitari, batere anestesiarik gabe. Julian kanpoan zain, aitaren aieneak entzuten.

648. Gerraostean, lanean eta ikasten (BRM-079/021)

Gerraostean, aita makalik zegoen eta etxean lan asko izaten zuen, anai zaharrena zelako. Hamalau urterekin itsasoan ere hasi zen. Eta ahal zuenean gau-eskolara ere joaten zen.

649. "Mutil" sartu zen Iriarte motorrean (BRM-079/022)

Itsasontzi batzuek galdara-makinak zituzten eta gainontzekoak motorrak izaten ziren. Bera "mutil" sartu zen Iriarte motorrean, eta "Irlandianeko" Santos "gizon-mutil". Bi mailen arteko desberdintasuna adinak eta soldatak markatzen zuten. Armadorea eta patroia. Behar handia zuten eta dirua ekartzen hasi zen etxera.

650. Itsasontziko mutilaren lana: tretzak prestatzea (BRM-079/023)

Itsasoan egin zuen lehenengo lana "tertzak" (tretzak) prestatzea. "Palangrea".

651. "Tuntuxa": itsasoko baliza edo haurdun dagoen emakumea (BRM-079/024)

"Tuntuxa" esaten diete Bermeon balizei. Gero, haurdun dauden emakumeentzat ere erabili izan da berba hori.

652. Itsasoko mutilaren lana: ordua ematea (BRM-079/025)

"Mutilak" itsasontziko gizonei "ordua eman" behar izaten zien. Patroiaren aginduz, etxerik etxe joan eta itsasora noiz aterako ziren abisatu behar izaten zien.

653. Antxoa gatzitzeko fabrikak Bermeon (BRM-079/028)

Gazitze-fabrikak ("salazonerak") egon dira Bermeon, antxoa kontserban jartzen zutenak. Italiarrak izaten ziren erosle onenak. Edozein bodegatan egiten zen antxoa gatzitzeko lana. Kantauriko antxoak fama ona du. Gaur egun arrantzatzeko kupoa du eta debekatuta ere egon zen.

654. Soldadutza Almirante Cervera itsasontzian (BRM-079/030)

Soldadutzatik makal itzuli zelako utzi zuen itsasoko lana. Marinan egon zen, Almirante Cervera itsasontzian. Ikastaro batzuk egin zituen eta "timonel-señalero" jarri zuten. Timoia maneiatzen bazekien eta morse kodea ikasi zuen. Seinaleak nola egiten zituzten; hasieran argiekin, gero banderatxoekin. Han bizitakoak. Gose pixka bat ere pasatu omen zuten.

655. Soldadutzan estropadak egiten zituzten (BRM-079/032)

Almirante Cervera barkuak bere trainerua zuen, Canarias-ek berea, eta baziren gehiago ere. Soldadutzan zeudela, estropadak egiten zituzten,

denbora-pasa gisa eta jateko gehiago lortzearren. Hamahiru lagun eta patroia ibiltzen ziren. Soldadutzatik makalik itzuli zen eta hantxe bukatu ziren bere arrantzako kontuak.

656. Ganadu-tratulari eta harakin (BRM-080/001)

Ganadu-tratularia zen aita, eta harekin eta sozioarekin hasi zen tratularitzan ikasten. Gero, Bermeoko merkatuan jarri zuten harategia.

657. Txahalak igerian (BRM-080/002)

"Uraz Handiko" eskualdea da errekaren beste aldekoa (Akorda, Antzora, Ibarrangelu...). Hango abeltzainek Laidara eramaten zuten ganadua. Gasolinoa edo pasaria egoten zen eta hark tiraka, igerian pasatzen ziren txahalak.

658. Txahalak bidean nekatuta (BRM-080/003)

Txahalak ez zeuden ibiltzera ohituta, eta, batzuetan, bide erdian geratzen ziren; arraindun kamioien laguntza eskatu behar izaten zuten. Makilakada bat eman behar izanez gero, non eman jakin behar izaten zen.

659. Korta barnean hazten ziren txahalak (BRM-080/004)

Korta barnean hazten ziren txahalak, pisua irabazteko. Kanpo-behiak nekezago irabazten du pisua; barnekoaren haragia, gainera, samurragoa izaten da.

660. "Toke oneko" ganadua (BRM-080/005)

Txahala erosteko, leku jakin batzuetan ukituz jakiten zuten nolakoa zen (toke onekoa zen ala ez). Gero, berbaz egiten zen tratua.

661. Ganaduaren pisua adostu behar (BRM-080/006)

Begiz ateratzen zuten ganaduaren pisua, eta baserritarraren eta tratulariaren arteko adostasuna lortu behar zen. Pisuaren aldea erraldetan (5 kilogramo) hartzen zen kontuan kalkuluak egitean.

662. Hamaiketakoa gibelarekin (BRM-080/007)

Baserritarrak zegokion partea eramaten zuten etxera, edo tabernaren batean jan zati bat. Ganadua hil ondoren, hamaiketakoa egiten zuten gibel partearekin; "asiloa" esaten zioten elkartzen

663. Albaitariak gibela eta birikak aztertu (BRM-080/008)

Albaitariak gibela eta birikak aztertzen zituen, aberea hildakoan. Batzuetan, gibela bera bakarrik baztertzen zen, eta gainerakoa erabili. Erabakita egoten zen zein zen gibel txarrari zegokion beherapena.

664. Bermeoko Abere Hiltokia (BRM-080/009)

Bermeoko hiltegian, Artika bidean, hiltzen zuten ganadua. Ez zegoen abere-hiltzailerik, harakinek berek hiltzen zuten ganadua.

665. Nola hil ganadua (BRM-080/010)

Lehenengo mailuaz bekokian jota hiltzen zuten ganadua. Geroago, ganadua hiltzeko pistola berezi bat erosi zuen, eta bera izan zen lehengoa hura

erabiltzen Bermeo inguruan. Berehala hiltzen zen ganadua eta zuloa geratzen zitzaion kopetan.

666. Zuloa ganaduaren garunetan (BRM-080/011)

Neurologo batek eramaten zituen batzuetan ganaduaren garunak, eta behin kezkaturik galdetu zion zergatik zuten zuloa garunek. Pistolaz hilez gero geratzen zen zuloa zen; baina era horretan sufrimendurik gabe hiltzen zen aberea, bat-batean.

667. Nola larrutzen zen ganadua (BRM-080/012)

Osorik atera behar izaten zen larrua; zuloa izanez gero, prezioa jaisten baitzen. Zapatagintzan erabiltzen zuten, lodieraren arabera, lan ezberdinetarako.

668. Txahala lau zatitan (BRM-080/013)

Aizkoraz zatitzen zen txahala lau zatitan. Zati horietatik ateratzen ziren txuleta-zintak.

669. Haragi-garraiatzaileak (BRM-080/014)

Haragi garraiatzaileak egoten ziren, eta pisu handiak mugitu behar izaten zituzten. Kiloko ordaintzen zitzaien egindako lana.

670. Hozkailuak haragia gordetzeko (BRM-080/015)

Elur-fabrika zegoen, eta biltegi bat zuten han haragia hotzean gordetzeko. Harategi berrian hozkailua jarri zuten, geroago izozkailua.

671. Balantzatik gaurko kutxa erregistratzailera (BRM-080/017)

Hasieran, baskula erromatarra erabiltzen zuten; gero, mekanikoa; eta azkenean, tiketa ere ematen zuena.

672. Jendearen gustuko haragia (BRM-080/018)

Azpizuna izan da beti txahalaren zatirik estimatuena. Faldie edo hegala geratzen zen saldu ezinik.

673. Neurriak (BRM-080/019)

Hiru libra laurden ziren 375 gr. Libra eta erdi ziren 750 gr. Ezin zen beti zehatz asmatu pisua. Ikuskaria etortzen zitzaien pisua kontrolatzera eta zuzentzera.

674. Festetako okelak (BRM-080/020)

Herriko festetan, txuletak, azpizunak eta frijitzeko haragia saltzen ziren lehenen. Faldie edo hegala saldu ezinik geratzen zenean, txorizo-fabriketara saltzen zuten. Gabonetan, San Jose inguruan eta Pazkoetan arkumea saltzen zen gehien.

675. Ezarrita egoten zen haragiaren prezioa (BRM-080/022)

Beti egon dira inspektoreak. Haragiaren prezioa ere ezarrita egoten zen. Batzuetan, lehorteagatik edo, ganadua kendu beharra egoten zen eta merkeago erosteko aukera egoten zen. Hegala oso merke saltzen zitzaien txorizo-fabrikei, eta hura kobratu ezinik ere ibiltzen zen batzuetan.

676. Larrua estraperlorako (BRM-080/023)

Deklaratu egin behar izaten zen larrua, eta oso prezio baxua ezarrita zuen. Askok larrua saltzen zuten estraperloan; horretarako hiltegitik kanpo hiltzen zen ganadua, deklaratu gabe.

677. Itsasorako okela (BRM-080/024)

Itsasontziek egiten zizkieten enkarguak, gizon kopuruaren eta itsasoko egunen arabera. Txuleta, gisatzeko haragia, txorizoak eta abar erosten zituzten.

678. Tabernetarako okela (BRM-080/025)

Tabernek beti eskatzen zuten haragi ona; txuletak eta azpizunak amaitu egiten ziren. Sarritan harakina bera joaten zen Bilbora tabernak hornitzeko; Andra Mari festetan gertatzen ziren horrelakoak.

679. Behi arrazak (BRM-080/026)

Behi arrazak: txarolesa, limusinak, blondak (oso ederrak), pirenaikoa. Harakinak hezurraren tamainari begiratu behar dio; antzina, hezurra bera ere saltzen zen.

680. Ehuneko 25eko galera (BRM-080/027)

Hezurra eta seboa kontuan hartuta, abere batean ehuneko hogeita bost edo hogeita hamar galtzen zen.

681. Harakinen zaindaria, San Markos (BRM-080/029)

San Markos eguna, hasieran, denek batera ospatzen zuten; baina lehia eta inbidia tarteko, banandu egin ziren. Sarritan, bazkaltzeko orduan, itsasorako enkarguak prestatzen aritzen ziren.

682. Txorizo onak nola egin (BRM-080/031)

Piper txorizero ona da txorizo onaren sekretua. Murtziatik ekartzen zuten piperra.

683. Ontziola non zegoen (BRM-081/003)

Ontziola ('astillerixie') non zegoen. Ontziak uretaratzeko arrapala ('elanbrie') zegoen, eta errekan behera itsasoratzen ziren.

684. Arropa garbitzen errekan (BRM-081/004)

Errekan "jabonadurak egiten" egoten ziren emakumeak bera umea zelarik, arropa garbitzen. Bere denboran beste leku batera joaten ziren. Nola garbitzen zuten arropa.

685. Sutan ura berotu behar norberaren garbitasunak egiteko (BRM-081/005)

Komun txiki bat zegoen etxean. Ura sutan berotu eta horrela egiten ziren garbitasunak. Fabrikan lanean ibilita, hats handia eroaten zuten; orduan ez zen gaur bezalako garbitasunik. Xaboia erabiltzen zuten.

686. Lau ile-apaindegi Bermeon (BRM-081/006)

Permanentea egin zioten lehen jaunartzerako. Herriko ile-apaindegiak izendatzen ditu. Gizonen barberiak. Plantxekin atontzen zuten emakumeek ilea.

687. Kontserba-fabrikan lanean (BRM-081/008)

Hamazazpi urterekin hasi zen fabrikan, Ormazanean. Arraina zatitu, egosi edo frijitu, latetan sartu... Lan ezberdin asko egiten zen.

688. Kontserba asko Italiarako (BRM-081/010)

Txitxarroa barriketan eta latetan kontserbatzen zen. Antxoa filetetan jartzen zen. Italiarrek asko erosten zuten.

689. Umeak lanean fabrikan (BRM-081/012)

Ehunka lagun ibiltzen ziren lanean Ormazaneko fabrikan. Arrantzaleak ere bai askotan, itsasoko lana utzita. Sasoi batean umeak ere bai, nahiz eta inspekzioaren beldur izaten ziren beti. Ondo etortzen zitzaien diru apur bat arropa egiteko eta.

690. Fabrikan eta portuan lanean (BRM-081/014)

12 urterekin edo joango zen lehendabizi fabrikara. Josten ibili zen gero. Ezkonduta gero 'neskatila' ere bai hainbat barkurentzat. Hainbat otzara garraiatzen zuten buruan. Amak bizkarrezurreko arazoak izan zituen horregatik.

691. 'Neskatilaren' lanak (BRM-081/016)

'Neskatilaren' lanak: arrain-kaxak prestatu, arraina husten lagundu, janari hornidurak egin... Portuko lanak amaitutakoan, fabrikara. Ez zen etxeko barkuan ibili neskatila (lan hori amak egiten zuen) beste batzuetan baizik.

692. Mahoizko amantala zerabilten neskatilak (BRM-081/018)

Mahoizko amantala erabiltzen zuten neskatilek. Baina bestela txatalez betetako arropak. Oinetakoak, berriz, abarketak gehienetan, edo bestela zapatilak edo zapatak. Eskularrurik ez.

693. Norberak kotizatu behar portuko lanaren aseguruak (BRM-081/020)

Fabrikan bazuten asegurua; kotizatzen zuten. Portuan, berriz, norberak kotizatu behar zuen kofradiaren bidez.

694. Gizonak andrazkoen bizkarrean barkura (BRM-081/022)

Entzuna du antzina, bere amaren sasoian, andrazkoek bizkarrean eramaten zituztela gizonak barkuraino, arropak ez bustitze arren.

695. Fabrikako lana zen gogorrena (BRM-081/023)

Fabrikako lana zen gogorrena. Lan ezberdin asko egin behar zen: zatitu, frijitu, gatza eman, tinetan ipini... Frijitu olioaz egiten zen, oliba-olioz. Gutxi zegoenean, arrainaren grasa ere erabiltzen zen.

696. Ormazatarrak lan asko egindakoak dira politikan (BRM-081/025)

Ormazatarrak politikan lan asko egindakoak dira Euskal Herriaren alde, batez ere Anton. Ez ei du merezi zuen omenik izan. Osaba kartzelan egon zen, eta haren aita eta ama ere bai aurretik. Beste anaia batek Frantziara ihes egin zuen.

697. Gerra Bermeora heldu zen eguna (BRM-081/027)

Gogoan du gerra Bermeora heldu zenean zelan pasatu ziren soldaduen artetik etxera bidean. Aita soldadu eraman zuten. Uholde handia izan zenekoa ere gogoan du, zelan urak ekarri zituen hildako abereak Almika aldetik.

698. Fabrikako babeslekura sirenak jotzen zuenean (BRM-081/029)

Soldadu italiarrak fabrikara joan ziren gerra heldu zenean. Sirenek jotzen zutenean fabrikan babesten zen familia guztia. Uholdeekin ere asko sufritu zuten.

699. Aita gerratik etorri eta ezagutu ez (BRM-081/030)

Aita soldadu jantzita etorri zen behin gerratik, eta ez zuen ezagutu ere egin. Ama eta haren lagunak espiritismoa edo sorginkeriak egiten ibili izan ziren beren senarrak non egon zitezkeen igarri nahirik.

700. Goserik ez zuten pasatu gerra ostean (BRM-081/033)

Ez zuen goserik pasatu gerra ostean. Ogia edo taloa beti izan dute etxean. Aita itsasora irteten hasi zenean, indaba eta beste jenero batzuk ekartzen zituen.

701. Itsasoan aurkitutako gomekin eta koipearekin itxuratu herria gose denbora (BRM-081/035)

Barkua zutenez, Avilesetik eta estraperloan lortzen zuten indaba eta abar. Gero, itsasoan gomak (kautxua) eta koipe barrikak aurkitu zituzten eta horrek laguntza handia eman zion herriko ekonomiari.

702. 'Pirenaica' irratia entzuten (BRM-081/036)

Telefunken irratia zuten eta haren bidez jakiten zituzten politikako gauzak. Pirenaica irratia baxu-baxu ipinita entzuten zuten. Nazionalistak izan dira beti.

703. Itsasora joan ez, beste guztia egin du (BRM-081/040)

Nahiago zuen beharra eskola baino. Itsasora ez da joan baina beste guztia egin du.

704. Nobio kontuak (BRM-081/043)

Hamazazpi urterekin hasi zen senargaiarekin. Baina etxera laguntzeko usadiorik ez zegoen, gutxiago elkarri musu ematekoa.

705. Mundakara gramolara (BRM-081/044)

Orduan ez zegoen oraingo libertaterik. Mundakara ere ez zen inoiz joan gauez ezkondu aurretik. Arratsaldez bai, gramolara. Oinez edo autobusez egiten zuten atzera-aurrera.

706. Aste Santuan ezin zen dantzarik egin (BRM-081/045)

'Karneka' (sokasaltoan) ibiltzen ziren mutilekin. Aste Santuan ezin zen dantzarik egin. Baina mutil batek filarmonika (ahoko soinua) jo eta egiten zuten. Amak ez zion gauez zinera joaten uzten, eta gezurretan ibili behar izaten zuen.

707. Nodoan beti Franco agertzen zen (BRM-081/046)

Zinean Nodoa. Franco agertzen zen beti hasieran. Charlot, Carmen Sevilla... Españoladak asko. Pezeta bat zen sarrera.

708. Antzerkiak eta komedianteak (BRM-081/048)

Antzerkiak egiten ziren fraideetan. Politak, herriko jendeak eginak. Komendianteak ere etortzen ziren plazara. Jendeak etxetik eramaten zuen jarlekua.

709. Andra Mari jaiak, jai ederrak (BRM-081/051)

Andra Marietan oso ondo pasatzen zuten. Goizetik gauera arte kalean. Gurasoak ere kalean ibiltzen zirenez, ez zuten estutzen. Pare bat abarketa pare hausten zituen. Kukainak, pilota-partiduak, "lutxa librea", asto karrerak eta horrelakoak egoten ziren. Asto karreretan emakumeek ere parte hartzen ei zuten.

710. Berbenak sarri egoten ziren (BRM-081/052)

Madalena egunean Elantxobera eta Mundakara joaten ziren eta gero Bermeora itzultzen. Gauean musika Lameran. Casinoan berbena. 'Otsuen etxie' deitzen zioten. Bazkideek bakarrik zuten sarrera. Sarri egiten ziren orduan berbenak. "Betuliek ere zurittute" geratzen ziren hautsaz.

711. San Juan egunez Gaztelugatxera (BRM-081/054)

San Juan egunerako zapata-kaxak topatzen ibiltzen ziren dendaz denda, erromeriara joateko (janaria eramateko). Askotan goizeko hamarretarako jaten zuten egun guztirako eramandakoa. Gaztelugatxetik Bakiora joaten ziren gero. Luze egiten zen itzulera. Bakion gramola egoten zen.

712. San Juan egunez estreinatzen zen arropa berria (BRM-081/055)

San Roketan talara joaten ziren egun pasa. Mahoizko arropak astegunean ibiltzen ziren. Amantala janzten zuten emakumeek. San Juan egunez estreinatzen zen arropa berria.

713. Aratusteetan 'jakenarruz' jantzita (BRM-081/058)

Aratusteak galarazita egon dira gerra ostean. Hala ere 'jakenarruz' janzten zen jendea. Plastiko berdez eginikoak ziren. Bera ez da izan janztekoa.

714. Elantxobera Madalena Egunez (BRM-081/060)

Madalena eguna polita izaten zen. Elantxobera joaten ziren barkuz arratsaldean. Senide bat uretara jausi zen eta senargaiak salbatu zuen. Ez zekien igerian. Berak ere gutxi. Senide bat ito zenetik ez da uretan sartu.

715. Arropa zaharrekin bainatzen ziren (BRM-081/061)

Urak errespetu handia ematen du. Arropa zaharrekin sartzen ziren uretara. Behin lagun bat nylonezko gonarekin sartu zen eta transparentatu egin zitzaion. Haren larritasuna!

716. Ama kartzelan eta aita ebakuatuta (BRM-082/003)

Bitorek 12 urte zituela, ama kartzelaratu egin zuten. Aita eta neba Frantziara joan ziren eta berak 7 urteko ahizparen kargu egin behar izan zuen. Bizimodu gogorra izan zuten umetatik. Eskolara ere gutxi joan ziren. Ama Emakumeetako kide zen eta batzokian asko aritzen zen. Beraien gurasoek ordaindu zuten sasoi hartako batzokia.

717. Ikuspegi politiko desberdin asko (BRM-082/007)

Errepublika sasoian, Bartzelonatik etorritako "guardia de asalto"ak egon ziren. Gerora falangea sortu zen Bermeon. Falangistek ere bazuten beraien egoitza, baina gutxi ziren. Sozialistak eta komunistak gutxi ziren.

718. Egur bila, dirua lortzeko (BRM-082/011)

12 urterekin basora joaten zen Bitore egur bila, hura saldu eta diru apur bat lortzeko. Basotik bertatik ikusi zuen Gernikako bonbardaketa. Bere ahizpa Josefinetara joaten zen ikastetxera, beti gosez. Gose handia ezagutu zuten.

719. Nagusiek herritik alde egin, eta txikiak bakarrik gelditu (BRM-082/014)

Soldadu italiar asko egon ziren Bermeon, baina horiek ez ziren txarrenak. Eurak be gezur bidez ekarri zituztela dio. Bere etxekoek salbokondukto barik egin zuten alde Santanderrera eta Frantziara. Euskaldun asko egon ziren batera. Bitorek ere alde egin nahi izan zuen, baina ahizpa txikiarekin gelditu behar izan zuen etxean; aita nagusienekin joan zen.

720. Sollubeko eta Matxitxakoko erasoak (BRM-082/015)

Gerran gauza asko ikusi zituzten: zaurituak, hildakoak... Etxeetan ere gudariak izaten zituzten. Gudari gehienak "goittarrak", gipuzkoarrak, ziren. Matxitxakoko bataila Talatik ikusi zuten eta kanoien zaratak altu entzuten ziren.

721. Kartzelan, anonimoen laguntza (BRM-082/020)

Bitoreren aita erbestetik bueltatu zenean, bere ama oraindik kartzelan zegoen. Emakume batek asko lagundu zion amari kartzelan: hari esker eraman zuten Gasteiztik Larrinagara. Sekula ez zuen jakin zein izan zen andre hori. Anitaren osaba, ostera, Cadizen egon zen urte luzez.

722. Gauero guardiengana joan behar (BRM-082/023)

Gerraostean, bere ama kartzelatik bueltatu ostean, gauero joan behar izaten zuen guardiengana, bertan zegoela ziurtatzeko.

723. Bermeon denek zuten ezizena (BRM-083/003)

Luziaren aitaren ezizena Oka zen eta berak ere bera jaso du. Bermeon askok dute ezizena, ezizenez ezagutzen ziren-eta.

724. Beti beharrean, edozertan (BRM-083/007)

Koinatak izan aurretik ziren lagunak Julita eta Luzia. Portua ere elkarregaz aritu ziren beharrean. Julitari sekula ez zitzaion eskola gustatu nahiz eta mojekin ondo konpondu. 16 urte zituela, Luzia "Casa del niño"ra joan zen neskame lanetan. Gerora saretan eta neskatila moduan ibili zen. Luzia 3 hilabetez egon zen Gasteizen neskame moduan.

725. Emakumeek ere dirua irabazi behar zuten (BRM-083/010)

Bi bapore izan zituzten etxekoek. Gizonek egiten zuten bertan lan, baina ordaindu emazteak ere egin behar izaten zuen. Edozer egiten zuten dirua lortzeko, baita zapatak saldu ere. Andrek kontrolatzen zuten etxeko ekonomia.

726. Irabazitakoa amari eman behar (BRM-083/011)

Amari eman behar izaten zioten irabazitako guztia. Behin bere ahizpak amari gezurra esan zion ez zuela kobratu esanez, eta Julitak amari esan zion ahizpak non ezkutatzen zuen dirua.

727. Saregin beharrak (BRM-083/012)

Bere senitarteko batekin ikasi zuen sareak josten. Egun guztian zehar egin behar izaten zuten lan. Zer nolako lanak egiten zituzten azaltzen du.

728. Sareak josteko materiala (BRM-083/013)

Sareak josteko orratzak eta artaziak beharrezkoak ziren. Orratzak olazkoak izaten ziren. Haria altorraren modukoa izan behar zen, zuria. Mota askotako hariak eta sareak zeuden.

729. Sareginena kontu handiko lana (BRM-083/014)

Julitaren ustez ez dago ondo josteko sekreturik, kontu handiz aritzea baino ez da behar dena. Saregin asko zeuden. Julitak lan egiteari utzi zionean 5 ogerleko kobratzen zuten orduko; hasieran, ogerleko bakarra. Sareginak beti egon behar izaten zuten bustita.

730. Gizarte segurantza aparte ordaindu behar (BRM-083/015)

Beti lanean aritu arren, ez zuten kotizaziorik, beraiek ordaindu behar zuten aparte. Askotan udan kobratzen zuten neguan egindako lana.

731. Sareginen arropak (BRM-083/016)

Sareginek beti izaten zuten amantala jantzita, betiere iluna. Oinutsik egiten zuten lana.

732. Sareginak batak besteari lagundu behar (BRM-083/017)

Sareak tindatu egiten ziren kolore zuriak ez baitu behar itsasorako. Zapaturo garbitzen zituzten sareak: garbitu, eskegi eta konpondu beharrekoak josi. Baporeak zituzten sareginek besteei lagundu behar izaten zieten hurrengoan beraiek ere laguntzako jaso zezaten.

733. Adarra sarean zortea emateko (BRM-083/019)

Julitak eta Luziak inoiz ganduaren adarra jarri izan zuten sarean zortea eman zezan.

734. Neskatila beharrak (BRM-083/022)

neskatila moduan aritutakoak dira Luzia eta Julita. Beraien eginbeharra zein zen azaltzen dute. Kofradira eramaten zuten arraina, eta bertatik saltzen ziren fabrikara. Buru gainean eramaten zituzten otzarak.

735. "Loidxie"n erabilera (BRM-083/024)

"Loidxie"k ontzien bodegak dira. Bertan zer gordetzen zuten azaltzen dute.

736. "Loidxe" asko (BRM-083/026)

Beraien familiako "loidxie", bodega, Erriberan zegoen, baina beste leku askotan ere egoten ziren. Enbarkazio askoz egoen Bermeon eta beraz, baita "loidxek" ere.

737. Bizi guztian kontserba-lantegian beharrean (BRM-085/004)

Etxean beti izan dira beharginak. Anastasia lantegian aritu izan da beti. Lantegian egiten zuten lana zein zen azaltzen du.

738. Lantegi desberdinetan behar egindakoa (BRM-085/005)

Lantegi desberdinetan aritu izan da. 16 urterekin Legardarenean hasi zen eta Camposenean erretiratu zen 60 urtegaz. Kontserba-lantegi batetik bestera ez zuen alde handirik igartzen.

739. Tiragomarekin jota galdu zuen begia (BRM-085/007)

Umetan begia galdu zuen mutiko batek tiragomarekin jota. Eskolara bidean zihoala kolarrean bertan jo zuen. Sasoi hartan begi bakarra izan arren berdin-berdin egin behar zen lan, ez zegoen gaur egungo aukerarik.

740. Emakumeek gutxiago kobratu; salazoia (BRM-085/010)

Gizonezkoek emakumeek baino gehiago kobratzen zuten. Kanpotar asko egon ziren bukaeran. Salazoia zelan egin behar den azaltzen du. Arduraduna beti izaten zuten adi, beraien lanari begira.

741. Otzarak gurdiz garraiatzen ziren (BRM-085/012)

Gurdietan eramaten zituzten askotan otzarak lantegira ez baitzuten autorik izaten.

742. Bonbardaketako garra (BRM-085/014)

Etxetik bertatik ikusi zuten Gernikako bonbardaketan piztutako garra. Anastasiak dio gurago duela ez bizi, berriro gerra bizi baino.

743. Errepublikazaleak eta abertzaleak beti haserre (BRM-085/018)

Bere gurasoak errepublikazaleak ziren eta baita enbarkazioko beharginak ere. Abertzaleekin liskar asko izaten zituzten. Abertzaleek harrika egiten zieten askotan errepublikazaleei.

744. Euskadiko dirua balio barik (BRM-085/019)

Euskadiko dirua balio barik gelditu zen Francorekin. Anastasiak baditu etxean gordeta hainbat billete.

745. Ama inudea izan zuen (BRM-085/022)

Bere ama inude moduan egon zen bi familiatan. Bere amuma inude "seca" egon zen, bular barik, umezain; bere ama, ostera, inude "fresca", bularra emateko. Nahiz eta armaginak izan, emakumeek ere lan egin behar zuten. Bermeoko andre asko joan zen inude.

746. Gerraostean goserik ez (BRM-086/002)

Gerraostean ez zuten jateko arazorik izan, ogiaren falta baino ez. Mañu auzoan senideak zituzten eta irina ematen zieten taloa egiteko. Taloari eskerrak ematen dizkio, horrek asko lagundu baitzien. Jantoki sozialak ere bazeuden herrian, baina bera ez zen hara joaten.

747. Bernarda estraperlista (BRM-086/003)

Bere amak etxerako jenero batzuk (azukrea, olioa...) estraperloan erosten zituen. Bernarda izeneko andre bat estraperlista zen.

748. Don Bizente abade euskaltzalea (BRM-086/008)

Erdarazko liburuak zituzten eskolan eta dotrina ere erdaraz jaso zuten. Kartzelan egondako abade bat, don Bizente, Santa Eufemiako elizan egon zen eta euskaraz irakatsi zien dotrina. Baina berriro ere atxilotu eta desterratu edo beste nonbaitera eroan zuten.

749. Beti beharrean: egurretan, despeskan... (BRM-086/013)

Bere denbora guztia beharrean pasa duela dio, etxean zein lantegian. Artika auzoko errotetatik aurrera ere egur bila joaten ziren. Egurra buru gainean zein gurdietan makina bat bider ekarri ditu.

750. Isil-ostuan egur bila (BRM-086/015)

Egur bila sarritan joaten ziren Artikako mendira. Andre askok ekartzen zuten egurra buru gainean. Egurra isil-ostuan hartzen zuten. Basoetako jabeak askori txakurra botatzen zieten.

751. Despeskan (BRM-086/017)

"Despeskan" zer den azaltzen du. Eskularru barik egiten zuten lan. Azkordin asko izaten zituen eta atzamarrak asko kaltetu zaizkio. 15-16 urtegaz hasten ziren beharrean.

752. Hagina teilatu gainera (BRM-086/025)

Hagina jausterakoan, trapu baten bildu eta teilatura botatzen zuten berria eskatuz.

753. Gabon dotoreak (BRM-086/029)

Garai bateko Gabonak dotoreak zirela dio: bisigua, karakolak eta konpota ez ziren sekula ere falta. Anisa ere Gabonetan edaten zuten.

754. Aste Santuan elizan sartuta (BRM-086/031)

Aste Santuan elizan sartuta egoten ziren. Garizumako barikutan ez zuten okelik edo txerrikirik jaten.

755. Misio Egunak (BRM-086/036)

Misio Egunetan Bilbo aldetik etortzen ziren fraideak. Misioak Aste Santu bueltan izaten ziren.

756. Lehen jaunartzean oparitutako irudia eta argazkia (BRM-086/042)

Santa Eufemia elizan lehen jaunartzea egiterakoan, elizan irudi bat ematen zuten eta 1922. urteko irudi bat kamara aurrean dugu ikusgai. Lehen jaunartzeko argazki batzuk ere ikus daitezke.

757. Telebistako euskara ezin ulertu (BRM-086/046)

Anastasiaren ustez, Bermeoko euskara oso garbia da, ulertzeko errazagoa. Telebistako euskara ez du ulertzen.

758. Euzkadiko dirua grabatzen (BRM-086/048)

Gerra garaiko dirua, Euzkadiko dirua, grabatuz hartutako irudiak.

759. Eskolara ez zen askorik joan (BRM-087/002)

Umetan askotan eskolara joan barik, jardinean gelditzen zen jolasten. Herriko eskolara joan zen dona Trini maistragaz. Ikaskide bati "Maria txizeti" esaten zioten beti egiten baitzuen txiza. Sekula ez zitzaion eskola ikasi.

760. 9 urtetatik beharrean (BRM-087/004)

Eskola ez zitzaionez gustatzen, 9 urterekin kontserba-fabrikara joan zen. Lana txarto egiten zuela-eta, ez zuen askorik aguantatu. Gerora etxetik etxe ibili zen beharretan.

761. Eskolako eta umetako kontuak (BRM-087/008)

Ibarrangeluko eskolan ikasi zuen eta oso gustura joaten zen. Gerora Zendokiz auzoko eskolara joan zen bertan liburuak debalde baitziren. 16 urterekin Bermeora etorri zen neskame.

762. 13 neba-arreba (BRM-087/010)

Ibarrangeluko Ibaetako eskolan neskak eta mutilak banatuta egon ziren; Zendokizen, ostera, batera. 13 neba-arreba izan ziren.

763. Izekoren jatetxean lanean (BRM-087/012)

Bere izeko batek Ibarrangelun taberna-jatetxea izan zuen eta bera bertan hasi zen lanean gazterik. Behin bezero batekin gertatutakoa kontatzen du.

764. Ogia banatzen (BRM-087/013)

Bere izekoren taberna-jatetxean ogia egiten zuten eta ogia banatzen zuen etxerik etxe.

765. Oiloak ostu jan ahal izateko (BRM-087/016)

Basora joaten zirenean egur bila, oiloak osten zituzten gose baitziren. Aizkorarekin jota hiltzen zuten eta guardiek 15 pezetako isuna jartzen zieten harrapatuz gero. Bere neurriko abarketarik ere ez zuen izaten.

766. 13 neba-arreba izan arren, goserik ez (BRM-087/017)

Katalinen etxean 13 neba-arreba izan arren, ez zuten goserik ezagutu baserrian beti baitzuten zer jan. Bermeora neskame etorri zenean ere, Mokoneko aldatzera, ondo egon zen.

767. Eibarren neskame (BRM-087/018)

Bermeora etorri aurretik Eibarren egon zen neskame. Bertan gerra hasiko zelakoan etxera bueltatzea eskatu zuen eta amak ere etxera itzultzeko esan zionez, denbora gutxi egon zen.

768. Pildainak eta errepublikazaleak (BRM-087/022)

Gernika erre ostean sartu ziren nazionalak Bermeora. Nazionalak heltzerakoan heldu zen ogi zuria; ordura arte beltza zen. Pildainen eta errepublikanoen artean liskarrak egoten ziren. "Pildainak" abertzaleei deitzen zieten.

769. Guardien Pilarika eguna (BRM-087/023)

Guardien egunean, Pilarreko Ama Birjinaren egunean, guardiak dendarik denda joaten ziren jateko bila.

770. Lurrikara (BRM-087/030)

Katalinek gogora dakar gaztetan lurrikara bat bizi izan zutenekoa.

771. Frantzunatxetara armak botatzen zituzten (BRM-089/003)

Gerra garaian, italiarrak sartu zirenean, Frantzunatxetara joaten ziren. Bermeotar askok bertara bota zituzten etxean zituzten armak. Beraiek bertan zebiltzala, armak aurkitu eta italiarrei ematen zieten ogiaren edo zigarroaren truke.

772. Tuneletako ezkutalekuak (BRM-089/004)

Gerran, nazionalek zein gorriek izaten zituzten bouak. Kanpaiak jotzen zituztenean, etxeen azpialdetara joaten ziren ezkutatzera. Errekako tunelean ere ezkutatzen ziren. Sasoi hartan, gerratean, uholdeak egon ziren eta jendeak handik irten behar izan zuen.

773. 12 urtegaz lanean hasi behar (BRM-089/005)

12 urtegaz itsasora joan zen mutil. Lebazalean hasi zen eta gerora gizon modura joan zen bapore handiago batera. Goseak egoten ziren eta gazterik hasi behar ziren beharrean.

774. Irina eta harriz betetako dilistak (BRM-089/006)

Bere arrebak baserrietara joaten ziren irin bila; askotan milizianoek osten zien irina. Harriz betetako dilistak dakartza gogora.

775. Soldadutzan gose, jateko beraiei eman aurretik saldu (BRM-089/008)

Soldadutzan marinan egon zen. Jatekoa izaten zuten, baina askotan beraien jatekoak saldu egiten zituzten beraiei eman barik.

776. Itsasoan gose (BRM-089/009)

Itsasoan zebilela gosea ezagutu zuen Inasek. Zer jaten zuten azaltzen du: marmitakoa, atun errea, "miekie"... Ez du ulertzen zergatik ez zieten ematen gehiago. Bera mutil moduan hasi zenean lanean, jende asko oraindik gerratik etortzeko zegoen. Etxean, ostera, ez du goserik ezagutu.

777. Gerran bapore denek egin zuten alde (BRM-089/010)

Italiarrak Bermeora heldu orduko, baporeak Bilbo aldera joan ziren. Nazionalak Bilbora hurbildu zirenean bueltatu ziren asko etxera; baina gerrako itsasontziak zaintza egiten egon ziren, eta asko atxilotu zituzten horrela.

778. Metrailak euren albora jausi (BRM-089/011)

Santa Eufemia elizak kanoikada bat duela dakar gogora. Doloreseko tabernaren inguruan "loidxiek" egon ziren (ontzien bodegak); eta, bertan zeudela, hots batzuk entzun ostean, burdin zatiak jausi ziren beraien ondora. Burdin horiek ukituz gero, erre egiten zuten, metrailak ziren.

779. Gerrara boluntario joanez gero, 10 pezeta eta tabakoa (BRM-089/012)

Gerran bere aitak alde egin behar izan zuen baporean. Gerratik itzulera gogoratzen du, Baztarren zeudela aita heldu zenekoa. Anaia ere gerra izan zuen. Gorriekin boluntario joanez gero, eguneko 10 pezeta eta tabako-paketea ematen zuten. Anaiak amari dirua eskatzen idazten zion.

780. Gudariek pasa behar izandakoak (BRM-089/013)

Boluntario joandako gudariek oso txarto pasa zuten. Lehenengo, euskaldunen alde; gero, nazionalekin; eta gero, zerbitzu militarra egin behar zuten. Urte asko guztira. Bere anaia Teruelen egon zen; bataila handiak egon ziren bertan.

781. Karabineroekin hartu-eman ona (BRM-089/018)

Karabineroekin ondo konpontzen ziren. Gaztelun egoten zen karabineroen txabola. Ontziko mutilak bidaltzen zituzten karabineroengana atunarekin, tratua egiteko.

782. Kanaria Uharteetatik kontrabandoa (BRM-089/021)

Kanariar Uharteetatik askok tabakoa ekartzen zuten gero herrian saltzeko. Estankoetakoak hori igartzen zuten ez baitzuten betiko moduan saltzen. Telebistak eta itsasontzitako irratiak ere erosten zituzten. Behin harrapatu egingo zituztelakoan eta askok itsasora bota zuten jeneroa.

783. Tabakoa ardotan gordeta (BRM-089/022)

Radarra ezizena jarri zioten karabinero bati. Kontrabandoa topatzeko usain ona ei zuen. Tabakoa ardotan sartuta ekarri zutenekoa kontatzen du. Bakoitzak berea gordeta zuen ez deklaratzeko, baina karabineroak berdin-berdin aurkitu zien nahiz eta Inasek lehenagotik abisatu zer zen gerta zitekeena.

784. Merkantziaren erdia karabineroentzat (BRM-089/023)

Kontrabandoan harrapatu zituzten gizon batzuei laguntzeko, Inasek "Radar" karabineroarekin berbetan ahalegindu zenekoa kontatzen du. Harrapatutako erdia eman zieten azkenean.

785. Etxe inguruan joalasean, kaminora begira (BRM-093/002)

Umetan, etxe inguruan ahizparekin jolasean ibiltzen zen; kaminoan gora eta behera zebiltzan autoak eta baserritarrak ikusten ematen zuten denbora zati bat. Gerra heldu zenez, atzeratu egin zen eskolaratzea eta zazpi urterekin hasi zen eskolara.

786. Amak eramaten zien bazkaria herrira (BRM-093/003)

Eskolatik urruti bizi zirenez, amak eramaten zien egunero bazkaria. Gero, etxera itzulitakoan, etxean jaten zuten merienda.

787. Argirik ez etxean (BRM-093/004)

Ez zuten argirik etxean. Kandelen argipean egiten zituzten lanak, eta aitak kortako lanak egiteko, txandaka eusten zioten farolari bi ahizpek. Behin afalduta, ohera.

788. Etxean geratu beharra, sukaldean (BRM-093/005)

Urte gutxitan joan zen eskolara. Etxeko amamak egiten zuen sukaldeko lana, baina hura hiltzean berak geratu behar izan zuen etxean, eskola utzita. Arratsaldeetan partikularrera joaten hasi zen, baina hala ere ez omen zuen askorik ikasi. Dena den, plazara hasi zenean, kontuetan ondo moldatzen ikasi zuen.

789. Lan asko eginda, aurrera (BRM-093/006)

Ogerlekoa ezin zen apurtu, fin jokatu behar zen. Familia handiko baserrietan diru gutxi egoten zen. Eurak, gutxi zirenez, errazago moldatzen ziren, baina lan asko eginda.

790. Baserriko lan guztiak egindakoa da (BRM-093/007)

Gaur makinekin egiten diren lanak abereekin eta eskuz egin beharra zegoen. Etxean mutilik ez zegoenez, era guztietako lanak egiten zituen baserrian: belarra ebaki, behiak eta idiak buztartu...

791. Baserriko ganadua (BRM-093/009)

Baserrian behiak, idiak, txahalak, astoa eta bi txerri izaten zituzten.

792. Igandeetan etxea garbitu (BRM-093/010)

Soineko berriak eta erromeriak poz itzela ematen zieten. Igande goizean, sei eta erdietako mezatara joaten ziren. Etxera itzuli, gosaldu eta etxea garbitzen ematen zuten igandea, iluntzera arte, astegunetan beharrezkoena baino ez baitzuten egiten etxe barnean.

793. Orain sarri-sarri da jai (BRM-093/011)

Igande iluntzean dantzara joaten ziren Bermeora, baina, orain ez bezala, hamaiketan edo, etxera itzultzekotan. Orain asko aldatu dira gauzak: jai asko dago eta ez dago ordurik; lehen, santuen izeneko jaiak egoten ziren eta ilusioa zuten horiek heltzeko.

794. Neskak tabernara ez (BRM-093/012)

Orain baino pozago bizi zen jendea lehen. Oraingo gazteei ez zaie pozik ikusten. Parranda egiten dutenean ez dira izaten ezertarako gauza hurrengo egunetan. Lehen, andrazkoak ez ziren tabernetan sartzen; oso noizbehinka norbaitek gonbidatuta kafetegiren batera joaten ziren.

795. San Migeleko jaiak (BRM-093/013)

San Migel auzoko jaietan, soinularia eta udalak bidalitako danbolin-jotzaileak aritzen ziren. Udalekoak joaten ziren alkate-barriokoarekin bazkaltzera; guardia zibila ere han egoten zen. Denen artean ordaindutako zahagiko ardoa edaten zen.

796. Dantzatzeagatik ordaindu egin behar (BRM-093/014)

Erromerian, bikoteetako mutilek ordaindu egin behar izaten zuten dantzan egitearren. Soinulariari ordaintzeko adina biltzen ez bazen, auzoko gazteek ordaintzen zuten denen artean.

797. Gau aldera "satsetan" (BRM-093/015)

San MIgel jaietan, erromeria amaitu ondoren, mutilek laguntzen zieten neskei etxera; bidean ere ederto pasatzen zuten. Horri "satsetan egitea" esaten zioten.

798. Besotik helduz gero, laster ezkontza (BRM-093/016)

Bikotea bakarrik irteten hasi aurretik lagunekin ibiltzen zen urtebete edo bian. Besotik heltzen ziotenean elkarri edo biak bakarrik ibiltzen hasten zirenean, ezkontzara begira hasitako harremanaren seinale izaten zen.

799. Lau urte nobiotan eta 22rekin ezkondu (BRM-093/017)

Hamazazpi urterekin hasi zen nobiotan, eta lau urte geroago ezkondu ziren. Senar ona eta formala izan zuen; beti lanean, elkarrekin.

800. Herriko salmentekin baserria aurrera (BRM-093/018)

Ezkondu zirenetik, senarrarekin batera egiten zituen baserriko lan guztiak. Autoa erosi zutenean, eguerdi aldera herrira joaten ziren esnea, barazkiak eta fruta saltzera. Hori guzti hori desagertu da zaharrekin batera. Baserrietan geratu diren gazteek herrian egiten dute lan.

801. Zapatak sasi artean itzulerarako (BRM-093/019)

Antzina, oinez joaten ziren baserritik herrira, eta sartu baino lehen aldatu egiten ziren oinetakoak; zaharrak ezkutatuta uzten ziren sasi artean, itzulerarako. Gainera, behin eta berriz konpontzen zituen zapatariak oinetakoak; gaur egun, aldiz, berriak erostea konpontzea baino merkeagoa da.

802. Ezin berria erosi (BRM-093/020)

Ez zen diru askorik egoten, eta ezin zen gaurko beste gauza erosi. Soineko edo oinetakoei luzarazi behar izaten zitzaien. Ezin zen dirua etorri ahala gastatu, jana eskuratu ahala jan ezin den bezala.

803. Herrikoak baserritarrari irain (BRM-093/021)

Baserriko emakumea eta herrikoa ezberdin janzten ziren. Herrikoek irain egiten zieten baserrikoei, baina baserrian ere bazeuden balio handiko emakumeak. Gaur egun, ez dago alderik.

804. Eguen arratsaldeetan musika plazan (BRM-093/022)

Bermeon, musika banda zegoen eta eguen arratsaldeetan dantzara ateratzen ziren herrikoak; baserrikoak, aldiz, jai bereziren bat izan ezean, igandera arte ez ziren herrira jaisten.

805. Makinek erraztu zuten lana (BRM-093/023)

Eskuz egiten zen lan dena. Makinak heldu zirenean, antzinako tresneria zintzilik geratu zen, dekoraziorako. Aurrerapen itzela izan zen belarra ebakitzeko makina.

806. Garia txolatan (BRM-093/024)

Txolatan lotzen zen garia; txolak bi egunean hamarreko ilaretan lehortzen uzten ziren soroan. Gero, berrogeita hamar txolako metak egiten ziren, eta horrela jakiten zuen jabeak zenbat gari zeukan.

807. Gari-jotzea (BRM-093/025)

Gizonek jotzen zuten garia losa gainean. Aurrerakuntza handia izan ziren makinak; izan ere, egunean hiru edo lau etxetako garia jotzen zuten. Makinarekin batera etxekoek eta auzokoek egiten zuten lan, eta guztiei ematen zien jana eta edana etxeko andreak. Amaitu ahala, talde guztia joaten zen auzoko beste baserri batera.

808. Gazteek bizkarra eman diote baserriari (BRM-093/026)

Makinek aurreratzen jarraitu dute eta asko erraztu dute baserrietako lana. Hala ere, gazteek beste bizimodu bat nahi dutenez, baserria utzi eta beste lan batzuetara jo dute.

809. Jotzeko makinarekin lanean (BRM-093/028)

Biren artean edo erosten zuten jotzeko makina eta anegako kobratzen zioten baserritarrari. Etxe batetik bestera ganaduak tiratutako gurdiari lotuta eramaten zen makina.

810. Etorkizunean zer? (BRM-093/029)

Jendeak garia ereiteari utzi zionean, makina ere gelditu egin zen. Dena desagertu zen. Gaur, krisia dago eta ondo bizi gara, baina zulo handiak ikusten ditu Begoñak.

811. Urte guztirako artoa (BRM-093/030)

Urte guztirako artoa egoten zen, etxekoentzat eta ganaduarentzat. Bermeoko Artika auzoko errotetara eramaten zuten artoa ehotzera. Errotariak irinetan kobratzen zuen egindako lana.

812. Txahalari taloa (BRM-093/032)

Gurdian eramaten zen artoa errotara. Ka(i)xetan gordetzen zen etxean. Behiei pentsutan ematen zitzaien irina eta txahalei taloa ahora, esne gutxiago edan dezaten.

813. Artaburutik arto irinera (BRM-093/033)

Artoaren azala ganaduarentzako, buruxkak sutarako eta garaua irinetarako. Artoak zituen "garafie, burutxie eta lastue". Zuritu egiten zen artaburua, labatik pasa eta hurrengo egunean garandu eta hautsa kendu, errotara eramateko.

814. Goserik ez, baina mizkinkeriarik ere ez (BRM-093/034)

Latza izan zen gerraostea. Ogirik ez zen egoten, taloa baino. Etxerako txerria hazten zen, baina neurtuta jaten zen. Ez zen erraza jana eskuratzea; goserik ez zegoen, baina gaur eguneko mizkinkeriarik ere ez.

815. Apaizarentzako jasotakoaren zati bat (BRM-093/035)

Baserririk baserri joaten zen sakristaua apaizarentzako zen uztaren partea biltzera. Zelemina eramaten zuen neurtzeko, eta finkatuta egoten zen zer zenbat eman.

816. Hil berriaren elizako sepultura (BRM-093/036)

Hil berriaren etxeko andreak jartzen zuen sepultura elizan: bi kandela eta manteltxo zuria beltzaren gainean. Han aurrean egoten zen bera. Jendeak dirua botatzen zuen eta meza ostean, apaizak hango diruaren truke otoitz egiten zuen arimaren alde.

817. Oinez, mendirik mendi, elizara (BRM-093/037)

Oinez joaten ziren ALmikako elizara, igandean, hamarretarako, sepultura jartzeko. Almikara heldu baino lehen aldatzen zituzten oinetakoak, eta zaharrak sasi artean uzten zituzten etxera itzultzen zirenerako.

818. Opilak, hildakoek jateko (BRM-093/038)

Begoñak ez du ezagutu, baina lehenago, opilak eramaten omen zituzten elizako sepulturara. Etxean gari irinaz egindakoak omen ziren; hildakoentzako

egindakoak, baina meza ostean apaizak eramaten zituen etxera eta berak jango zituen seguruenik.

819. Sepulturaz beteta eliza (BRM-093/039)

Sepulturaz betetzen zen eliza, eta elkarri botatzen zioten dirua. Bakoitzak bere izeneko aulkia izaten zuen eta istilu txikiak ere sortzen ziren aulkiak zirela eta.

820. Buldak hildakoentzat (BRM-093/040)

Kulto kleroa deitzen zitzaion bulden erosketari. Bulda erosita izaten zen etxean, eta hildakoren bat izanez gero etxean, paper hura jartzen zitzaion gainean.

821. Intsentsu egunetako arropa beltzak (BRM-093/041)

Intsentsu egunetarako arropak janzten ziren sepulturara, elizara joateko domeketan. Gazteek berritzen zituzten arropa beltzak, baina zaharrek gorrituta ere erabiltzen jarraitzen zuten. Plantxarekin kentzen zieten kandela-negarra arropei.

822. Noiz arte lutoa? (BRM-093/042)

Egoeraren arabera luzatzen zuten lutoa eta sepultura. Alde batetik, hildakoarekiko loturaren arabera; bestetik, etxekoen premiek baldintzatzen zuten bata zein bestea.

823. Asko aldatu da dena (BRM-093/043)

Zaharragoek laiak ezagutu zituzten; astorik gabe joaten ziren herrira, oinez Mungiara. Begoñak ez ditu horiek ezagutu, baina aldaketa asko bizi izan ditu. Orain, gaixoarentzako ere hainbat erremedio ematen dituzte, baina ez dakigu benetan kutxa horietan zer dagoen.

824. Hildakoari egiten zitzaizkion arretak eta zeremoniak (BRM-094/001)

Heriotzaren orduko arretak eta zeremoniak: elizakoak ekarri, ohean jantzita ipini, gau-bela egin arrosarioa errezatuz ("errezadorie" etortzen zen); batzuk edaten, negarrez beste batzuk... Hileta hurrengo egunean. Hiru hileta klase: Lehen mailakoa, bigarrenekoa eta hirugarrenekoa. Bakoitzaren ezaugarriak. Anderoek eramaten zuten gorpua elizara. Jaten ematen zitzaien. Handik aurrera sepulturara joan behar izaten zuen domekero etxeko andre batek. Almikan kanpaiak jotzen zuen norbait hiltzen zenean. Gizonezkoena eta emakumeena, ezberdin.

825. Gauza gutxiagorekin pozago bizi ziren orduan (BRM-094/002)

Gauzak oso ezberdin lehen eta orain. Beretzat sasoi hura pozgarriagoa zen. Gazte asko poztasun gutxiz ikusten ditu, dena eskura izan dutelako izango da. Abarketa berriak erostea edo San Juango erromeriara joatea, esaterako, gauza handiak ziren eurentzat. Orain, berriz, jendea munduaren azkeneraino, kasik ilargiraino, joaten da. Bitartean asko goseak hiltzen. OSO PASARTE INTERESGARRIA.

826. "Inkisiziñua", elkar ulertu ezin zuten sasoia (BRM-094/003)

Aitak kontatzen zien antzina, Jesu Kristo jaio aurretik, Inkisizino garaia izan zela. Elkar ezin zuten ulertu. Orain berriz itzuli ei gara sasoi horretara.

827. Hil-kutxa (BRM-094/005)

Hil-kutxak arotzak egiten zituen. Antzina, oihalez forratzen zituen kanpo eta barruak. Gerora, kanpoa bernizatzen hasi ziren. Gainean gurutzea eramaten zuten. Hiletaren ondoren gurutzea etxera ekartzen zen. Arrosarioak ipintzen zitzaizkion hildakoari eskuetan. Ezkondu zen egunekoak ditu gordeta beretzat.

828. Testamentua (BRM-094/006)

Lehen ere testamentuak egiten ziren, orain bezalaxe. Notarioak beti ezagutu ditu. Banaketak ondo zehaztuta uzten ziren. Orduan ere izaten ziren haserreak. Bik ez dute borrokan egiten batek gura ez badu, baina katuak ere ikusten ditu borrokan.

829. Artilezko koltxoiaren lanak (BRM-094/007)

Koltxoiak garafazkoak (arto-azalezkoak) izaten ziren, baina gero artilezkoak irten ziren. Onak ziren artilezkoak. Ondo garbitu behar zen lehenengo. Gero, urte birik behin atera eta jo egiten zen harrotzeko ("afo-afo ipini, altzata"). "Garafazko lastamarrie" zelan egiten zen lehenago.

830. Arropak eskuz garbitzen (BRM-094/009)

Arropa garbiketak nola egiten ziren: sutako hautsa, ereinotz orriak usain ona emateko, gero errekara eroan, aklaratu, anila eman... Buruan etxera ekarri eta eskegi. Orduan arropa orain baino lohiagoa, zikinagoa erabiltzen zen. Hamabost egunean ere erabiltzen ziren soinean.

831. Zikin zailenak zelan garbitzen ziren (BRM-094/010)

Garbiketa prozesua errepikatzen du. Nola garbitzen ziren zikin zailenak, hilekoarenak edo umeenak, esaterako. Txiza pixka batengatik ez ziren garbitzen. Eta hala ere morrosko ederrak hazten ziren

832. "Dungulua" (morokila) gustatzen zaio (BRM-094/011)

Neska-mutil ederrak hazten ziren orduan ere. "Dungulue" (morokila) gustatzen zaio. Orain ere ipintzen du, nahiz eta Colacao apur batez jaten duen.

833. Karburo argia (BRM-094/014)

Argindarra 14 edo 15 urterekin sartu zen etxean. Ordura arte karburoa eta kandela ezagutu ditu. Karburoak zelan egiten duen lan. Hasierako argiak bonbilentzat zuen bakarrik indarra.

834. Hauteskunde eguna Almikan (BRM-094/017)

Amari entzunda daukanez, Errepublika garaian botazioak izaten ziren Almikan, eta egun horretan "guardiasaltuak" ("guardias de asalto", orduko poliziak) etortzen ziren zaldian. Jendeak ihesi egiten zien, jo egiten zutelako.

835. Esne-diruak kobratzeko itxaron egin behar arrantzaleek partila kobratu arte (BRM-094/019)

Ez zuten arraina baserriko jeneroagatik trukatzen. Dirua erabiltzen zen. Sarri itxoin egin behar izaten zuten esne diruak kobratzeko, arrantzaleek partila kobratu arte. Lehengo bizimodua "penasa" zela dio, gogorra. Goserik ez zuten pasatzen baina dirua ondo zaindu behar zen.

836. "Plato Único", gobernuaren zerga kobratzen etxez etxe (BRM-094/020)

Aita San Migeleko auzo-alkate izan zen berrogei urtez. Udalen erabakien berri auzoan ematea ei zen haren eginkizun nagusia. Zergen errekaduak pasatzea ere bai. "Plato único" izenekoa zen horietako bat, erreal bat kobratzen zen. Bera ere ibilita dago 7-8 urterekin auzoan kobratzen. Bermeoko denda batean jasotzen zituzten udaleko gutunak. Bandoak bidean josita ipintzen zituzten jendeak ikusteko moduan. Egur-gurdi bat ematen zioten aitari sari-gisa urtean, dirurik ez.

837. Irratia ezkontza-bidaian erosi zuten (BRM-094/023)

Irratirik ez zuten izan berandura arte. Auzoan bazen bat edo beste. Ezkontza-bidaian erosi zuten txiki bat, Donostian, hotelean egun bat gutxiago eginda aurreratutako diruaz. Radio Andorran musika entzuten zuten. Pirenaica ez zen ondo hartzen.

838. Egunkaria, irakurtzeko eta beste eginkizun batzuetarako (BRM-094/024)

Egunkaria beti erosten zuten herrira jaitsitakoan. Baserritarrak txandaka jaisten zirenez, elkarri pasatzen zioten irakurritakoa. Sua pizteko eta komunerako aprobetxatzen zuten papera.

839. Komuna etxetik aparte (BRM-094/025)

Komuna kanpoan zeukaten. Teilatuko uraz garbitzen zen, euria egiten zuenean. Komunerako erabiltzen zuten egunkari papera. El Correo erosten zuen aitak. Etxe gehienetan ez zegoen bainugelarik, ezta kalean ere.

840. Ilea "a lo grazon" ebakitzen zieten (BRM-094/027)

Umetan amak kalera eramaten zituen ilea moztera. "A lo grazon" (garçon) ebakitzen zietela dio; mutilen erara, txoritxo batzuekin. Handitu zirenean, permanentea egitera jaisten ziren.

841. Arrosarioa eta letania (BRM-094/031)

Arrosarioa asko errezatzen zen etxeetan. Berak ere badaki. Kirie eleison-ak, (arrosario amaieran esaten den letania) ere badakizki. Letaniak beste gauza bat ere badira. Arrosarioak bost misteriokoak izan ohi dira, baina badira hamar eta hamabostekoak ere. Orain jendeak ez daki ezta 'Aitaren' egiten ere. Berak ez daki erratuta ala zuzen dagoen erlijio kontuan.

842. Eskolara ia batere ez (BRM-098/002)

Lau urterekin hil zen ama. Bi anai-arreba geratu ziren, bera zaharrena. Soloko lanak egin behar izaten zituen, itaurrean egin eta abar, eta eskolara ezin joan. Baina irakurtzen eta idazten, eta batuketak eta kenketak egiten ikasi zuen.

843. Lan eta lan bizitza guztian (BRM-098/005)

70 urte bete arte lan eta lan besterik ez du egin Julik. Gizonek baino lan gehiago egin du baserrian.

844. Abadeak dotrinatik bialdu jertserik ez izateagatik (BRM-098/006)

Dotrinara joan zen lehenengo egunean abadeak kanpora bidali zuen jertse barik joateagatik. Eta jertserik ez zuenez, ez zen harrezkero dotrinara joan. Komunio eguna heldu zenean, ezin izan zuen jauna hartu. Amarru batez baliatu behar izan zen komunioa egiteko.

845. Aitita jo makilaz Julik (BRM-098/008)

Aititarekin haserretu egin zen soloan lanean zihardutela, eta makilaz jo zuen Julik. "Makallo kastie" zela esaten zion Julitari, kasta gogorra. Aitita eta iloben arteko gorabeherak.

846. Neskame Bilbon eta Sukarrietan (BRM-098/013)

Bilbon, neskame egon zen lekuan bere gain joaten ziren garbiketa lanak. Zortzi ogerleko irabazten zuen hilean. Udan etxekoandrea Sukarrietara etortzen zen seme-alabekin. Oso ugazaba jatorrak izan zituen baina beharra sendo egin behar izaten zuen.

847. Ezin Casillara dantzara joan (BRM-098/015)

Hamabostean behin izaten zuen libre, igande arratsaldeko lauetatik zortzietara. Baina ezin joan Casillara dantzara. Mariaren Alabetara joan behar, ez duen ezertarako askatasunik

848. Baserriko beharrak (BRM-098/026)

Azpiak nola ateratzen diren. Satsa kanpoan pilatzen zuen. Behiak eskuz erazten zituzten. Alabek ere ikasi zuten segan eta behiak erazten. Denetik ikastea komeni da baserrian.

849. Iratan zaldiaz (BRM-098/028)

Zaldiaz narran ekartzen zuten ira basotik, kodainaz ebaki ondoren. Satsa karretilan ateratzen zuen egunero kortatik. Gizona Ameriketara joan aurretik, gurdia erabiltzen zuten langintza askotarako.

850. Artoa labean berotu garandu aurretik (BRM-098/031)

Artaburuak labean berotzen zituzten garandu aurretik. Gerra ostean aita zaldiaz joaten zen errotara. Artikakora joaten zela uste du. Errotariak irinaren parte bat hartzen zuen beretzat ordainketa gisa.

851. Errenta jenerotan ordaintzen zen (BRM-098/032)

Errenta jenerotan ordaintzen zioten ugazabari. Aita izaten zen errentero etxetan jeneroa batu eta ugazabari eramaten ziona. Ugazaba ona omen zuten. Geldi-geldika joan ziren etxea ordaintzen.

852. Artikako errekan arropak garbitzen (BRM-098/033)

Artikako errekara joaten zen arropa garbitzera. Zubi azpian jarri eta jotzen zuen lixiba. Gero arropak buruan hartu eta etxera. Xaboia, lejia eta anila

erabiltzen zituen. Dotore geratzen ziren arropak. Azken aldera, astoaz joaten zen.

853. Hartza eta artzaina aurrez aurre (BRM-102/001)

Txakur bat aski da artalde handia zaintzeko. Txakur bikaina izan zuen. "Otsuek" (hartzak) hainbat ardi hil zizkion. Gero, txakurraren laguntzaz, zenbait hartz hil zituen eskopetaz. Behin, arbola gainera igota itxaron zion hartzari; eta, atzealdetik sartu zitzaion arren, lortu zuen garbitzea.

854. Txakur bikaina izan zuen (BRM-102/002)

Txakurra nola trebatu zuen hartzak harrapatzeko. Artaldea edozein lekutan utzi zitekeen txakur harekin. Hartza hurreratzen zenean, aurrean hartuta bidaltzen zuen. Ez jaguarrik eta ez gizonik hurbiltzen zen gero artaldera.

855. Artzaina eta txakurra bat eginda (BRM-102/005)

2.700 ardi banan-banan igaro behar izaten zuten lepo batetik bestaldera igarotzeko. Artzaina gora heldutakoan ardi guztiak sakabanatuta egoten ziren, eta txistua jota txakurrak zuzentzen zituen komeni zen lekura, alkandora zuri batez seinaleak eginez. Goizean lehenengo orduan eramaten ziren ardiak errazen batetik bestera. Loreni gustatu egiten zaio behar hori.

856. Hemengo artzaintza eta Ameriketakoa guztiz ezberdinak (BRM-102/007)

Ameriketara joan aurretik artzaintzan ibili gabe zegoen. Baina hemengoak ez du harako balio, 2.700 ardi gobernatzea guztiz ezberdina delako. Han dena pinua zen, baina belar asko zegoen basoan. Jatekoa nahikoa izanez gero, ez ei da hain zaila artzaintza.

857. Artzaina eta kanperoa (BRM-102/008)

Artzainaz gain "kanperoa"ren figura zegoen Ameriketan. Kanperoaren lana da artzainari jatekoa eta beharrezkoak dituen beste gauzak hornitzea. Hamabostean behin edo izaten zuen artzainak kanperoaren bisita.

858. Lasai leku guztietan (BRM-102/010)

AEBn artzain egon zeneko kontuak. Andra Mari egunez elurra egin zuen behin. Artaldearekin, ustekabean, amildegi baterantz zuzendu zen. Buelta hartu eta bideratu ziren berriz. Ez omen da inoiz urduri jarri behar, lasai hartu behar dira gauzak.

859. Hartzari segika eskopetaz (BRM-102/011)

Ilargi beteko gau batez, arbolara igota itxaron zion hartzari. Azpian izan zuenean, tiroa bota zion, baina ihes egin zuen zaurituta. Bide luzean jarraitu zion txakurrarekin. Aurkitu eta hil egin zuen. Buztana moztu eta itzuli zen artaldera. Tenplea behar omen da, ez da izutu behar ez hartzarekin eta ez gauarekin.

860. Lakuan arrantzan (BRM-102/013)

Andra Mari ostean jaisten ziren menditik. Behin gogoan du amuarrain pila harrapatu zuela lakuan amuaz. Bota ahal pikatzen zuten; legatzaren tamainakoak ziren asko. Hotzaz izoztu egin ziren eta luzaroan jan zuten arraina. Oso gozoa ei da hango arraina.

861. Santa Eufemia egunerako bi arrainkari (BRM-102/014)

Santa Eufemia egunean zerbait apartekoa jatea pentsatu zuen. Lakura joan eta sekulako arrainkari bi (amuarrain) harrapatu zituen. Beste behin, lehengusuaz saiatu ziren errekan zakuaz harrapatzen, baina kanaberaz harrapa zitezkeen, nonbait, hango arrainak.

862. "Karrokanpoa", artzainaren etxea (BRM-102/015)

Neguan beren arrantxo inguruan moldatzen ziren. Hesi barruan izaten zituzten ardiak batzuetan, eta inguruko artadi hondoetan eta soroetan bazkatzera eramaten zituzten beste batzuetan. "Karrokanpoan" (roulotte) egiten zuten lo. Berehala berotzen ei zen. Ez zuen iratzargailu beharrik. Kafea hartzen zuen bakarrik goizean.

863. Ardiak kontatzen (BRM-102/016)

Oso gutxi gaixotzen ziren ardiak. Eskortetan kontatzen zituzten. Ehuneko multzotan, 27 multzo denera, 2.700 ardi baitziren. Faltrikeran 27 misto (pospolo) sartu eta ehun ardi kontatu ahala bat bota egiten zuten lurrera. Horrela jakiten zuten zenbat zeuden eta zenbat galdu ziren.

864. Ibili ezin diren ardiak hartzarentzat (BRM-102/017)

Beti gaixotzen dira ardi banaka batzuk, ibiltzeko zailtasunak izaten dituzte gehienetan. Markatu egiten dira, eta artaldeari jarraitu ezin diotenak utzi egiten dira hartzak jan ditzan. Baina normalean ardiak ondo ibiltzen dira basoan.

865. Bildotsak haginekin irentzen (BRM-102/019)

Haginekin irentzen zituen ugazabak bildotsak. Estimazio handia izuten koskabiloek (barrabilak) jateko. Buztanean goma bat sartzen zitzaien. Udaberrian irentzen ziren. Ar guztiak irentzen ziren, okelara saltzeko zirelako. Buru zuriak aurrerako uzten zituzten, eta buru beltzak kentzen.

866. Bildotsak jaiotzen (BRM-102/020)

Martxo inguruan hasten ziren bildotsak jaiotzen. Arrantxoan bertan izaten zen erditzea. Kanpoan multzoka elkartzen zituzten erditutako ardiak eta gauerako etxera eramaten zituzten. Laster ikasten du bildotsak amarenganako bidea.

867. Bildotsa hiltzeko prestatzen (BRM-102/022)

Bildotsak mendian hazten ziren, udaberri-uda sasoian. Behera ekarritakoan 24 orduz baraurik edukitzen ziren. Pisatu eta gero gizentzeko lekura eramaten ziren, eta handik hiltegira.

868. Ilea mozten eta markatzen (BRM-102/024)

Ardi-moztaileak (eskiladoreak) etortzen ziren. Langintza hori nola zen. Gero markatu egiten zituzten.

869. Ameriketako artzaintza gainbehera Zelanda Berriaren konpetentziagatik (BRM-102/025)

Hasieran artilea saltzen zen, baina gero Zelanda Berrian merkeago ekoizten zituzten okela eta artilea, eta artzaintzak beherakada handia jasan zuen bera handik itzuli zenerako. Hasita zeuden arrantxoetan behiak ipintzen.

870. Euskara ezberdina Bermeoko baserrietan eta kalean (BRM-102/030)

Euskaraz ezberdin egiten da Bermeon baserrian eta kalean, baita 50 metroko distantzian ere. Bermeoko kaletarrek beren berbaera ei dute. Demikutik Mundakara ere ezberdin egiten da. Hikako forma batzuk erabili dituenez ("dok", "etxuat") galdetu zaio ea bereizten dituen hika eta zuka, baina ez da horretaz ohartzen.

871. 'Plentzinunekuek' ezizena (BRM-103/003)

Emili Plentzinu edo Emili Plentzinunekue ezizena. Beren arbasoen baserria erre egin zen, eta Emiliaren familia Plentziara joan zen bizitzen umetan. Gero Bermeora itzuli zirenean, Plentzinu ezizenarekin geratu zen Emiliaren familia. Sistiaga abizena Arratiatik ei dator. Ama bermeotarra.

872. Antzinako Bermeon denak pobreak (BRM-103/005)

Berak gaztetan ezagututako Bermeon denak pobreak ziren. Jende ona, beti elkarri laguntzeko prest zegoena. Armonia onean bizi izan da bai familiarekin eta bai auzoarekin.

873. Buruan arrain-otzara handiak garraiatzen (BRM-103/006)

Umetan gutxi olgatu da. 13 urterekin jaitsi zen portura beharrera. Arrain-otzara handiak eramaten zituen buruan hartuta kofradiara.

874. Karnata prestatzen neskatilak (BRM-103/007)

Neguan karnatarako antxoa txikia harrapatzen zen. Barriletan ipintzen ziren gatza emanda. Tretzak prestatzen egiten zuten lana "neskatilek".

875. Sareak tindatzen (BRM-103/008)

Sareak kolorea galtzen zuten erabileraren poderioz, eta portu ondoko leku batean tindatu egiten ziren. Gero Lameran eskegitzen ziren.

876. Arraina portutik fabrikara garraiatzen (BRM-103/009)

Ilaran jarri eta eskuz esku pasatuz husten zen atuna ontzitik. Pisatu eta banan-banan jasotzen zuten kamioira. Zenbait garraiolariren izenak. Antzina, gurdian ere eramaten zen behiek tiratuta. Gero neskatilak otzaren bila joan behar izaten zuten fabrikara. Buruan ekarri eta marea behera zegoenean garbitu egiten zituzten. Baporeen ondoren motorrak etorri ziren. Aurrerapen handia izan. Neskatilek esku-gurdiak erabiltzen hasi ziren.

877. Bermeoko andreak lan asko egindakoak (BRM-103/010)

Portuan lanik ez zegoenean, fabrikara joaten ziren. 16-17 urterekin hasi zen fabrikan. Lana ondo egiten zen eta lan-giro ona zegoen. Antxoa garaian emakumeek gizonen beharrak egin behar izaten zituzten, neke fisiko handiko lanak. Bermeoko andreak behar asko egin ei du portuan zein fabrikan. Latak egiten eta abar ere jarduten zuten.

878. Portuko "neskatilla" lanak (BRM-103/011)

Izeko batek utzi egin zuen neskatila lana, eta haren ordez sartu zen Emilia. Lau neskatila ziren bi barkurentzat. Garbitasunak egin, barkuak janariz hornitu eta horrelakoak.

879. "Freskotan" lanean (BRM-103/012)

Sasoi batean "freskotan" ibili zen lanean. Arrain-erosle batentzat egiten zuen: izotz bila joan, arraina izotzetan sartu, esku-gurdiz kamioira eraman eta horrelakoak. Ugazaba andrea oso ona izan zuen, egunean egunekoa ordaintzen zion eta gainera erraina eta itsaskiak ematen zizkion. Oso berba onak ditu ugazabentzat.

880. Kontserba-fabrikako lanak (BRM-103/014)

Fabrikako lanak: atunak zatitu, egosi, latetan sartu... Emiliaren lanetariko bat olioa botatzea zen. Beti kantuan ibiltzen zen, pertsona alaia izan da. Enkargatuak jakiten zuen bakoitza zein lanetan ipini .

881. Umeak fabrikan lanean (BRM-103/015)

14 urtera arte ezin zuten umeek fabriketan lan egin legez, baina egin egiten zuten lan asko zegoen garaian. Inspektoreak sumatzen zituztenean, ezkutatu egiten zituzten haurrak.

882. Zaharrek burua berotuta, soldata-igoera eske (BRM-103/016)

Fabrikako zaharrenek burua berotzen zieten sartu berriei soldata-igoera eska zezaten. Sinistu, ugazabarengana joan eta honek erantzun eurak etor zitezela. Izan ere zaharrek onura atera nahi zuten, gazteak aurrera botata. Fabrikan gabon-saria ere ematen zieten, bakailaoa eta olio botila.

883. Etorkin batzuek euskaraz ikasi, beste batzuek ez (BRM-103/020)

Gizonek egiten zituzten lan fisiko astunenak. Badajozetik etorririkoak ziren asko. Batzuek euskaraz ikasi zuten baina beste batzuek ez, eta "hablen en cristiano" esaten zieten.

884. Abisuak mutilaren bidez lehendabizi, irrati bidez gero (BRM-103/023)

Antzina mutila ibiltzen zen etxez etxe abisuak ematen. Esaterako, zein ordutan helduko zen ontzia itsasotik. Gero irratiz egiten zen hori, etxean hartzen zuten deia. Gaur egun askoz ere informazio gehiago dute etxean.

885. Portuko emakumearen janzkera (BRM-103/025)

Mantoia, bufanda, amantala, eskuz egindako jertsea... ziren orduko jantziak. Gomazko botak bai baina eskularrurik ez. "Piedrabolak", amu askoko arrantza-tresna.

886. "Partila", itsas langilearen soldata (BRM-103/026)

Gizonen erdia irabazten zuten "neskatilek". Partiletxean kobratzen zuten, lonjan bertan. Neskatila bat joaten zen bankura diru bila. Partilaz gain, afaria ere ematen zieten gizonei zein andreei.

887. Bi lan batera (BRM-103/028)

Bilbora arrandegi batera joateko proposamena izan zuen baina ez zuen nahi izan. Portuan neskatila bezala eta arrandegian laguntzen,l behar biak batera eraman zituen, baina beti ere neskatila lanak zuen lehentasuna.

888. Errekara arropak garbitzera (BRM-103/031)

Ama errekara joaten zen arropak garbitzera. Dena eskutan garbitzen zen. Txukun-txukun pilatuta ekartzen ziren etxera. Etxean egindako xaboiaz eta txinbogaz egiten ziren garbiketak. Lixiba (lejia) ere erabiltzen zen.

889. 'El guerrero del antifaz' irakurtzen, anaiari hartuta (BRM-103/035)

Ez du egundo aldizkaririk irakurri. Lagunek artisten gauzak-eta komentatzen zituztenean adi-adi entzuten zien. Oraintsu hasi da egunkaria irakurtzen. El guerrero del antifaz eta Far West-eko nobelak irakurri izan ditu, anaiari hartuta. Bazen leku bat Bermeon nobelak saltzen eta alokatzen zituztena.

890. 'Bizkaia Irratia' eta 'Euskadi Irratia' entzuten (BRM-103/037)

Bizkaia Irratia entzuten du egunero. 09:00etan Begoñako meza. Domeketan, Arantzazuko meza Euskadi Irratian.

891. Oso eliztarra bere bizi guztian (BRM-103/038)

Egunero entzuten du meza elizan. Santa Marian egin zuen jaunartzea. Oso elizkoia izan da. Gustatzen zitzaion alabak aingeru janztea prozesiotan. Seme-alabak eta birlobak ere fedean hezi ditu.

892. Bermeoko prozesioak (BRM-103/039)

San Antonio Egunez, Aste Santuan, Gorpuzti egunez eta abar prozesioak egiten ziren. Prozesioen ibilbidea zein zen.

893. San Martin eta San Joan jaiak (BRM-103/041)

San Martinera joaten ziren umeei kutuna (begizkoaren kontrako amuletoa) ipintzera. Egun horretan gisatua jaten zen lonjetan. San Joanetan osasuna eta suerte ona eskatzen zitzaion santuari. Ugazabak atun bat ematen zien neskatilei.

894. "Nire nobixuaren ama" kanta (BRM-103/043)

"Hoy no vengo, salada, a la romería.../ Nire nobixuaren ama..." kanta.

895. "Saltzen saltzen..." kantua (BRM-103/045)

Lehenengo ikurrina ikusi zuenean Santa Mariako dorrean poz handia hartu zuen. "Saltzen saltzen..." kantua.

896. Etxekoen ezizenak (BRM-104/002)

Aitaren ezizena "Simontxunekue", amarena "Kantarakue" eta senarra "Asmor".

897. Neba-arrebak (BRM-104/003)

Amak umea galdu ondoren familia behartsu batekoa hartu zuten berak hazteko. Umezurztegitik ekarri zuten bigarren semea, berak abortua izan ondoren. Bigarren hau gerrako zaurien eta gaixotasunen ondorioz hil zen.

898. Eskola utzi eta portura lanera I (BRM-104/004)

Mojetara joan zen eskolara. Eskola utzi eta portura joan ziren ahizpa eta bera sareak konpontzera.

899. Basosa egurretan, gerra garaian (BRM-104/005)

Gerran, Bermeo inguruko basoetara (Bakio eta Mundakaraino) joaten ziren egurretan; buruan eramaten zituzten kargak. Ezkutatu egiten zituzten kargak eta zatika eraman. Aitak txikitzen zizkien egurrak.

900. Lonjan, sareak tindatzen I (BRM-104/006)

Itsasoko "artiek" tindatzeko biltegi antzekoa egin zuten lonjan, bi ahizpen artean egiteko lana han. Nola egiten zuten lan azaltzen du.

901. Kaian konpontzen ziren sareak (BRM-104/008)

Ontzitik kaira eramaten zituzten sareak han bertan konpontzeko. Bi ahizpen artean konpontzen zituzten sareak, hurrengo egunerako prest egoteko.

902. "Lepoan" edo gurdian eramaten ziren sareak (BRM-104/009)

Bizkarrean ("lepoan") hartu eta tiraka-tiraka kargatzen zuten gurdia eta lonjara eramaten zituzten sareak, han tindatzeko.

903. Lonjan, sareak tindatzen II (BRM-104/012)

Dendan erositako tinta erabiltzen zuten sareak tindatzeko. "Jaka eta fraka narruak" jantzita, bi ahizpak aritzen ziren tindatzen. Aitaren laguntza ere izaten zuten, eta aitari berari oso gogorra iruditzen zitzaion alaben lana.

904. Noiz tindatu sareak? (BRM-104/014)

Uretan erabiliaren erabiliaz zuritzen zenean sarearen haria tindatzen zituzten berriz sareak.

905. Sare motak (BRM-104/015)

Sare ezberdinak zeuden: motor handiek sare handiak erabiltzen zituzten, motor txikiek "masitxetarako" txikiagoak eta beste batzuk zeuden "driben" erabiltzeko.

906. "Driben" arrantzan (BRM-104/019)

Motor txikiak joaten ziren gauez itsasora. Sareak bertikalean botatzen zituzten, arrainak kateatuta geratzeko. Goizean altxatzen zen "dribe sarie" eta ekartzen zen herrira. Orduan andreek egiten zuten "despeskan", hau da, arrainak askatzen zituzten sareetatik.

907. Sareak konpontzeko hariak (BRM-104/021)

Dendan erosten zituzten sareak konpontzeko hariak, sarearen araberakoak.

908. Dribetik bentara arraina (BRM-104/022)

"Dribeko" arraina porturatutakoan, andreei deitzen zitzaien arraina askatzeko. Saskietan eta gurdietan eramaten zuten arraina "bentara", saltzera.

909. Bi kofradia (BRM-104/024)

Lehenago egon ziren bi kofradia: "goikoak" eta "behekoak", baina berak ez daki ezer horri buruz.

910. Tabernako pasadizoa (BRM-104/026)

Amari aratusteetan bertan gertatutako pasadizoa kontatzen du Luziak: mozorrotutakoak ordaindu ez eta gainerako bezeroak kexatu egin zitzaizkion.

911. Amaren ardura zen taberna (BRM-104/028)

Aita arrantzalea "masitxetara" joaten zen eta ama tabernan geratzen zen. Aitak ere laguntzen zion herrian zegoenetan.

912. Gatzetan alboko tabernara (BRM-104/030)

Amak hurbileko taberna batera bidali zuen gatz bila, eta gatzarekin zihoala, erori egin zen eta kokospean egin zuen zauria.

913. Txikiteorik ez (BRM-104/031)

Gizonak tabernan egon egiten ziren, ez ziren txikiteoan ibiltzen.

914. Asko kantatzen zen antzina (BRM-104/034)

Antzina asko kantatzen zen, bai festetan kalean, bai lanean sareak konpontzen ari ziren bitartean, baina ez du gogoratzen kanturik.

915. Esakerak eta kantuak (BRM-104/036)

Kanta antzeko bat errezitatu eta kantatu egiten du: "Imetxuek, Aitxe be hil jasku..."

916. Santa Eufemiara dotrinara (BRM-104/041)

Santa Eufemiako elizara joaten zen dotrina ikastera.

917. "Andaka" jolasean (BRM-104/044)

Andaka jolasten zuten: neskak nahiz mutilak aritzen ziren jolasean. Makurtuta jarri eta zeinek urrutien saltatu zen jolasa.

918. Basora joaten ziren jolastu beharrean (BRM-104/045)

Basora joaten ziren egurretan, jolasteko garaian, gerra denboran.

919. Karga buruan (BRM-104/048)

Hondartzara joan beharrean lanera joaten ziren gaztetxotan. Kintala pisatzen zuten kargak eramaten zituzten buruan.

920. Porturako arropa (BRM-104/049)

Portuan, lanerako, neskatilek soineko bat eta amantala eramaten zuten; oinetan zapata zahartxoak edo abarketa zaharrak. Ez zuten inolako babesik eramaten eskuetan, eta minen bat izanez gero, aguantatu eta aurrera.

921. Sareak josten ikasten (BRM-104/050)

Ugazabandreek irakasten zuten euren etxeetan sareak josten. Lurrean eserita, hankak luzaturik zituztela josten zituzten sareak.

922. Zakuak ere josten zituzten sare-konpontzaileek (BRM-104/052)

Jornal eskasa zuten sare-konpontzaileek. Gainera, motor barruko lana ere egiten zuten batzuetan. Ontzian zeuden zakuen zuloak josten zituzten itsasontzian bertan.

923. Gizarte segurantzarik gabe hasieran (BRM-104/054)

Hasieran gizonek baino ez zuten kotizatzen. Geroago berak ere kotizatu zuen.

924. Ume kupel barruan (BRM-104/059)

Nazionalak herrira sartu zirenean, portuko haitzetara joan ziren hiru emakume umeekin ezkutatzera. Horietako batek umea kupel barruan sartu zuen tiro-hotsik entzun ez zezan.

925. Kanoikadak motor txikia hondoratu (BRM-104/061)

Kanoikada batek portuan zegoen motor txiki bat jo eta hondoratu egin zen.

926. Elantxobera egin zuten ihes (BRM-104/062)

Elantxobera egin zuten ihes itsasoz. Han ere egurretan aritu ziren Ogoñoko basoetan eta karga etxera errazago eramateko modu bitxi bat asmatu zuten bi neskatilek.

927. Hogeita hiru urterekin benetako gurasoen berri (BRM-104/065)

Gerran, seme gazteena salbu jartzearren gizon bati eman zion babesteko amak; eta umezurztegikoa zenez, haren agiri ofizialak eman zizkioten gizonari. Orduan jakin zuen gazteak umezurztegikoa zela, eta min handia eman zion.

928. Elantxoben bagenuen zer jan (BRM-104/070)

Elantxoben ezagunak aurkitu zituzten; amak bazuen diru apur bat janaria lortzeko. Bermeon handik, hortik eta hemendik, aurkitzen zuten zer jan; errazionamendua aurkitu zuten.

929. Etxera itzulitakoan, hura hustuta (BRM-104/071)

Bermeora itzulitakoan, etxean sartuta eta barrukoa lapurtuta aurkitu zuten. Auzokoren baten lapurretak ere aipatzen ditu.

930. Errazionamendua (BRM-104/072)

Errazionamendua udalak antolatzen zuen. Paperen bitartez egiten zuten erosketa. Taloak egiteko irina erostera errotara joaten zen.

931. Estraperloa (BRM-104/074)

Ontzi handiek itsasoen harrapatutakoa gorde, eta hura erosten zuten emakumeek.

932. Bihozbera zen aita (BRM-104/076)

Aita oso bihozbera zen. Hainbat ume goseturen ama bati egunero ematen zion arraina hiztunaren aitak.

933. Soldaduaren pasadizoa (BRM-104/078)

Nazionalak sartu zirenean, soldadu bat hurbiltzen zitzaion eta txokolatea oparitzen zion Luziari. Amari kontatutakoan, haserre joan zitzaion soldaduari eta amari ere neskatilari emandako azalpen bera eman zion.

934. Ur bedeinkatua begizkoaren aurka (BRM-106/002)

Begizkoa (begizkune) zuenean ume txiki batek, ur bedeinkatua ekartzen zen hiru eliza ezberdinetatik. Nahastu, irakin eta botatzen zitzaion haurrari; "zantiretue" egitea esaten zitzaion horri.

935. "Zantiretue" egiten (BRM-106/004)

"Zantiretue", begizkoaren aurkako zeremonia, hiru aldiz egiten zen, "Zantiretu, zan-urrutu, zana beran lekun geldittu" formula hiru aldiz errepikatuz.

936. Kontserba-fabrikan lanean (BRM-106/006)

Ahizpa eta biak portuan ibiltzen ziren sareak konpontzen eta osabak kontserba fabrikan lan egitera gonbidatu zituen. Burua kendu, latetan sartu... izaten zen lana. Dirua irabazteko "egin beharra" zegoen.

937. Barrilarekin jolasean (BRM-106/007)

Jolasean zebiltzan, barrilaren barruan sartuta zegoen lehengusina, eta Luziak eta beste lagunek bueltaka-bueltaka eraman zuten. Osabak ikusi zituenean errieta egin zieten.

938. Arraina latan sartzen (BRM-106/009)

Bokarta etortzen zenean, burua kendu eta gatza ematen zitzaion. Gero "enbajau" (latan sartu). Atuna trontzotan zatitzen zen, gero frijitu eta latetan sartzeko.

939. "Pipitoia" (BRM-106/012)

"Pipitoian" ipintzea esaten zaio bokarta barrilean ipintzeari. Bueltan-bueltan ipini, gatza bota, sakatu... Atuna frijitu egiten zen latan sartu aurretik.

940. Lateroak (BRM-106/014)

Lateroen lana kontserbaz betetako lata ixtea zen. Makina bat zuten horretarako.

941. Txitxarroak lehortzen (BRM-106/017)

Garai batean txitxarroak ohol (makila?) batzuetan lehortzen jartzen ziren. Gero fabrikara eramaten omen ziren

942. Gizarte Segurantzarik gabeko lana (BRM-106/018)

Ez dute sekula kotizatu edo Gizarte Segurantzarik izan sareginek eta kontserbetako aldizkako langileek. Fabrikako zein portukoa, biak lan gogorrak. Baina denak onak, pezeta irabazteko balio zuten eta.

943. Itxungixe, etxeko balkoian lehortzen zen arraina (BRM-106/020)

"Itxungixe": arraina zabaldu, garbitu eta etxeko balkoian jartzen zen lehortzen. Lixa arrainak oso usain txarra botatzen zuen. Itxungixe, lehortutakoan, saldu egiten zitzaien baserritarrei.

944. "Itxungixe" jateko prestatzen (BRM-106/023)

Marmitakoa legez presta zitekeen itxungixe. Hutsik egosita ere gozoa geratzen zen.

945. Edandakoa ordaintzen ez zuen bezeroa (BRM-106/026)

Familiak taberna jartzen zuen Gaztelekun; sagardoa saltzen zuten. Aratuste batzuetan, gizon ezezagun batek edan eta edan egin zuen eta ordaindu ez. Amak ezagutzen zuen; eta, Aratusteak amaitu zirenean, kargu hartu zion, eta ordaindu egin behar izan zuen.

946. Terlizezko arropatxoak eta abarketak udan (BRM-106/028)

Jaiegunetan udan "terlizezko erropatxuak" eta abarketak erabiltzen ei zituzten. Udan zapatak.

947. Mutilen begirada lizunak saregileei baporera sartzean (BRM-106/030)

Soinekoa edo gona janzten zuten amantalarekin. Baina bapore barrura zihoazenean lanera, mutilak azpitik gora begira izaten zituztenez, "pantalon baltzak" (kuleroak) janzten zituzten.

948. Ile-apaindegia etxean (BRM-106/032)

Ez du prakarik jantzi erresidentziara etorri arte. Bernetako ilerik ez du sekula kendu. Makilatu ere ez da egin. Burua ahizpek elkarri garbitzen zioten; erruloak jartzen zizkion ahizpari. Ile-apaindegira ez ziren joaten.

949. "Andaka" (txorromorroka) eta tabaka (BRM-106/035)

"Andaka" (txorromorroka) ibiltzen ziren Lameran. Mutilekin ere bai. Kanikekin eta tabekin (tortolosak) ere ibiltzen ziren

950. Karneka (sokasaltoan) (BRM-106/037)

Karneka (sokasaltoan) egiten zuten txikotagaz (sokaz).

951. Ura "igarotzen" etxera (BRM-106/041)

Ura buruan zein eskutan "igarotzen" (igotzen) zuten etxera. Berehala gastatzen zen. Urte asko pasatu zen etxean ur korrontea izan aurretik. Gizonek baldetan jasotzen zuten ura.

952. Beronikaren antzezpena prozesioan (BRM-106/046)

Prozesioan Beronikaren antzezpena egiten zen Bermeon, hiru neska joaten ziren, tartean Luzia gurutzearekin. Zein ibilbide egiten zuten kontatzen du. Ez du orduko erretratorik.

953. Demikura eta Mundakara jai giroan (BRM-106/048)

Bermeoko Demiku auzoko jaietara joan izan ziren Luzia eta lagun sareginak. Handik Mundakara jaisten ziren. Han txokolatea hartu eta etxera.

954. "Txikitxua zara baiña" ume-kanta (BRM-106/053)

"Txikitxua zara, baiña hasiko zara hondiño" " ume-kanta.

955. Leihora irtenda, kantuan (BRM-106/057)

Bermeo oso kantazalea izan da, batez ere moila aldeko jendea (portukoa). Jendeak leihora irtenda-eta kantatzen ei zuen. Gazterik hil zen Luziaren anaiari entzuten egoten omen zen jendea aho zabalik.

956. Papardoak danbolin-jotzaileentzat (BRM-106/059)

Larrinagatarrak, "Adonenekuk", danbolina jotzen zuten. Hori eskertzeko, neguko egun batean, itsasotik zetozen ontzi guztiek papardoak ekartzen zizkieten.

957. Gernikako bonbardaketatik ihesi (BRM-107/002)

Aita gernikarra zuen eta sasoi batean Gernikan bizi izan ziren nahiz eta Bermeon jaio. Bonbardaketan ere bertan egon zen eta hurrengo egunean Bermeora bueltatu ziren oinez. Bonbardaketa egunean bizitakoak dakartza gogora: erasoak, ereinotz artean ezkutatu zirenekoa, etxea erre zienekoa... Soinean zutenarekin joan ziren Bermeora.

958. Bermeon bizimodu ona (BRM-107/005)

Gernikan bizi ziren umetan, baina bonbardaketa eta gero Bermeoko izeko baten etxera joan ziren, alokatutako etxe batera joan aurretik. Bermeon bizimodu ona izan zuten, aita nabigatzailea zen eta ez zuen nahi izan alabek lan egiterik.

959. Eskolako zigorrak eta "Enciclopedia" (BRM-107/011)

Eskolan ez zuten sekula zigortu, baina zigortutakoak besoak zabalik belauniko jartzen zituzten. Liburu bakarra zuten: "Enciclopedia". Maistrak erdaldunak ziren.

960. Gaztetako jaiak (BRM-107/015)

Martiaren 19an, San Jose eguna ospatzen zuten San Jose ikastetxean. Gainerako ospakizun eta jaietan, Lameran aritzen ziren dantzan. Domeketan Bermeotik Mundakara joaten ziren oinez, Gramola egoten baitzen bertan. Mutilak joaten ziren dantza eskatzera eta ezetz esateak errukia ematen zien.

961. Hiru zinema-saloi (BRM-107/018)

Domeketako dirua, zinemarako-edo, amak ematen zien. Hiru saloi zeuden Bermeon, fraideek ere zinema jarri baitzuten: Antoniana, Ideal eta Erzilla. Jendea parra-parra egoten zen. Orduan ez zuten telebistarik.

962. Egunkari-saltzaileak (BRM-107/021)

Egunkariak Lameran saltzen zituzten. Bi kantina zeuden Lameran eta San Migeleko eskaileretan Ritaren denda; bertan saltzen zituzten egunkariak.

963. Antxoa-otzara pisutsuak (BRM-107/022)

Antxoa sasoian, neskatilek garraiatzen zituzten otzarak beraien etxe aurreko lantegira, Serrat lantegira. Pisu handia zuten eta noiz edo noiz Marik buru gainean jartzen lagundu izan zien, eta horren beldur izaten zen, ez zitzaion gustatzen-eta.

964. Gerra denboran babesleku gisa erabili zen etxea (BRM-108/002)

Beheko solairuan jaio zen Enrike, lurpean geratzen zen etxea. Gernikako bonbardaketan-eta jendez beteta egon zen. Etxea nolakoa den. Alderdi bat lurpean geratzen den arren, uholdeetan ez da arazorik izaten.

965. Aitak sei mila errealetan saldu ikatzezko baporea (BRM-108/003)

Ama "neskatille" zen eta aita arrantzalea. Sei mila errealetan saldu zuen aitak ikatzezko baporea. Lau bazkide ziren. "Alboniga" zuen izena (euskaraz Almike, auzo baten izena).

966. "Habla en cristiano" (BRM-108/004)

Euskaraz egitea debekatuta egon zen. "Habla en cristiano" esaten zieten leku askotan, Madrilen soldadutzan egon zen denboran, esaterako. Eurek beti euskaraz egin izan dute.

967. Tabakoa bai, baina drogarik ez kontrabandoan (BRM-108/006)

Bermeoko ontziek tabakoa eta edariak ekartzen ei zituzten kontrabandoan, baina drogarik egundo ez. Jende asko hil zen drogarekin Bermeon eta susmo txarrak egon ziren. Ekartzen zituzten zigarro-klaseak.

968. Bartzelonan guardiek kontrabandoaz harrapatu zutenekoa (BRM-108/007)

Petrolio-ontzian lanean zebilela, Bartzelonan kontrabandoko zigarroekin harrapatu zuten guardiek. Zigarroak kendu eta joaten utzi zioten.

969. Karabinero larregi Bermeon (BRM-108/009)

Karabinero larregi ei zegoen Bermeon, eta ez onak. Haien egunean (Pilarika Eguna) aginaldoa jasotzera irteten omen ziren. Bere izebak denda txiki bat zuen eta bi bakailao eman behar izaten zizkion guardia zibilen komandanteari.

970. Koñakaren esentziaz betetako ontzia aurkitu itsasoan (BRM-108/010)

Behin koñak esentziaz betetako ontzi bat aurkitu zuten itsasoan, 200 litrokoa. Enrikek 11 urte zituen orduan. Bera geratu zen aurkikuntza zaintzen Matxitxako pareko buia batean. Herrira ekartzea lortu eta herriko tabernetan saldu zuen aitak, prezio ederrean.

971. Goma-fardoak, sasoi bateko "arrantza onena" (BRM-108/011)

Garai hartan gomak eta beste gauza batzuk aurkitzen ziren itsasoan. Itsasontzi alemanei galdutakoak-edo ziren goma-fardoak. Askok etxeak eta itsasontziak ordaindu zituzten gomen diruaz.

972. Aita itsasoan atxilotu eta kartzelara (BRM-108/012)

Gerra hasi zenean, itsasora irteteko debekua ezarri zieten arrantzaleei; baina irten egin behar, jango bazen. Aita "Almirante Cervera" armada-ontzi frankistak harrapatu zuen, eta Pasaiara eraman; gero, Ondarretako kartzelara, eta azkenik Burgoskora. Urteak egin zituen kartzelan. Hori dela eta, gose handiak pasatutakoa da Enrike, beste asko bezalaxe. Ez da lotsatzen gosea pasatu zuela esaten.

973. Erregelaz jo euskaraz egiteagatik (BRM-108/018)

Bermeoko semea zen bere maisua, Albo kontserba-fabrikako jabearen semea. Euskaraz egitea galarazita zuten, erregelaz jotzen zituzten egiten harrapatuz gero.

974. "Sábado Inglés" (BRM-108/019)

Liburua, koadernoa eta pizarra erabiltzen zituzten eskolan. Egunero joaten zen, zapatua barne. Gero etorri zen "Sábado Inglés", zapatu arratsaldean jai egitea.

975. Elizan dena erdaraz, konfesioa izan ezik (BRM-108/021)

Dotrina arratsaldeko bostetan izaten zen Santa Eufemia elizan don Gilekin, erdaraz. Gerra ostean elizan ia dena erdaraz zen, euskara galarazita egon zelako. Konfesatu bakarrik euskaraz.

976. Abadeak ezkontzen utzi nahi ez gazteegia zelako (BRM-108/023)

Abadeak ez zion ezkontzen utzi nahi gazteegia zela eta. 27 urte zituen ordurako.

977. Konfesatzeko orduan gezurretan (BRM-108/025)

Neska-lagunari musuak ematea guztiz galarazita zegoen. Horregatik, abadeak ea bazuten galdetzen zietenean, ezetz erantzuten zuten. Gezurrak esan behar abadeari.

978. Gaztelugatxeko San Joanera oinez (BRM-108/028)

San Joanera (Gaztelugatxe) oinez joaten ziren hiru umeekin, goizeko bostetan jaikita. Han meza entzun eta Bakiora. Gero Bermeora buelta; dena oinez. Heldu Bermeora eta hondartzara.

979. 'Gu-gu-gu' kanta (BRM-108/031)

San Juan eguneko kanta: 'Gu-gu-gu, San Juanera goiaz gu, Gu-gu-gu, San Juanetik gatoz gu.'

980. San Juan suak (BRM-108/033)

San juan bezperan kale guztietan egiten zen sua. Kale batekoak bestekoei ostu egiten zieten erregaia. Suaren inguruan dantzan eta gainetik saltoka ibiltzen ziren.

981. Non dago krisia? (BRM-108/034)

Beren gazte denbora oraingoa baino hobea izan ei da dibertsiorako. Pozez zoratzen egoten ziren Lameran dantzan egiteko. Ez du gaurko krisia ulertzen. 70 euroko afariak eta 800 euroko angula kiloak, eta krisia?

982. Bisigua ugari eta merke (BRM-108/037)

Bisigu asko harrapatzen eta jaten zen. Oso merke zegoen. Behin, bera patroi zela, 300-400 kilo harrapatu zituzten eta kiloa 15 pezetan saldu zuten. Orain ezin da bisigurik jan daukan prezioagatik.

983. Belaz arrantzara, gasolinatarako dirurik ez zutelako (BRM-108/038)

11 urterekin hasi zen itsasoan lanean. Belaz eta arraunez ibiltzen ziren ez zutelako gasolinatarako dirurik. Legatza harrapatzen zuten amuaz.

984. Enrike Bermeoko portuko leherketan zauritua (BRM-108/039)

Behin, itsasotik bueltan zetozela, buia bat lehertu zen portuan euren pare-parean. Hainbat hildako eta zauritu izan zen. Enrike zen gazteena, 12 urte. Basurtora eraman zituzten zaurituak kamioietan. Enrike hiltzat eman zuten. Gero beste ospitale batera eraman eta laster sendatu zen.

985. "Mutila" ordua etxez etxe kantatzen (BRM-108/041)

"Mutil" edo "txo" ibilitakoa da mutikotan. Txoaren eginkizunetariko bat zen goizean goiz ordua deiadarrez kantatzea marinel eta patroien etxe parean. Tabernaz taberna ere ibili beharra ziaten zuen beste batzuetan.

986. Argi seinaleak itsasora irten litekeen edo ez jakiteko (BRM-108/042)

Itsaso txarra zenean, bi ontzi irteten ziren itsasora eta seinaleak egiten zituzten. Farol gorria: ezin arrantzara irten; berdea: itxaron; itzalita: irten daiteke. Itsasoan barre eta negar egiten ei da. 11 urtetik 60 urtera arte ibili zen Enrike.

987. Mutil izatetik patroi izatera (BRM-109/001)

Arrantzako ontzian izan zituen postuak aipatzen ditu: mutil, gizon eta patroi. Lehenengo bien arteko bereizketa, eta nola iristen ziren "gizon" postura.

988. Arraina diru-iturri I (BRM-109/002)

Bermeoko oraingo diru-sarreren iturri nagusia arraina da, antxoa eta atuna, garestienak direlako. Antzinako arrainen ugaritasuna, prezio baxuak eta saldu ezina azaltzen ditu.

989. Arraina diru-iturri II (BRM-109/003)

Arrain asko egoten zen antzina. Ez zen saltzen harrapatutako guztia, eta gainera diruak ez zuen baliorik. Pezetaren balioari buruzko azalpenak ematen ditu.

990. Arrainaren "bentie" (BRM-109/004)

Enkanterako deia eta enkantea bera nola egiten ziren eta nola egiten diren azaltzen du. Lehen kanpaiekin deitzen zen bentara eta kanta egiten zen salmenta.

991. Kofradia (BRM-109/005)

Antzinako bi kofradiak aipatzen ditu: "baltzak" eta "zuridxek". Oraingo San Pedro kofradiaren eraikinak zein izan diren ere azaltzen du.

992. Antxoatarako eta atunetarako tresneria (BRM-109/006)

Sareak erabiltzen ziren antxoatarako eta arrantzaleak berak egiten zuen atunetarako tresneria (aparejuak). Lehengoak eta oraingoak deskribatzen ditu.

993. Orientazioa itsasoan (BRM-109/007)

Tresna egokirik gabe, nola orientatzen ziren itsasoan azaltzen du; halaber, zein zen patroiaren zeregina. Oraingo nabigaziorako tresnak ere aipatzen ditu.

994. Nola jakin non dagoen arraina (BRM-109/008)

Nola zekiten non zegoen arraina? Zegoen tokiraino hurbilduta edo hegaztien bidez.

995. Atunetarako aparejuak (BRM-109/009)

Kanaberaren eta sareen erabilera bereizten ditu. Atunetarako aparejua nola egiten den ere azaltzen du. Modu berean harrapatzen diren beste arrain batzuk ere aipatzen ditu.

996. Kupoen kaltea (BRM-109/010)

Kupoek eta gobernuen esku-hartzeak kalte egiten diote arrantzari. Horregatik, Bruselan arrantzaleak defenditzeko eskatzen du.

997. Arrantzalearen bizimodua eta jubilazioa (BRM-109/011)

Oso era laburrean aipatzen dira arrantzalearen bizimodu gogorra, jubilatzeko poza eta gaixotasunak eragindako sufrimendua.

998. Itsasora ez joateko aholkua (BRM-109/012)

Hiru semeei esan zien ez joateko itsasora, berak ondo zekielako zer zen hura. Hala ere, aitaren bide beretik jarraitu zuten, diruaren usainean.

999. Legatzetarako kalak (BRM-109/014)

Bermeoko, Elantxobeko, Armintzako kalen izenak dioz. Udan, legatzetan nora joaten ziren ere zehazten du.

1.000. Arrantzaleen arteko harremana (BRM-109/015)

Herri ezberdinetako arrantzaleen arteko harremana nolakoa zen azaltzen du. Gaur egunean radioak ematen duen erraztasuna aipatzen du.

1.001. Euskaldunen artean ulertzeko zailtasuna (BRM-109/016)

Giputzekin euskaraz hitz egitean zituzten zailtasunak azaltzen ditu. Tokiko euskarak sailkatzen ditu kalitatearen arabera: Bermeokoa txarrena, Tolosakoa onena.

1.002. Nabigazioa gaurko tresneriarik gabe (BRM-109/017)

Gaurko tresneriarik gabe nola izaten zuten eguraldi aldaketen berri, nola zekiten itsasontzia non zegoen eta itsasontzien artean nola komunikatzen ziren azaltzen du Enrikek.

1.003. Zorte ona izateko, birjina zintzilik (BRM-109/019)

Zorte onaren alde birjinak edo (Karmengoa, Begoñakoa, Jesusen bihotza), zituztela zintzilik batzuek aipatzen du, garrantzi handirik gabe; beti ere antzina, gaur ez.

1.004. Diru-partiketa (BRM-109/020)

Nola egiten zen diru-partiketa azaltzen du. "Mutila"k edo txok zer irabazten zuen, eta berak zer irabazi zuen kontatzen du.

1.005. Irabazitakoa norentzat? (BRM-109/021)

Irabazitako dirua amarentzat izaten zen lehenago, eta emaztearentzat gero. Bermeon, diru-kontuetan andreak agintzen duela dio.

1.006. Domu Santuetako loreak (BRM-109/023)

Kanposantuko loreetan gastatutako diruari alferrekoa deritzo hiztunak.

1.007. Nobiotan hasi (BRM-109/026)

Emaztea nola ezagutu zuen. Nola bereizten zen bikotea bikote zela ("del brazete" joatea zen seinalea). Autorik ez, eta nola zegoen paseo luzea Bermeon kontatzen du.

1.008. Luzaroan itsasoan etxeratu gabe (BRM-109/027)

Bi urte nabigatzen etxeratu barik. Hamabi urte atun-ontzietan zazpi hilabetean etxeratu barik. Kanpoan luzaroan egoteak emaztearengan sortutako kezkak aipatzen ditu.

1.009. Goitizenak (BRM-109/029)

Enrikek "txapasta" eta "takon" ezizenen jatorria azaltzen du. Aitari jarri zioten Txapasta, zuen pilota-zaletasunagatik; aitonari, aldiz, Takon, txikia izanik, handiago emateko erabilitako trikimailuengatik.

1.010. Gerra zibilean babestu beharra (BRM-109/031)

Zazpi urte zituela bizi izan zuen gerra. Enrikek kontatzen du nola babestu ziren Gernika bonbardatu zutenean, gero baserrian egon zirela, eta txikia zenez Matxitxakon gertatutakoari buruz gerora entzundakoa baino ez dakiela.

1.011. Soldadu italiarrak gerra garaian (BRM-109/032)

Soldadu italiarrengana hurbiltzen ziren janari eske Bermeoko umeak gerra garaian.

1.012. Gosea eta errazionamendua (BRM-109/035)

Gose-garaian, izeba batek ematen zion jana. Errazionamenduaren ondorioak ere azaltzen ditu, zenbait produktu erosteko zeuden zailtasunak eta ilarak.

1.013. Bizikletan itsasora erori zenekoa (BRM-109/038)

Santanderren, gaztetan, gertatutako pasadizo bat kontatzen du: itsasora erori zen bizikletan. Gainera, Bermeoko gazteen gaiztakerien ondorioz hondatu egin zen Santanderreko bizikletak alokatzen zituena.

1.014. Txikitako jolasak (BRM-109/040)

Txikitako jolasak azaltzen ditu; nola debekatu zuten jolas bat arriskutsua zelako. Neskatilak "tabaka" aritzen ziren eta mutilak txanponekin eta pilotaka, artileaz egindako pilotekin.

1.015. Ospakizunak eta opariak (BRM-109/041)

Arropak izaten ziren erregeetako opariak; urtebetetzeetan, aldiz, ez zen egiten opariric. Arrebaren ezkontza ospatzeko txokolatea egin zuten etxean. Bere ezkontza, oturuntza eta bidaia kontatzen ditu Enrikek.

1.016. Txikitako eskola (BRM-109/042)

Mutilen eskola zen Enrikeren txikitakoa. Hiru taldetan banatuta zegoen jakituriaren arabera. Liburu bat, koadernoa eta arbela zuten, norberak ordaindutakoak. Gogorra iruditzen zaio orduko eskola. Euskaraz hitz egiteagatik jasandako zigorrak gogoratzen ditu.

1.017. Arraina arrautzen truke (BRM-109/043)

Baserriko esne-saltzaileak eta arrantzale artekoek produktuak trukatzen zituzten, arrautzak eta txitxarroa esate baterako.

1.018. Santa Agedatan eta Gabonetan kantuan (BRM-109/044)

Enrikeren ama eta, Santa Agedatan hiru egunetan joaten ziren baserrietara kantuan eta eskean. Gabonetan, aldiz, kalean barik, etxean kantatzen zuten.

1.019. Kantuan: "Bermioko portuan", "Itsasotik gatozenian" (BRM-109/046)

Bi abesti kantatzen ditu: "Bermioko portuan", "Itsasotik gatozenian".

1.020. Kantuan: "Madalen Busturiko" (BRM-109/048)

"Madalen Busturiko" kantatzen du.

1.021. Aratusteetako pasadizoa (BRM-109/051)

Urte batean, aratusteetan Mundakara joan ziren, eta han neska jantzi zuten, baina debekatuta zegoen mozorrotzea. Txikitan nola mozorrotzen ziren, eta aurpegia estalita eramaten zutela dio.

1.022. Kofradiko asegurua (BRM-109/055)

Kofradiari ordaintzen zioten, medikuarenera joateko asegurua izateko. Itsas txoriren batek eraso eginez gero, joaten ziren medikuarenera.

1.023. Medikuari "Jaune", fraideari "Aitxe" (BRM-109/056)

Enrikek euskaraz hitz egitean, medikuari "Jaune" eta apaizei eta fraideei "Aitxe" deitzen die. Horri buruzko pasadizo bat kontatzen du: fraide izateari utzi arren, berak "Aitxe Juan" esaten jarraitzen du ohituraz.

1.024. Minaren leherketa (BRM-109/060)

1942an mutiko batek urak ekarritako itsasoko buia antzeko bat ekarri zuen bizkarrean eta lurrera botatakoan lehertu egin zen; hamabi lagun hil ziren eta Enrike bera zauritu.

1.025. 'Kansion' ezizena (BRM-110/001)

Mari Azkarate Araukua. Jendeak arazoak ditu bigarren abizenarekin. Kansion ezizena. Ama Frantziara joan zen inude ("aiña") eta kanta bat atera zioten; kanta elebidunaren zati bat kantatzen du.

1.026. Basora egurretan eta portura ikatzetan (BRM-110/003)

Basora joaten ziren su-egur bila. Abar-sortak egin eta buruan ekartzen zituzten, bigungarria ('sorkia'), ipinita. Portura ere joaten ziren baldeaz harrikatz hondarrak biltzera. Behin, basoaren jabeak harrapatu eta aizkorak eta denak kendu zizkieten. Matxitxako aldeko basoetara joan ohi ziren egurretara.

1.027. Ama barkutik lehorrera ikatza "igaroten" (BRM-110/004)

Amak, beste emakume askok bezala, harrikatza garraiatzen ('igaroten') egiten zuen barkuetatik kaira. Otzara ikatzez zamatu, buruan hartu, eta ikaztegira eramaten zuten. Arraina 'igaroten' ere jarduten zuen "neskatilla" (portuko langile) gisa.

1.028. "Casa del Niño"n, orduko haurtzaindegian laneana (BRM-110/005)

Ama ez zen fabrikan ibili. Mari bera ere ez, noiz edo noiz jardun zuen arren antxoari burua kentzen. "Casa del Niño"n neskame ibili zen bost urtez umeak zaintzen (garai hartako haurtzaindegia). Bazkaria eta askaria egiten zuten. Pozik jartzen ziren ama bila zetorrenean. Orain zaharrentzat prestatuta dago lokal hura, Eguneko Zentro bihurtuta. 19 ogerleko (duro. 95 pezeta) irabazten zuen hilean. Ez zioten batere kotizatu. Gustura ibiltzen zen umetxoekin. 24 urterekin utzi zuen lana, ezkondu zenean.

1.029. Haizete batek Frantxunatxeta aldea hondatu (BRM-110/006)

Jaioteguna. Frantxunatxetan jaio zen. Hainbat tailer zegoen inguru hartan. Haizete batek hondatu zuen auzoa eta gaur egun ez dago lantegirik. Bi urterekin etorri zen Aurrekoetxea kalera.

1.030. Ama itsasoan ito 1934ko Iraultzaren egunetan (BRM-110/007)

"1934ko Iraultza" gertatu zenean, ez zegoen ogirik Bermeon eta Mariren ama, lagun batzuekin batera, Gernikara joan zen janari bila. Erosketak egin eta lagun taldetxo bat bildu zen itzulera baporean egiteko. Mundakako parean zurrunbilo batek hartu, urperatu eta hainbat ito ziren, tartean ama. Marik hamar urte zituen. Pilarrek kontatzen du bere aitak nola aurkitu zituen gorpuak. Zoritxarraren berri izan zelarik, Mariren etxean bizitako giroa.

1.031. Igerian ez zekien bakarra salbatu (BRM-110/009)

Hondoratu zen barkuan pertsona bat zetorren igerian ez zekiena eta bera salbatu zen bakarrik, piper-txorizero zaku bati helduta. Erru handiena batelaren jabeak izan ei zuen, hainbeste jende hartzeagatik hain barku txikian. Mundakan gurutzea dago itotakoen omenez, ezbeharra gertatu zen lekuaren aurrean. Itsaso bizia zegoen.

1.032. Ahizpa Frantziara ihesi eta bera etxean (BRM-110/010)

Gerra aurretxoan (1934an) izan zen itsasoko ezbeharra. Mariren ahizpa ebakuatu egin zuten Frantziara. Berak ere maleta prest izan zuen baina ez daki zer gertatu zen, ez zen agertu eurak eraman behar zituen barkua.

1.033. Patatak saltsa berdean ipintzen zortzi urterekin (BRM-110/012)

Pilarrek zortzi urte bete orduko hainbat arropa-garbitze lan egiten zuen etxean. Kantuan arropa garbitzen. Eta adin horrekin patatak saltsa berdean ipintzen ere bazekien. Egin egin behar, ama portuan lanean eta aita itsasoan ibiltzen baitziren.

1.034. Arropa erosi ahal izateko umeak kontserba fabrikara (BRM-110/013)

Gaztelugatxera joateko ohitura handia zegoen San Joan egunean. Egun horretarako arropa erosteko, kontserba fabriketara joaten ziren umeak antxoari burua kendu, gatza eman eta horrelako lanak egitera.

1.035. Bilbora, bapore batean ezkutatuta (BRM-110/014)

Pilarrek izeba bat zuen inude Bilbon. Athletic-en partidua zegoen eta Bermeotik barku pila joan zen. Pilar barku horietako batean sartu zen ezkutuka eta joan. Bilbon konpondu zen izeba bizi zen etxea aurkitzeko. Alabatzat hartu zuten etxe hartan. Gero Bermeora etorri zen. Gizona elantxobetarra izan du eta herri horretara ezkondu zen

1.036. Bilboko Arriagan antzerkia egiten (BRM-110/016)

Pilarrek-eta antzerkia egin ohi zuten Bilboko Arriagan Erregenetan. Portua bezala apaintzen zuten eszenategia; berak, arrantzale jantzita, bertsoak botatzen zituen, eta zantzuak (irrintziak) ere bai. Batutako dirua presoentzat eta gaixoentzat izaten zen.

1.037. Mendizale amorratua (BRM-110/017)

Oso mendizalea izan da Pilar. Menditik bueltan, inoiz, Begoñako Ama Birjinari egiten zioten bisita, eta kanpoaldean euskaraz abesten zuten. Guardia zibilekin arazoak. Puntuzko txaketak, kaikuak eta horrelakoak josten zituen.

1.038. Buzkantzak gizonezkoentzat (BRM-110/019)

Ama iluntzean etortzen zen lanetik. Afaltzeko orduan buzkantzak eta zatirik onenak itsasoan zebiltzan gizonezkoentzat izaten ziren. Kazuela erdian ipinita jaten zen. Behin, barkuren bati galdutako koipea aurkitu zuten itsasoan eta etxeetan banatu zen frijitze lanetarako. Izokina ez zitzaion gustatzen, baina amak "lebatzaren lehengusua" zela esan zionetik oso gozoa iruditzen zitzaion.

1.039. Arraina baserriko gauzen truke (BRM-110/021)

Dendetan erosketak apuntatu egiten ziren, eta gizonek soldata kobratzen zutenean, ("partila egindakoan") ordaintzen ziren zorrak. Trukerik ez zen egiten dendan. Baserritarrekin bai inoiz: arraina baserriko gauzen truke. Bermeotik kamioiak irteten ziren herrietara arraina saltzera, herrietan ez zen arrandegirik izaten eta. Oinez ere joaten ziren emakumeak arrainarekin.

1.040. Bermeotik Bilbora oinez (BRM-110/022)

Dirurik ez zegoenez, Bilbora oinez joaten zen jendea askotan, Solluben zehar. Lehengo zaharrak lan asko egindakoak dira. Marik bere amaren zoritxarra dakar berriz gogora; zer burubide erabiliko ote zuen itotzear zegoenean, zurrunbiloren mende.

1.041. Familian denak nazionalistak, osaba errepublikanoaizan ezik (BRM-110/024)

Familian denak izan dira nazionalistak, osaba errepublikanoa izan ezik. Honek gura izaten zuen emazteak ere berak bezala bota zezan, baina emazteak ez zuen amore ematen eta nazionalista botatzen zuen. Nortasun handiko emakumea zen. Mariren amak ikurrintxoa erabiltzen zuen arropan josita.

1.042. "Gora Euskadi askatuta!" eta "¡Viva la República!" (BRM-110/025)

Bermeoko emazte errepublikano batek matrailekoa eman zion kalean gizon nazionalistari honek gora "Euskadi askatuta!" esan zuelako, berak "¡Viva la Republica!" oihu eginez.

1.043. Andre errepublikanoak senar nazionalistari "mehatxua" (BRM-110/027)

"Baltzak" esaten zitzaien errepublikanoei. Pilarrek ezagutu zuen ligeroan bandera errepublikanoa eramaten zuen emakume bat. Gizona nazionalista zuen. Hari esaten zion ohera zetorrenean ez zuela "hura" izango. Pilar-eta umeak ziren eta ez zuten gauza handirik ulertzen. Inoiz istiluak ere izaten ziren euren artean.

1.044. Moja baten "Aitaren" faxista (BRM-110/029)

Bermeoko ikastetxe bateko moja batek horrela erakusten omen zuen "Aitaren" egiten: "Franco, Mola, Falange Española".

1.045. "Putas, putas son... las que están en el balcón" (BRM-110/031)

Cara al Sol kantatzen jartzen zituzten Mari-eta kalean. Pilarrek gogoan du kalean nola ibiltzen zen falangista taldea kalean eta zer kantatzen zieten leihotik begira geratzen zitzaizkienei: "Putas, putas son... las que están en el balcón".

1.046. Pilarren amari diru-eske emakume frankista bat (BRM-110/032)

Behin Pilarren amari herriko emakume frankista bat joan zitzaion diru eske gerra denboran. Amak senarra gerran zuen, seme-alabak ugari eta familia mantentzeko. Emakumearen aitarengana jo zuen eta ez zuten gehiago molestatu.

1.047. Soldadu italiarren arropa garbitzen (BRM-110/033)

Pilarren amak-eta soldadu italiarren arropa garbitzen jardun zuten denboralditxo batez janari truke. Herriko jendeak salatu egin zituzten nazionalistak zirelako. Ondo portatu ei ziren italiarrak.

1.048. Emakume arrain-saltzaile bati komisarian egindako galdeketa (BRM-110/035)

Behin emakume arrain-saltzaile bat eraman zuten komisariara deklaratzera. Gauza bat galdetu eta beste bat erantzuten zuen. Galdeketa xelebrea. Salatzaileek gaizki amaitu omen dute, jainkoak zigortu omen ditu.

1.049. Almikaraino frankistei ihesi, eta etxera berriz (BRM-110/036)

Mari-eta, frankistak herrian sartzean zeudenean, ihesi abiatu ziren, baina Almikara heldu zirenean, gizon baten esanei jaramon eginez, atzera egin zuten. Gudariek utzitako atun lata bat jan zuten etxeratutakoan. Etxean egondako hainbat gudari bisitan etorri izan dira harrezkero. "Mari la Valiente" esaten zioten.

1.050. Mariren nebak Matxitxakoko batailan parte hartu zuen (BRM-110/038)

Mariren nebak Matxitxakoko batailan parte hartu zuen hamabost urterekin. Omenaldia egin diote duela gutxi. Orduko ia denak hilda daude, anaia da geratzen den bakarrenetarikoa. Ahizpa Frantzian ebakuatuta izan zuen Marik.

1.051. Estraperloko azukrea (BRM-111/001)

Bilbora joan zerbaitetan, eta estraperloko azukrea erosi zuen; etxera heldu eta konturatu gatza saldu ziotela.

1.052. Irrati handia ezin pasatu (BRM-111/002)

Hiztunen aitak hurbilean ibiltzen ziren arrantzan, eta ez zegoen estraperlorik haien artean. Geroago, Dakarretik eta, ekartzen zituzten gauzak, irratia esate baterako, baina arazoa izaten zuten portuko karabineroarekin.

1.053. Karabineroak (BRM-111/003)

Gurasoen garaian, onak ziren karabineroak; baina hala ere ez zituzten etxerako nahi. Hala esan zion Pilarrren amak karabinero bati. Gaur egun, euskaldunak eta abertzalek dira haien ondorengoak.

1.054. "Mamá yo quiero ser..." kanta (BRM-111/005)

Guardia de asalto-en kantuaren hasiera.

1.055. Erru barik atxilotu eta jipoitu (BRM-111/006)

Guardia de Asaltok jipoi ederrak eman zituen Bermeon; bat Pilarren nebari, inolako errurik gabe. Gabon-gaueko istilu batzuetan, atxilotu egin zuten eta aitaren aurrean jipoitu zuten kuartelean.

1.056. Ugazabaren zaindari kartzelan (BRM-111/007)

Aita Larrinagako kartzelan egon zen presoak zaintzen gerra garaian. Tartean zegoen emaztearen etxeko ugazaba preso, eta familiakoek eskatuta, hurbildu eta lagundu zion.

1.057. Semearen askatasuna, esker onez (BRM-111/008)

Nebaren epaiketa izan zenean Billbon, agertu zitzaion aitari berak kartzelan zaindutako "señoritoa" eta, esker onez, semea askatu eta arazorik ez izateko gomendio-idazki bat eman zion.

1.058. Larrinagako kartzelan zaindari (BRM-111/009)

Hainbat euskaldun egon ziren altxamenduaren aldeko presoak zaintzen Larrinagako kartzelan. Pilarren aita izan zen zaindari; UGT edo CNTkoak ere bazeuden. Inoiz ez zuen inolako dirurik jaso.

1.059. Itsas azalean koipea eta gomazko fardoakk (BRM-111/010)

Arrantzaleek itsasoan koipea eta gomazko fardoak aurkitzen zituzten. Horiek salduta, diru apur bat ateratzen zuten. Mariren etxean gela bat izan zuten gomaz beteta; Pilarrenean, arraina frijitzeko erabiltzen zen itsasoko koipea.

1.060. Nola prestatu itsukia (BRM-111/011)

Lehen, itsukia saltsan jaten zen; orain, frijiturik ere jaten dute. Sukaldean arraina nola prestatzen duten azaltzen dute.

1.061. Etxerik etxe ordua ematen (BRM-111/013)

Hamabi urterekin hasten ziren itsasora. Ontziko gaztea etxerik etxe joaten zen bezperan, itsasoratzeko ordua emateko ontziko gizon guztiei.

1.062. Kafetera betea hustu aguazilak (BRM-111/014)

Egunen batean, eskaileran ezustekoren bat izan zuen goizaldean Mariren nebak. Kafetera eramaten zuten itsasora. Inoiz, herriko aguazil bermeotar baserritarrak goizaldean itsasora zihoazenei kafeteran kolpea eman eta kaferik gabe utzi izan zituen arrantzaleak.

1.063. Pentsioa ostu etxeko eskaileretan (BRM-111/015)

Banketxean kobratutako pentsioa lapurtu zioten Mariri etxeko eskaileretan. Ez zuen berreskuratu ezer.

1.064. Belodun etorkinak (BRM-111/017)

Ateko eskekoari ematen zioten jana edo ahal zutena. Baina gaur egun, beloa daramatenek baldintza onetan bizi nahi dute, eta gainera ez dute garbi jokatzen.

1.065. Etxeko komuna eta bainua (BRM-111/018)

Etxean ez zen dutxarik egoten; komuna beti. Etxe batzuetan, eskaileran egoten zen denentzako komuna. Euren etxeetako komuna kutxa antzeko egurrezko gauza bat izaten zen.

1.066. "Arenadurie" (BRM-111/019)

Hareaz eta lixibaz garbitzen ziren etxeko soroa edo egurrezko komuna.

1.067. Antzinako bainua, etxean (BRM-111/020)

Itsasotik etorrita, etxekoak kalera bidaltzen zituen aitak, bera balde handi batean sartuta garbitu ahal izateko.

1.068. Errekara arropak garbitzera (BRM-111/021)

Zikinkeriarik ez zen egoten. Errekan, amak arropak garbitu bitartean, biluzik ibiltzen ziren umeak.

1.069. Zorriak (BRM-111/022)

Ez zuten zorririk izaten. Batzuek arkakusoak izaten zituzten; edo zikinagatik edo zaharrak zirelako...

1.070. Gaurko gazteen izarak (BRM-111/023)

Gaurko gazteek garbigailua izan arren, ez dute ganorarik arropa garbitzeko. Nola lehortzen duten arropa kontatzen dute Pilarrek eta Marik.

1.071. Eskuz josita barneko arropa (BRM-111/024)

Etxean josten zuten barneko arropa. Ez zuten prakarik erabiltzen; orain ere ez, baina osasun edo garbitasun arazoengatik.

1.072. Txiza dariela (BRM-111/025)

Txizari eutsi ezinik dabiltzan inguruko emakumeekin gertatutako pasadizoak kontatzen dituzte.

1.073. Toallatxoetatik konpresara (BRM-111/026)

Gaur egun kulero bereziak eta konpresak daude txizaren arazoarentzat. Lehen, aldiz, toallatxoak erabiltzen ziren.

1.074. Hilerokoarentzako toallatxoak (BRM-111/027)

Toallatxoak erabiltzen ziren hilerokoaren egunetan; apurtzen zirenean josi egiten ziren, kuleroak bezala.

1.075. Lehenengo hilerokoa (BRM-111/028)

Lehenengo hilerokoa etorri zitzaionean ez zekien zer zen eta beldurturik, txilioka hasi zen. Ordura arte ez zion inork ezer azaldu.

1.076. Hilerokoaren mina (BRM-111/029)

Hilerokoaren mina kentzeko zer hartzen zuten, eta ze ondorio izan zuten erremedioek kontatzen dute. Aspirinak haurdunaldia eten zion, eta umea galdu zuen.

1.077. Ez zekien haurdun zegoenik (BRM-111/030)

Haurdun egon arren, hilerokoak zituen, eta ez zekien bere egoeraren berri. Naturista batek ere okerreko erremedioa eman zion. Azkenean pila bat bitamina eman behar izan zioten.

1.078. Zazpi kiloko umea erditu (BRM-111/031)

Bitaminekin asko hasi zen umea eta zazpi kilo izan zituen jaio zenean. Amak odol asko galdu zuen eta transfusioa egin behar izan zioten; bestalde, zesarearik ez ziotenez egin, erabat urratuta geratu zen.

1.079. Jaioberria gaixotu (BRM-111/032)

Umea bataiatu eta gero, jaio eta hirugarren egunean, gaixotu egin zen eta 50 injekzio sartu zizkioten. Betiko geratu zen gaixo.

1.080. Umea hilda jaio zen (BRM-111/033)

Haurdun zegoela, 40.000 ogerlekoko txerto bat behar zuela esan zioten. Lagun baten bitartez eraman zuten mediku batengana eta hark esan zion ez zuela txerto hori behar. Azkenean, hilda jaio zen umea.

1.081. Odol kutsatua sartu zioten (BRM-111/034)

Mediku lagun batentzako odola ematera joan zen ospitalera, eta orduan jakin zuen urteak lehenago izan zituen transfusioetan sartu ziotela odol kutsatua.

1.082. Neska ala mutila izango? (BRM-111/035)

Haurdunaldietan, ez zekiten neska ala mutila izango zuten; batzuetan aurpegira begiratuta, mantxaren bat ikusita edo, iragartzen zuen baten batek zer izango zen.

1.083. Bainua itsasoan (BRM-111/037)

Batzuk portura, besteak hondartzara edo haitzetara. Aritzatxura, portura, Tonpoira edo Frantzunatxetara joaten ziren. Behin bultza egin zioten Pilarri kaian, eta estualdia igaro zuen, ez baitzekien igeri egiten.

1.084. Bainujantzia aberatsek (BRM-111/038)

Aberatsek baino ez zuten bainujantzia; gonak hanka artean bilduta eramaten zituzten. Pilarri bainujantzia oparitu ziotenean, bakarra zen, eta mutilak bera ikustera hurbiltzen ziren.

1.085. Neskak neskatara haitzetara (BRM-111/039)

Mutilak alde batetik eta neskak bestetik ibiltzen ziren haitzetan edo hondartzan. Orduan ere, baten bat joaten zen mutilarekin.

1.086. Lapatan eta maguriotan (BRM-111/040)

Pilar lapatan eta maguriotan ibilitakoa da. Hemengo magurioa kanpokoaren aldean gozoa da jateko.

1.087. Dantzarako "mesedez" (BRM-111/041)

Dantzan egiteko, "mesedez" eskatzen zuten mutilek eta neskek baietz edo ezetz. Mutil batek Pilar jo egin zuen, ezetz esateagatik. Ordaintzeko unea heltzen zenean, alde egiten zuten.

1.088. San Juan eguneko dantzaldiak (BRM-111/042)

San Juanetan, San Juanetik Olbizarretara (Orbezarretara) joaten ziren. Handik Bakiora, dantzan egin, eta Bermeorantz. Matxitxako parean jateko hondakinak jan eta Arenera (Arane), han ere dantzan. Azkenik, Bermeoko erromerian amaitzen zuten eguna.

1.089. Biribilketan gertatutakoak (BRM-111/043)

Aurreskuan ari zirela, zaintiratua egin zioten Mariri; Pilarri zangotraba, eta zapaldu egin zuten, baina egin zion mendekua hanka luzatu zuen mutilari.

1.090. Aldaketak baserriko bizimoduan (BRM-112/005)

Baserriko lanetan erabiltzen diren tresnak asko aldatu dira. Ganaduarekin eta goldarekin aritzen ziren. Laiak ere ezagutu ditu, horiek zelan erabiltzen diren azaltzen du. Basora ere joaten ziren Kortarako ota bila.

1.091. Basoko lanetan (BRM-112/006)

Basoko lanetan aritutakoa da Emilio. Lan gogorra da hori, klimak ez baitu askorik laguntzen beti. Pinua zen nagusi, eukaliptoa gerora nagusitu da, arinago hazten baita.

1.092. Basoa aitzurragaz labratzen (BRM-112/010)

Txiki-txikitatik hasi zen baserriko lanetan. Basoak aitzurragaz labratu zituen 11 urte zituela etxekoak tifusak jota egon baitziren; harri asko zegoen eta ezin zen gandurik sartu.

1.093. Bizimodu gogorra; etxean 4 ume hil (BRM-112/011)

Umetatik egin du behar baserrian, asko eta gogora gainera. Indaba eta arto asko izaten zuten. Etxeko 4 ume, tartean hirukoitzak, umetan hil ziren.

1.094. Gose zirenei jeneroa eman behar (BRM-112/012)

Arto eta indaba asko zuten etxean. Saltzeaz gain, asko oparitzea egokitu zitzaien, gerraostean gosea baitzen nagusi. Bermeotik jende asko joaten zen bertara eskean. Gerraostea tristea izan zen. Arane inguruko basoetara jendea egur bila joaten zen Bermeoko kaleetatik.

1.095. Gerran, baserria utzi eta zoroetxera joan behar (BRM-112/014)

Gerra Zibilean, etxea utzi eta herri aldera joan ziren baserritik. Bermeoko ospitalean, zoroetxean, egon ziren eta bertan jaio zen bere anaia. Beste bi anaia osabarenera joan ziren Bakiora. Beraien aitak brusa zuria aldean zuela zaintzen zituen gaixoak; horrelako uniformeagaz ikusita errespetua izaten zieten gaixoek. Zortzi egunetara etxera bueltatu ahal izan ziren.

1.096. Etxea hutsik aurkitu zuten gerran etxera bueltatzerakoan (BRM-112/016)

Gerra Zibilean, zortzi egunez etxetik kanpo egon ostean, inguruak apurtuta eta etxea ganadu barik aurkitu zuten. Auzoko etxe batera joaten ziren jatorduetan. Kua

1.097. Ezin eho eta errotara gauez joan behar (BRM-112/018)

Gerra denboran errotak zarratu egin zituzten eta gauez joan behar izaten zuten ehotzera. Bakioraino joaten ziren bertako errotetara.

1.098. Gerraostean, baserriko jeneroa entregatu behar (BRM-112/019)

Garia, artoa, patata... herrian entregatu behar izaten zuten gerraostean. Baserritarrak ez ziren beste ezertara dedikatzen eta beti zuten entregatzeko beste jenero.

1.099. Arraina baserriko jeneroaren truke (BRM-112/023)

Kalera terrinkada-esne eraman eta terrinkada-arrain ekartzen zuten bueltan. Txitxarroak sikatu ostean erreta jaten zituzten freskotan barik. Ez zuten hozkailurik eta horrela kontserbatzen ziren. Txaparik ere ez zuten eta beheko suan egin behar izaten zuten dena.

1.100. Domeketa eta jaietako jatordu berezia (BRM-112/025)

Umetan ez zuten jatekorik botatzen faltan, ez baitzuten pentsatzen ezer hoberik egon zitekeenik. Jazintaren etxean sarritan jaten zuten txokolatea, Emiliorenean domeketan-edo bakarrik. Domeketako jatordua berezia izaten zen, oiloa-edo. Mañun Karmen egunez eta Bermeon Andra Mari egunez ere jatordu bereziak egiten zituzten. Postrea arroz-esnea eta putxa (gatzatua) izaten zen.

1.101. Putxa zelan egin (BRM-112/026)

Putxa (gatzatua) behiaren esneagaz egiten zuten. Putxa zelan egiten zuten azaltzen du.

1.102. Mañuko berbeta desberdina da (BRM-112/028)

Mañun eta Bermeoko beste auzoetan eta herrian bertan ez da hizkera berbera egiten.

1.103. Emilio Matxitxakoko eskolara (BRM-112/030)

Eskolan ikasi zuten erdara apur bat. Jazinta Mañuko eskolan ibili zen eta Emilio Matxitxakokoan. Matxitxakoko eskola urrun egon arren, bertara joaten ziren Emilioren etxekoak baso artetik eta euria egiten zuenean zakua buruan jarrita. San Pelaio auzokoak ere bertara edo Bakiora joaten ziren. Neskak eta mutilak batera egoten ziren maistra bakarragaz.

1.104. Mañuko eskola; Matxitxakoko eskolako eguerdiak (BRM-112/032)

Mañuko eskolan sarri aldatzen zituzten maisu-maistrak. Inguruetako umeak etortzen ziren bertora, 40 umetik gora. Matxitxakoko eskolan ibili zen Emilio eta bertan egiten zuten eguerdia denek batera.

1.105. Eskolako zigorrak (BRM-112/033)

Maistrak ez ziren denen gustukoak izaten, bakoitzaren jarreraren araberakoa. Eskuetan liburuak eutsiz edo erregela handi bategaz atzamar puntetan edo buruan jotzen zituzten zigor modura. Emiliok-eta maistrari adarra jotzen zien. Oraingo umeak baino formalagoak ziren, hezkuntza hobea jaso zuten-eta.

1.106. Eskolako olgetak eta bandera (BRM-112/034)

Eskola garaiko olgetak: erbi-erbike (erbiak atrapatzen) basorik baso... Goizetan eskolan Francoren bandera altxatu behar izaten zuten eskolan eta Cara al Sol abestu. Ez zuten ezelako jostailurik, baina txirritxolagaz aroa egiten zuten.

1.107. Abarkak eta galtzerdiak etxean egindakoak (BRM-112/036)

Erregenetan zapatak hutsik izan zituzten, nahiz eta pentsatu zer edo zer utziko zutela. Galtzerdi batzuekin konformatzen ziren. Galtzerdiak ere etxean egiten zituzten artileagaz. Jazintak haria eta galtzerdia zelan egiten den azaltzen du. Abarkak ere larruagaz egiten zituzten etxean, laban egitea erraza zen oinetako horiekin; hala ere, ez zuten pentsatzen hoberik egon ziteenik.

1.108. Abarka egiteko prozesua pausuz pausu (BRM-112/037)

Behia hilez gero, ermandadean aprobetxatzen zuten larrua sikatu ostean. Ez zen landu beharrik, lisu-lisu egoten zen-eta. Sikatu ostean, neurrira ebakitzen eta josten egiten zen. Puntxeta, abarka untzea (iltzea) zen, harekin amarratzen ziren zuloak uhalagaz. Abarketak normalean erosi egiten zituzten. Beranduago gomazko abarkak erabiltzen hasi ziren, larruzkoak baztertuz.

1.109. Etxe zaharren egitura: porlanik ez, beheko sua... (BRM-112/038)

Kortako lurra ez zen porlanezkoa izaten, dena egoten zen satsagaz (simaurra) estalita. Ezkaratzean ere (sukaldean) lurra baino ez zegoen. Beheko suan "lazkakoa"n lapikoa jarri eta han prestatzen zuten jatekoa.

1.110. Okela gatzetan gorde eta garbitasunak errekan (BRM-112/040)

Okela salmoatan jartzen zuten gazta botata uretan. Hozkailu barik horrela kontserbatzen zen. Txerria ere gatzetan gordetzen zuten. Urik ere ez zuten eta putzura joaten ziren arropak garbitzera. Erreketan bakoitzak bere losak izaten zituen.

1.111. Negu gogorrak (BRM-112/041)

Neguak oso gogorrak izaten ziren, elurte handiak ezagutu dituzte. Mañu auzotik Bermeora astoz joaten ziren esnea saltzen, eta metro bateko elurragaz astoa ezinean joaten zen.

1.112. Gari-txolekin argiztatu (BRM-112/042)

Argi barik karburua eta gari-txolak ziren nagusi. Gari-txolek metro beteko luzera izaten zuten, bat bukatu ostean beste bat isiotzen zuten; sarritan, gari-txolekin goizeko lehen mezara joaten ziren ilunetan.

1.113. Kurtsulua eta farola korta argiztatzeko (BRM-112/043)

Kortan argia egiteko, farola erabiltzen zuten su hartu ez zezan. Olioagaz pizten zen kurtsulua (kruselua, argiontzia) ere erabiltzen zuten.

1.114. Eskolara barik gurago beharrean aritu (BRM-113/002)

Ez zuen gogoko eskola eta laster utzi zion joateari, 13 urtegaz. Mañuko eskolara kilometro biko bidea zuen. Gurago zuen baserriko lanetan aritu eskolara joan baino. Gero 16 urtegaz hasi zen basoan beharrean; 7 ogerleko irabazten zituen egunean.

1.115. Hargin beharretan (BRM-113/004)

Hargin lanak gaztetan ikasi zituen. Hainbat etxetan egin du behar eginkizun desberdinetan. Gero, bazkide bategaz hasi zen beharrean eta sekula ez zitzaien beharrik falta izan. Auzoko etxe bat berak egin zuen eta 135.000 pezeta balio izan zuen.

1.116. Mañuko eskola eta meza jendez beteta (BRM-113/008)

Mañuko eskola eta eliza umez beteta egoten zen. Aste Santuan errepidea ere jendez beteta egoten zen, ez baitzen autorik ikusten.

1.117. Taxian ospitalera sugeal haginka egin ostean (BRM-113/010)

Karmen bigarren batean, suge batek besoan haginkatu zuen. Bermeora oinez eta handik taxian Bilbora joan ziren eta bost egun egin zituen ospitalean. Taxigidaria Adrian zen.

1.118. Eskolan erdaraz eta elizan euskaraz (BRM-113/013)

Dotrinako lezioak ikasi ezean, zigor gogorrak jartzen zizkien abadeak. Eskolan erdaraz egiten zuten eta elizan euskaraz. Soldadutzan ikasi ei zuen gero erdaraz.

1.119. Mañuko jaiak (BRM-113/015)

Mañuko jaietan, Karmenetan, jatordu berezia egiten zuten. Piztiren bat hiltzen zuten, oiloa edo untxia. Santa Luzia egunez Mungia aldeko familia gonbidatu etortzen zen. Eskotean ordaintzen zuten jaietako gastua.

1.120. Abadeak erromerian argia kendu (BRM-113/017)

Erromerian dantzan zeudela, iluntzerakoan abadeak argia kentzen zuen.

1.121. Olgetak (BRM-113/018)

Marroka, kuike, txapaka... joasten zuten. Horietako jolas batzuk azaltzen ditu. Errepide inguruan bizi zirenek zuten bizikleta, besteek ez.

1.122. Euskarari zigorra (BRM-113/019)

Beraien gurasoek garrantzia ematen zioten eskolari, beste guraso askok, ostera, ez. Luisek gurago zuen etxean gelditu beharrean. Gerraostean, zigortu egiten zituzten eskolan euskaraz eginez gero; hori dela-eta, erdaraz egin behar izaten zuten nahiz eta ez izan erraztasunik.

1.123. Goi mailako ikasketak fraideentzako (BRM-113/022)

Bere anaia zaharrenak batxilergoa ikasi zuen Arantzazun. Mañu auzoan goi mailako ikasketak egin zituzten bakarrak fraideak izan ziren, hori zen normalena.

1.124. Kaletarrak baserrietara eskean (BRM-113/025)

Bermeoko jendea, kaletarrak batik bat, baserrietara joaten zen eskean. Baserrian arraina ere jaten zuten noiz edo noiz.

1.125. Esnea etxerik etxe saltzen (BRM-113/026)

Esnea Bermeon saltzen zuten etxerik etxe, esneduna geroago hasi zen beharrean. Esne-terrina asto gainean garraiatzen zuten.

1.126. Anegako bost kilo errotariarentzat (BRM-113/027)

Artoa eta garia errotan ehotzen zuten. Bi errota zeuden: Goikoerrota eta Olazarerrota. Mungia eta Bermeoko muga hortxe dago. Ur gutxiko errotak ziren, eta askotan Bakiora joan behar izaten zuten.. Anega bat (50 kilo) artotik bost kilo hartzen zituen errotariak. Ganaduari ere irina ematen zitzaion pentsu moduan.

1.127. Esne-terrinan okela eta indaba ezkutatu (BRM-113/029)

Bere osaba bat estraperloan aritzen zen. Bilbora esnea saltzen zihoalakoan, esne-terrinetan okela edo indaba sartzen zuen.

1.128. Soldadutzan erretzeko papera estraperloan (BRM-113/031)

Soldadutzan marinan egon zen. Ceuta aldera joaten zirenean, erretzeko papera ekartzen zuten estraperloan eta dirua asko irabazten zuten Cadizko moilan.

1.129. Igerian jakin barik tiburoi artean (BRM-113/034)

Baserritar zein kaletar, edozein joaten zen itsasora. Igerian jakin ez arren, Dakarren (Senegal) tiburoi artean ibili zen.

1.130. Dakarren, atunetan (BRM-113/035)

Dakarren (Senegal), atunetan, kanabera erabiltzen zuten. Prozesua azaltzen du. Karnatarako sei tanke zituzten. Hozkailuetan 20 tona inguru sartzen ziren.

1.131. Zimarroietan (BRM-113/037)

Dakarretik (Senegal) lau egunetako bidea izaten zuten zimarroiak harrapatzeko lekura. Hilabete batzuetara bueltatzen ziren, antxoa kanpainagaz hasteko. Etxekoekin karta bidez komunikatzen ziren, ez baitzuten telefonorik.

1.132. Antxoatan (BRM-113/038)

Antxoatara ez ziren asago (urrutira) joaten. Sareak 200 braza inguru izaten zituen, 300 metrotik gora. Gaur egun, atuna hartzen da horrela. Ontzi bakoitzean 13 lagun egoten ziren. Portuko deskarga ere arrantzalearen eginkizuna zen. Bisigutan ez zen aritu.

1.133. 17 urtegaz aitagaz trintxerak egiten (BRM-115/001)

Eskolara kilimetro bat zuten eta oinez egiten zuten joan-etorria. Gerra Zibilak 3 urte iraun zituen eta nahiz eta gaztea izan, PNVkoekin eta eta aitagaz batera Asturiasera joan zen ihesi. Baina bertara heldu eta trintxerak egiten jarri zituzten. Asturiasen zeudela, 18 urtetik gorakoa kartzelara sartu eta besteak etxera bildali zituzten. Inoz gaixotu egin zen eta ospitalean egon zen. Etxera bueltatu eta handik gutxira Francok altxatu zituen bere belaunaldikoak.

1.134. 18 urterekin 6 urtetarako nazionalekin gerrara (BRM-115/002)

Gerratean aitagaz batera trintxerak egiten egon ostean, etxer bueltatu eta Francok bere belaunialdikoak altxatu zituen. Iruñean insturkzioa iaksi ostean Teruelera joan ziren. Gerra amaitu ostean Valentziara joan ziren eta handik etxera. Baina handik gutxira berriro ere Galiziara joan behar izan zuen artezilari lanetan aritzeko. Beste hiru urte edo egin zituen bertan, guztira 6 urte egin zituen soldadu. Gerora, etxera bueltatuta, basoan lan asko egindakoa da Inoz.

1.135. Asturiasera ihesi joan eta langile-batailoietan bukatu (BRM-115/005)

La Quinta del Biberón deitzen zioten Inozenzioren belaunaldikoei, gerra joan ziren gazteenak izan ziren-eta. Aurretik aitagaz batera etxeko ganaduak hartu eta Asturiasera joan ziren ebakuatuta PNVko jendeagaz. Baina helburua ez zuten bete langile-batailoetara eroan baitzutzen bera eta aita. Hasieran Somorrostrora joan ziren, baina lekurik ez zegoela-eta Asturiasera eraman zituzten ganaduak kendu ostean. Asturias harrapatu zutenean gazteak etxera bota zituzten; hala ere, Francok laster eroan zituen frontera gazteenak.

1.136. Erreal bi eguneko soldadu (BRM-115/007)

Nazionalekin gerrara joan behar izan zuen. Teruelen egon ziren hasieran. Valentzia eta Madrid izan ziren errenditzen lehenak eta Valentziara joan ziren. Etxean 10 egun egin ostean, berriro joan behar izan zuen. Guztira sei urtez egon ze soldadu, Gerratean bertan zortzi hilabetez egon zen, gainerakoan basoan eta kuartelean artiu zen. Gerratean bestela kobratzen zutenaren bikoitza jasotzen zuten. Etxera esku bete diruz bueltatu ei zen. Ez zuten goserik ezagutu.

1.137. Gerrako zikinkeria oraindik bistan (BRM-115/008)

Gerran ez zuen goserik ezagutu, baina gorputz guztia zorriz eta ardiz (arkakusoz) beteta izan zuten. Gerra bukatu ostean, bi egunez tratamendu bat jaso zuten erizain batzuek lagunduta. Oraindik ere orduko orbanak ditu.

1.138. Gerran behin arropak eransterakoan berriak jantzi (BRM-115/009)

Gerra Zibilean soldaduen arropak erabiltzen zituzten. Oinetakoak eta arropak luzaroan aldatu barik egoten ziren, eta eransterakoan berriak ematen zizkieten. Lo ere basoan bertan egiten zuten beste zeregin guztiak bezala.

1.139. Gerrak ikararik ez (BRM-115/012)

Gerra Zibilean, frontera eroan zuten nazionalek. Etxekoekin hartu-emana mantendu zuen gutun bidez. Ez zuen ikararik sentitu, gorputza gelditu egiten dela dio. Behin trintxeratik kanpo erasotu zieten, baina ez zitzaien ezer pasa. Aurrera egiten ikasi zuten. Gauero hiru orduko zaintza egin behar izaten zuten.

1.140. Gerran zorriz beteta (BRM-115/014)

Gerran frontean zeudela zorriak ziren nagusi, ardirik (arkakusorik) ez. Gauetan su ondora hurreratu eta hara egiten zuten salto, oraindik ere sasoi hartako markak ditu Inozek azalean. Hamabostean behin-edo aldatzen zituzten arropak. Beragaz joandako hainbat hil egin ziren. Bermeoko beste lagun bat zaurituta bueltatu zen.

1.141. Somorrostrora ganadu eta guzti (BRM-115/016)

Gerra Zibilean PNVkoekin joan ziren hasieran, gose asko izan zuten. Etxeko ganadua hartuta joan ziren. Bilbotik Somorrostrora joan ziren.

1.142. Frontean hiltzen zirenak (BRM-115/019)

Frontean baten bat hilez gero, ezaguna bazen etxean abisatzen zen, baina ez beti. Mañu auzoan ere badago sekula bere berririk izan ez zutenen bat.

1.143. Basoko beharra dena eskuz; autoa (BRM-115/023)

Basoko beharretan egin du lan Inozenziok. Bertan egiten zituen beharrak azaltzen ditu, hasieran dena egiten zuten eskuz eta indar asko behar zen. Autoa erabiltzen zuen lanerako eta lehenengo kotxeetarikoa berea zen.

1.144. Auzoko lehen autoa (BRM-115/024)

Basoko beharretako autoa erosi zuen, Mañuko lehenengoetarikoa. Lehenago motorra izan zuen. 600 izan ostean R8a izan zuen.

1.145. Baserriko lanak eskuz (BRM-115/028)

Baserriko beharrak eskuz egiten zituzten, eskuz maneiatzen ziren tresnekin. Laietan ere aritutakoa da Inoz.

1.146. Azpigarria eta gurdia (BRM-115/029)

Basoan ira ebaki, gurdia bete eta azpigarrirako erabiltzen zuten kortan. Gurdiak egurrezkoak izaten ziren.

1.147. Mañuko errotak (BRM-115/032)

Artoa labatik pasatu ostean errotara eroaten zuten ehotzera. Etxe ondo bi errota zituzten: Oiortako errota eta Olazerrota. Errotariak errotara eroaten zuen jeneroaren zati bat kentzen zion baserritarrari.

1.148. Irina zertarako? (BRM-115/033)

Arto-irinagaz ganaduarentzako pentsua eta etxean jateko taloa egiten zuten; gari-irinagaz, ostera, ogia. Indaba ere askotan jaten zuten. Irina "kaixa"n gordetzen zuten, zapaldu egiten zuten dena ondo sartzeko. Kaixa bakoitzak 6 edo 7 anegako edukiera zuen. Ganaduak arto asko jaten zuen.

1.149. Emakume/gizon beharrak (BRM-115/037)

Emakumeek denetariko lanak egiten zituzten, etxe barruan zein kanpoan; gizonek, ostera, gizonena baino ez. Esnea plazan saltzen zuten esne-saltzailea beharrean hasi aurretik.

1.150. Domeka goizaldera arte parrandan (BRM-115/039)

Gaztetan parranda asko egindakoa da. Domeka goizaldean erretiratzen ziren eta etxera heltzerakoan labean labako sua egiten zuten, ogia egiteko. Mañun farra egoten zen.

1.151. Inguruko erromeria guztietara (BRM-115/045)

San Juanetan Bakioko erromeriara joaten ziren. Basorik baso bueltatzen ziren etxera goizaldean. Erromeriara joateko ez zuten gaur egungo moduko arroparik janzten; baina, Bermeora joateko bai janzten ziren dotoreago. Larrauri, Mungia, Meñaka... aldera ere joaten ziren.

1.152. Soinulariari ordaindu dantzan egitearren (BRM-115/046)

Dantzan egitearren ordaindu egin behar izaten zioten gizonezkoek soinulariari; herri handietan, ostera, debalde zen.

1.153. Ezkondu arte jornala gurasoei (BRM-115/048)

Gaztetan ardoa edaten zuten. Ezkondu arte irabazitako jornal guztia gurasoari ematen zioten. Bere emaztea arreoa (logela bateko altzariak eta diru apur bat) ekarri zuen ezkontzerakoan.

1.154. Ur bidea eta andapara. (BRM-116/002)

Errotan jaio arren ez zuen berau martxan ezagutu. Etxe atzetik zetorren ur bidea eta handik betetzen zen andapara. Herrira urak eroaterakoan, sikatu zen eta ur barik ezin izan zuen lanean jarraitu.

1.155. Bi errota Agirre auzoan (BRM-116/004)

Errotatxuren ondoan beste errota bat zegoen, Errotabarri; biak batera zarratu zituztela uste da.

1.156. Aitona giputza, Alkizakoa (BRM-116/005)

Bere aitaren aldeko aitona Alkizatik (Gipuzkoa) etorritakoa zen; hori dela-eta, hari "aitona" deitzen zion eta bermeotarrari "aitxitxe". Lanera etorri zen bere anaiaren batera. Almikako Zuluetatxu baserrira ezkondu ziren. Ama, ostera, Errotxatxukoa bertakoa zuen.

1.157. Errota bizitzeko leku hezea (BRM-116/006)

Anaia bat umetan hil zitzaien. Errotan hezetasun asko zegoen, eta ez zen bizitzeko leku egokia; horregatik egin zuten gerora etxe berria.

1.158. Ama Mungiako eta Bermeoko plazara (BRM-116/009)

Bere ama Bermeoko plazara joaten zen terrina burua gainean eramanda. Astoz Mungiara ere joaten zen beste auzoko batzuekin batera gereziak saltzen.

1.159. Gerezi eta sagar motak (BRM-116/010)

Gerezi mota asko izaten zituzten: mando kerizak, kaballo kerizak, demiku keriza, Kintxel zuria, kintxel gorria... Sagarrak ere ugari zituzten: "gasazabala", "luposagarra" (sagardoa egiteko)... Sagardoa ere egiten zuten etxean.

1.160. Sagardoa egiteko prozesua (BRM-116/011)

Sagardoa egiten zuten etxean luposagarragaz. Prozesua azaltzen du pausuz pausu.

1.161. Hegazti askoren desagerpena (BRM-116/012)

Grabazioan bertan, etxeko etartean txori bat dago elaiaren kabian, baina ez da elaia, txori ezezagun bat da. Lehen ikus zitezkeen hainbat txori ez dira ikusten jada, asko aldatu da inguruko fauna. Miruek mesedea egiten dute, sugoia (sugea) eta kalte bakoak hartzen dituztelako. Erroiek, ostera, artoa jaten dute kalte handia sortuz.

1.162. Fauna asko aldatu da (BRM-116/015)

Lehen "basurde" edo "basotxarri" berba existitu ere ez zen egiten, espeziea bera ez zegoelako. Lukiak (azeriak) eta erbiak, ostera, beti egon dira. Orkatza ere espezie berritzat daukate.

1.163. Txoriek gariari eta artoari kalterik ez (BRM-116/016)

Lehen arto eta garitan txori asko ibiltzen zen inongo kalterik egin barik, nahi beste zuten-eta. Artatxoria, esate baterako, guztiz desagertu da zonalde honetan.

1.164. Klima aldaketa (BRM-116/018)

Klima aldaketa dela-eta, hainbat txorik beste zonalde batzuetarako bidea hartu dute. Klima ez da lehengoa: negua negua zen, udaberria udaberri... Neguan Bermeoko kaleetan autoarentzako kateekin ibili izan da. Elurra egiterakoan, goietatik eskegitako estalaktitekin ezpatak bailiran legez jolasten ziren.

1.165. Errekako eta putzuetako fauna (BRM-116/019)

Etxe ondoan arrankari asko egon izan dira beti. Jatekoak diren zapoak ere ugari ziren. San Antonio zapoak belar lekuetan egoten ziren eta kodainagaz errez harrapa zitezkeen. Sapaburuak ere desagertu dira.

1.166. Kirikolatzak eta sugeak (BRM-116/021)

Kirikolatzak sagarrak hartu eta palatura (itxitura batera) eramaten zuren bizkarrean. Beraiek ez zituzten jaten, baina jangarriak dira. Sugoiak (sugeak) ere ugariak ziren.

1.167. Erreka-sugeak (BRM-116/023)

Erreka-sugoiak (sugeak) ikusteko aukera dago inguruetan. Arriskutsuak dira eta neguan lo egoten dira. Behin kodainagaz bost batera hil zituen, plastiko azpian zeuden bostak.

1.168. Arto-irina olioagaz ebakitako hezurrarentzat (BRM-116/025)

Arto-irina olioagaz nahastuta jarri zuen atzamarreko hezurra ebaki zuenean. Dindilizka izan zuen eta horixe jarri zion amak aska baten barruan.

1.169. Aitonaren erremedioak (BRM-116/026)

Kolpeentzat ardoa azukreagaz nahastatuta ematen zuten. Aitaren aldeko aitonak amarrak egiten zituen besikula blokeatzen zenerako. Gripea zuenean, zotza sudurretik sartzen zuen sanen bat erementatu eta odola botatzeko. Bere ama ezkontzeko zegoela, lepoan asunekin jo zuen gripea osatzeko. Auzoko bati haurdun zegoela igarri zion aitonak emakumeak berak jakin aurretik.

1.170. 90 graduko alkohola 20 berakatz burugaz odola garbitzeko (BRM-116/030)

90 graduko alkohola 20 berakatz burugaz izan eta handik hilabete batera-edo barautan hartuta, odola garbitzen ei da. Edozein berakatz erabiliz gero, emaitza ez da berdina. Pare bat belar ere onak dira odola garbitzeko.

1.171. Sendabelarren garrantzia (BRM-116/032)

Inguruetako belarrek garrantzia asko dute sendabelar bezala. Bere aita horrela osatu zen gaixoaldi batetik. Jesusek fede asko du eta asko estimatzen ditu belarrok. Kipula ere ona da.

1.172. Txerto-jartzailea (BRM-116/033)

Inguruko auzo askotan, animalia zein pertsonei txertoak ematen aritutakoa da, baina inoiz ez sanetan. Bermeon ez zen praktikanterik egoten sasoi hartan, eta medikuek bazekiten horretan aritzen zela eta beraiek agindutakoa ematen zuen.

1.173. Gari-lanak auzolanean; gari-joten andrerik ez (BRM-116/034)

Auzolana nagusi zen baserritarren artean. Gari-lanen sasoian, jai handia antolatzen zuten. Oso gogorra zen. Andreak ez ziren gari-jotean aritzen, baina bai laietan.

1.174. Gari-lanak (BRM-116/035)

Gari-lanak pausuz pausu azaltzen ditu.

1.175. Gari-joteko makina (BRM-116/037)

Gari-lanetarako makinak eta motorrak ez ziren beraienak, kintaleko (50 kilo) kobratzen zien. Francoren denboretan, garia entregatu behar izaten zuten herrira.

1.176. Arto eta indaba beharrak (BRM-116/039)

Artoa behi parearen laguntzarekin ereiten zuten. Prozesua azaltzen du. Artoagaz batera ereindako indaba askoz hobea da, indabaren gerizpea dauka-eta. Gerraostean, indabak prezio ona zuen kanpoan ez zelako ekoizten.

1.177. Bertoko eta Argentinako artoa (BRM-116/040)

Bertoko arto autoktonoa galdu egin dela dio Jesusek. Bertoko artoak mami asko du. Bera baserritarren kooperatibako presidente izan zenean, Argentinatik ekartzen zuten artoa.

1.178. Baserritarren kooperatiba (BRM-116/042)

Bermeoko plazan denetarik saltzen zuten eta bezero asko zituzten. Baserritarren kooperatibako presidentea izan zen urte askoan Jesus. Kooperatibaz gain sindikatua ere egon zen. Bizkaiko kooperatiba garrantzitsuena izan zen, 300 baserritarretatik gora batzen baitziren bertan.

1.179. Ermandadea (BRM-117/001)

Ermandadeak ganaduaren aseguru bezala balio zuen. Kasu batzuetan etxearen asegurua ere bazen. Zerbait pasatuz gero, eskotean ordaintzen zuten ermandadeko kideek bestearen kaltea.

1.180. Artoaren atal denak aprobetxagarriak (BRM-117/002)

Artoaren atal guztiak aprobetxatzen dira: lastana, garafa, lastoa, burutsa...

1.181. Koltxoiak, edredoiak... etxean egindakoak (BRM-117/004)

Artoaren lastoa edo iraren orria erretzeko erabiltzen zuten gazteek. Garafarekin (arto-azala) koltxoiak egiten ziren eta oilo-lumekin edredoiak.

1.182. "Ai ene, oi ene, hagiñeko miñe medikuñe" (BRM-117/006)

"Ai ene, oi ene, hagiñeko miñe medikuñe" abesten zioten haginetako minari. Minentzako enplastuak-edo jartzen zituzten. Hagina jausterakoan, teilatu gainera botatzen zuten berria ateratzeko.

1.183. Fruta-arbolekin ilargiari kasu (BRM-117/010)

Bere aitona lorazain bezala lanean aritutako zen Bermeoko hainbat etxetan. Ilargiari kasu asko egiten zion arbolekin lanean aritzerakoan, urhiletan egin behar baita. Eztitzak egiten zituen, nahi duzun fruta txertatzeko. Ortuko lanetarako jada ez zaio kasurik egiten, gaur egun ez dagoelako arorik, udaberri ez da udaberria...

1.184. Gazun-askak eta arkak (BRM-117/012)

Umetako bizimodua zoriontsua zen. Baserrian ez zuten goserik, beti zuten zer jan-eta. Txerria gazun-askan gordetzen zen, gatzaren askan. Artoa, garia eta irina arkatan gordetzen zuten.

1.185. Irinaren kolorean igartzen da zein arto den (BRM-117/013)

Elkarrizketa egin zitzaionean oraindik ere, errotako irina jaten zuen Jesusek. Gernikan "arto-hezie" saltzen ei dute, labean sartu gabekoa eta ez da hain ona.

1.186. Bakioko errotetara ezkutuan (BRM-117/015)

Gerraostean, ez zuten uzten ehotzen, errotak prezintatu zituzten-eta. Bakioko Urgitxi eta Ureta errotetara joaten ziren gauez. Bidea ez jakin arren, astoak bazekien eta ez zegoen galbiderik.

1.187. Eskolara orduko "Noticiero bilbaíno" irakurtzen (BRM-117/016)

Eskolara joan orduko, egunero irakurtzen zuen egunkaria; hori dela-eta, irakurtzen jakin zuen. Garabillatarrenei esnea eramaten zien amak eta haien bitartez harpidetu ziren "Noticiero bilbaíno"ra.

1.188. Hermanoen ikastetxean zorrotzak ziren (BRM-117/017)

Anaia menesianoen ikastetxera joan zen. Asko gustatzen zitzaion eskola. Hermano Bitor gogoratzen du behin Seber Ormazarekin izan duen tirabira bat tarteko. Dena zen erdaraz. Gurasoei eskerrak mantendu da euskara.

1.189. Larrinagako presoen abestia (BRM-117/019)

Larrinagako presoek sortutako abesti bat abesten du gaztelaniaz. Esangura askoko abestia

1.190. Larrinagako kartzelako abestia (BRM-117/021)

Eusko gudariak abestiaren doinu berarekin Larrinagako kartzelako presoek egindako abestia abesten du. Gaztelaniaz da abestia, sasoi hartan ezin baitzen euskaraz abestu.

1.191. Aitaginarreba fusilatu eta amaginarreba preso auzoak salatuta (BRM-117/024)

Bere aitaginarreba Axpen (Busturia) fusilatu zituzten bost gizonetako bat izan zen. Etxera joan zitzaizkien bila Bermeoko batzokian agertzeko esanez; handik, Larrinagako kartzelara eraman zuten eta gehiago ez zuten bere berririk izan. Ostean, harean emaztea, Jesusen amaginarreba, preso hartu zuten Bilboko Orue txaletean. Hiru hilabeteren osten, handik irteteko abokatu baten laguntzaz diru asko ordaindu behar izan zuten. Auzoko bat izan zen salatu zituena.

1.192. Fusilatu aurreko agur eskutitza (BRM-117/026)

Aitaginarreba fusilatu eta amaginarreba preso hartu ostean, hiru etxebizitzako baserria erre zieten. Auzoko batzuei eskerrak egin zuten aurrera. Bere aitaginarrebak emazteari agur esateko gutuna idatzi zion eta horixe erakusten eta irakurtzen du Jesusek.

1.193. Sollubeko bataila etxean bertan (BRM-117/029)

Sollubeko bataila etxe ondoan izan zuten. Etxean bertan, soloan, soldadu italiar askoren gorpuak dituzte lurperatuta.

1.194. 17 baserri eta 37 gudari (BRM-117/030)

Etxeko soloetan soldadu italiarren hezurrak daude. Auzoan 17 baserri zeuden eta 37 gazte boluntario egon ziren gerran. Auzoan gutxi gelditu ziren eta beraiek egin behar izan zuten lan. Hildakoak lurperatutako lekuan artoa sendo ateratzen da.

1.195. Burezurrekin futbolean (BRM-117/031)

Auzoan esku-bonbak, gorpuzkiak... aurkitzea normala zen. Burezurrekin aritzen ziren futbolean olgetan.

1.196. Bi fronteren erdian etxea utzi behar (BRM-117/033)

Bi fronteren erdian egon ziren Sollubeko bataila ezagunean. Gizon batek etxea utzi behar zutela esan zien. Ganadua hartu eta burdian joan ziren Meñakara. Meñakabarrenan 19 egun egin zituzten. Beraien aurrean hil zen bertako 16 urteko mutikoa bala galdu batek jota.

1.197. Komentuko moja guztiak bortxatu (BRM-117/034)

Gerra Zibilean, 19 egunez etxetik kanpo egon ziren. Mairu asko egon ziren inguruetan. Meñakabarrenako komentuan egon ziren moja guztiak bortxatu zituzten mairuek, gainerakoak ere dardakadan zeuden.

1.198. Etxea bueltatuta dena hutsik (BRM-117/035)

Gerra Zibilean, 19 egunez etxetik kanpo egon ziren. Beraien etxeko kamaran, beraiek jakin barik Bermeoko Garabillatarrek ekarritako baliozko gauzak zeuden. Dena hustu zieten, lau hormak baino ez zituzten topatu; gaixorik

zegoen txerria salbatu zen. Beraiek eramandako ganadu guztiarekin bueltatu ziren.

1.199. Falangistak txapel gorri eta banderekin (BRM-117/043)

Fusilatu zuten bere aitaginarreba errepublikazalea zen. Bermeon falangistak egon izan dira. Franco Bermeora etorri zenean, horiek harrera beroa egin zioten txapel gorri eta bandera artean. Horietako asko gero abertzaleen artean ibiltzen ziren.

1.200. 17 urtez auzo-alkate eta anaia zinegotzi (BRM-117/044)

17 urtez Agirreko auzo-alkatea izan zen. Irudi hutsa zela dio, ez besterik. Bederatzi auzo-alkate daude Bermeon. Auzo-alkatearen betebeharra zein den azaltzen du. Bermeoko Udala beti egon da itsasora begira, zerbitzuei dagokienean. Bere anaia zinegotzi izan zenean auzoetan lan handia egin zuen.

1.201. Errepublikan hezkuntzan aldaketak (BRM-117/045)

Errepublika sasoian, fraideen ikastetxean maisuen kapak kendu eta gurutzeak kendu zituzten.

1.202. Errepublikako langileen abestia (BRM-117/047)

Errepublika sasoian, Solluberako bidean hainbat behargin aritu zen beharrean. Haiek abesten zuten abestia kantatzen du Jesusek pasarte honetan.

1.203. "Guardia de Asalto" Bilbotik Bermeora (BRM-118/002)

Gerra aurretik, Errepublika sasoian, Bilbotik edo, etortzen ziren"Guardia de Asalto"koak manifestazioak eta, egoten zirenean.

1.204. Pezeta eta Euskadiko dirua (BRM-118/003)

Errepublika sasoian pezeta egon zen indarrean, baina gero, Euskadiko dirua; baina gero ez zuen balio handirik izan.

1.205. Akuiluetako "gana" debekatu (BRM-118/006)

Primo de Riverak akuilu-eztena edo akuilu-gaina debekatu zuen.

1.206. Nazionalistak eta errepublikanoak liskarretan (BRM-118/007)

Errepublikanoen eta nazionalisten arteko borrokak egoten ziren hauteskundeetan. Karlistak ere bazeuden, bere aitxitxe, besteak beste.

1.207. Karlista izan zen aitxitxe (BRM-118/008)

Karlista izan zen aitxitxe, eta berak ez zuen ulertzen jarrera hori. Frontea Enkanterrian egon zenean, aitxitxek soldaduen arropa zikina etxean garbitu eta oinez eramaten zien hara.

1.208. Botoaren diruarekin behia (BRM-118/009)

Ordaindu egiten zuten botoa karlistek, 10 ogerleko eta. Diru horrekin erositako behiak zeuden baserrietan.

1.209. Forua baserrietan eta hirietan (BRM-118/010)

Foruak ezberdin arautzen ditu hiriak edo baserriak; herentzietan ikusten da hori.

1.210. Radio Pirenaica entzuteko poza (BRM-118/013)

Telefunken markako irratia izan zuten etxean. Han Radio Pirenaica entzuten zuten. Hura entzutea poza izaten zen, debekatutakoa entzuten baitzuten.

1.211. Basarriren entzulea (BRM-118/014)

Basarri entzuten zuren; "Nire bordatxotik" saioa. Donostiako probak zirela eta, gutuna idatzi zion, probetako Bermeoko irabazleari buruz ez zuelako ezer esaten.

1.212. Irratiz anaiaren itsasontziaren berri (BRM-118/015)

Nabigatzen zebilen anaia gaztearen berri jakiteko, irratiko "Pleamar" saioaren arduradunari idazten zion, anaiaren itsasontzia non zebilen esan zezatela eskatuz.

1.213. Burua zaindu beharra (BRM-118/016)

Aldizkari batean irakurtzen ditu memoriari buruzko artikuluak. Autoa non utzi duen gogoratzeko bere metodoa aurkitu du.

1.214. Gida-baimena erraz (BRM-118/017)

Erraz atera zuen gida-baimena.

1.215. Bermeoko umea Gipuzkoako Goierrira (BRM-118/018)

Aitonak, Alkizakoa, Bermeon bizi zela, semea bidali zuen izebengana Gipuzkoara denboraldi baterako. Negarrez joan zen, baina gero itzuli nahi ez.

1.216. Itxia, Alkizako euskara (BRM-118/019)

Itxia da Alkizako euskara, batez ere euren artean ari direnean. Bermeon, hasieran, ez zen erraza izan elkar ulertzea. Bilobek zerbait ikasi zuten aitona eta aitarengandik. Errazagoa da Donostiako hiriburukoekin euskaraz aritzea.

1.217. Senidean Villabonan (BRM-118/020)

Villabonan dituzte senideak: Astiazaran anaiak, trikitilariak.

1.218. Lehen jairik ez Agirre auzoan. (BRM-118/021)

Agirre auzoan ez zen jairik egoten. San Martin omen zegoen eta Arrietakoek lapurtu omen zuten. Orain Arrietan ospatzen da.

1.219. Inguruko auzoetara jaietan (BRM-118/023)

Inguruko auzoetara joaten ziren jaietara: San Migelera, Karmenera eta Almikara. Dantzan egiten zuten jaietan.

1.220. Dantzan eta kantuan grabaturik (BRM-118/025)

Antzinako erara jantzi eta Urdaibaiko dantzak grabatu zituzten anaiak eta biek. Bertsoak ere bai.

1.221. Etxeko guztiek zekiten dantzan (BRM-118/026)

Umetan ikasi zuen dantzan, etxean bertan; gurasoek eta familiako guztiek zekiten jota dantzan.

1.222. Abarketa berriak dantzarako (BRM-118/027)

Abarketa zaharrak soinean eta berriak lepoan zituztela joaten ziren oinez San Juanera. Berriak janzten zituzten dantzarako.

1.223. Txakur handia dantzan aritzeko (BRM-118/028)

Txakur handia ordaindu behar izaten zuen gizonekoak dantzan aritzeko. Ez zegoen tokian ere bilatzen zuten horretarako dirua.

1.224. Txinparta nobiotan hasteko (BRM-118/029)

Lupetegi baserrikoa zen aitaginarreba, baina Aspera ezkonduta. Hamasei urterekin ezagutu zuen emaztea Almikan eta orduko txinpartarekin jarraitu zuten nobiotan zortzi urtean.

1.225. Nora ezkondu? (BRM-118/030)

Ezkontzeko gogoa izan arren, kontua zen nora ezkondu . Aitak etxera bertara ezkontzeko baimena eman zuenean ezkondu ziren.

1.226. Ezkondu eta Bilboko jaietara (BRM-118/031)

Hiru bikote taxi batean joan ziren Aspeko elizara, eta han ezkondu ziren. Aurreko tabernan zerbait jan eta Bilboko jaietara joan ziren. Hiru egunen ostean itzuli ziren etxera.

1.227. 500 pezetakoa etxera (BRM-118/032)

Emaztearen familia diruak egindakoa zenez, 500 pezetakoa eraman zuen hark eztei-bidaiara; baina ez zuten gastatu. Gainera, Bermeoko jaietarako ere gorde beharra zegoen.

1.228. Ezkontza gauean lehenengo sexu-harremana (BRM-118/033)

Ezkondu aurretik ez zen sexu-harremanik izaten.

1.229. Birjinari errezatzen ezkontza-gauean (BRM-118/034)

Ipuina kontatzen du: ezkonberriak Eivissara joan ziren, eta andreak birjina zela aitortu zionean senarrari, hari otoitzean belauniko eman zuen gaua gizonak.

1.230. Elizaren indarra (BRM-118/035)

Elizak indar handia izan zuen, eta errespetua barik beldurra zieten apaizei. Gerran fusilatutako aitaginarrebaren aldeko mezarik ez zen eman Franco hil arte. Eta orduan ere poliziaz inguraturik egon zen plaza.

1.231. Frantziskotarrekin hobeto (BRM-118/036)

Santa Mariako apaizak frankistak zirenez, San Frantziskora joaten ziren. Harreman handia du Aita Adrian fraide frantziskotarrarekin.

1.232. Gabonetan "azoridxue" (BRM-118/037)

Orain "aberatsen orduan" bazkaltzen dute. Gabonetan azolioa jaten zuten: aza eta olioa.

1.233. Dultzez betetako gurpila Gabonetan (BRM-118/039)

Gabonetan, edo oilaskoa edo oiloa, baina beti jaten zuten bisigua eta turroia. Ilusiorik handiena egiten zien dultzez betetako egurrezko gurpil batek, gero hura jostailutzat erabiltzen baitzuten.

1.234. Erregeak apenas ospatzen ziren (BRM-118/040)

Erregeetan ez zuten gauza handirik egiten; pobrezia zen nagusi garai hartan.

1.235. Gabonetako ogi zati bat hurrengo urterako (BRM-118/041)

Parranda egiten zuten Gabonetan. Jaietan, etxeko labean egiten zen ogia. Gabonetako ohitura da ogiaren hasiera hurrengo urtera arte gordetzea; horri ez zaio gardenik egiten

1.236. Gardena eta biaoa (BRM-118/042)

"Gardena" da ogiari ateratzen zaion lizun berdea. "Bidxaue" esaten zaio siestari.

1.237. Portutik baserrira euskara aldatu (BRM-118/043)

Aldea dago Portuko eta inguruko auzoetako euskararen artean. Mañukoa, esate baterako oso euskara ezberdina da.

1.238. San Juanak jairik handiena (BRM-118/044)

San Juanak ziren ilusio handiena egiten zuten jaiak. Oinez San Juanera goizean goiz. Orbezarretan ("Olbizarretan"), egiten zuten dantzan

1.239. Gaztaina harroak (BRM-118/045)

Hiru gaztaina harro ezagutu ditu. Amaren garaietan, gurdikada gaztaina eramaten zuten jateko. Gaur egun Eneperin geratzen da gaztaina harroa bat.

1.240. Galdu egin dira fruta-arbolak (BRM-118/046)

Sagarrondo lodiak egoten ziren eta sagarra ugari. Uholdeetan, ibaiak eramandako sagarrez betetzen zen Bermeoko Artza. Fruta-arbola asko egoten zen.

1.241. San Juanetako ohiturak (BRM-118/047)

Beti egiten zuten sua San Juan bezperan. Egunean bertan, lizarra jartzen zuten atean lore batzuekin batera. Aitaren ohitura zen San Juan goizean, biluzik, baratzeko belar txarrak kentzea.

1.242. Gurutzeak jartzen zituen soroetan (BRM-118/048)

Etxean egin ereinotzarekin gurutzeak eta soro bakoitzean bat jartzen zuten soroa bedeinkatzeko. Antzinarago ur bedeinkatua soroetara botatzen ere ikusitakoa da.

1.243. Gaztetan gazteleraz kanta (BRM-118/049)

Kantatzea asko gustatzen zitzaion, baina Francoren garaian gaztelerazko kantak baino ez zituzten abesten. Geroago, semeak eta bilobek ikasi dituzte euskarazkoak.

1.244. Gaztaina harroaren ipuina (BRM-118/050)

Gaztaina harroaren ipuina: atso batek ehun duket izan zituen gaztaina harro batean. Haiek berreskuratzeko zer egin zuen atsoak kontatzen du ipuinak.

1.245. Bermeo, herri kantaria (BRM-118/051)

Irratian entzun zuen lehenengo aldiz "Xalbadorren heriotza" kantua eta ikasi ere bai. Beti kantatu izan da asko Bermeon.

1.246. Plastikoa, pozoia (BRM-118/052)

Japoniarrek asmatu zituzten negutegiak; kristalezkoak. Gaur eguneko plastikozkoak oso kaltegarriak omen dira. Hala esan zion plastiko fabrika bateko langile batek.

1.247. Kantuan autobusean (BRM-118/054)

Bermeo eta Gernika inguruko baserritarrekin joan zen lehenengo negutegiak ikustera, Irunera eta Ibarrara. Etxerakoan, autobuseko mikrofonotik kantuan aritu zen, eta baten batek zoriondu ere egin zuen.

1.248. Apaizak korurako nahi (BRM-118/055)

Abade batek korura kantatzera eraman nahi izan zuen, baina amak ez zion utzi, umeak etxean nahi zituen eta.

1.249. Ama Lurra (BRM-118/056)

Lurra eta gizakia bat gara. Jesusek ez luke aldatuko bere inguruko lurra ezergatik. Gizon boteredunak ere ez litzateke ezer izango lurrik gabe.

1.250. 'Anbrikis' (BRM-119/003)

'Anbrikis' abestia, musikaz lagundua.

1.251. 'Albako kanpaiak' (BRM-119/004)

'Albako kanpaiak' abestia, musikaz lagundua.

1.252. 'Eta krilie' (BRM-119/005)

'Eta krilie' abestia, musikaz lagundua.

1.253. 'Geure lagunek' (BRM-119/006)

'Geure lagunek' abestia, musikaz lagundua.

1.254. 'Bermeoko portuan' (BRM-119/007)

'Bermeoko portuan' abestia, musikaz lagundua.

1.255. 'Taraska' (BRM-119/008)

'Taraska' abestia, musikaz lagundua.

1.256. 'Fueroak kendu' (BRM-119/009)

'Fueroak kendu' abestia, musikaz lagundua.

1.257. 'Talan' (BRM-119/010)

'Talan' abestia, musikaz lagundua.

1.258. 'Jose Migelen batela' (BRM-119/011)

'Jose Migelen batela' abestia, musikaz lagundua.

1.259. 'San Juan kantak' (BRM-119/013)

'San Juan kantak' abestia, musikaz lagundua.

1.260. 'Amogillien kanta' (BRM-119/014)

'Amogillien kanta' abestia, musikaz lagundua.

1.261. 'Arrantzaliek' (BRM-119/015)

'Arrantzaliek' abestia, musikaz lagundua.

1.262. 'Olgetan' (BRM-119/016)

'Olgetan' abestia, musikaz lagundua.

1.263. 'Tragola' (BRM-119/017)

'Tragola' abestia, musikaz lagundua.

1.264. Eskolan ikasitakoak (BRM-120/007)

Eskolan josten eta solfeoa ikasi zituen. Dotrina ere ikasi zuen. Erdaraz txikitatik zekien. Amak erdararik ez zekien. Pasarte barregarria kontatzen du.

1.265. "Lau aeroplano pasata" kanta eta gertakizuna (BRM-120/010)

Arrantzaleak etortzen ziren bere senarrarengana. Txilibristori gertatutakoa kontatzen du, Izarora joan eta uretan ikusi zuten aireplanoa ekarri zuten herrira. "Lau aeroplano pasata" kanta abesten du.

1.266. Senarraren lanak (BRM-120/012)

Familian musikariak izan dira gizonezkoak. Josi izan dituzte bandakoen jantziak. Aste Santuko tunika guztiak senarrak josten zituen. Aguazilen jantziak ere egiten zituen.

1.267. Senarra umezurtz, sastre ofizioa ikasitakoa (BRM-120/013)

Senarra umezurtz geratu zen, bederatzi anai-arrebarekin batera. Erruki-etxean ikasi zuen ofizioa. Egurrola sastrearekin egon zen ofizial. Senarra gerrara joan zen errepublikarren bandoan baina frankistek harrapatu zuten eta soldadu izatera derrigortu.

1.268. Senarrak egiten zituen lanak (BRM-120/015)

Senarrak egiten zituen lanak: andreen trajeak, andreentzat prakak, gabardinak, gizonentzat trajeak, sotanak, manteoak... Ezkontideentzako trajeak egiten zituen.

1.269. Ezkondu eta Bilbora bidaian (BRM-120/016)

Beltzez jantzita ezkondu ziren senar-emazteak. Bilbora joan ziren bidaian. Besotik heltzera ere ez ziren ausartzen. Hotelean ezin izan zuen afaldu; hainbestekoa zuen lotsa. Zeukaten diruarekin hariak, botoiak... erosi zituzten.

1.270. Jostundegiko langileak eta lanak (BRM-120/019)

Jostundegian langileak izan zituzten. Mutilak ere izan zituzten, ofizialak. Zelako lanak egiten zituzten. Hil artean, bezeroak izan zituen.

1.271. Bermeoko euskara eta batua (BRM-120/023)

Bermeoko euskara eta batuaren arteko iritzia ematen du.

1.272. Amamari gertatutakoak (BRM-120/029)

Bere amamak hamabi urte zituela otzara bat eramanarazi zioten gerra karlistetan. Bilbora joaten zen amama, erdaraz ez jakin arren. Pasarte barregarria kontatzen du.

1.273. Bermeoko ezizenak (BRM-120/035)

Bermeoko ezizenak esaten ditu; asko arrainen izenak dira.

1.274. Bermeoko hizkera (BRM-120/037)

Bermeoko hizkera eta ingurukoak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-02

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com